


LA OBRA MAXIMA



*Afrontarã
su vida
y su destino*


REVISTA MISIONAL CARMELITANA
♦ AGOSTO-SEPTIEMBRE 1998 ♦ AÑO 77 N.º 891 y 892 ♦

Aita Beobide **Joan Bizente Zengotita-Bengoa**



3

AITA BEOBIDE



JOAN BIZENTE ZENGOTITA-BENGOA

APOSTOLU ETA MISIOLARI HANDI BATEN
BIZITZA ETA LANAK (1862-1943)

**JOAN BIZENTE
ZENGOTITA-BENGOA**

APOSTOLU ETA MISIOLARI HANDI BATEN
BIZITZA ETA LANAK

(1862-1943)

KARMEL LEKUKOAK

Zuzendariak: Julen Urkiza - Luis Baraiazarra

AITA BEOBIDE, OCD

**JOAN BIZENTE
ZENGOTITA-BENGOA**

**APOSTOLU ETA MISIOLARI HANDI BATEN
BIZITZA ETA LANAK
(1862-1943)**



KARMEL LEKUKOAK-3

© Ediciones El Carmen (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-086-X
Legezko Gordailua: SS-1070/98

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Gertu (Oñati)

**Markina - Xemein
1998**

AURKEZPENA

Gaur egun, gutxi izango dira, gure artean, Aita Joan Bizente Zengotita Bengoa nor zan dakienak. 50 urte luze igaro dira bera hil zanetik eta 50 urtean erraz galtzen da gizon baten arrastoa, nahiz eta gizon hau entzute handikoa izan.

Aldiaren urrunak ilunpean nabartzen ditu gizakiaren lorratzak. Bizitzako legea da. Baina lege honen aurka jokatu behar dogu guk. Gure herriak sortu dituan gizon bikain eta puntakoak, gure kondairan sartu diran gizandiak, beraien oroitzapena galdu bagarik, omendu eta goraldtu egin behar ditugu betierean. Ez dira zokondotan baztertzekoak, gure herriaren aintza, handitasun eta distira baititugu.

Holako gizandi asko emon ditu gure herriak. Eta beraien artean bat Aita Joan Bizente Zengotita Begoa dogu. Geure eginbehartzat hartu dogu gizon argi eta ospetsu honen izena dagoan ilunpetik argitara ateratzea.

Nor zan bera? Amaitzear dagoan mende honek emon dauan elizgizonik gorengoenetarikoa. San Frantzisko Xabierkoaren ondoan Euskal Herriko zeruan argi dagian izarra. Gure artean motelka ebulan misio-zaletasunari sugar barria emon eutsan misiolari adoretzu eta ausarta.

Berriz-en -Bizkaian- Zengotita baserrian jaio zan 1862ko uztailaren 19an eta Donostian hil 1943ko otsailaren 27an.

15 urte betetakoan, Zornotzan, Larreako Praile Karmeldarren nobiziaduan Ordenako abitua hartu, profesa egin eta filosofia eta teologiako ikasketak Burgos eta Markinan egiten ditu.

Markinan egon zan denboraldi laburrean, tarteka-marteka, hainbat hitzaldi egin zituan euskeraz. Berarizko dohaia eukan sermoigintzarako, bai euskeraz eta bai gazteleraz.

Sona handia eukan Burgos aldean ere, hango Karmeldarren nagusitza izan eban urteetan. Puntako elizgizona, zalantzarik bage. Sentimen handia hartu eban Burgostarrak behin Aita Joan Bizente, Burgos itzita, Indiara misiolari joiala jakin ebenean.

Barri hau jakitean, honako hau idatzi eban hango izparringi batek: Karmengo Priorea oso maitatua eta estimatua izan da gure uritarren artean, baita beharrezko eta premiazko ere bere baliotasun paregabeagaitik. Ordaindu ezinean aurkitzen gara harek gure herriaren alde egindako on guztiagaitik”.

1900eko abenduaren 7an, Bombay-ra heltzen da, bere misiolari-tzari hasiera emoteko. Berarekin hainbeste ames gozo egin dituan India maitea zapaldu dau gaur. Eder eta hunkigarri agiri jako Indiako mundu barri hori. Txunditurik dago Indiak eskeintzen dituan ikuspegi zoragarriekin.

Gaur geroz, Malabar-ko lurralde zabaletan, ildaxkak zabalduko ditu eta fede hazia oparo erein bertan hitzez, idatziz eta bihotzez.

India, ebanjelioaren eraginez eta argiz, kultur bidean aurreratua, herri barri eginik ikusi gura dau. Helburu hori gauzatzearren eten bako bideetatik dabil 17 urte luzean, nekari begiratu bagarik.

Bere kristauen begiramena eta oneritxia jaso zituan beti. Santutzat jo eban beretarrak.

Honela dio Varkey jaunak, kazetari indiarrek: “Harreman luzeak izan ditut Aita Joan Bizenterekin. Nire ustetan, abade santu bat izan da. Hemengo jendeak ere santutzat dauko; egunero otoitz dagioe. Haren bitartez, mirari batzuk egin dirala entzun dot; geroztik, egunero gomendatzen naiako, eta zoriontsu nintzake bera aldaretan ikusteaz”

17 urte daroaz Aita Joan Bizentek Indiako misioan. Bitartean, gerra hotsa zabaldu da munduan zehar. Mundu zaharra eta barria gerran dabilta. Eta gerraldi honek ondorio negargarriak dakarkioz misioari.

Misioak hartzen dauan diru-laguntza guztia, eta hau bagarik ezin bizi, Europatik dator, batez ere Belgikatik. Iturri hori zarratu danean

misioa heriotz zorian sartu da. Misioari laguntzeko modu barriak aurkitzen ez badira, heriopean jausiko da.

Baina non aurkitu bide barriok? Espainia gerratik aske dago eta Aita Joan Bizentek hemen jarri ditu bere begiak.

Misioa itzita, aberrira dator. Euskal Herri eta Espainia guztian zehar propaganda zabal bat egin ondoren, misio-aldizkari bat sortzea erabagi dau, misioei diruz laguntzeko: “*La Obra Máxima* Aldizkaria”.

Aldizkari honekin batera, beste medio batzuk ere jokoan jarriko ditu haren buru ameslariak.

Aita Joan Bizentek bialdutako diru-laguntzari esker salbatu zan Malabar aldeko misio-gintzako lana. Mirari honen aurrean, Vijayapuram-go Gotzain zan Aita Buenaventura Aranak, hau ere berriztarra, honela idatzi eban: “Urte luzeetan bera izan da *La Obra Máximaren* eraginez, gure misioen aingeru jagolea. Berari esker ditugu gaur hainbeste kristau Indiako barruti honetan. Berari esker, misioak oraindik bizirik jarrai dagi. Euskal Herri eta Espainiako herrialdeetan misio zaletasunaren suspertzaile erraldoia izan dogu gure Aita Joan Bizente. Bera da txapeldun; koroia ere berea dau”.

Hona hemen gure gizona; gure endak emon dauan gizandia; gure herriaren aintza eta goralmena. Hitz honeek jarriko neukez nik haren irudiaren oinetan: Gizona, kristaua, abadea, misiolaria, santua...

Ezagutu egizu gizon hau, geurea da eta. Baten baino gehiagotan, harrimenak mututuko zaitu.

BERRIZ

Berrizko herriburua, Bizkaian, Oiz mendiaren oinetan, troka luzanga baten sartuta dago. Durangotik harantz lau kilometrora.

Troka hau estua ta itxia dan lez, ez deustu begia urrutira luzatzeko egokitasunik emoten.

Gaur herriko behealdean lantegiz bete da. Industrializazio zabala egin da bertan azken urteotan. Lantegi honeen deira jende arrotz asko etorri da bertan bizitzera. Berriz, gaur egun, herri hazitxo da; aberats eta aurreratua. Izen handia lortu dau gizarte mailan.

Gaurko Berriz barri hau ez da Aita Joan Bizenteren egunetakoa. Aldiaren lege biziak sortzen dituan aldaketa geldiezinak egin dira hemen ere.

Erdialdetik zerbait gorantz igonez, edozein tokitatik begiratuaz, ikuspegi zoragarriak ditu Berriz aldeak. Begi aurrean ikusi zeinke, liluraturik, Anboto mendian hasi eta Aramotzeraino doan mendidi ikusgarria: Anboto, Untzilaitz, Sebigan, Mugarra, Aramotzeko gailurrak, Urkiolako Santutegia bitarteko dala.

Alderdi ederrago askorik ez dozu aurkituko mundu zabalean zehar, batez ere, goizeko eguzki argi-epela bere gainera zabaltzen danean.

Honela inostan behin Balentin Zubiaurre, gure margolari ospetsuak, bere liluramenean txunditurik, mutu-zinuekin, Garai gainetik harantz begira: "Munduko bazterrik ikusgarrienetakoa zala handik gure begipean sartzen zana".


Nahiko ziorik eukan gure Iparragirre handiak, aberriaren deira, urruntasunaren minak jota, abestu ebanean: "...baina bihotzak dio zoaz Euskal Herrira".

Handik ikusten diran haran eta ibarrak, barriz, solo, belardi, barazki, zugatz, abere eta baserriak jantzirik ikusiko dituzu.

Baserria gure sorlekua

Orain gutxi dala, baserriaren heriotza etorrelakoan gengoan, jendea, baserriak itxita, urietara jasten hasi zanean. Baserriak baino lantegi inguruak irabazgarriagoak zirala uste eben askok. Hortik, baserriak itxita, herrietara jasteko gurari eta grina hori.

Baina, gure agintari eta herri-gizonak zuhur eta jakintsuak dira eta, bertatik konturatu ziran hortik zetorkeen hondamendiaren arriskuaz.



Berriz, Joan Bizenteren jaioterria

Baserriak eta lantegiak biak dira onak eta beharrezkoak, baina baserriak kutunagoak, geureagoak ditugu, euskerari bizi-arnasea emoten deustoe eta.

Euskal Herria baserri bagarik ez litzake ezer, bere izate eta nortasuna galduko leukez eta. Baserrian dogu sorburua euskaldunok,

han gure kabia. Sutondoko berora sortu zan gure hizkuntza. Mahai batetik jaten eben aita-semeak eta ama-alabak. Guztien artean leporatu etxeko lan, zeregin, izerdi, neke-min eta itxaropenak. Gure arbasoen babespean eta ezpanetan bizi izan da, mendeak zehar, gure euskera zaharra.

Europako hizkuntzarik zaharrena dala dinoe jakintsuak. Antxinaren ilunpean galtzen dira gure herri eta hizkuntzaren aztarnak. Ekinahalak eginez saiatu dira jakintsu asko gure hizkuntzaren etorbua bilatzen, baina oraindik ez da inor ezkutu horretaraino heldu.

Zein herrik, nortzuk ekarri eben euskera gure artera? Nondik etorria da? Zein bide egin dau gureraino heltzeko? Inok ez daki. Irizpide eta susmo asko dabiltzaz jokoan, baina ezerezi ziurtasun bagakoak. Ez dago oinarri sendorik.

Ilunpe honen araura, euskera geure arbasoak asmau, sortu ta eginiko hizkuntza dala autortu beharko dogu. Geurean jaiio eta handi egin dala; gure herriaren ikurrik bereizgarriena, ezaugarriena dala ontzat hartu beharko dogu.

Baserria hiltzorian sartzeko arriskuan egoala esan dogun arren arrisku hori, gaurkoz behintzat joanik dagoala esan leiteke.

Gure baserriak dotore-dotore barrizatuta ikusten ditugu gaur egun. Ez dauke etxe onenaren zorrik. Txukun-txukun jantzi dabez gure baserriarrak. Errepideak egin dira auzune eta etxe guztietara; kotxe bat edo gehiago dagoz etxe bakoitzean, aukera eta egokitasun guztiak aurrez daukez gustura bizitzeko. Aurrerapenaren erpinean sartuta dagoz.

Solo eta lanetarako, barriz, gaurko industriak plazaratu dituan tresnarik aurreratu eta garestienak darabilez. Gaurkotasunaren marran goiak jota dagoz. Baserri ikusgarriak ditugu edozein tokitan. Baserria luzarorako salbatu da.

Baserri batek gure bihotz barnean sortzen dauan liluramena ez da erraz azaltzekoa. Gu jaiio ginan habia da; harriz eta zurez eginiko etxe apala; mahats mordak hormetatik behera; igali zugatzez beterik bere barrendegiak; etxe abereak muinoetan; sagardoa egiteko sagastia; erlauntzak ezitia ateratzeko; gure bake eta zorionaren sorlekuak.

Herriko eliza nagusia, XII. mendean egin eta 1550an berreraikia, harri landuz jantzia, Joan Ebanjelariaren zaindaritzapean dago. 15 baseliza edo ermita ditu Berrizek, bere auzune eta hegaletan sakabanaturik, esaterako, Joan Bateatzailearena Zengotita ganean.



Berrizko parrokia

Baina, danen artean, lehenengotasuna Andikonako Andra Mariaren elizaxto txukun eta politak daroa. Berriztarren bihotzean dago Andikonako Ama Birjina eta Amak, goi haretatik, pozez bedeinkatzen ditu bere maitale eta herritarrak.

Merzedeko mojak ere han dauke euren antxinako komentua - 1550- gaur barriztaurik eta misio-etxe bihurturik dagoana.

Hona hemen Berrizko herriari egin deutsagun argazki txiki eta azaleko hau.



Andikonako Andre Maria

ZENGOTITAKO BASERRIA

Holako baserri baten jaio zan Berrizko semerik jator eta entzute-suena, Aita Joan Bizente Zengotita Bengoa Lasuen, 1862ko uztailaren 19an, gero praile karmeldar txit argi ta goratua izango zana. Zengotitako baserrian.

Berriz-ek, aldi haretan, 200en bat etxe izango zituan, sei auzunetan sakabanaturik; guztira, 1.540 bat biztanle.



Joan Bizenteren etxea

Aita Joan Bizenteren gurasoak ere berriztarrak ziran. Haren aita Frantzisko, birritan ezkondu zan. Lehenengo ezkontza Maria Jesus Gangoitirekin egin eban.


Maria Jesus Bizkaiko Larreabetzun jaioa, etxe oneko alaba zan, baina osasun gutxikoa. 27 urtekin ezkondu zan Frantzisko Zengotita jaunarekin eta 47 urte zituala, hogeitau urte luzean gaixorik egon ondo-

ren, hil zan. Ezkontzan izandako ume bakarra jaiokeran hil jaken, beraz, seme bagarik geratu ziran, zoritxarrez.

Maria Jesus Gangoiti hil eta laster, handik bi hilabetera, Frantziskok bigarren ezkontza egin eban Dominika Petra Lasuenekin, 1859ko zemendiaren 8an, 48 urte zituala.

Berriztarra zan Dominika Petra, etxe apaleko alaba, baina onoi-menez eta zentzunez guztiz aberats eta ederra. Biak ziran kristau zintzoak, Jaungoikozaleak, ohitura zaharretan sustraitutako ezkonbarriak.

Ezkontza honetatik zortzi seme-alaba jaio ziran, zortzi udabarri eta zortzi lore ziranak.



Zengotita-Bengoaren armarria

Lehenengoa, Joan Santos izan zan. 1860ko zemendiaren 10ean jaio zan, baina lau urteko umetxoa zala hil zan.

2.a, Joan Bizente, 1862ko uztailaren 19an jaioa. Jaio zan egun berean bateatu eben, Berrizko parrokan, Joan Bizente Frantzisko Maria izenakin. On Jose Maria Basterra, parroko jauna, izan zan bateatzailea.

3.a, Ana Josefa Deogracias. Etxean Deogracias deitzen eutsen. Neska zentzun handikoa eta guztiz Jaungoikozalea. Merzedeko mojetxean hazia izan arren, hogeit urtekin karmelita egin zan Medina del Campo-ko karmeletxean. Azken aldian esango dogun lez, balio handiko zutoina izan zan Teresa deunaren alaben etxean.

4.a, Sixto Joan Manuel, abadetza hartzeko egoala, 21 urtekin hil zan.

5.a, Joan Pedro eta, seigarrena, Santos Joan Zakarias. Hau 21 hilabete betetzean hil zan. Santos Joan Zakarias hil zanean Frantzisko haren aita, karlisten gerra zala eta, Frantziara ihes eginda egoan. Handik idatzi eutsan gutun bat bere emazte Dominikari bere doluminaren agergarri dana: “Ez dot ikusi ez jaioten ez hiltzen gure semetxo Santos. Barruan daroat pena honen eroan ezina. Eroapenez eta borondate onez eroan beharko dogu Jaunak bideratzen deuskuna”.

Hurrengo, Joan Primo Feliciano jaio zan eta, azkenez, Maria Kruz. Maria Kruz urte bi zituala hil zan.

Kristau onari dagokion lez, Aita Joan Bizentek beti izan eutsan berarizko maitegarritasun bat harri landu ederrez egindako Berrizko eliza nagusiari, batez ere, bera bateatua izan zan ur-bedeinkatu ontziari.

Berriz aldera hurbiltzen zanean, bere eliza maiteari ikustalditxo bat egin bagarik ez zan inoiz joango, batez ere, bera kristau egin eben ur-bedeinkatu ontziari, esker onez, mosu bizi bat emon bagarik. “Hementxe kristau egin ninduen ni”, esaten eban bihotz dardaraz.

Lehenengo haurtzaroa amaren altzoan emon ondoren, beste edozein umetxo lez, baserriko giro gozoan hazi zan. Gero eskolarako sasoia heldutakoan, beste eskola lagunekin, irakasle ona zan On Sebastian Gabiola maisu zaharraren eskolara ibili zan. Han ikasi zituan lehenengo hasi-masiak. Oste ona itzi eban eskolan Joan Bizente mutikoak. Txiki- txikitatik ekarri eban ikasteko sena, gerora arnasa lez izango jakon grina bizi hori.

Kristautasuna goiburu

Orduko euskaldunak gehientsuenak behintzat, goitik beherako kristauak ziran. Jaungoikozale jatorrak. Erljioa beti lehenengo tokian jarten ebenak. Kristautasunaren giroak kutsututa eukazan gure kristauen buru eta bihotzak.

Honen argibide jator bat, gure herriak, urteak zehar, aldara, komentu eta misiolaritzarako emon dituan hainbeste gazterengan daukagu. Honetan aurrenengoen artean egon gara oraintsurarte behintzat.

Etxe bakoitzean erreten zan kristau ogia eta ogi honen janari eta indarrera egin eben gure asaba zaharrak euren bizitzako ibilaldi luzea.

Elizako agindu eta eskakizunak sagaratuak balira lez hartzen ziran. Elizaren kerizpean pilatzen zan herria, batez ere igande eta jaietan. Han entzun eta ikasitakotik moldatzen zan gero asteroko bizitza guztia. Sendi osoa sartzen zan joko honetan. Argiaz ere ez zan aurkituko otoitzik egiten ez zan etxerik.



Joan Bizenteren Bateo-harria

Honen harira dator, esker erakutsia lez, gure Aita Joan Bizentek hainbestetan, begi-kinua negar-lainoz lausoturik, esaten ebana: “Esker onez nagokio Jaungoikoari guraso hain onak emon eustazalako”.

Gurasoak zelakoak sendia halakoa, esaten da. Gurasoak zugatz onaren irudi diranean, zugatz horren adarretan nekez agertuko da sagar ale ustelik.

Honen argibide, Joan Bizente mutikoak, bere laguntxoan aurrean, zugatz adar gainetik esaten zituan burubideak ditugu: “Ni, egunen baten, misiolari izango naz”.

Zengotitarren orduko etxea Merzedeko Mojen komentuaren ondo- ondoan egoan. Han ikusten dogu Joan Bizente mutikoa mezak eraso eta sakristau txikiaren lanak egiten. Jaungoikozaletasunean grinatuteko giro bikaina aurkitu eban beretarren artean.

Mojatxoak harritura egozan mutikoaren zentzun eta prestutasunarekin. Honela dirautso karta baten Dominikak urrundik ebulan bere senarrari: “Mojatxoak deitu dabe gure Joan Bizentekin oso pozik dagozala esanez. 24 urteko gizontxo baten antzera portatzen dala dinoe”.

Kristautasuna hotzez hiltzen

Gaur galdutzat jo behar dogu oraintsurarte geure begiz ikusi izan dogun erlijio giro eder hau. Gure kristautasuna, pitinka-pitinka, egunetik egunera, beherantzako bidean sartuta doa. Arrotz egin jaku geure-geurea genduan altxorrik ederrena.

Orain hogeita hamar bat urte sartu zan gurera laino baltz hau. Laster baten estali zituan bazter guztiak. Ez dakigu ondo nondik eta zelan sartu zanik.

Arrazoibide edo antzeko asko aurkituko gendukez batipat hondamendi honen hasieran. Hor dagoz, esaterako, politika-arazoak. Aspaldidanik, gerra giroan bizi da gure herria. Alderdi handi batek erlijioa gure gaitz guztien iturri lez izendatzen dau. Honen erruz heldu ei da euskalduna geldo eta tentel izatera bere ta beretarrak aldezteko ordua izan danean.

Honeentzako gogorkeria da bide bakarra herriari ezarritako lotura, kate eta irainak apurtu eta suntsitzeko; herria askatzeko. Hortik, iraultzak, indarkeriak, gorrotoak, matxinada eta heriotzak bideratu ditue erlijiotasunaren ordez.

Itxura dan lez, gizon eta emakume honeek ez dabe erlijioaren beharrik. Askotxo dira beraien bizitza Jaungoiko bagarik daroenak.

Urte gutxitan, sakon-sakonetik aldatu da gure arteko erlijio-giroa. Munduak sozial eta kultur sailean egin dituan aldakuntza zabal eta sakonak erlijioari gibel-gibelean ikutu deutse eta honen eragine-
ra federik ezak jotako mundu bat agertu da gaurko gizartean.

Gure kultura, pentsaera, asmobideak, usteak, portaerak eta bizi-moldeak gaixo honek jota datorkiguz. Euskal Herria ere zulo hone-
tara jausita agiri jaku.

Ehunetik hogeit bat dira igande eta jaietan elizaldera hurreratzen diranak. Jator jarraitzen deutsoe oraindik fede-bideari. Honeingan dogu jarrita geure itxaropen apurra. Besteengan fede-txinparta hori hauts artean itzaltzeko zorian ikusten dogu.

Sendietan Jaungoiko izenik ez da entzuten; otoi-tza ixildu egin da; ebanjelioa baztertu; ez da Jaungoikoaren Hitzak entzuten; elizak hutsik dagoz...

Barruko larritasun bagarik itzi dogu baztertuta geure erlijio-gintza. Fede-eguzkia estali da gure herriaren gainean.

Eskatu deiogun Jaungoikoari Aita Joan Bizente lakoxe gizon santu asko bidali dagizala gure artera. Profeta handi batzuen behar-
rean gagoz, gure kristau fede hau gure herrian betiko hil ez dadin.

Frantziskoren bigarren ezkontzatik zortzi seme-alaba jaio zirala dakigu. Neska bi eta sei mutil.

Aitaren gurariz, mutilezko guztiak "Joan" izena daroe, eguneko santuaren izenarekin batera. Zergaitik hau? -Ba, Joan Bateatzailearen omenez.

Joan Bateatzailea, Zengotita gainean daukan ermitatik, auzuneko zaindaria balitz lez omentzen dabe zengotitarrak. Honen oroigarritz, nahi eban aitak bere semeak Joan izena eroatea.

Gurasoak zelakoak?

Zelakoak ziran Aita Joan Bizenteren gurasoak? Ze bizi-giro aurkitu eben etxean Zengotitako zortzi seme-alabak? Beharrezko dogu hau jakitea.

Irudigilearen antzera, euren eskuz lantzen dabez gurasoak seme-alaben gogo eta bihotzak. Gure geroaren sustraiak gurasoen ereintzatik datoz. Beraien izaera eta nortasunaren ikutu eta landuketak gure barruan josirik agertuko dira gure geroaren etorrian. Gurasoen antz-irudiko egiten gaitu etxeko habiak.

Frantzisko, aita, soinez gizon ondo egina, errimea, sendoa dogu; kristau bezala bene-benetakoa; goitik beherako kristaua. Arteza ta zorrotza edozein txarkeriaren aurrean, baina bihozbera, biguna, alaia, samurra eta errukitsua.

Etxe oneko semea zan, jaun zintzo eta prestua, nahiko aberatsa bai etxe, solo, baso eta inguruz, baina, azkenean, zorrez jota gelditu zan, amaibako gerra baten erruz.

Dominika Petra, Joan Bizenteren ama, jatorriz baserri apalekoa zan arren, zentzunez, ontasunez, zuhurtasunez eta onoimenez goi-mailako emakume azkarra dogu. Onoimen honeen urratsak itzi zituan bere bizitzaldi guztian.

Senarra gerraburuan ibili zan urte luzeetan, zortzi seme-alaba eta etxaldea aurrera ateratzeko, Dominika, nahitaez, emakume kemen-tsua izan behar. Hemen ez dago zalantzarik.

Egia da, orraitio, honetan bere neba zan Manuel Lasuen jaunaren laguntza izan ebal. Manuel jauna, bere ama hil zanean, bakarrik eta ezkongeratu zan eta, bakarrik egoan lez, Dominika bere arrebaren etxera etorri zan bizitzera. Eta hau laguntza handikoa izan jakon Dominika haren arrebari.

Eskekoen ongile

Senar-emazte biak, bata nahiz bestea, bihozbera eta eskuzabal agiri jakuz, batez ere eskeko eta behartsuekin. Eskekoen bat ateetara

heltzen zanean eta, gaba edo negu hotza izan, etxeko bat lez hartu eta ezkatzeraino eroango eben.

Gero, sutondoko berora, danen artean eguneroko errosario santua esan, mahaian egoana zatitu eta etxera etorritako eskekoari toki bero eta egoki bat gertauko jakon gaba gozoa igaro egian.

Ez da bape harritzekoa Aita Joan Bizentek gurasoakandik hartutako hainbeste egite eta irakatsi eredugarri gogoratzean holako hitzak eta begiramena sentitzea bihotzean bere gurasoentzat. Han Indiako urrinean gurasoen argazkiak begiratzean, negarrak begiak gozoz ilundurik, esaten ei eban: "Nire gurasoak bai zirala onak! Beraiei zor deutseet gaur ni karmeldar erlijioso izatea".

Gerraldia. Koronela

Baina laster, negar-herri honetan sarri jazotzen dan lez, etxeko bake, poz eta zorion guzti hori zoritxarpean hausita jausiko zan.

Ustekabean, barriro ere, gerra-hotsa Euskal Herrian, 1870eko abuztua zan Karlisten gerraldia ostera hasi zanean.

Frantzisko, aitak, gerran ibiltea zer dan badaki. Lehenago ere bost urte luze -1836-1841- gerraburuan emon ditu. Karliten hiru gerratan parte hartutakoa zan. Gainera, gerrari ausarta eta adoretua zala badakigu. Behintzat, paparra gerraburuan irabazitako izar, orratz eta dominez beterik eroian. Koronel izateraino heldu zan karlisten gudarostean.

Zerk eroian gizon hau gerraburura bere emazte ta seme-alaba txikiak etxean itzita? Nondik etorkion gerrarako eukan sugar bizi hori? Zer dala-eta jokabide hori? Borrokalari grinatsu baten antza emoten dau gizon honek.

Baina, jokabide eta portaera hau ondo ulertzeko, Frantzisko ze siniskera ta moldetako gizona zan jakin behar dogu aurretik.

Erljioa zan beretzat, beste gauza guztien gaintik, lehenengo balorea, goiburua. Kristau batek erlijioa bere zainpean hartu behar dau eta inoiz arriskuan aurkitzea balitz gizakien erruz, norbere odolez babestu beharra dauka kristauak. Eritxi honetako gizona zan gure Frantzisko.

Eta karlisten gerrako ikurrinean lehenengo lerroan, ikuspegian, erlijioaren babespena agertzen zan.

Benetan sinistuta egoan gerra hori erlijioaren alde egiten zala; erlijioa etsaiakandik zaintzeko. Gaur, ez genduke onartuko arrazoi-bide hau. Baina, aldi-an-aldiango haizeekin jokatu behar da; aldiango hazi-orraziari men egin behar.

Bigarren arrazoibidea: Frantzisko euskaldun sentitzen zan, herria eban maite. Eta gure herriaren bizi-arnasa ta odola Lege Zaharrean, hau da, herriak, mendeak zehar, berak egin eta bizirik zaindu dituan lege, usario, eta ekanduetan egoala ekian. Eta herriaren bizkarra ta zutoina zan Lege Zahar hori defenditzearren hartu eban gerrarako bidea.

Euren oker eta guzti, gizon honek miresgarriak ditugu. Beraiei esker zaindu zan gure artean gaurko abertzaletasunaren hazia.

Bizkaian eta Gipuzkoan izaten ziran, batez beste, gerrako eraso-aldi eta borroka honek.. Gogor borrokatu arren, gehienetan, garaitza etsaien aldera joaten zan, gizonez anitzagoak eta armaz aberatsagoak, hornituagoak izaten baitziran.

Galdutako borrokaldiaren ostean, barriz, sator-zulorik sator-zulo, ilunperik ilunpe, etxe eta mendietatik zehar ibili behar, etsaiak atzetik bialdutako txakur pilari ihes eta iruzur egin beharko bazan. Mugaz handiko aldean dagoan Ziburu ere horrelantxe ezagutu ahal izan eban. Hainbat aldiz zapaldu behar izan eban muga hori gure Frantziskok.

Ezkutuan ostenduta

Jazarpen honen arriskuari gainez egiteko, oso gutxitan agertzen zan bere etxealdetik Zengotitako jauna. Gehienetan, Markina aldean ezkututzen zan. Han zituan, antza, bere gordelekurik ziurrenak, seguruak.

Gaur hemen eta bihar han, gau txori eginik, adarrik adar eta bazterrik bazter. Zenbatetan egin ete eban lo izarpean, lur hezoaren gainean! Durango aldeko karlisten buruzagia zan lez, Frantzisko Koronela, bere inguruan ebiltzan etsaien begipean egoan beti.

Joan Bizente zortzi urteko mutikoa zan gerraldi hau hasi zanean. Gainera, etxeko semerik zaharrena ere bai, bere aurretik jaiotako anaia, Joan Santos, lau urtekin hil zalako. Gerraren erruz, alkarrengandik urrundurik bizi behar! Hau zan sendiarentzat martiriorik handiena.

Dominikaren umetxoak umezurtz ikusten ziran; sendiko poza ta gidaria zan aitatxo etxetik urrun, gerraburuan, arrisku artean, edozein ordutan ezbehar batek jota hilteko zorian...

Aitatxoren mosu gozoak ezin hartu; bere arpegi ta begi ederrak ezin ikusi; bere begi ninira ezin begiratu; bere bihotz ondoan burua ezin gorde; bere altzo beroan lorik ezin egin; aitatxoren berbalotsa mututurik; baserria gau eta egun ilunetan, etxeko eguzkia gerrako ekaitzaldiak itzalita eukalako.

Dominika amak ere, hamaikatxo negar samin isuriko zituan, ixilean, inok ikusi ez egian, senarraren gomutaz eta sendiaren egoera larria ikustean.

Frantziskok ere zauri gordin hau eroian bihotz barruan minez josita: sendiarekin egon nahi eta ezinarekin aurkitu. Neke honen minak kezkatuta, besterik ezean, karta bidez egin zituan sendiarekin harremanak izateko zubiak. Ezkutauta egoan tokitik, ahal eban guztietan, kartak idazten zituan etxera, bera bagarik itun eta saminez egozan emazte eta semetxoentzat. Frantzisko, zelan edo halan, kartak sarri bialtzeko baliatzen zan. Eta Dominikak ere labur eta zoli erantzun, erderakada batzuekin marka onduz.

Gorputzez urrun egon arren, gogoz eta bihotzez hurbil. Maitasuna borborrean ebulan karta artean. Ha maitasuna! Ha urrundurik egon beharrak dakarren mina! Ha alkar besarkatzeko irriki eta gurari bizia! Gizatasun handiko pertsonak bakarrik heltzen dira hola-ko markara!

Artekari txikia

Eta arteko gure Joan Bizente gaztea dabil. Aitaren bitartekoekin bat eginik, bera izango da, ezkuturik handianean, kartak eroan eta ekarriko dituana, etsaien hasarreari iruzur eginik.


Zeregin hau burutzeko sarritan Markinako herriraino heltzen zan. Gazte azkarra hainbaten honako arazo arriskugarriak bere gain hartzeko.

Markinan, praile karmeldarrak komentu eder bat daukee eta eliza ederrago bat Karmengo Amari eskeinia. Garai haretan praile gaztez beterik egoten zan komentu hori.

Markina inguruko herrialdeetan oso ezagunak ziran eta aipatuak praile horreek, herriz herri hizlari ibiltzen baitziran. Geroago ikusiko dogun lez, predikalari sonatuak ziran Markinako praile batzuk.

Karmengo elizan

Joan Bizente gazteak beti hartzen eban astialditxo bat, Markinara hurbiltzen zanetan, Karmengo elizara sartu-urten bat egiteko.



Markinako Karmengo eliza eta komentua

Atsegin jakon Karmengo Amari zeorzetxo ixilean esatea, batez ere, zapatuetan. Zapatu guztietan, praile karmeldarrak, gozoro eta maitekor, Ama Birjinari "Agur Erregina" latinez abesten deutsoe, kapa zuriz jantzita, kandela biztua eskuetan dala, aldara aurrean zerrenda bi eginez. Benetan liluragarria da abesti hori. Kili-kili samurrez sartzen da bihotzera kantu zoragarri hori.

Eta gauzak zelan diran! Ama Birjinari "SALBEA" kantatzean etorri jakon Joan Bizente gazteari karmeldar izateko gogoa, deia, bokazioa: "Neuk ere praile horreen antzeko izan nahi neuke", dino bere baitan.

Etxera heldu danekoxe, amak ea Karmenen egon dan itanduten deutso eta Joan Bizentek baietz erantzun. Eta amagana hurreratu eta ixilikako barri bat belarrira esaten dan lez, Markinako Karmengo Amaren oinetan hartu dauan asmoa, erabagia, lotsaz eta dardaraz, amari iragarten deutso. Berak ere Karmeldar izan nahi dauala! 13 urte ditu.

Amari begiak negar-malkoz bete jakoz. Holako zerbait itxaroten egoan bere semeagandik, amak semearen barruondoa zelakoa zan ondo igarrita eukalako.

Bere bihotz ondoan besarkatu eta laztanka-lasztanka semotxoari berba eginez, bere aldetik baietz osoa pozarren emoten eutsala dirautso amak. Ez deutso bidean oztoporik jarri.

Baina, ez zan nahikoa. Aitarena ere entzun behar zan. Aitak zer inoan jakin. Joan Bizente, seme zaharrena izatean, Zengotitarren oinordekoa zan. Bera da etxeko etorkizuna, bera etxeko geroa. Hor legoke atrapauta aitaren gogoa.

Baina aita kristau bete-betea da; erlijioa bitarteko sartzen zanean, edozein sakrifizio egiteko prest egoana. Horrelantxe, aitak ere poz handiz hartzen dau barri hori eta baietz borobil-borobila damotso semearen gurariari. Eta bertatik, komenturako bideak urratzen hasiko dira Zengotitarrak. Joan Bizentek komentura sartu baino lehen, zertxobait landu beharra dau eskola lanetan.

Horretarako On Jose Maria Basterra, Berrizko parroko jaunak

bere ardurapean hartu dau, beste gazte batzuekin batera, latin pixka bat irakasteko.

Larreako nobiziadura

Urte bi t'erdi inguru egin zituan latin ikasten eta hamabost urte bete zituanean, Zornotzan, Larreako Karmeldarren nobiziaduan sartu zan karmeldar izateko gurariz.

Aitak lagundu eutsan semeari Larrearaino, 1877ko Azaroaren 24an, San Joan Gurutzekoaren jaia ospatzen zan egunean.

Bere aitak 66 urte zituan, nahiko zahar eta gaixoturik egoan, batez ere, gerraldian hartutako ukaldi eta ibilera arriskugarrien erruz.

Bere zarhartzaroko babesa eta etxeko oinordekoa izango zana komentuko ate barruan itzi ebanean, nik uste, hori egitean, holako zirrara gogor batek goitik beheraino ikutuko eutsala bihotz ondoan. Alde batetik poza, bestetik negarra seme maiteari agur egitean.

Abrahamen irudia datorkit hemen gogora.

Baina ez zan izan Joan Bizente anaia Zengotitako zortzi seme-alabetatik erlijioso egin zan bakarra.

Haren arreba Deogracias, hogeitau urte bete zituanean, Medina del Campo-n, moja karmelitik dauken komentuan sartu zan bera ere, erlijioan Mercedes izena hartuaz.

Emakume Jaungoikotia, zuhurra, zentzun handikoa dohaiz aberatsa, harremanetan txeratsu eta gozoa.

Bere azkartasunaren sariz, birritan, etxeko nagusitza eroan eban. Gerora, mojaz urri egozala eta, Baezako Karmelora aldatu zan. Bera izan zan, urte askotan, karmeldegi honetako zutoin nagusia. Bertan hil zan lirio zuri, usaintsu hau, santutasunaren mailak goi-goiraino igon ondoren.

Joan Sixto gaztea ere 21 urtekin hil zan, abadetza hartzeko atee-tan egoala. Hirurak Zengotitako sendiaren kristautasunak emondako hiru altxor sagaratu ditugu.

3

LARREAKO NOBIZIADUA

Larreako Karmeldarren komentua, Zornotzako herri barrutik urrean, toki zoragarri baten zerurantz jasoten da.

Ikuspegi harrigarriak ditu ingurumarian. Mendi, baso, zelai, aldamen eta inguruak edertasunari ostutako zatitxoak dirudie. Benetan txoko polita.

Aurrean, zelaidura zabal bat zugatz eta jarlekuz jantzia, egurastu nahi dozunerako. Kotxeentzat ere apartakaleku bikaina.

Elizea txikia baina txukuna, harri landu ederrez egina, neurri, egitura eta dituan edergarrietan arte-legez ondo antolatua.

Joan Bateatzailearen izenpean dago egon, baina erregintasuna Karmengo Amak daroa. Antxinatik datorren ohiturari jarraituz, urte barruan, zenbatu ezin beste jende ikusiko dozu Karmengo Amaren oinetan belaunikaturik. Amaren altzora doaz gure poz eta atsekabeak, danak hartzen baititu Amak bere bihotz zabalean. Zaletasun handia deutso herriak Larreako txoko maitagarri honi.

Komentuak, barru aldetik, solo eder bat dauko praileen bizibiderako, horma sendoz esitua.

Elizea jaun txit entzutetsu batek eraikia da, hamazazpigarren mende barruan, Errege Felipe IV.anaren Idazkaria izan eta gero, Larreako jaun-izatea bere esku eukan Joan Larrea agurgarriak.

Antxe bertan egoan Joan Larrearen jauregi ederra ere, osoan harri landuz egindako etxe dotorea. Arpegi alaiagoa agertzen eban Larrea inguruak jauregi bikain hori, bere baratz ederrarekin, zutik egoanean. Azkeneko gerrartean, anker ezjakin batzuek sua emonda erre eben jauregi estimagarri hori, guztion nahigaberako.


Lekaide karmeldarrak, lehenengotan, eliza horretako kapilau lez

joan ziran Larreara, 1713ko Otsailaren 3an. Gero, apurka-apurka, elizari dautsola, gaur ezagutzen dogun komentu handi hori jaso zan.

Urteburu askotan, euskal karmeldarren nobiziadua izan da. Esan ezin beste praile argi emon ditu Larreako mintegi aberats horrek. Jakitunak, idazleak, irakasleak, hizlariak, misiolariak, santuak, herriaren eta Elizaren zerbitzari omengarriak.

Hementxe daukagu gaur gure Joan Bizente gaztea. 1877ko Abenduaren lehenengoa da. Goizeko hamarrak. Ordu hori izendatu dabe nagusiak Joan Bizente eta Markinako bere ikaslaguna dan Santos Alkortak praile-jantzia hartzeko. Karmeldar jantziko dira gazte biak.

Zeremonia hunkigarria da, batez ere, karmeldar abitua lehenengoz jazten dabenezat. Ordu-ordurako, etxeko praileak koruraten dira, elizkizun handietan jazten dan kapa zuriekin.



Larreako komentua

Koru erdian jesarrita, etxeko nagusia, hau ere lepotik behera estola handia dauala. Han datoz, koruko atetik, gazte biak, aurretik Aita Maisua dala.

Bernutsik datoz, oinetan sandaliak, buruko ulea motz-motz ebagita, ingurune bat izan ezik eta besoetan abitu barria, kapa zuriarekin.

Nagusiaren aurrera heldutakoan, belaunikatu eta buruak lurreraino makurtuta geratzen dira pitintxo baten. Gero, Nagusiak aitatasunez begiratu eta badinotse: “Zer eskatzen dozue?”.

Eta gazteak erantzun: “Jaungoikoaren errukia, Ordenako txirotasuna eta anaien alkartasuna”.

Ondoren, Aita Nagusiak hitz samur batzuek dirautsoez hasitako bideari gogoz eta gogor jarraitzeko esanez. Gero, abitu barria soinean jantzi eta bertatik lurrean luze etzanda jarten dira, koruak “Te Deum” abesti handi ta hunkigarri hori abestuten dauan bitartean.

Abestia amaitutakoan zutundu eta nagusiagandik hasita, banan-banan, praile guztiei, anaikiro, besarkada estu eta samur bat emoten deutse nobizio barriek, danen artean abesti gozo hau abestuten daben bitartean: “Hara zien gozo ta atsegingarri dan anaiak alkarrekin bizitzea”.

Honekin amaitu da elizkizuna. Oraintxe hasi dabe gure gazte biak euren nobiziadua.

Joan Bizente, bere gelatxoan bakarrik aurkitu zanean, ziur-ziur, Berriz aldera begiratu eta bere gurasoekin gogoratuko zala. “Ikusiko banindue aitag eta amak, nire neba-arrebak Karmengo Amaren jantzi barri honekin! Zer esango ete leukee?”. Eta, pozaren pozez, bihotzaren abiada izugarria gelditu ezinik ikusten dogu gure karmelita barria.

Nik uste, zeremonia hau aitugaitza egin jakela askori. Zer dalata, hain lazgarri, izugarri, itun eta goibel abitu-hartze hori?, itanduko dabe askok. Ez al dago modu alaitsuagorik zeremonia hori egiteko? -Jakina, baietz.

Aldi haretako ohituretan aurkituko dogu zeremonia honen ardatza. Ez daigun ahaztu, 1877an gagozala. Beraz, aldi haretako irizpi-deak izan behar ditugu gidari orduko gauzak epaitzean. Eta orduko kristauak horrelantxe aitzen eben kristautasuna. Uste eben santutasuna gurutzearen oinetan bakarrik ermetzen zala; erlijiotasunak gurutzearen sustraietan eukala bere iturri ezkutua.

Gurutz bidearen antz-irudipean ikusten eben erlijiotasun guztia. Gurutzean josita bizi behar zan santutasunera heltzeko. Mistika honen arauetara azaltzen zan kristau erlijioa: kurutzea, buru-ukame-nak, hildurak, laztasunak, opari-eskeintzak, era guztiriko nekauste-ak.. horreexek ziran egiazko kristautasunaren lehenengo ezauga-riak, bizi-arnasak. “Edo nekaldia edo heriotza”, hauxe zan Teresa deunaren gurari nagusia ere.

Hortik Kristo gurutzatuaren antz-irudiko gizon eta emakumeak eratzean, moldatzean egoan eliz hezikuntzaren lehenengo zeregina, helburua.

Kristo horrengana heltzeko, barriz, bakoitzak burutu eta egin behar izaten eban bere gurutze-bidea. Hortik datoz hain zuzen, nobiziaduetan erabilten ziran hezibide estu eta latzak ere. Gehiegizkoak guretzat.


Paulo deunak dinoana zan nobiziaduetan hezikuntzarako goren-go helburua: “Kristoz jantzi zaiteze”.

Kristo geurea egin! Bere pentsaerak, asmo, gurari, helburu, iza-kera, jokabide eta abar. Kristo gurutzatua! Hortik, nobiziaduko jar-dunketa eta ariketa guztiak gogortasunaren arauetan janaritzen ziran.

Lehenengo agindu lez, barruko eta kanpoko ixiltasuna zaindu behar izaten zan. Ixiltasun osoa. Igande eta jaietako solasaldi labur-retan izan ezik, beste egunetan, aste osoa, inori berbatxo bat esan bagarik igaroten zan. Mutuen zinuak erabilten ziran alkarren arteko ulermenerako.

Bost ordutik gora eguneroko eliz otoitzaldi eta gogoetak egiteko. Gauerdian, ohea itzi eta korura, ordubete luzean, Jaunari salmo, goratzarre eta eresiak kantatzeko. Norbere barrua zehatz-mehatz ezagutu; etorkizunaren norabideak burpilean sartu geuretzat onenak eta beharrezkoenak zeintzuk ziran aurkitzeko. Jaungoikoaren eta gizakien zerbitzari jator zelan izan ikasi... Mundu horretan sartuta dabil gure Joan Bizente gaztea. Jaungoikoaren bila dabil; grina hori goritan daroa bere bihotz barruan. Barnezale nekagaitza da, hortxe baitago ezkutuan gordeta giza osotasunaren iturria.

Jainkoaren argiaz begiratu eta azterkatu nahi dau barruko ixil-leku sakon hori. Altxor-lurra dala daki barne hori. Onoimen sorleku guria; Jaungoikoaren arnasak berotzen dauan baratza... Mundu horretan murgildu zan, arraina ur sakonetan bezalaxe.



Larreako klaustroa

Izan ere, beharrezkoak ditugu ixilune honeek. Zertarako? - Norbere arpegia ta gogo geure bizitzako ispiluan, mozorro eta muxaranga bagarik, argi ta garbi begiratzeko.

Gure bizitzak kakotuta daroan nondik norako arteza begi argiz ikusteko; gure pentsaerak argitu, sakondu eta bide zuzenean jarteko; gure gogoari argi eta indar barriak harreratzeko; Jaungoikoa eta gizon-emakumeak begi barriekin begiratzeko; lagun hurko aren zerbitzuan adorez eta kemenez jokatzen ikasteko; gure giza heldutasu-na, barrukoa ta kanpukoa, lortu ahal izateko.

Norbere barruko ixiltasunean sakon sartzen jakiteak damotsoz gizakiari goitasuna, jatortasuna, zindotasuna. Gizakia heldu ahal dai-teken gorengo maila horretan jarten dabe arimako maisuak.

Gurekin egote hori neketsu eta aspergarri egiten jaku.

Horregaitik, ixiltasuna garesti saltzen da gaurko gizartean. Gutxi dabilta altxor horren bila.

Ahoandi ta berbontzien aldia da. Beti ta beti xirrita-soinu bardina joaz, gizaki buruarin eta kazkarrez bete da mundu-zelaia. Telebistaren odolaz janaritutako gizakiak gara. Eskola horretan haziak eta heziak. Mundutar arnasaz kutsutu gaitue barru eta kanpo.

Hau dala ta, goitiko gauzak begiratu eta gozatzeko almena galduaz goaz. Bide bazterretako ezkurak maiteago ditugu. Galbidean laprast egin eta behak joteko arriskura doan gizartean bizi gara.

Komentu barruan, nobiziadua lur sagaratu da. Toki berezi eta itzalgarria. Bere asmo eta helburuak betetzeko ajola ta ardura handiz gertautako zatia. Nobizioak bakarrik bizi dira bertan, Aita Maisuaren ardurapean. Ateak barrutik giltzez itxita egoten dira, gau eta egun.

Nobiziaduko bizitza oso estua ta latza izaten da. Ikusi, esaterako, nobizio baten bizilekua, apaletan apalena da: Gelarik pobreena baino pobregoa. Gauzarik beharrezkoenak ere falta dira han. Ez jarleku bat, ez mahaitxo bat ez daukazu; edo zutunik edo lurrean jesarrita, horrexek dozuz zure jarlekuak. Neguko hotz baltzetan ere ez dozu alboan berogarririk ikusiko.

Ohetzat holako ohol zabal, bardindu bat, lau hankaren gainean; arasatxo baten, gogo-landuketarako beharrezko diran lau liburutxo. Ate ostetik eskegita, astean legez hiru aldiz praile-alkarteak hartzen zituan astinaldian erabilten zan zartailua; hormatik dingilizka gurutze soil bat... Honakoxea zan Joan Bizenteren aldiko nobiziaduko bizitza. Bizitza hori egin eban Larreako nobiziaduan.

Mundutarrekin ez dago ezelango hartu-emonik; etxeokekin ere oso gutxi; urte guztian, karta bi bakarrik idatzi zituan etxera Joan Bizente anaiak.

Honakoxe apaltasunean, txirotasunean, laztasunean hezi ta gizon egin nahi ditu Karmeloko Ordenak bere seme eta jarraitzaileak. Onoimen mendiak ondo ezagutzen dituezan mendigoizaleak. Gizatasunean eredugarri izango diranak. Ontasun bideetan gidariak...

Gaur modu horreek ez dira erabilten; baztertuta gelditu dira; barrikuntzaren arauetara gaurkotu dira ohitura zaharrok.

Zinitzako -profesa- egunean, iru zinitz edo boto egiten ditu lekai-deak: Menpetasuna, txirotasuna ta garbitasuna zainduko dituala. Hauxe da Jaunaren aurrean dagian eskeintza. Iru zutoin horren gainean jasoko dauala bere bizitzaro guztia.

Menpetasuna ez da norbere burua eta askatasuna inori doan saltzea, besteen menpeko edo jopu bihurtzea, ez. Beste esangura handiago bat dauko hemen: Jaungoikoaren menpeko egiten dala esan nahi dau. Jaungoikoaren borondate santua hartzen dauala bere bizitzako gidaritzat; Jesusen antzera, Aitaren borondatea ikurrin eta goiburutzat. Aitaren Erreinua hartzen dauala bere betiko zeregin-tzat.

Joan Bizente anaia ziur dago Jaunaren autatua dala bera; bere izenez deitu deusala Jaunak, Gurutzatuari jarraituz, Haren Berbizkundera mundu guztiari oihukatu eta iragarteko asmoz. Deitua da!

Horregaitik, Jesusen antzera, Aitaren gauzetan jardun nahi dau, beharbada, bere odola emon arte. Horretarako eskeintzen deutso bere burua Aitari menpetasun apal eta osoz: "Esan, Jauna, entzuten naukazu-eta".

Asmo horretan mugatuta doa menpetasuna. Hortik, Jesusen antza hartzeko ahaleginetan ikusten dogu Joan Bizente gaztea.

Behin baino gehiagotan dirausku Jesusek ebanjelioan Aitaren nahia egitera etorri dala bera mundura. Bere janaria Jainko Aitaren borondatea egitea zala. "Ez zenkien, ba, neure Aitaren gauzetan jardun behar nebala nik?" "Nik beti Aitaren nahia egiten dot".

Getsemaniko gau ilunean, odolezko izerdia dariola, Aitari heriotza haretatik askatzeko eskatzen deusanean ere, Aitaren borondatea aurretik jarten dau: "Aita, ez bedi nire nahia egin, zeurea baino".

Santutasun bidean aurrerantz egitea nahi izatekotan, lehenengo araua, oinarria, gauza guztietan Jaunaren nahia egitea da. Santutasun hori berea egin nahi dau anaia Joan Bizentek. Horretarakoxe gertatzen dihardu komentuko gelatxoan.

Hurrengo txirotasuna dator. Txiro izatea, Jesusen antzera bizitzea da. Herritar apalen antzera bizitzea. Ebanjelioak irakasten deuskuna eginez, norbere bizi guztia, ezer gorde bagarik, lagun hurkoaren alde eskeintzea da. Bihotz guztiz lagun hurkoa maitatu; bizitza agortzeraino bere zerbitzuan jarri. "Zorionekoak besteen alde agortu diran bizitzak!", inoan Teresa deunak. Horretan dago gure kristautasunaren egitama. Kristok egin eban lez bizia gizakien alde emon.

Horra ebanjelioko beste altxor baliotsu bat. Lekaide batek bere bere egin behar dauan helburua. Anaiari oinak garbitu. Jesusek egin eban lehenengoz hori eta guri ere horixe berori egiteko eskatu euskun. Morroien zeregina zan handikiei oinak garbitzea. Handikiak ez ziran inoiz zeregin horretan sartzen. Baina, Jesus bai. Hil aurretxoan gainera!, berak egin gure gogoetan betiko josita geratu zedin.

Eta ez bere ikasle bakarrik, une haretan bere etsairik handiena zan Judas saltzaileari ere garbitu eutsazan. Judasen aurrean belaunikatu eta hari oinak garbitu! Muga hori jo eban Jesusek.

Guri, oster, holako zerbait egitea ia ezinezkoa gertatzen jaku. Apalak izatea, geure hutsak autortzea, irainaren aurrean ixiltzea, inori parka eskatzea, gaitz egiten jakuzan gauzak dira. Garaipenak, goraltzeak, txaloak ditugu gureak.

Honen jakitun egoan gure anaia Joan Bizente eta bere gogo eta arnasa guztia jarri zituan apaltasunean Jesusen urratsei jarraitzeko. Harropuzkeriak bihotza kirastu egiten eutsan.

Erarik asko opatzen deuskuz bizitzaldiak geure anaiei oinak garbitzeko. Nahiko da horretarako anaiak bihotzez maitatzea eta begiak azkar eta zuhur erabiltea, beharizanean dagozanak berehalaxe ikusteko. Behartsuagan, baztertuagan, hurkoagan Jesus berbera ikusi...

Misiolaritza ere, zalantzarik bage, behartsuei oinak garbitzea da. Zelan ez!

Zenbat eta zenbat misiolari ikusten ditudan nik, bai gizonezko eta bai andrazko, bai erlijioso eta bai laiko, mundu guztian zehar zabalduarik, beraien bizitza guztia behartsuen eta bertan behera itzita-koen alde agortzen diharduenak.

Ez ditue oinak bakarrik garbitzen. Horrez gainera, nor zein dan begiratu bagarik, guztiak aintzat hartu, zaindu, osatu, garbitu, jaten emon, pozkidetu, eta mila erataria anaiak maitatuz, anaia errukarri haren oinaze eta neke-minak aringarriago eta eramankorrangoak egiteko asmoz joan dira lurralde hareetara.

Gure ingurumarian ere, geure aita eta amagandik hasita, oin garbitzaile on eta asko ditugu. Edonon eta edonoz, aurkitu geinkez behartsuen laguntzaileak. Oraindik kristau karidadeak frutu ugariak emoten ditu lur zabalean, nahiz eta maitasun ezak gure mundu hau negar-herri bihurtu sarri askotan.

Zorionez, Jesusen irakatsi eta egikerak berbizturik dabilta gaurko kristau askoren artean.

Profesako egunean egiten dan hirugarren eskeintzaria garbitasunarena da. Ezkongetzan garbi biziko dala.

Norbere buruaren kontrako pekatu bat dirudi irugarren eskeintzari honek. Geure gizatasunari dagiogun iraina. Baina, ez deusagu holako adarrik ikusi behar zinegintza honi.

Lekaideak ez dau maitatzeko ahalmenik galtzen. Ez dago hor ezelango berekoikeriarik. Bestetara, maitatzeko ahalmena sendotu ta zabalagotu egiten da.

Jaungoikoaren Erreinuagaitik egiten dau hori. Ez dau bihotz bakar bat maite nahi, munduko bihotz guztiak bardinean maite nahi ditualako. Ez da batena bakarrik, guztiena dau bere bihotza. Aske bizi nahi dau munduko maitasun eta arazoetatik, bide-zorroa beti prest dala, bere beharizana dagoan tokira, askatasun osoz, lotura bagarik, behingo baten hegaz egiteko.


Erreinuaren zerbitzurako prestutasuna adierazi nahi dau hemen garbitasunaren eskeintzariak.

Nobiziaduko bizitza estua eta gogorra zala ikusi dogu. Baina, Joan Bizenteri, bere lagunak dinoenetik, ez ei jakon hain gogor eta lazgarri egin.

Goietan ibilteko jaioa zan antza; zailtasunari bularra jarri eta nekeari begiratu bagarik, hasitako lana edo zeregina, zehaztasun eta

doitasun guttiz, azkenera eroatekoa. Ez da kili-koloka ibilteko gaztea. Dana edo ezer ez!, hori da bere gidari-orratza. Goietako arranoa. Buruz ere adimen handikoa; bere lagunak baino urtenagoa. Gerora zer izango zan argi jarri eban gure Joan Bizente anaiak.

Nobiziaduko urtea amaitzeaz dago. 1877ko Abenduaren bia hurbil. Legez, egun horretan botogintza, profesia egitea dagokio, baina abenduaren hamarrerarte atzeratu behar izan dabe. Arrazoibide handi bat bideratu zan horretarako.



Joan Bizenteren profesia-agiria

Joan Bizente eta Santos Alkorta, markinarra, ziran profesia egitekoak, biak batera hasi bai eben nobiziadua. Baina Santos anaiak osaba bat eukan egun hareetan karmeldarren Aita Probintziala zana: Aita Pédro Jose agurgaria. Eta Aita Probintzialari, bere zereginen arabera, ez etorkion ondo abenduaren bigarrenerako Larrean egotea. Hau dala ta, atzeratu eben hilaren hamarrerarte

Joan Bizentek, bere aldetik, karta bat egiten deutse bere etxeko-
ei, eguna ta ordua izentatuz, jazokizun berezi eta bikain horretara etorteko eskatuaz. Osaba Manuel eta bere neba-arreba hazikoteak ere bere ondoan ikusi gura ditu egun handi horretan.

Sermolaria, barriz, Basterra jauna, Berrizko parrokoa izango da, Joan Bizente eta Santos Alkorta latin irakatsi eutsoen maisua. Egun borobila Larrean gertau zana.

Han dira aldara aurrean gazte biak, belaunikaturik, Aita Probintzialaren oinetan. Paper agiri baten profesako ituna dakarde beraien eskuz idatzi eta beraien izen-abizenaz azpimarratuta.

Karmeldar izatea eskatuko dabe; alkarren anaitasuna ta alkarta-suna. Ahots argi eta sendoz irakurri dabe itun-agiria, Jaungoikoari eta Ordenako Nagusiari menpetasuna, txirotasuna ta garbitasuna eskeiniatz.

Ordenaren nondik norakoa ezagutzeko eratasuna izan dabe. Zein dan Karmengo Ordenak daukan egitekoa bai Elizan eta bai gizartean. Zeintzuk diran bere goiburu eta ibilbideak. Zein eta zelakoa dan Karmengo bizimodua.

Eta orain han dagoz, burua loraz koroatuta, kapa zuriz jantzita, bihotza taupada bizian, ames-ameslari, gogoia kemenez eta adorez sutan, Jaunari eskerka, Kristok izentautako biderei jarraitzeko prest.

Handik urte askora, Indiatik etorri eta gero, 1918an, Markinako prailei gogo-iñarkunak emoten egoala, Larreako nobiziaduko denbora zaharrak gogoratuaz, honako autormen bitxiak egin zituan entzuleen aurrean, esaterako, zelako poztasuna hartu eban berak Karmengo abituaz jantzita ikusi zanean.

“Hain handia eta atsegingarria zan poztasun hori, neure bihotzeko irrikitasun hori asaskatzeko neure gela txikiko hornei mosuka

ibiltzen nintzan, Maria Magdalena de Pazziz-en antzera. Eta sarritan, irrintzika eta zantzoka hasteko zorian aurkitzen nintzan Jaunaren aurrean, berak nire maitez Karmeldar izateko aukeratu ninduelako.

Neure txirotasunean munduko aberatsena banintz lez nengoan; praieltzako laztasunen artean zoriontsu nintzan ni; apaletan apalena nintzalarik, munduko errege guztiak baino handiagoa sentitzen nintzan; niretzat Karmeldegia zeru txikitxo bat lez zan.

Eta pozezko zorion hau neurekin etorri da une oro, karmeldar egin nintzanetik geroz. Jauna nirekin onegia izan da beti; karmeldar izate-tik datorkidan poz eta zorion hau zeruan bakarrik aurkitu daiteke”.

Non aurkitu geinke autor hoberik Aita Joan Bizenteren barruko bizikerak ezagutzeko?

Baditugu, orraitio, hemen beste autormen batzuk ere Aita Joan Bizente berba honek esatean ez zala bla-blaka ibili egiaztatzeko.

Berarekin nobiziaduan lagunkide izandako batek honetara autor-tzen dau: “Aita Joan Bizente txarkeria bagako gaztea zan, buruzale-keria menperatzen ekiana; gazte argi eta prestua; zintzo eta jatorra; bihotz garbi eta onekoa; ontasunean moldatutako erlijiosoa”.

Beste lagunkide batek beste arrasto hau itzi deusku: “Joan Bizente anaiak beti izan eban santutasuna bere gogoaren helburu eta bizigarri.

Hauxe da niretzako Joan Bizenteren alde esan ahal daiteken goralpenik onena: lekaidetzako bizitza oso-osoan betetzen ahalegin-tzen zan gazte bihotz zabal eta onekoa zala. Nobiziaduko giro eta espirituan barru- barruraino murgildu zana”.

Izan ere, Larreako nobiziadua goi-mailak hartuta egoala diraus-kue garai haretako agiriak.

MARKINA-TIK BURGOS-ERA

Joan Bizente anaia profesa egindakoan, bertatik Larreatik Markinako komentura aldatu zan. 1878ko Gabon jaiak hemen ospa-tuko ditu, bere etxetik hurbil. Baina, Markinara heldu eta hamabos-garren egunean Burgos-era, Markina aldeari begi ikusi bat egiteko asti bagarik.

Eliz erdian, berak nahi eban lez, karmeldar jantzita, pozik abes-tuko eutsan “Agur Erregina” Karmengo Amari. Ziur egoan Joan Bizente Karmengo Amaren begiak kinu egin eutsanean aldara goitik, bere izena aitatu ebala Amaren ahoak. Horregaitik bizi da gaur Karmengo Amaren etxean bere seme kutun eginik.

Baten baino gehiagotan erabiliko zituan buruko hausnarrean mutikotan Markinara egindako joan-etorriak bere aitaren arazo latze-tan sartuta ebilanean. Askotan ames egingo eban bere mutikotako pasarte harekin.

Baina gaur, Gabon Zahar egunean, amesak itzi, Markina maitea-ri agur egin eta Burgos-erako bidea hartzeko ordua heldu da. 14 ikas-lagunekin batera, goizeko bederatzietan, hartu dabe trena eta gaueko hamarrak aldera heldu Burgosera. Ez da harritzekoa atzeraldi hau orduko trenak zelakoak ziran kontutan izanik.

Hurrengo goizean, Urte Barriz, Burgos guztia lei baltzak hartu eta izotz bihurtuta agertu zan. Urbideak leiturik; gau eta egun kendu ezinezko hotza ganean. Oinazetik gogorrena hotzarena zan.

Burgosera zeregin handi batek eroan dau: filosofia ikasi beha-rrak. Hau bagarik ez dago abade izaterik. Beharrezkoak dira ikaske-ta honek abadetza, apaizgoa, hartzeko. Beraz, hiru urte luzean filo-sofia ikasteari ekin beharko deutso jo ta ke. Berez dira ikasketa

gogorrek filosofiakoak, batez ere gaztetxoek buruentzat, oraindik guttiz egin bagarik dagozalako filosofiaren barrunbeak, nahaspil eta zirri-parrak ondo barruratzeko.

Horregaitik, egunero, goizetan ordu t'erdia eta arratsaldetan beste ordu eta lauren filosofia ikasteari emoten jakozan.

Maisu bakar bat izan eben hiru urteetan: Aita Bernardo Arginzoniz, bizkaitarra, Zornotzako seme txiki argia. Maisuetan maisu zan gure Aita Bernardo. Buruz jakituna, izar argia, buru gogortxoak gauza batzuetan, bihotz samurra, gazteekin ondo konpon-tzen zana.

Gerora, Indiako lurretan misiolari, Verapoly-ko Gotzaina izatera helduko zana. Sarritan aurkituko dogu Verapolyn, misio-lanetan, gaur bere ikasle dan Joan Bizenterekin. Biak kutun-kutun maite dira. Euskaldunak, izaera eta sen bardinekoak, biak alkar ulertzeko egi-nak.

Bernardo Arginzoniz eta Joan Bizente Zengotita aipatu ditudan ezkerero, gure herri ta omenerako, beste karmeldar euskaldun biren izenak ere aipatu beharrean aurkitzen naz jator jokatzekotan. Biak misiolariak eta biak berriztarrak. Buenaventura Arana, Indiako Vijayapuram-go Gotzain agurgarria izan zana eta Aita Seberino Agirrebeitia, Colombian, Uraba-ko misinoan urte askotan Gotzain Ordekoa izan zan misiolari ta idazle sonatu ta aintzagarria. Sariketa honetan Berriz-ek daroa txapela.

Joan Bizente anaiak Burgosen igarotako hiru urteei buruz gauza gutxi dakigu. Bere ikaslagunak bere goratzarrez esandako hitz eta eritxi batzuk baino ez.

Aho batez autortzen dabe honeek Joan Bizente Ordenako lege eta arauak betetzean zintzoa ta zuzena zala beti. Prailietzarako ohol ona eukala, aurrelari ibiltzen zala etxe barruko bizitzan. Ikastun amorratua zala; buruz argi, zuhur eta ameslaria, buru eta belarri, ukon-doak mahaian sendo jarrita sartzen zala filosofia barrenera, erraieta-raino heltzeko gurariz.



Joan Bizentek ezagututako Burgosko Karmengo Eliza

Burgosen egon zan hiru urte luzeetan, lau karta bakarrik idatzi zituan etxera.. Lehenengoa, hara heldu eta hilabetegarrenean.


Burgosera heldu eta bertatik idatziko ebala eskeini eutsoen aita-amari. Baina, ez eban hitza bete. Honen atxakitzat bere ikasketak jar-ten ditu. Iñarra erabilteko asti bagarik, filosofi-ikasketak buruz gai-nezka eginda ebilala dinotse gurasoei.

Bestalde ondo joakola Burgos aldetik, pozik egoala, batez ere oso ona zala osasunerako Burgosko hotza. Barri gutxiko eskutitza.

Azken aldera baditu, orraitio, argi-izpi batzuk Joan Bizenteren gogoaren erakusgarri diranak. Hara jazorikoa:

Burgosera joan barri zala, bertako praile bat hil zan komentuan. Bake eta baretasun handian hil ere. Beharbada bere bizitzan lehenengoz ikusten eban gorpua, praile horrena izango zan. Eta, jakina, holako bihotz-zirrara hunkigarri bat sentitzen dau gorpuaren aurrean.

Gau-belan egoala, herioaren arpegia begiz ikustean, bere gogoe-tak egiten ditu heriotzaren garrantzi eta ondorenak gogoratuz.



Gaurko Burgosko Karmengo Elizako Andre Maria

Bihotzaren minberara, sermolari bihurtzen jaku. Berak herioaren aurrean eginiko pentsakizun eta sentipenak aita-ama eta etxekoei kontatzen deutsez karta horretan. Heriotza ona edo txarra izatetik datozen ondorengoak darabiltza ahoan.

Zintzoak eta zuzenak izan diranak, ordu horretan izango daben poza eta bakea aipatuz asten dau bere sermoia: betikotasun zorionsu edo zorigaiztokoaren ate eta hasiera dirala gure hemengo egite on edo egite txarrak. Hau honan izanik, zergaitik ez dogu egiten orain, orduan eginda eukitea nahi gendukena?

Gure bizitzak heriotzarako egiten dogun gertakizun bat lez izan behar leuke. Horregaitik, egiten dogun egite bakoitza bizitzako azkenekoa balitz bezala egin behar genduke.

Gauzez oheratzean, azkeneko gaua balitz lez hartu; otoitz egitean, haxe dala gure azkeneko errosarioa, eta horrelantxe gainetiko egite eta lan guztietan; horretara eginaz zeruetako zoriona, azken baten, geure esku izango dogu eta... Goitiko gauzak bizi-bizi eroiazan bihoitzean gure filosofo eta sermolari gazteak.

1881eko uztailean, ohizko azterketaldia egin andoren, amaitutzat emon dabez filosofiari dagokiozan ikasketa guztiak. Amaitu da hiru urteko ikastaldi luze hori...

Orain hurrengo mailara igon behar da. Teologiari ekin, lau urte luzean, gero abade eginda, aldarara igoteko. Teologia filosofia baiden beharrezko dau abadetzara doanak. Apaizgorako ikasketa bereziak, ezinbestekoak dituzu.

Uztailean bertan aldatu ziran hogeita hiru ikaslagun, Burgostik Markinara, hemen egoan, ba, teologi ikastetxea.

Beriztik Markinara doazela, Joan Bizente bere etxera urreratu zan, bidean dago ba, bere etxekoekin egotalditxo bat egitera. Gauza asko alkarri esateko eta asti gutxi alkarrekin egoteko. Solasaldi laburra, baina gozoa danentzat.

Gaur etxeko koronela, aitaren ordez, Joan Bizente da bere abiturekin. Ezpatea barik, gurutzea daroa bularrean. Bere neba-arreba

txikiak, pozaren pozez bere besoetan ezkutaturik, begirik ere ez deuse kentzen bere anaia zaharrenari.

Ama zertxobait zaharrago aurkitu eban, baina momentu haren hunkigarritasunak liluraturik; aita gerraldi luzeak itzitako zauri eta ondorengo txarrakin zaharmindurik, baina danak pozak hartu ezinik semea praile eginik ikustean.

Ikustaldi labur hori amaitutakoan, barriro Markinarako bidean. Askotan egina dau bide hori. Han dagoz berak maite dituan baserri zaharrak, landa, belardi, solo, mendi ta muinoak; bere bihotz lurrean ernetako loratxoak ditu bazter harek; bere umetako jostailuak. Bere begi harrituak, hara ta hona begira, bere lurralde maiteari mosuka daroaz.

Ziur nago Joan Bizenteren bihotz-minberatasuna ezagututa, herri minak jota, negar malkoren batzuk jausiko zirala bere begietatik.

5

MARKINAN, TEOLOGO

Udaldia amaitzear dago eta barriro liburuak hartu behar dira, Teologia mardulari agina sartu. Lehenengo urtean, irakasle Aita Tomas, etxeko nagusia, izan eben, teologiaren barrunbe eta ilunpeak ondo ezagutzen zituan gizona.

Ikasturtea hasi baizen laster, bere bizitzako beste jazokizun pozgarri bat biziko dau gure Joan Bizentek.

Larrean lehenengo profesia egin ebanetik hiru urte datoz aurtengo abenduan. Beraz, Elizaren legeari jarraituz, profesia nagusia, hil arterainokoa, egitea egokitzen jakon hil horretan.

Honen harira, abenduaren lehenengoan, karta bat idazten dau etxera barri hau aurreratuz. Abenduaren 11n izango zala dirautse profesia nagusi hori, goizean, meza nagusiaren ostean, Santos Alkortarekin batera, lehenengo profesia izan zan lez.

Baina, ez zan meza nagusi ostean ospatu, arratsaldeko bezperen ostean baino. Eta hara zergaitik. Berrizko parroko jaunak, On Jose Maria Basterrak predikatzea nahi eben, euren maisu zaharrak, eta hau pozik predikatzeke, baina egun horretan igandea zan lez, herri-mezak emon beharrak lotuta eukan goizez, Basterra jauna. Horregaitik, egin zan profesako elizkizuna arratsaldez.

Beste mesedetxo bat ere eskatzen deutse gurasoei Joan Bizentek kartatxo horretan. Bere profesako agiria irakurten egoanean, une haretako bere ames, gogo, gurari eta sentimentuekin bat eginik, eurak ere beraien semea gogo eta bihotz guztiz Jaungoikoari eskeintzeko.

“Jaungoikoak bere esku indartsu eta maitekorretan zaindu nagiala beti eta Karmengo Amaren seme zintzo, leial eta kutuna izan nadila ni beti” hauxe eskatuko dozue, arren, nire profesako orduan.

Eskari hau egin eutsoen Joan Bizentek bere etxekoei profesako egun handian. Joan Bizentek Jaunaren eskuetan itzi dau bere bizitza guztia, beti haren borondate santua egiteko asmoz eta gurariz. Santutasunerako bidea egiten hasita dago gazte-gazterik.

Profesa egunean botodunak buruan lorazko koroia eroateko ohi-turea dago Ordenan. Joan Bizentek eroan ebana, berak beren-beregiz eskatuta, Berrizko Merzedeko mojak egina izan zan. Zer gutxiago eskeini, egun hain handian, euren sakristau txikiari.

Bitartean teologi ikasketak aurrera joiazan eta protxu handiz gainera, baina ustekabean, Joan Bizenteren bizitza bere ildoak galtzen hasi zan. Berriztik barri onik ez zetorren, aita nahiko makalik ebulan eta.



Markinako Karmengo Ama


Gerraldian hartutako tratu txarrak, lor eta nekeak gordin-gordin agertu jakozan bere hirurogeita hamaika urteko gorputzean. Aita ez zala luzaroko susmatzen eban Joan Bizentek.

Maitasuna dariola idatzita dagoan kartatxo baten, honako gauza samur eta gozoak dirautsoz bere aitari: “Bihotza saminez beterik daroat gaixorik zagozala jakin dodanetik geroz. Ez dakizu zenbat maite zaitudan, aita”.

Entzun minez dinotsudan hau: “Ez doakizu ezelango lanik egiterik, nahiz eta hutsena izan berau; ez mendiz mendi ibili aldatz goran; ardurak eta zereginak alde batera itzita, atsedean oso-osoan bizi; diruari begiratu bagarik, hartu oilo salda ta ardao ona ondo sendotzeko. Osasuna berreskuratu arte zintzo jarraitu begio osapide ta bizimodu honi”.

Joan Bizentek, bere aitaren gaixoaldia zala ta, nagusien baime-nakin, egun batzuk, Berrizen, Aitaren ondoan emon zituan.

Aitaren hanketako zauri gordin eta minkorrak ikustean asko nahigabetzen zan. Erruki eutsan aitari. Baina gerrari zaharrak oraindik bere kemen eta adorea oso-osorik eukazan eta, honela inotsan bere semea-ri: “Hara seme, ni gerrako borrokan sartzen nintzan bakoitzean, heriotza neure alboan nebala, pentsamentu hau eroaten neban neure gogoa: Kristogaitik emoten nebala bizia. Orduan ez nindun eroan Jaunak; horregaitik, gaur, gogo eta pentsamentu bardinakin eskintzen deusadaz Jaunari neure zaurien oinazeak eta minak”.



Markinako Karmengo biblioteka

Doinu zerutarra dakarre hitz honeek; santuak bakarrik esan eta egiten dabez honako gauzak.

Bere semea abade eginda meza barria emoten ikustea zan gerrari zaharraren gurari bizia. Horren irrikitan egoan. Hauxe zan mundu honetako bere azken guraria, baina ez jakon zilegi izan egun hori ikustea.

1883ko abenduaren bederatzian, gaueko hamaiketan, hil zan Jaunaren bakean Frantzisko jauna bere Berrizko etxean. Kristorekin besarkatu zan gurutzeko heriotzan, gero, berarekin batera zeruan berbiztuteko. Hil eskilaren hotsa zabaldu zan Berrizko zeruan; dolu-mina ta negarra Zengotitako sutondoan.

Joan Bizente anaia, sasoi haretan, teologiako hirugarren urtean egoan. Ikasturtea amaitzear egoala, ustekabean, barri migarri bat: garai hatan, euren irakasle ta hezitzaile begiko zan Aita Bernardo Arginzoniz-ek, bere misiozaletasunari amor eginez, Indiarra, Verapoly-ko misiora doala iragarten deutsoe; ezbear mingarria ikasleentzat, gogo-gogoko eben euren maisua eta.

Nok egingo ditu orain haren ordeak? Non aurkitu Aita Bernardo lakoxe beste irakasle bat?

Praile Karmeldarrak, jakina dan lez, beste Ordena guztietako erlijiosoen antzera, lege zorigaiztoko baten ondorioz, 1835ean Espainiatik jaurtiak eta uxatuak izan ziran. Urte pila luze baten egon behar izan eben lege honen zamapean. Bitartean, ez euken erlijiosok euren komentuetara sartzerik.

Dana dala, komentu hori urrinetara misiolari doazen gazteen hezikuntzarako behar-beharrezko ebela-eta, atxaki horrekin, komentua berreskuratzea lortu eben 1868an. Markinako komentuak, ate gainean izenburu polit hau eroian jarrita: "Colegio de Misioneros de ultramar".

Arazo honen harira, ez zan bape erraza izaten, praileen urritasunagaitik, irakasletzarako praile egokiak aurkitzea. Hori komentuak berreskuratuta gero, etorri zan.

Honen arabera, gure Joan Bizente, nagusien aginduz, teologiako laugarren urtean, era batera irakasle eta ikasle eginik aurkitu zan. Bere ikaslagunen maisu eta arduradun. Antza Berrizko mutila azka-

rra ta aurreratua zan honako ardura eta zeregin astunak bere esku izteko.

Bere ikaslagunen eritxiak entzuten baditugu, Joan Bizente izakeraz odoltsua ta adoretua zala dirauskue, baina sen onekoa, bihotz zabala, samurra, adikorra, edonori beti zerbitzeko prest egoana.

Erlijiotasunean, barriz, zehaztasun eta zuzentasun osokoa. Nekez aurkitzen ei zan akats bat haren ibileratan. Bere ikaslagunen artean batutako eritxiak ditugu.

1885eko martxoaren 21ean gagoz. Egun hau, zalantzarik bage, bere bizitzako egunik pozgarriena, zoragarriena izango da aurrerantzean. Gaur apaizgoa hartuko dau.

Gasteizko moja Brigidas-en elizan, Mariano Miguel Gomez, Gasteizko Gotzain jaun agurgarriak Joan Bizente anaia, beste abade-gai askorekin batera, abade egingo dau. Gaurgeroz, Aita Joan Bizente izango da.

Eliz legez, hogeita lau urte behar ziran abadetza hartzeko. Joan Bizentek 17 hilabete gutxiago ditu. Horregaitik, Erromatik lortutako baimenaz egin zan hain gazterik abade.

Gaztea izan arren, ondo gertauta doa abadetza hartzera. Teologiako ikasketak goi-mailako goratarrez amaitu ditu; apaizgoa hartzeko gogo-inarkunak ere sakon eta bero-berotan egin ditu; bihotz-taupada bizian, hartzera doan abadetzaren astunpean; eskuak eta ezpanak ere dardarati ogia ta ardoa bere berbara Jesusen Gorputz eta Odol bihurtzeko orduan.

Kristoren ordezko da lurrean. Haren hitz eta egiteak iragarrea izango dau aurrerantzean bere zereginik gorengoena.

Amari mosu estu, bero bat emon, bere osaba Manueleri ere bai, eta etxeko neba-arrebai...

Amaitu da Gasteizgo saioaldia. Aita Joan Bizente beste mundu baten murgildurik ikusten dogu. Berari begiratzuz, munduan zehar hegaz doala dirudi, ames-ameslari, Kristoren izena eta salbamena mundu guztiari oihukatzeke gurariz. Mundu guztia Kristoganatzeko sugarretan daroa bihotza. Bihotzak indarrak daukan bitartean ardura hori betetzea izango da haren zeregina.

Meza-erropak besapean hartu eta barrero Markinara bere meza barria gertatzera. Hain bihotzean eroian Karmengo Amaren oinetan emongo dau meza barria, bere ama eta etxekoen irribarre ta babesean inguraturik.

Gaurgeroz, mundu barri bat zabaldu da Aita Joan Bizente gazte-arentzat. Bizitza barri bat. Komentuko bakartadea itzi, mundu zelaira salto egin eta jendartean beste Kristo bizi bat izango da. Bide luzea egin behar izan dau abadetzara heltzeko. Amaibako ikastorduan komentuko ixilean; ames asko muga horretara noiz helduko.

Gaur, muga hori atzean geratu da; mundu osoa, solo handi bat balitz lez, aurrean zabalik agiri jako, ebanjelioaren ereintza egiteko.

Eta ereintza hori kemenez, adorez, ausardiaz, sendotasunez egingo dau. Dinoenez, askok Elias profetaren antza hartzen ei eutsoen; ikustekoa ei zan haren sermogintza. Guk esaten dogun lez, txatarrak ateratzen ei zituan haren berbaldi sutsuak

Gaiztakeriaren aztarnak non eta han egoan Aita Joan Bizenteren mailu hotsa. Ez eban txarkeria bat buruan jo bagarik izten. Zuzenbakokeria, liberalismoa, biraoa, jai-hausteak, era guztiko ekandu zantarrak ziran, batez ere, berak gehien zigortzen zituanak.

Erasoaldi guztiak bere marka eroaten ei eben. Entzutetsu eta sona handikoak egin ziran alde guztietan haren hitzaldiak. Harrigarritasuna sortzen ei eben jendartean.

Burgos-en, Madril-en, Valentzian punterengo mailak lortu zituan sermogintzan. Margarita Maturana agurgarriak bateatu eban ondoen gure Aita Joan Bizente: "Santu bat, igarle bat, Elias barri bat zala", esanez.

MARKINATIK VALENTZIARA

Meza barria emon eta gero, oraindik Markinan bertan gelditu zan teologoen irakasle. Aurretiko saioaldia, antza, trebe ta jator bete eban, nagusiak barrero ere teologoen irakasle izendatzeko. Nagusiak Aita Joan Bizenterekin osoan fidatzen ziran leporatzen jakozan mandatuak gogoz eta zehatz-mehatz egiten zitualako.

Burgosen filosofia amaitu daben 20 teologo barri etorri dira Markinara bere irakaspenak hartzeko. 1884tik 1887ra irakatsi eban Markinan.

Honeetako ikasle batzuk buruz oso ondo jantziak ziran. Goi-goitiko ikasleak. Gerora, Ordenako eta Elizako jerarkian gorengo postuetara helduko ziran gazteak. Euren artetik hiru euskaldun aipatzera beharturik gagoz.

Aita Ezekiel Bilbao Imaz, Zornotzako semea, Arasosaz auzuneko, San Joakin Naparroakoaren izenpean ezagutzen dogun eskualdeko probintzial bost alditan izan ondoren, Ordenako Buruzagi edo Jenerala izan zana.

Balentin Zubizarreta, Santiago de Cuba-ko Gongotzaina, Etxebarritarra bera, teologi sailean liburu mardulak idatzitako jakintsua, teologoen artean oso ezaguna.

Hirugarren jakitun bat Aita Manuel Olabarrieta Etxebarria, arratziarra, Dimako semea, Erromako Kurian aholkulari urtena izanez gainera, Eliz Legedi Nagusia egitean partaide gorengoa izan zana.

Irakasletzakin batera, abade-lanetan ere sartzen zan horren beharra egoanean. Sermogintzan trebe agertu da. Bere izena laster zabaldu zan Markina aldeko herrietara. Esan dogu sermolari sutsu eta iaioa zala. Bere bihotza Jaungoiko sugarrez irakiten daroala emoten dau

praile gazte honek. Haren hitza sakon-sakon sartzen zan barrura eta gogoak bizi-bizi suspertu.

Berari asko entzundako batek Aita Joan Bizente, hizlari lez, honetara ikusten eban: "Bihotzean Kristo eroian, bularra sendo, ezta-rria garbi, buruan zer esana ugari eta gauzak txukun eta bizi esaten ekian gizona".

Lehenengo sermoiak eskuz idatzi, ondo orraztu eta gero buruz ikasi. Honetara egiten dira hitzaldi on eta mamintsuak. Aita Joan Bizentek Markina aldeko euskera ederrean idatzitako sermoi mordo bat Gasteizko Karmeldarren komentuan dago gordeta, erlikia balio-tsuaren begirune eta ohorez.

Ordenako beharrianak handiak ziran garai haretan, komentuak berreskuratzean egozan-eta.

Danen jakinean dago, Espaniako Mendizabal ministroak, 1835eko urtean, Erlijosoen Ordenak ez ebela herriarentzat ezer onik ekarten, esku hilak izatean zama astun eta kaltegarriak bihurtzen ziranaren atxakiz, praileen komentuak lapurtu eta praile errugabeak euren kabietatik uxatu egin zituan.

Egoera hau guztiz lotsagarri eta mingarri izanez gainera, oso kaltegarri gertatu zan erlijiosoentzat. Komenturako bideak etenik; kabiak hutsik; Ordenak legez desegindurik... Lege horren kalteak neurtu ezinak ziran.

Espanian lehenengo berreskuratu zan karmeldar komentua Markinako hau izan zan, gorago esan dogun atxakia arrazoibidez aipatuz.

CARMENGO ANAIJE

EDO COFRADEENTZACO ESCULIBURUA,

CEINETAN AZALDAURIC AURQUITUCO DITUEEN

CARMENGO ESCAPULARIJUARI JAGOCAZAN

GRACIJA BERARIZCUAC,

TA ONEEC IRABAZTECO EGUIN-BIARRAC,

AITA-SEME BIREN JARDUNIAN

Fray JUAN VICENTEAC,

CARMEN ORTOZECO SEMIAC, IMINIJA,

TA MARIJA CARMENGUAREN

BEDERATZIURRUNAGAZ

BERAC GUEITUA.

BIAR DIRIAN BAIMENACAZ

VALENCIAN

JOSE ORTEGAREN SILLUTEGUIJAN

1888 garren urtian.

Joan Bizentek Valentzian argitaratutako euskarazko liburuxka

Hemen eukan bere habia gure Aita Joan Bizentek. Baina, beharrianen damuz, Markinako txoko maitetik Valentziara bialdu eben 1887ko irailean, lehenengo teologoen irakasle eta gero etxeko nagusi izendatuaz. 26 urte zituan etxeko nagusi egin ebenean. Ez zan, orraitio, Valentzian luzaroan egon. Urte bi betetxo.

BURGOS-KO PRIORE

Espainiako Karmeldarren Ordena, ordurarte eskualde eta agintaritza bakarrez baliatzen zana, egunetik egunera, zorionez, jende barriz ugarituz eta ugarituz joian eta, garaiko beharriaz erantzunez, Nagusien aginduz, eskualde edo probintzia bitan zatituta geratu zan. Alde batetik, San Joakin Naparroakoa eritxon probintzia egoan eta, bestetik, San Elias Castilakoa.

San Joakin Naparrakoaren babespean, Euskal Herrian kokatuta dagozan komentuez gainera, Soria, Logroino, Burgos eta Santander ere sartzen ziran. Zetan esanik ere ez, eskualde bakoitza bere askatasun eta agintaritzarekin geratu zala.


Zatikuntza honen ondorioz, Aita Joan Bizente Valentziatik Burgosera dakarre eta bertako Priore egin. 1889ko uztailaren hemezietzia zan, hain zuzen ere, berak hogeita zazpi urte egiten zituan eguna; bere jaioteguna. Zortzi urte luzean Burgosko Prioretza bere ardurapean eroan eban, tarte txiki batzuk izan ezik.

Praile talde handia zan Burgosen batu zana. Urte horretan, filosofia ikastera etorritakoak berrogeitik gora ziran. Lehendik ere zeregin horretan ibili zan lez, ez eutsan buruko min larregirik emoten gazte pilo horrek, beti ondo konpontzen baitzan gazteekin.

Pozik aurkitzen zan Burgosen. Lur on eta zabala zan Burgosko urialdea bere apostolutza-egari ase ezinari betetasun osoa emoteko. Egile amorratua, ez zan ezkurak batzen ibiltekoa.

Lehenengotatik, gaztetasunak daroan indarra jokoan jarri eban. Etxe barruan hainbat aldakuntza sartu zituan, bazterrak ondus eta egokituz, eguneko martxari obeto erantzuteko. Elizan bardin. Karmengo eliza garbi, txukun, pozik etorteko dei-txartel bizi bat lez gura eban ikusi.

1898an, Karmengo Amaren kofradian, Karmengo Amarenganako onespina kofradeen artean suspertu eta sendotzeko asmoz, holako ikutze eta aldakuntza batzuk sartzen ditu, oso onuragarriak izango ziran aldakuntzak. Kofradikoen artean koruak moldatzen ditu. Zazpi kofradek osotzen eben koru bakoitza. Zer lortu nahi eban koru honeekin? -Aste barruan, kofrade bakoitza, berari tokatzen jakon egunean, Karmengo Amari ikustaldi bat egitera behartzen zan. Karmengo Amari, kofrade bakoitzak ikustaldi bat egitea, hori lortu nahi eban Aita Joan Bizentek. Gerora, karmeldar misioak diru laguntza beharrean aurkitu ziranean, misioen laguntzarako banku txiki bihurtu ziran Mariaren koru honeek.



Joan Bizenteren sinadura Burgosko Karmengo eskuizkribu baten

Apostolutzan oso-osoan sartuta ebulan. Gutxi jakozan eguneko orduak arimen onari eskeintzeko. Gidari azkar eta jakituna zan lez, mota guztietako jendetzak etorten jakozan argi bila gogo-bideetan zuzen eta oker bagarik jokatzeko. Gogo-zuzendaritzak eroaten eutsazan ordurik onenak.

Herriaren erlijiotasuna garbitu eta suspertzean egoan bere eliz lanen etorburua, amesa. Bere bultzadara, kofradi eta gaisetiko era-

kundeak odol barriz gaztetu eta Elizaren zerbitzuan eginkor eta emankorrakoak ikusi nahi zituan.

Ustelkeria kiretsik susmatzen zan tokian, han agertuko zan gure profetaren hitz garratza, mailu antzera, gaiztakeria hori gogor astinduz. Profetaren irudia ikusten eben askok Joan Bizenteren egikera eta jokabideetan.


Biraozaleak ziran, batez ere, haren bihotza minez eta tamalez odoletan jarten ebenak. Biraoak belarrietan iztanda egiten eutsan; ezin eban entzun. Askok biraoa arnasa bakoitzean botatzen ebela-eta birao eta biraozaleen kontra borrokan jokatzeko kristau talde berezi bat eratu eban Burgos eta inguruetako herrietan. Herriko moraltasuna garbi ta zindo zaintzeko artzain begiluzea zan.

Domeka ta jai-hausleak ere begitan eukazan. Honeek ere ez ziran geratu aho-zartada zorrotzik hartu bage. Beraien kontra jokatzeko bazkune berezi bat martxan jarri eban kristaurik onentxuenak aurrelari ziralarik.

Bere nortasun handiaren distirara, entzutetsu egin zan, behingo baten, Burgos guztian, Karmengo Priore gaztearen izena. Paulo apostoluaren aholkua erabilten eban berak ere goiburu: danena izan, danak Kristoganatzeko. Pertsona bakoitzagan Kristo ikusi. Nahiz pobreekin, nahiz aberatsekin, nahiz goikoekin joera bardina zan beti berea. Hortik, guztientzat eukan onberatasuna, txeratasuna, anaitasuna. Samur hartzen ekian jendea.

Herriak ere holantxe erantzuten eutsan bere ontasanari. Santutasunak distirutzen dituan izpitxoak ikusten zituen herritarrak Aita Joan Bizentegan. Elizgizon gutxi halakoak. Burgostik urtenda gero ere, kartaz behintzat, bizitza guztian jarraitu eban Burgosen itziztako adiskideekin harremanetan.

Etxeko praileekin ere maitekor eta adiskiderik onena lez agertzen zan beti. Banan-banan ezagutzen zituan bere artaldeko arditxoak eta banango adiskidetasuna gorde anaia bakoitzari. Aitaren agerpenak zituan etxeko guztiekin.



Burgosko katedrala

Izakeraz garratz itxurakoa zan, bere suzko begi eta ahots sendo-arekin, baina hori itxurazko irudia zan, barruz bere jokabide guztietan apal, bigun, samur, errukitsu eta maitekor ikusiko zenduan beti. Ez jakon gehiegi kostatzen berrogeita hamar folosoforekin ondo konpontzea. Ohituratuta egoan.

Bere ardura gorengoa, bere ardurapean eukazan praileei Karmengo Ordenako zana ta arnasea, ahalik eta ondoen, Santa Teresa eta Joan Gurutzekoaren ur garden eta bizietatik edaten emotea zan. Honetan asper ezina zan.

Honen argibide bat ekarriko dogu ona. Garai hatako astelenetan, gure komentuetan bogada egiten zan; etxeko erropa lohi guztia eskuz garbitu behar izaten zan, ez egoan besterik eta. Lan gogorra benetan. Astelehen baten, lan hori egiteko ziranak, beti lez, gosari arin bat hartzen ikusi zituan. Ez jakon bape atsegin izan pobretasun hau eta bertatik sukaldariari deitu eta langile harei gosari ugari eta sendoagoa emoteko agindu eutsan lanari berea zor jakola-eta.

Sermolari bikaina zan lez, haren hitzaldiak entzutearren jendea elizak betean joaten zan. Baten baino gehiagotan Gongotzaina bera ere joan zan.

Gongotzainaren adiskide, onulari eta autorle zan Aita Joan Bizente. Erabagi astun bat bideratzen zanean, Gongotzainak Aita Joan Bizenteri deituko eutsan eta bien artean aurkituko eutsoen irtenbidea auzian egoan arazoari.

Gongotzaina hil zanean, Aita Joan Bizentek egin eban hiletako hitzaldia; pasarte batzuk azaltzean begiak malkoz ikusten jakozan.

Honelantxe beste mila gauza azpimarratu geinkez hemen Aita Joan Bizenteren eginetatik. Burgosko herriak berari egindako goratzarre honetan sartu geinkez danak: "Hemeretzigarren gizaldian, Burgosko elizbarrutiak izandako elizgizonik gorengoa Aita Joan Bizente izan zala".

BARRIRO ERE MARKINARA

1894ko udabarrian, Markinan egin zan Batzar nagusian, amaitu eban Aita Joan Bizentek Burgosko nagusitza. Oraingoan Markinan bertan geratuko da, profesia egin barri diran gazteen hezitzaile izendatu baitabe. Beti emon jake ordenan garrantzi handia gazteen hezitzaileei. Honen arabera, beti onentxuenak aukeratzen ziran zeregin hau betetzeko. Joan Bizente ere, jakina, hobereenen artean egoan lerrotuta. Gaztedia larreratzen ohitua zan. Gazteekin ordu asko emondakoa.

Kabitik bertatik begiratu behar jakon, begiko niniari lez, gazteen hezikuntza honi. Hor huts bat egitetik ondorengo galgarriak letorkioz edozein gazteri eta. Gazteongan dago gure etorkizuna; gure biharko eguna, gure aberastasunik baliotsuena; altxorrik goren eta pozgarriena.

Gure Joan Bizenteren asmo bikaina santa Teresa eta Joan Gurutzekoaren irakatsi eta dotrina goitarrak gure gazteen buru-bihotzetan barru-barruraino sartzea zan. Ondo eskolatu maisu gorengo bi honeen eskolan. Santa Teresaren eta Joan Gurutzekoaren belardi zabal eta gardenetan janerazi eta matendu gure gazteen gogo-barrunbeak, gero bizitzako bideetan gidari jator, trebe ta ikasiak emoteko, beti horren beharrean dagoan gizarteari.

Arazo gaitz eta astun horri ekin eutsan gure Aita Joan Bizentek adore guztiz, bere bizitza zeregin horretan urtuta itzi arte. Holakoxea zan bera bere gain hartzen zituana eginkizun guztietan.

Burgosko bizitza zarraparratsu eta nahaspilaren orde, hemen bizitza oso ixil, etxekoi eta bakartia egingo dau. Beti bere gazteekin. Ama batek bestean maite ditu; amak bezelaxe ezagutu, bera baitzan,

era batera, gazte talde haren ama, hezitzaile, irakasle eta autorlea. Zetan esanik ere ez, ikasleak pozarren egozala halako maisu balio-tsuairekin.

Honez gainera, nozean behinka, herriarentzat sermoi ederrak egiten ditu elizan, amagandik ikasitako euskera gozoan.

Markinako komentuak, baita Larreakoak ere, hizlari asko eta handiak emon ditue euren egunetan. Munduko izarrik onenakin bar-dintzekoak.

Joan Bizenteren aldietako batzuk izendatzearen, hurrengo hone-ek azpimarratuko ditugu:

Aita Bartolome Madariaga -Prai Bartolome-1768-1835-Markina-Etxebarriako semea, hizlari gorengoa izanez gainera, biz-kaierazko idazle klasikoan artean dago. Hainbat liburu eder idatzi zituan. Gaur klasiko bat da. Idazlanetan baiizen urtena hizlaritzan ere. Arrakasta handiko hizlari ta idazlea.

Beste hizlari ospetsu bat Aita Jeronimo Garaigoitia -1846-1921-Zornotzako semea. Hau ere hizlari bikaina, herriz herri asko ibilia. Entzute handikoa.

Aita Andres Arrieta -1854-1923- markinarra berau. Euskera gozo eta txukuna erabilten eban bere hitzaldietan. Bere zaletasun gogoko-ena hizlaritza eban.

†
S. M. I.

Ama Virginia Mersedetaren ganian berba aldija.

Tu gloria Jerusalem, tu latitudo Israel,
tu honorificatio populi nostri (Jud. XI, 10).
Tu raris Jerusalemis gloria, tu Israelis alegria,
tu gure errie ondria.

Neve entula mailas: guisonen egutidiaz apaalduten dituezan liburuas edegui eta iracuntia da asco, aditetas bertatitio celan zorijonecuagua dan Jaungoicuari ondo serrietan deuntzan gertitio, bere eragutu ez, sde paramonia eguiten ez deutra-na leño. Izaniz gure lauma justia, acun lejo es omon castiga pasatuari eta zari-ja mortuari; eta izaniz bere egutidiaz guisonen zallia, quatija euanalduten ditue. Incolharicu itionutz, utria eguin bagaria. Orregaiti, berez gura da bona joristitec-arrone imun jarquitin danian, bere amai baguas alizatiac aurquituten dan mo-dua galarragarri au eta quati bere nai da bona eguties.

Eguja au icusi ran bates bere Jauregite hurren jatu aurretio Israelis erri-jin. Erri au autu eban Jaungoicuas bere bitartitio aditio emoties bere araguenic eragututen ez dabeen ontasunac, eta orreligiosu eguijasa guisonen orrian gar-detas. Orreligiosu eguin eban bere diu, atragar hurren eguintailen mendatitio, aguinte eutan ez narretitio beste errietan gentiuar, euren justitias loitu ez auten. Bana Israelis iden autan saritan au eguijasa eta biuntuten ran. Jaungoicuas gaurerac agantia; eta alan igaro har ran auten guernaco, gortuac iratitio arriue andijan zari asco egoten zala. Bana eragututen eban laster Isra-eltasun curan orria, eantuten elition Jaunari orreguita, eta justitiazagar aututa, haldulen auten jorona indartu celo arartuen bat, cein iraten ran gente aron cala quillia.

Eguja ilu saudec es dago edegui testamentu sarreco liburuac eta quati-jetan aurquituten dira egutitio de asco; bates bere Judit orison andia miraga-rrijaren istoria contaduten dan liburuan. Orre dimuncun leguez, Nabucalonesor-eraten jacen orregue quati indartu bat eguan Cansan aldiac; orregue once gortu eban Miriam orregue andija, eta arrotu ran gura icatrazo Jaungoicuat lacar-bat eugu: ajon gentiac, Bialdu eban orregaiti Holofornes generala caladu uganpaar berari ingunaco erretitiois mendatuten, cein eguin eban laster quiti jaac, Israelis ez bada. Jorona emango nauquijac ez arriue andijan igoran ondria galleteo, jorinagar celon joisan euren contra oreritio er-Beritico Mecedetac majen conucluan berrengoz pralicaua 1885, jorren urtian.

Markinan bizi zala, Berrizko Mersedetan egindako sermoia

Aita Tirso Erdoiza -1878-1956- Zornotzako semea. Hitz jario ederreko hizlaria. Batez ere, Gipuzkoa aldean hizketatu zan, Donostian bizi zala.

Aita Martin Uriarte -1879-1960- zeanuritarra. Euskerazko aldizkarietan, batez ere “Karmengo Argian” asko eta jakintsu idatzi ebana. Bere “Egi biribilak” eta “Solo lanak” atseginez irakurten zituen baserriarrak. Euskeraz egiten zan Bizkaiko herri guztietan ibilia zan. 50 urtean ekin eutsan hizlaritzari. 19 mila bat sermoi egin-dako sermolaria.

Aita Joan Bizentek hizlaritzarako doe bikainak zituan. Batez ere erderaz agertu eban bere trebetasun hori, Burgos aldean egon zane-tan. Euskeraz ere erreztasun handia eukan eta txukun hitz egin, baina bere Markinako egonaldia laburra izan zalako 24 sermoi bakarrik ezagutzen ditugu berak idatziak eta eginak.

Gasteizko Karmeldegian dagoz gordeta sermoi horrek.

Dinoen lez, bizi eta sutsu mintzatzen zan hitzaldietan. Berezkoa eban bizitasun hori. Ikur hori bere egintza guztietan agiri da.

Beste liburuxka bat ere idatzi eban euskeraz : “Karmengo Anaije” izenakin, Karmengo Amaren anaidikoei zuzendurikoa. Karmengo Amaren onespina kristauen artean zabaltzeko asmoz egina da, debozino honetatik datorkiguzan mesede eta grazia goitar-rak adieraziz.

Liburutxo hau Valentzian argitaratu eban, Jose Ortegaren silute-gian, 1888. urtean. Zalantzarik bage, Markinan bertan idatziko eban, bere letra ederra oinean jarriaz. Gero, ustekabea, Valentziako Priore egin ebenean, 26 urte zituala, Valentzian bertan egingo zituan pres-takizunak liburua argitaratzeko.



Markinako Karmengo komentua, Joan Bizentek ezagututako eran

Liburuak 104 orrialde ditu guztira. Sarrera laburtxo bat, liburua-ren asmobideak azalduaz. Berak dinoan lez, Karmengo Eskapularioaren aberastasun ugariak kristauei ezagutzen emotea da liburuaren asmo nagusia.

Oraindik eskolaratu bage egoan euskera zaharraren doinuan, honela idazten dau: “Onetara zuzenduten da euskerazco liburuchu au, bada, ez euqueen Bizcaico euscaldunac nun eurac ikasi euren mintzoera edo berbeta bacarran.

Augaiti, euscaldun bizcaitar maitiac, esquintzen deustu ceuen adisquidecintzo batec liburu au, nun aurquitu daiquezuezan Carmengo Escapularijuaren ganeco azaldaqeta preminazcueenac”.

Halan ere, liburuaren zatirik onena aita ta semearen arteko alkar-riketa luze batek daroa. Eskapularioaren inguruan biribiltzen diran gai eta jakingarri guztiak azaltzeko Aita Joan Bizentek hemen aita eta semearen arteko alkarriketa bat hartu dau bidetzat.

Aita irakasle, semea ikasle; aitak itandu eta semeak erantzun; aitak irakatsi eta semeak ikasi. Honetara aitak semeari Eskapularioaren onespina dituan barrunbe guztiak iragarten deutsoz.

Aita eta semearen arteko alkarrizketa hau liburuaren 5. lerroaldean hasi eta 77. erarte doa. Hamaika atalburutan sartzen ditu eskapularioari buruzko jakingarri nagusienak. Esaterako, lehenengo gaian, Karmengo Eskapularioaren jatorria azaltzen dau; bigarrenean, Karmengo kofradiaren hasiera, eta honelantxe, hurrengorik hurrengora, hamaika puntu oso interesgarri.

Tartean, Karmengo Amaren bederatziurren labur eta eder bat ere badakar. Liburua Birgina Carmenguari "Gozuak" izenpean jarten dituen zazpi bertso edo goratzarrekin amaitzen dau.

Begien bistan dago Aita Joan Bizentek landu bako euskera darabilela, orduan ez egoan non landurik eta. Ez gramatkarik, ez hizte-girik, ez ikastolarik, ez irakaslerik, ez euskerazko idaztirik ez egoan, hor-hemen galdutakoren bat izan ezik; herriaren ahozko euskera bakarrik erabili eta entzuten zan.

Giro horretan idatzia da Aita Joan Bizenteren euskera. Horregaitik, batzuetan arrotz kutsuz, erdel jantziz agiri jaku, baina euskera aldetik jatorra, gozoa, joria, herriaren aho-iturritik datorren lakoxe garbia.

Honen oroigarri, hemen jarten ditugu "gozu" edo goratzarreok gaurko idazkeraz jarrita.

BIRJINA KARMENGOARI GOZUAK

Karmengo Ama maite zarean,
gutziz eder ta biguna,
izan zakiguz mundu onetan,
geure pozgarri laguna.

Guzti guztiok dakigu ondo
zure ontasan zintzoa
zeinen indarrez Ama Karmengo

jatzun izen adjutua.
Onen seiñale da bai benetan
zeure semeen izena.

Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

Semeen izena gutxi izanik,
amaren zeure on naian
artu zenduzan onez ganetik
neba arrebeen lekuan.
Andia da bai bihotz orretan
euren erruki biguna.

Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

Grazia andi bardin bagea
dirudi zure promesak,
eskiñieran salbaziñoa
zeure Amaren biotzak.
Euki ezkerio eriotzean
karmengo jantzi on ona.

Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

Purgatorio izugarrian
dagozarian negarrez,
artuko dabe peneen erdian
grazia zeure bitartez,
ara zeu jatzi zaitezarian
emoten laguntasuna.

Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

Il da urrengo zapatua da
izentauriko eguna,
leku aretik laster urtenda
zerura igotekua.
¡Zorioneko Karmengo alan
au jaritxiko dabena!

Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

Izanik ain on berarizkuak
zeure eskintza andiak
artu nai leukaz gure biotzak
zeure mesede guztiak.
Deiez au gaiti zeure oñetan
gagoz gaur ¡Ama laztana!

Karmengo Ama maite zarian,
gutziz eder ta biguna.
Izan zakiguz mundu onetan
geure pozgarri laguna.

BASAMORTUAN

Karmeldar gizonak eremutarren akatsa daroa bekokian. Eremuko gizona da. Bakartadean dauko bere jatorria, sorburua: Karmeloko mendian. Oinarri horreek ditu zutoin.

Santa Teresak eraikitako mojetxe guztiak, egia honen arabera, nahiz eta uri barruan sartuta egon, harrizko itxituraz esparrututa agiri dira. Bakartade-hesiaz zaindurik dagoz barruz eta kanpoz. Ez dago hara sartzerik, ez irteterik. Moja bakoitza bere gelatxoan bakarti, ixil eta otoigile, gaur eta bihar, pobretasunean, bizikera latz bati lotuta bizi da.

Liturgigintzan, otoitz aroan, janaldi eta solasaldietan bakarrik alkartzen dira komunitatean. Hari horretatik doa karmeldar baten bizimodua. Mundutarrakandik alde, Jaungoikoa eta ni, biok maitasun pozean bat eginik, Jesusen antzera, basamortuko otoitzaldi luzetan, bakartadean bizi.

Harkaitz honen gainean dago kokaturik Karmengo Ordena. Helburu hori daroa bere erpinean.

Baina, honez gainera, Karmengo Lagundiak beste asmobide ta egitekorik asko ditu bere ardatzean. Zerbitzari izatea dagokio. Jaungoikoari, Elizari eta herriari zerbitzeko asmoz eta gogoz jarria izan da. Aitaren mahastira bialdutako langileria.

Eta Aitaren mahastian, ebanjelioaren zabalkundean, mota eta era askotariko arazo eta zereginak bideratzea ohizko gertakizuna da. Beti ere arazo astunak, gaitzak, neketsuak, garratzak, askotan bizia bera eskatzerainokoak.

Batzuek misio lurak ditue maite; besteok parroki lanak; honek irakaskuntza, harek katekesia; honi elbarrituekin egotea; haragokoa-

ri bizitzak baztertutakoei eskua luzatzea dagokio. Era askotarikoak esku artean ditugun gure egitekoak.

Baina zerbitzu goitiko honeen ondoan, eremuko bizitzak ere, zalego handia dau praileen artean. Nozean behinka, gauza guztiz onuragarria da apostoluzan indarrak erre ondoren, tarteka-marteka, eremu batera erretiratzea, geure gogo-barrena azkartu, indartu eta arnasbarrizteko.

Honen ildora, Karmengo Lagundiak beti izan ditu, eskualderik eskualde, bere "eremu" etxeak. 1835ean desagertu ziran komentu guztiok, Mendizabalek agindutako uxaldiaren ezbeharrez.

Mendizabalen uxaldiaren ostean, gauzak berera etorten hasi ziran, eremu-etxe horreek berreskuratu beharra sortu zan praileen artean. Honetan danak bat etozan. Hortik joian Aita Joan Bizenteren guraria ere. Honetan, beste arazo askotan lez, bera zan bihotz bero eta gartsuena. Probintziako Batzar Nagusi baten, bera ere batzarkideetako bat zala, auzi honetzaz berbatu zan Aita Joan Bizente, lehenbailehen arazo hori bidean jarri behar zala aldeztuz.


Batzar guztiaren onerexia jaso eban burubide honek eta Batzarrak Aita Joan Bizente bera izendatu eban, legearen arabera, arazo honi bideak egiteko aginduaz.

Zeregin astun hori bere ardurapean hartzerakoan, Aita Joan Bizente eremuko gizon bihurtu jaku. Baina non, zelan, nongo diruz egin basamortu izena eroango dauan etxe hori?

Non aurkitu toki polit, txukun, egoki bat begi eta gogoen atseginarriko? Holako bazterrak maite izaten ditu eremutarrak.

Ez zan biderdian gelditzeko gizona gure Joan Bizente eta, hemendik eta handik ibiliz, azkenean, aurkitu dau bere amesak zehatz betetzeko besteko toki zoragarri bat.

Errioxa Goikoan, Haro eta Miranda bitartean dago toki hori, Herrera izenez ezagutzen dan herritxoan.



Herrerako komentua

Kantabria mendatearen gibelean dago; arranoak ikusten dira, adikor, tontor-bizkarretan, gero hegada geldi-zabalean zeruak zeharkatuz haizeño bigun-etziaz jolasteko. Lurrez eta urez aberatsa da herritxo hori. Baina, aldi haretan, etxea bera aurkitzen zan egoera penagarrian. Komentu eta elizako horma nagusiak izan ezik beste guztia lurrera jausita egoan.

Esan daigun aurretik, komentu honetako lehenengo biztaleak Praile Bernardotarrak izan zirala. Mendizabalek, 1835an, agindu gaiztoz eta indarrean, komentuaren jabetza kendu arte egon zirala han Bernardotarrak. Gero, komentua deslai geratzean, behera etorri zan. Hortik haren egoera tamalgarria Aita Joan Bizente handik agertu zanean.

Komentu barria jasoteko behar zan esku-lana eta diru-zorroak ez ziran txantxetakoak. Danetik asko behar zan.

Besoak prest egozan, baina diru-kutxak hutsik. Eta diru bagarrik ezin lanik aurrera atera. Hor gure Aita Joan Bizenteren buruko min eta estualdiak. Baina, fede handiko gizona zan lez, ez eban unetxo baten ere uste onik galdu.

Bere Ama Teresagandik ikasitako jokabideari jarraituz, etxegin-tza hori San Jose doatsuaren ardurapean jarri eban. San Jose izango

zan aurrerantzean etxegintzako diruzaina. Eta, zinez, ez zan damutu, ez jakon txarto joan eta. Santa Teresak esaten eban lez, estualdirik gogorrean aurkitzen zanean, beti bialtzen eutsan lagungarritxo bat Jose deunak.

Burgosen egin zituan adiskide dirudunekin oraindik harreman estuak zituan. Adiskide asko ta minak zituan Burgosen. Eta adiskide honeek Aita Joan Bizente zelako arazo eta lanetan sartuta ebilen jakitean, bere buruko min eta estualdiak ezagutzean, berehalaxe dirua franko bialtzen hasi jakozan.

Esku-lana etxekoen artean zatitu zan. Igeltseru, arotz, errementari, baratzain, sukaldari eta abar, gehienak etxekoak ziran.

Etxegile nagusia Aita Joan Bizente. Diru arduraduna San Jose. Hau kontutan izanik, komentu honi "Jose deunaren Herrerako eremua" deituko jako. 1897ko martxoan estreinatu zan basamortu barria, Aita Joan Bizente bertako nagusi zala.

Basamortu honeek oso egokiak izaten dira norbere gogo eta bihotzak barrizatzeko, batez ere, arazo ta ardura korapilatsuetan luzaroan sartuta ibili diranentzat.

Batzuk bizitza guztirako bertan gelditzen dira; beste batzuek urte bat edo beste egiten ditue; inor hilabete batzuetarako erretirutzen da gogoa haizetu eta indar barrizeko asmoz.

Aita Joan Bizente ere basamortura luzaroan bertan bizitzeko asmoarekin joan zan, baina ames honeek gutxi iraun eben, barriro ere Burgosko Priore izendatu ebelako. Oraingo hau izan zan Burgosen egin eban azkeneko prioretza. Laster mundu barri baten sartuko da.

Esan daigun, jakingarri lez, Herrerako eremu hau gerora bertan behera itzi zala osasunerako kaltegarri agertu zalako.

INDIARA BEGIRA

Gure Aita Joan Bizente, beti lez, geldiezinaren burpilean dabil dantzari, Burgos aldean. Dana egin nahian; dana zuzendu ta arnasbarritu nahian.

Gauzak ilun eta motz agiri ziran, esaterako, politika arloan. Asarrekeria, gorrotoan koipetuta, kaleetan gora eta behera, jaun eta jabe. Elizaren etsaiak sutsu erasoka; katolikoen batasuna urrututa, bakoitza bere doinua jotzen; odollik, garrik bagako erlijiotasuna; moralitasuna alde askotatik zirikatuta; herri-ohiturak dana beharrean...

Baegoan han zer egin! Eta Aita Joan Bizente, bihotzari ate guztiak zabal-zabal eginik, kemenik galdu bage, gainera etorkion lanari erantzun egokia emon guran. Danean egon gura eta danera ezin heldu. Apostoluzari eskeinitako opari errekin zirudian.

Baina, bien bitartean, gazte-gaztetatik, bihotzeko txoko beroan ixilean gordeta eukan ames zaharra berbiztu eta oihu bizian deika hasi jako: zu, sinisgabeen artean, misiolari izateko jaioa zara, dirautso barruko ahotsak. Gogo-bihotzak sutan ditu. Aspaldian darabil, gau ta egun, errota baten antzera, biraka ta biraka, burutik kendu ezinik, gurari sutsu hori.

Bere otoitzaldi luzeetan, apal-apalik, negar zotinka, ilun bihurtu jakon bide hori, arren, argitzeko eskatzen deutso Jaunari. Jaunaren nahia betetzea besterik ez dau nahi. Hemen gelditzean hala misiolari joatean, non ete dago nire egia, Jaunaren nahia? Zein ete da nire Nagusien guraria, eritxia? Grina bizi honi zelan hiltzen itzi?

Eta lainopetik irteteko, Aita Jeneralari idazten deutso eskutitz bat Erromara bere kezka larriok agertuaz. Hutsik txikienik ere ez dau

egin nahi beretzako hain garrantzi handikoa dan aukeramen hau egi-tean. Ahal diran ziurtasun guztiak gura ditu. Jaunaren borondatea bilatu eta haxe egin!

Aita Jeneralak, bere aldetik, eragozpenik ez dagoala erantzun deutso, baina ziurtasun ziurrago bat nahi badau Fede Zabalkundeko Bazkunean buru egiten dauan Kardinal Jaunari idazteko dirautso bere gurariak agertuz eta berari eritxia eskatuz.

Halan egiten dau Aita Joan Bizentek. Jakitekoa da Kardinal jaunari dirautson hau: misiolari izan nahi dauala, baina ahal dala, martirioa irabazteko lurralde egoki baten gurako leukela izan.

Beste bitxikeria bat ere eskatzen deutso: Erromara edo-ta misio-etara joateko itxasontzia hartuko dauan porturaino oinez eta eskean joateko baimena emon dagiola, berak ere Frantzisko Xabier deunaren antzera egin nahi dauala bidaia hori eta.

Baietzaz batera, bedeinkapen guztiak emon eutsazan Kardinalak.

Honakoxe grina bizia jarten ekian Aita Joan Bizentek bere asmo-bide guztietan. Jesusen indarrak darabil haren bihotza. Gauzak asti-ro eta ondo egin gura ditu. Hara nondik datorkion urduritasun hori. Era batez, ikusi bere zuhurtasuna, jokoa ez galtzeko.

Karmengo Ordenan, hiru urtetik hiru urtera, hauteskundeak egi-ten dira Probintziako Nagusi eta arduradun barriak hautatu eta izen-tatzeko.

Hauteskunde horreek, hain zuzen ere, urte haretan, 1900eko maiatzean, Burgosen bertan egitea tokatzen zan. Eta Aita Joan Bizente bildur zan hauteskunde horreetan kargu barriren bat bere gain etortea balitz, horrek bere gurari eta asmobide guztiak oztopa-tuez gainera, ezerezean itziko zituala. Eta hau jazo ez zedin, begi luzez, aurreratu egin zan.

Azerikeria santuz, Aita Jeneralari mesede hau eskatuz idatzi eutsan: Arren agiri bat bialtzeko, bere seilu ta guzti, Kapitulora hau-teskundeetara etorriko ziran bazkide guztiei jakineraziz Aita Joan Bizentek Indiara misiolari joateko txartela eskuan eukala-eta, hari kargu barririk ez emoteko iragarritz.

Hauteskunde-Batzarra maiatzaren 4an bildu zan. Maiatzaren bostean Joan Bizentek Aita Jeneralak eginiko Agiria danen aurrean

irakurri eban. Ha zan izatekoa! Sinistu ezinik geratu ziran batzarki-de guztiak. Zor eta lor. Ez eben halako takadarik itxaroten. Baina, zer egin Jaunaren nahia hori bazan!

Batzarretik urten eta korura joan zan Aita Joan Bizente bihotz-ikara bizian dardaraka, negarrari emon eutsan: "Orain misiolari naz, misiolari!", inotsan bere buruari, apal-apalik, baina pozez gainezka-turik.

Laster zabaldu zan Burgos guztian zehar barri honen hotsa. Harriturik eta minberaturik geratu ziran Burgostarrak barri hau jaki-tean. Galera handia zan herriarentzat halako gizon argi, azkar eta baliotsua ustekabean galtzea. Burgostik alde egin baino lehen, Karmengo Kofradiak eratuta "agur meza" bat eskeini eutsoen Aita Joan Bizenteri.

Bazan han, kronikariak dinoan lez, negarra eta zizpurua mezako orduan. Ez dira ahaztuta eukitekoak Aita Joan Bizentek Burgosen itzitako jarraibide, lan, izerdi, maitasun eta entzute ona..., eta herriak esker onez ordaindu nahi deutso bere alde eginiko lan guzti hori. Honelantxe agurtu zan bere adiskide eta miresleekandik.

Egun batzuk geroago, 1900eko maiatzaren 15ean, Burgosko "El Catellano", berak sortutako izparringian, laudorio goresgarri hau idatzi eban norbaitek: "Aita Joan Bizente Burgostik joan jaku, eta ezin daikegu barriro etorriko danik esan, bera hain maite eta esti-magarri izan dauan uri honetara".

"Karmengo Priorea oso maitatua eta estimatua izan da gure uri-tarren artean, baita beharrezko eta premiazko ere bere baliotasun paregabeagaitik.

Ordaindu ezinean aurkitzen gara berak gure herriaren alde eginda-ko on guztiagaitik, baina gogoan eroango ditugu, bere oroigarritz, bere hitzaldi bizi, sakon eta sutsuak.

Gaiztekeria salatu ta zigortzeko erabilten eban suzko ezpata erli-jiotasunari urrututako bide barriak; arimen alde jarten eban arduraki-zun betea; berak bidean jarritako hainbeste asmobide eta erakunde, euren artean "El Castellano" izparringi hau.

Bera bagarik ez zan ezer izango gure izparringi hau; beronen bidez argitu zituan ilunpean, guzurrean, okerbidean, gaiztakerian murgilduta ebiltzan buru eta bihotz asko. Beronen bidez zeintzuk ziran bide onak eta zeintzuk txarrak; ona ta txarra agirian jarri.

Ezin izango deusagu on guzti hau ordaindu, baina bai esker onez eta bihotzez gogoratu eta bere lan eder eta zoragarria geurea egin.

Horregaitik berari agur egitean, bihotzak pil-pil dagi eta negarrak gure begiak ilundu ditu, baina beti geure barneko txokoan gorderik eroango dogu.

Zorionak lagundu bekio gure Karmeldar apal eta jakintsuari”.

1900eko maiatzaren 14an itzi eban Burgos.

Hurrengo uztailaren hogeita seirarte, holako bira harrigarri bat egin eban Espainia osoan zehar misioen alde aspergabe hitz eginaz. Karmeldarren elizetan, lekameen komentuetan, erataro etorkiozan eliza guztietan olinpiada antzeko zabalkunde bizi eta bero bat egin eban misio zaletasuna kristau zintzoen artean suspertu eta gehiagotzeko asmotan.

Baina, oraindik, ordurik garratzena igaroteko dauko. Bere getsemani txikia. Alargun dan amatxo maiteari eta bere etxekoei agur egiteko ordu garratza. Baekian amaren bihotza minaren minez odoletan jarriko ebal, baita bere senide ta anai-arrebenak ere.

Eta Zengotitara doa ama ta etxekoak besarkatzera. Irribarrez eta pozez igurtzi nahi izan ditu bere azken ikustaldi eta agur egite hori etxekoen samina gutxiagotzearen.

Alde batetik ama ta etxekoak pozik semea misiolari doalako, bestetik, saminez hain urrutira joan beharragaitik. Poza ta mina alkar besarkaturik agur esateko orduan.

Handik hamargarren urtera, ama hil zanean, jakin zan Joan Bizente berak iragarrita, zer jazo zan “agur egun” haretan, ama eta semearen artean.

“Hamar urte igaro dira uztailaren hogeta seian, ni ordu onean mundura ekarri nindun neure amatxoren azken mosua hartu nebantetik”, autortu eban Aita Joan Bizentek Indiako urrinean. Ha zelako

ama nirea! Hila da gaur; zeruan dago, beraz iragarri neike, azken agurra egitorduan, nirekin izan eban bihotzaldia.

Ni misioetara etorteak minez bihotza urratzen eutsan, baina bere kristau ontasuna nahigabearen gainetik jarri eta esan eustan: “Hartu, seme, zeure lan barrietarako; ez daukat gehiago”. Eta negar zotinka, 25 pezetako papera emon eustan bere negar malkoetan bustita. Horixe egin eban nire amak”.

Ama ta etxekoein egon ondoren, bere zakutotxo eskuan daua la aldendu zan Zengotitatik. Oinez joian, astiro-astiro, alde guztietara begira. Zengotita ostontzen zan bihurgunetik bere etxetxoari azken begirada luze-samur bat bota, atarian begira egozan amatxo ta beretarrei eskua eraginez azken mosu larri bat bota; umetatik hain maite zituan mendi, baso eta ingurumarietara begietako malko artetik agur esanaz urundu zan Berriztik. Bihotzean irudi eginik eroian bere jaioterriaren argazkia

Gero, Irungo muga igaroaz, Parisera. Ez doa Parisera turista gisan, oporrak egitera. Egun hareetan, Misio Erakusketa interesgarri bat prestatu zan Parisen eta haxe ikustera doa.

Parisen egun batzuk egin eta handik Ingalaterrara hiru hilabeterako ingeles apur bat ikastera, lehenengo ta behin, Indian . herriarekin mintzatzeko hizkuntza hori ezinbestekoa izango daualako.

Ikasitako ingeles apurrarekin Indiara. Azaroaren 18an itxasoratu da Genova-ko portuan. Genovarako bidean joiala, Paristik bere ama eta etxekoei eskutitz hunkigarri hau idazten deutse euskeraz.

Ona hemen bere letra eta guzti.



COUVENT DES CARMES

DE PARIS

53, Rue de la Pompe (Passy)

+

J. M. J.

Jaunaren baque santua
gurtioear!

Cemendijareu 4 garrenian.

Neure ama maite ta echeo gurtioe:
Ara nün aurquituten nazaru, Paris anai
onetan; Sondrestic Genova-ra ciar.
Genovar Italiari dago, ta da nen In-
dijaraco solias-ontzira illa onrechen
amazortzian equingo nazaru lecuu,
Jaungoicua e gura badan, ta usti dot
gura dabela, bada berac narua ta bera-
gaiti espalir eritrate juango; baña Jaun-
naren borondate santua equitia gaiti
ta arima fede bagaco tristiac salbeta
gaiti, ez Indijarano ezere munduaren
arqueneraquinõ bere quichi litratique

Indiarako bidean, Joan Bizentek bere amari idatzitako eskutitza

Hemen agiri dan lez, ez da erraza ez odolaren loturak apurtzea ez eta bihotzaren hizketa maitati hori aditzea. Ama ta semea banandu ezi-
nezko maitasunean urtuta. Biotzak banandu nahi ez eta Jaunaren deiak
banatzea eskatu. Azken baten Jaunaren borondatea garaile; Haren
nahia egiten dabe ama-semeak. Horra Zengotitarraren handitasuna.

GOAN. XABIER-EN HILOBIAN

1900eko abenduaren 7an, Bombay-ra heltzen da, handik Verapoly-ko misiora zuzentzeko asmoz. Berarekin hainbeste ames egin dituan Indiako lurra zapaldu dau. Pozaren pozez lurrean belau-nikatu eta bihotzari eutsi ezinik burua makurtu eta itzal handiz mosukatu egiten dau.

Indiak ere bere “ongi etorria” emoten deutso Aita Joan Bizenteri.

Indiara heldu zan egunetan, Goa-ko urian, handikiro gertautako Eukaristiaren omenez egundainorko Kongresu bat ospatu zan. Hango kristaudi guztia bildu zan Eukaristiaren inguruan, ospakizunaren ederrera, Eliz buruak aurretik zirala. Han egoan Verapolyko Gongotzaina, Bernardo Arginzoniz Jauna, Burgos eta Markinan Joan Bizenteren irakasle mina izandakoa. Gizon jakintsu ta eragilea berau, gaur, Verapolyko Gongotzain Txit argia da.

Honek Aita Joan Bizenteri Goara joateko deia egiten deutso, Bombay-ra helduaz batera. Atseginez eta esker onez hartu dau dei hori gure Joan Bizentek, baekian ondo Goan zer egoan eta: Xabierko Frantzisko deunaren hilobia eta gorpuzkinak.

Xabier misiolari guztien eredu ta zaindari da. Joan Bizentek ere bere eredu eta maisutzat nahi dau hartu. Harek aina Jaungoikoa maitatu, harek ainako garra jarri misiolaritzan, harek aina arima salbatu, haren santutasunera heldu...

Berak dirausku zer ebulan bere bihotz barrenean hilobiaren aurrean belaunikaturik otoitz beroan jarri zanean. Liluraturik sentitzen zan.

“Ez da erraza nik, egun haretan, Xabierren oinetan izan nintuan bihotz-ikara, oldozpen, gurari, asmo eta eskariak zelakoak izan ziran

esatea. Pozak hartu ezinik, bihotzak urten beharrean. Zeru txikitxo bat bihurtu zan ordu hori niretzat: Xabier santuari ikutzen nengoan, Malabarko misiolari Nagusiari, euskaldun anaia maiteari”.

Han egoan, euskeraz mintzatzen zan, Xabierren ahoa, gaur ixilik, baina bere egunetan, Espiritu Santuaren arnasbidea izan zana ebanjelioa otsegitean; eta haren oinak, Indian zehar, ebanjelio hazia eraiten zeharo nekatuak; eta haren arpegia hainbestetan izerdi baltzez tximurtu zana; eta haren esku bateatzaileak, gaur, hainbeste urtetan, lanaren nekepean irabazitako atsedena gozamentzen...

Ikuskizun honen aurrean negarra neriola nengoan eta bihotz minberaturik, Xabier maiteari hainbat eta hainbat eskari bizi egin neutsazan, neure apaltasunean, batez ere, Indiaren alde, misiolari eta misio-laguntzaileen alde. Bihotza, ordu haretan, misio-maitasunean urtuta neukan.

Xabier handiari agurrik laztanena egin eta handik alde egitean, liluraturik, oinaren ibilian, “tedeum” eliz eresia esanez ninoian, esker onez Jauna goratuaz”.

Eta Goatik bere lehenengo misio-barrutia izango zan Verapolyra. Hemen ongi etorriak, agurrak, besarkadak, jaia misiolari zaharrikin aurkitzean. Anaien arteko solasaldi gozoa.


Gero, egun batzuetako atsedenditxoa, bere misio tokia izango dan lurralde, muga eta bazterraldeak ikustatu eta ezagutzeko. Misio-barrutiari arpegia ikusi. Ikuspuntu azaleko bat izan, herri bakoitza zelakoa dan, zer daukan eta zeren beharrean dagoan ikusi. Ez zan izan parrandan ibiltea, misio-lanari pultsoa hartzea baizik.

Urduritan egoan misio-lanari hasiera emoteko: Barruan eroian egonezina ta bero guztia, bidez bidez, zabaltzeko grinatan; mendi gainetatik, irrintzi luzean, Jesusen izena ta ebanjelioa India guztiari oihukatzeke guraritan...

Herriz herri joateko, jendearekin hitz egiteko, noraino maite dituan esateko, ebanjelioa predikatzeke, sendiak, gaixoak eta behartsuak ikustatzeko, mezatan liturgia alkarrekin egiteko, misiolaritzan bete-betean sartzeko... Horren irrikitan dago.

Baina, gaurkoz, ezin ba lan horri hasierarik emon. Eragozpen handi batek katigu dauko: ez daki bertako hizkuntzarik.

Bertako hizkuntza “malayalam” da; eskoladunak ingelesa ere erabilten dabe. Horregaitik Aita Joan Bizentek Ingalaterrako egonaldian ikasitako ingeles apurra ahal dauan guztian landu nahi dau eta baita guztiz preminazkoa dauan malayalam ere bere jendearekin jardunteko. Hau, barriz, hutsean hasita. Hizkuntza biak behar-beharrezkoak ditu misiolariak.



Malabarko mapa: euskaldun karmeldarren Indiako misio-leku zabala

Gaurkoz, ba, bere zeregina hizkuntzak ikastea izango da, eta honetan betiko garra eta kemena jarriko ditu. Mutil ona bera orduak alperrik galtzeko.

Bernardo Arginzoniz Gongotaina, aldi haretan, Magnumey-en bizi zan eta bere ondora dei dagitso Aita Joan Bizenteri hizkuntza gaitz horreek bere laguntzaz eta begipean ikasi dagizan.

Eta Magnumey-ra doa gure Joan Bizente hizkuntzak maisuaren ahotik ikasteko.

Dirudienez, ez da gauza samurra malayalam ikastea. Mataza gogaitua ta aspergarria ikasi behar dauanarentzat. Honen harira, misiolari barriei hizkuntza gaitz horren ikaskizuna errezago egiteko asmotan, Aita Joan Bizentek, berak ondo menperatu ebanean, 1904ko urtean, Varkey jaunaren laguntzaz, hizkuntza horren gramatika bat idatzi eban azalpenak latinez jarriaz.

Orduko misiolariak latin ondo ikasiak izaten ziran, hori beharrezko baldintza bat baitzan apaizgoa hartzeko. Goizetik gauera baten idatzi eban arren gramatika hori, ondo biribilduta egoan lez, laguntza bikaina izan zan misiolari barrientzat.

Langile amorratua gure Berrizko misiolari jatorra.

Eder eta hunkigarri ikusi dau Joan Bizentek Indiako mundu hori. Txunditurik dago Indiak eskeintzen dituan ikuspegi zoragarriekin.

Indiara joan aurretik, antza, lurralde harek eremu gisako lurralde tristeak izango ziranaren susmotan egoan. Lurralde lehor, erre eta alperrak. Belar pixka bat abereentzat eta arroz apur bat gizakientzat, holakoa izango zala lur horren aberastasuna, gaitasuna. Ezelango aurrerapen bagarik biziko zirala herri horreek.

“Baina, guztiz oker nengoan”, dino berak.

“Harriturik ikusi ditut, erreskadan, zelai eta landa zabal, eder, eze, aberats eta emonkorak; solo, aldapa eta ibar narotsu ta emoileak, uzta, labore, palmaondo ta frutaz jantziak.

Baso eta mendidi izugarriak, oihanitsuak, zugatz-tantai ederrez beterikoak, adarretik adarrera tximino alaien jolastoki diranak; basapizti ikusgarriak ere bai, katamotz eta elefanteak.

Cochin eta Travancore-ko lurralde zabalak Ghates mendateak goitik beheraino zeharkatzen ditu. Han mendi gainetan sortzen diran ibaiak, murmurka ta saltoka jausiaz, biderdian beste ibai batzuekin alkar jotzean, guztira 15 ibai sortzen ditue, eta ibai honeek busti eta aberats egiten dabez Malabar-ko lurralde guriak.

Beraz, lurralde honeek urez aberatsak dira eta ura ta eguzkia eskuetik datozanean, ugaritasuna dakarre. Honez gainera, urtean bi edo hiru hilabeteko eurite ugariak izaten dira alderdi honetan. Hortik, eskualdearen azkortasuna”.

Bertako erlijio ofiziala eta zabalen dagoana hinduismoa da, beste erlijio mota asko tarteko diralarik: mahomatarrak, juduak, protestanteak, katolikoak.

Malabar, Karmeldarren misio-barrutian, lur ona aurkitu dau kristautasunak. Beste erreinu eta lurraldeetan Malabar-en beste kristau balegoz, Indian, gaur, katolikoak 100 milioetik gora litzakez.

Aita Joan Bizente Indiara heldu zanean, misio-barruti bi ziran karmeldarren ardurapean jarritakoak: Verapoly eta Quilon. Verapoly zan karmeldar euskaldunei izentaurikoa. Gaur misio bi horreek, Verapoly eta Quilon, bertako semeen eskuetan aurkitzen dira. Gaur ez dira misio-lurak. Zalantzarik bage, karmeldarren ereintzatik jaiotako frutu heldua dozu hori.

Hareek sartutako sustraiak enbor eta kimu bizi asko emon ditu, urteen joan-etorrian, Gaur, hango karmeldarren etxeak bertako semez beterik dagoz; seminarioak bardin. Lehen misiolariak egiten ebena, gaur, bertako semeak egiten dabe. Karmeldar euskaldunak han eginiko lanak koroï eder hori daroa gaur buruan.

Indiako bideetan ibiltari dogu gure Aita Joan Bizente. Baina zelakoak dira bidaia horreek? Zelan egiten ditu? Berak dirausku zelan maneatu eta mugitzen zan.

“Garai haretan, misio-ateraldiak egiteko, bidez bide ibilteko lau era edo modu geunkazan: Tren bidea dagoan tokietara, trenez; baina, hemen trenak oso urriak diran lez, leku gutxitara heltzen dira eta horregaitik gutxitan hartzen ditugu.

Hurbilera, urrera joatea bada, oinez. Urrunetara danean idi tirakariak tiratutako burdi zahar baten gainean; hauxe da modurik onena nekea ta asperraldiak astintzeko. Bidaia urez egitea bada, txalupatxo baten barruan. Eta hau ez da arriskugarria, baina bai gogaikarria, astuna ta luzea. Eta honen argibide bat ipinten deusku.

Oraintxe bertan Kottayam-etik etxerantz nator. Kottayam-etik Ernakulam-era 12 legua dagoz. Ba, hemeretzi ordu luze daroadaz neure bateltxoan eta ezelan ere ez naz helduko etxera gauerdirate.

Gero, bere txalupatxo hori zelakoa dan azaltzen deusku: nire txalupak, luzeran, 12 metro ditu eta zabaleran metro t'erdi. Nirearen neurriak dira honeek, baina badira handiagoak eta txikiagoak ere.

Batelak barrukaldean oinpeko edo estera bat daroa eta haren gainean bidaria. Batela, sehaskatxo bat balitz lez, bilin-balan eginez, ibaiaren lepotik doa.

Eguzkia ere kontutan izan behar dozu. Malabarko beroa ezea ta kiskalgarria da. Horregaitik, bidean itota jaustea gura ez badozu, neurriak hartu beharrean zagoz. Arraunlariak eurak arduratzen dira lan honekin. Batelaren zeru alde palmondoaren ostorriekin zarratzen dabe eta txabola antzeko bat egin barruan egoteko, sartzeko eta irteteko atetxo bat dauala”.

Honako jakingarriak emoten deuskuz gure Aita Joan Bizentek.

Txirotasunean bizitzen ikasitako gizona zan. Hauxe eskeini eutsan behin Jaungoikoari zin eginez eta zin hori ez eban inoiz apurtu. Beti pobretasunaren besoetan. Bere ateraldiak egitean, bidean jarrean, honetan kontu handikoa izaten zan.

Diru aldetik behar beharrezkoa zana bakarrik. Hirugarren mailako trena hartuko eban beti, nahiz eta bidaldi luzea izan; bidean jateko izki-mizkitxo bat; gosea kentzeko beste ere ez; atseginez entzutekoa da bere lagunak honetzaz dinoena. Batez beste, danak zerrenda honen barruan dabilta: Bidaldi luzeetarako arrautza egosi bi eta fruta pixka bat, edo ogia, gaztaia, arrautzea eta frutea, danetik pixkatxo bat, edo tortilla txiki bat madariekin...

Ikusten dan lez, urri-jale eta urri-edale Jaungoikozko gizon hau...

Behin beste praile batekin joiala, Eibarko Maltzagan trenez aldatu behar eta geltokian itxaroten gelditu ziran. Itxaron eta itxaron eta trena inoiz agertu ez. Orduko trenen kontua!

Halako baten, badinotso bere lagunak: Jan daigun; ogia, tortilla eta azeituna batzuk dakardaz. Bagoi oste batera joan, ondo-ondo bedeinkatu janaria eta amaitutakoan, eskerrak emon ondoren, esan eban: “Honi esaten jako ondo jatea”.

Bartzelonatik Donostiara trenez egin eban bidaldi baten, bere janari guztia hauxe izan zan: geltoki baten erositako sagar bi eta kafetxo bat.

Jesus Maisuarekin maiteminduta dagoan gizon baten portaerak dira honeek. Kristoren testigantza eta usain ona alde guztietara zabaltzen dakizanenak.

Barriro Indiara itzuliaz, Aita Joan Bizenteri, bere 38 urtekin, malayalam ikasten emoten zituan ordu eta egunak luze eta astun egiten jakozan.

Borrokara sartzeko irrikitan egoan. Lanari heltzeko grinatan; honela azaldu euskuzan berak bere urduritasunaren penak: “Oba egun hori bihar balitz! bihotz barru-barruan daroadazan neure indioekin herkidetu eta eurekin lehenbailehen harremanetan astea nahi neuke.

Magnumey-tik urrun dagoan auzune baten nengoala, kristau talde handi bat hurreratu jatan. Hainbatetik jakin eben ni izango nintzala euren misiolaria. Eta euren buru egiten ebanak, eskuak bular gainean batu, burua begirakor makurtu eta arreta handiz esan eustan: “Gu pobreak gara, ezeukiak; inongo babesik bage gagoz. Misiolaria behar dogu gu zaindu eta babesteko. Jaungoikoarren, izan zaitez zeu gure misiolaria”.

-Bai pozik ere, erantzun neutsan, neuk ahal dodan guztian behintzat. Baina, lehenengo zuen hizkuntza ikasi behar dot, oraindik ondo ez dakit eta. “Ba, Jauna, ikasitakoan betor lehenbailehen gure artera”. Limosnatxo bat emon neutsen eta pozik joan ziran gizajo hareek.

“Baina, ni minetan gelditu nintzan, zehatz bihozberatuta, negarrari eutsi ezinik. Kristau hareenganako maitasun sutsu bat biztu jatan neure erraietan. Lagun hurkoari deusagun maitasuna baino sendoagoa zan, goragokoa; ezpai bagarik, aita-semeen arteko maitasunaren antzekoa.

Oraindik gehiago: odoletik eta haragitik datorrena baino goragotik datorren lez, lurreko gurasoena baino biziago sentitzen da. Kristau laztantasunetik, samurtasunetik datorren maitasuna dala esango neuke. Ulertzen hasita nago zergaitik hartzen dituezan gurasoak, orde zez eskatu bagarik, hainbeste lan, neke, ardura eta burukatze seme-alabakaitik. Euren bihotza inoiz agortzen ez dan iturria dalako. Horregaitik ez da inoiz amatatzen aita-amen maitasuna.



Joan Bizentek Manaikanate-n bateatutako lehenengo kristauak

Maitasun horren erpinean dago misiolaria ere. Bestela zelan gairiditu alde guztietatik datorkiozan eragozpen, nahigabe eta zailtasun guztiak? Ezinezkoa litzake.

Emon daigula Jaunak berak zerutik jatsi eta gurutzera igoteko izan eban maitasuna”.

Bizarraren kondairatxoa

Magnumey-n, malayalan ikasten ziharduala, bere bizarrari has-ten itzi deutso.. Indiako misiolari guztiak daroe, batez beste, bizar luzea. Bizarra misiolariaren ezaugarri bat da.

Aita Joan Bizenteren bizar hori, urteen joanean, ospetsua ta sonatua egingo da, alde guztietan. Txantxa ta adar-jotze asko izan da bizar hori dala ta ez dala.

Behin bere gaixoaldian, Berrizen egoala, bere ilobaren umetxoa Aita Joan Bizenteren bizarrarekin olgetan ebulan. Behin bizarretik tiratu, behin bizarrakin begiak itsutu, han ebulan mutiko hori barrezka ta algaraka bizar moltzo handian eskuak sartuta.

Halako baten, amak: ume, geldi, itzi bakean osaba prailearen bizarrari. Eta Aita Joan Bizentek irritsu eta pozez, erantzun: “Laga egiozu umeari, beharbada, egunen baten, berau ere, neure orde z, misiolari izango da eta”.

Bizar honek bere xuxu-muxu edo kondairatxoa dau.

Deogracias, Aita Joan Bizenteren arreba bakarra, dakigun lez, Mercedes izenaz, Medina del Campo-n, moja karmelita egin zan. Mercedesek, berezkoa dan lez, bere neba misiolariaren argazki bat euki nahi dau, baina bizar eta guztikoa. Bizar bagarik, misiolariak ez dauko liraintasunik.

Merzedesek gora jotzen dau, Bernardo Arginoniz Gongotzainarengana argazki hori eskatuaz, bere neba irrikariak ez deusala bialdu nahi eta.

Arginoniz Gongotzainaren erantzuna: “Joan Bizente neurekin dago. Guztiz zintzo ta Jaungoikozalea da; laguntza handikoa jat.

Baina oraindik ez dau argazkia egin. Honen atxakitzat, bizarra, oraingoz, ez jakola behar dan bestean hazi jarten dau. Baina, zu lasai; argazki hori neure agindura eraginazoko deusat eta orduan bialduko deusut. Bitartean, zu trankil”.

Joan Bizentek ere honako zerbait idatzi eutsan bere arrebari: “Zuk eskatutako argazkiari buruz gure Gongotzainak hitz erditxo bat esan deust, baina jakizu, epe bako horrek, oraindik bizarra ez jatala nahiko hazi. Gure aitaren semeak bizar ederrakin agertu behar dau. Itxaron ba guztiz hazi arte.

Zuk ere hau ondo aituko dozu: Koronel baten semeak, gutxienez, kapitan baten bizarra eroan behar dau eta nirea, gaurkoz, sarjentora ere ez da heltzen” Honela adarra jotzen deutso bere arrebari.

1901eko abuztuan barriro idazten deutso bere arreba Mercedesi: “Hartu dozu nire argazkia? Neure bizitzako lehenengoa da; ez dakit gehiagotan egingo deusteenik. Baina, jakin egizu hauxe: ez dodala argazkia atera zuri eder egitearren, ez eta Gongotzainari, ez beste inori.

Geure kristauen onagaitik atera dot. Oraindik orain, bateatu barri dan kristau talde handi baten argazkia euki gura genduan geure misioan eta uste genduan argazki hori misiolari bagarik, erdikia geratuko zala. Hau dala-ta, jarri nintzan neu erdi-erdian eta, zeuk ikusten dozun lez, bapo-baporik agertu ere bizar eta guzti”.

Gerora, sarritan erretratatu zan, bai bakarrean eta bai lagun artean, baina beti bere bizar handiarekin. Aurrerantzean, bizar hori bere nortasunaren ikur bat lez izango da jendearentzat. Koronelarena izango da, zalantzarik bage.

Baina bere bizar eder eta apain horrek nahiko ardua eta buruhauste ekarri eutsazan, kezkaz larriturik ebulan, ba, azken aldirantza, bere bizar horren erruz.

1932ko urtea da. Joan Bizentek gogo-iñarkunak egin ditu. Egun horreetan, Ordenako legediari, gogoketaren deira, begirada zehatz eta astirotsu bat jaurti deutso.

Eta hara non agertzen dan zoritxarra. Bera dana izanik, arnasa

bagarik gelditu da, kezkatu, gogoz bildurturik, eskrupuloz beterik. Zer izan da gogoa horrenbestearaino ilundu deusan hori? -Bere bizarra!

Bere bizarra legeko aginduetatik kanpo geratzen dala konturatu da. Argi dino legeak: “Misioetan izan ezik, ez begi inork bizar luze-rik eroan”. Honan dago idatzita legean.

Bera misiolari izana da 17 urtean, baina gaur ez dago misiolurrean eta hemetik datorkio bere gogoko arra: Nire bizarra legearen kontra dago; ni ez nago gaur misioetan. Zer egin? Nora jo? Eta ilunpetik irteteko, Aita Jeneralari, eskutitz baten bidez, bere kezka eta larrialdiok agertzen deutsoz.

“Lehenago konturatu behar neban arazo honekin, dirautso, baina burutik ihes eginda euki dot. Gaur minez nauko, zer egin ez dakidala. Nik ez dot nahi neure heriotz orduan Jaungoikoaren aurrean errudun agertzerik neure bizar honen erruz, geure legearen kontra dagoala jakinik.

Honen arabera, kentzeko asmotan nabil, gure Aita Jeneralak beterik agindu ez balegi. Inori ezer esan bagarik kentzeko tentaldian egon naz, baina gero nagusiei esan bagarik kentzea ez legokela ondo iruditu jat. Arrazoi honek bultzatuta zuzentzen naz Erromara eta Aita Jeneralaren erantzuna heldu arte neurekin eroango dot bizar zuri hau”.

Halako baten, etorri zan erantzuna: “Pozik damoiatzu bizarra luze eroateko baimena. Orain gehiago dinotso Aita Jeneralak barruko kezkak zehatz garbitzeko asmoz: “Ez neuke ondo ikusiko zuk zeure bizar misiolari hori kentzea, zu zelanbaiten Indian dabiltzan misiolari guztien eredu, ordezkari eta aita lez baitzaitugu guk”.

Mezu honekin zeharo baretu zan Aita Joan Bizenteren gogoa eta Aita Jeneralaren eskutitzari eder eginaz, karta buruan, letra gorritz honako hau idatzi eban: Gure Aita Jeneralak eskubidetu dau nire bizarra!

Donostian hil zanean, bere arpegiak bakea, gozotasuna, atsegintasuna agertzen eban. Anaia Redentok, bere gaixozain leialak, erli-

kiatzat eukiteko, bizarra moztu gura izan eutsan, baina ez jakon onartu.

Orraitio, bizar moltzo eder bat kendu eutsan. Bizar moltzo hori, gaur, Gasteizen dago erlikia modura gordeta.

MISIOKO DIRUEN ARDURADUN

Bernardo Arginzoniz Jaunak oso begiko eban, ikasletzatik, Aita Joan Bizente. Begien bistan egoan gizon zuzena, zintzoa, azkarra, langile nekegaitza zala. Lanerako gaitasun bereziak zituala. Etorri handiko misiolaria.

Eta inori atsegin ez jakon ardura nekegarri bat leporatu eutsan Gongotzainak: misiooko diruen arduradun eta banatzaile izendatu eban.

Hilero-hilero, hamar-hamabost egun, zeregin horretan emon behar izaten zituan. Gogoko ez jakon arren, misioari egiten eutsan zerbitzu bat lez hartu eban berak.

Aldi haretan, misiora heltzen ziran limosnarik gehientsuenak Belgika aldetik etozan; baita Espainia eta Erromatik ere, baina neurri askozaz txikiagoan. Misioa limosna hutsez hornitzen zan.

Aita Alfonso, misiolari belgikarra, Indiako misioa ondo ezagutzen eban gizona zan, hango lurraldeetan luzaroan misiolari egondakoa. Gizon hau zan misioetako diruen jagole eta banatzaile; beronen eskutik heltzen ziran diru-laguntza guztiak misiora. Erromatik betetzen eban zeregin hau.

Bi hilabetetik bi hilabetera bialtzen zan Indiara limosnaz batutako diru laguntza hori, franko dirutan. Eta Aita Joan Bizentek, hara heldutakoan, diru hori hartu, Cochingo Banku batera eroan eta "rupietan", bertako dirutan, jasotzen eban.

Behin frankoak aldatutakoan, rupiekin lan-saria eskeintzen eutsen Jaunaren mahastiko langileei: Gongotzaiagandik hasi eta mahastian ziharduen gainetiko langile guztiei: misiolari, irakasle,

katekista eta abar. Bide batez, misioan egon diran beste gastu guztien zorrak ere ordaindu.

Diruak eskuetan ikara emoten eutsan arren, arazo horren ezbeharak gogo onez eroaten zituan limosna horreek guztiz beharrezkoak ziralako misioen martxarako.

Misioari eskeintzen eutsan opari gozo bat lez hartu eban zerbitzu hori. Hori ere misiolariaren lana da.

KOMENTU BARRIA

Egintzak jotako gizona dogu Aita Joan Bizente. Asmo barriz eta egitarauz beteriko burua.

Gaur, Ernakulam-en, Cochingo uriburu zabalean, komentu bat egitea erabagi dau. Bereztik gizon eremuzalea izanik, Indiarra etorri baino lehen eukan buruan sartuta ames hori.

Misiolariantzat atsedean toki eta babesleku bat eraiki nahi dau, nozean behinka bertara arnasa barria artzera erretiratu daitezen. Asmo horrekin dabil. Garrantzi handikotzat jotzen dau etxe hori misiolaritza barruan. Gongotzain eta beste Nagusiak ere horretan dagoz. Begi onez ikusten dabe komentu barri horren beharizana.

Ez zan lan erraza, orraitio. Kutzak hutsik eta misiolariak urri. Aita Joan Bizente lakoxe gizon kementsu bat behar zan egitamu horri eskua ezarteko. Gongotzainak haren gogo bizia ezagaturik, bedeinkapen guztiak emon eutsazan komentu barri hori eraikiteko.

Zorionez, egun hareetan, Burgosko emakume kristau eta ongile batek, Rosario Salazar izenekoak, limosna eder eta lodi bat egin eutsan Aita Joan Bizenteri.

Baliteke emakume ongile hori Aita Joan Bizenteren asmoen jakitun egotea eta hortik haren eskuzabaltasuna. Laguntza horri esker komentugintzan hasteko eran dago.

Zertarako, baina, komentu hori misiolari bakoitza bere parrokiako abadetxean bizi bada? -Horrexegaitik, hainbaten, misiolarien bakartade eta urruntasun hori gaingintzeko guraritan.


Misiolarien bizimodua berez da gogorra ta latza. Aberriko egokiera eta erreztasun ugariei uko eginik, herrialde pobre eta atzeratuetara joan dira.

Luzaroko misiolaritzak gizona gogoz nekatu, indargetu, zerbait erreta izten dau. Bakoitza bere misio-esparruan, bakarraldi luzean; alkarrengandik urrun; alkar ikusteko erabide bagarik; ibilbide pobre eta neketsuak; liburutegi bagarik zahar gelditu dan burua eguneroko haize barriz erabarritu ezinik; erlijiotasunaren sua berbiztuteko; bakarraldi batzuk norberarekin barrero aurkitzeko; gogoa kimu barriz loretuteko...

Astirik eza misio-lanari egoki erantzuteko; nekearen zigorra soinean; gogoa atsedean eske; misiolarien kemen eta adoretasuna gaixotzeko zorian...

Behin baten, Aita Joan Bizentek berak idatzi eban Indiatic: bere misio- lurraldeak 200 kilometrotik gora zituala eta lau misiolari bakarrik mundu guzti horri erantzuteko. Lauen artean landu behar lurralde izugarri hori. Honekin dana esanda dago.

Langileak bere atsedenaldira eta solasaldiak behar ditu barruko zutoina, egonarria apurto ez dedin.



Ernakulam-go San Alberto kolegioa

Lagunekin bizi-giro pozgarrian aurkitu; arazoak baztertuta itzi denboraldi batez; norbere buruarekin aurkitu; egindako bideari begiratu onak eta txarrak azterkatzeko; lehen ikasitakoak barriztatu; jakintza barria kolokatu; gaurkotu pastoral bideak; lagunarteko adiskidetasunari sugar barria emon; mahastiko Jaunarekin otoitzaldi luze ta samurrak izan; norberetzat astiaro luze bat hartu gogo eta indarrak odol barriz suspertu eta, apostoluak Pentekoste egunean lez, Espiritu Santuz beterik, misio- lanetara barrero itzultzeko...

Horretarakoxe nahi eban Aita Joan Bizentek komentu barri hori. Erabat atsegin eta atsedean toki, jakintzarako eskola, otoitz leku eta Siloe-ko urtegia bezalaxe izan zedin misiolarientzat.

Euskal herritik joandako misiolari barriak ere antxe aurkituko eben euren kabi beroa. Non toki hoberik eta baketsuagorik misiolari barriak malayalam, bertako hizkuntza ikasteko? Non eskola hobetik misiolaritzaren zelan egiten dan ikasi eta misio-lanari pulstua hartzeko?

Gorago esan dogu Aita Joan Bizentek, berak malayalam ondo ikasi ebanean, misiolari barriek hizkuntza hori ikasteko eratasun guztiak emoteko guraritan, hizkuntza horretaz, latinez, gramatika bat idatzi ebala. Gramatika hori misiolari barri guztien eskuetan ibili da

Bestalde, Joan Bizentek ez eban misiolaria bakartadeko eremuan ilunpe gorrian deslari, jakintzaren ur garbietatik urrundurik ikusi nahi.


Misiolari ikasiak, egungoak nahi zituan, ondo jarriak mundu erdian. Urduri ebilen ardura hau burutik kendu ezinik.

Misiolarien kaltetan joian huts handi bat nabarmen agertzen zan hemen. Erromako Kuriak, esaterako, aldizka argitaratzen zituan txosten, aholku, lege, itun, agerkai eta burupideak ez ziran misiolarien esku eta jakinera heltzen. Eta hau oker handia zan. Misiolariak ezjakintasunaren ogia jatera behartzea zan hori; misio-lanaren kaltegarri.

Eragozpen hau menperatzeko bidea argi ikusi eban Aita Joan Bizentek. Zergaitik ez aldizkari bat prestatu Ernakulam-en bertan,

Erromako barri eta adieraspén guztiekin bilduma eder eta zabal bat eginez?

Esan eta egin. Gizon harentzat ez egoan zailtasunik. Eragozpen guztiak hankapean sartzeko gauza zan Jaungoikoaren aintza jokoan egoanean.



Joan Bizente, Peermade-n karmeldar misiolari birekin.

Arazo honetzaz bertako Gongotzain, misiolari, apaiz eta gainetikoeekin hitzaldi luzeak izan ondoren eta danen oneritxia jaso, bertatik hasi zan lanean.

Prestaketa guztiak ondo-ondo biribildu eta Ernakulam-go misioirarkolan, inprentan, "Promptuarium" izenaz, aldizkari bat sortu eban. Euskeraz, Promptuarium orde, bilduma edo laburpena esango genduke. 1904ko urrian argitaratu eban lehenengo alea.

Hantxe etozan laburpenduta Erromatik emondako txosten eta jakingarri berezienak, bide batezko beste barri askorekin. Pozik eta eskerrak emonez hartu eban misiolariak Joan Bizentek. bideratutako zerbitzu txalogarri hau.

Asmo eder eta goragarriok gauzatu nahian, komentugintzari hasiera emon eutsan. Hara ta hona joaz, etxegintzarako behar beharrezko izaten diran baimen eta paper ofizial guztiak eskuratu zituan, komentuari hasiera emon jakon lehenengo harria jarriaz.

Apainzale baino abra dagoan etxea izango da, hau da, gela zabalhaizetsuak, pinpirin eta freskoak, misiolariak bertan gustura egon eitezán, lurralde hori guztiz beroa ta kiskalgarria baita. Egonleku guztiak ondo antolatuak, zerbitzu guztiak ondo jarriak, txukun eta oparo bizitzeko eran.

Honako obra batek beti dakar ezames, mormor eta nekeak eroan beharra, beti agertzen da, ba, etsaien bat aurrean. Zenbat buru hainbat aburu, esaten da gure artean. Horregaitik, obraren buru egiten dauanak beti hartu behar izaten ditu ezbear, neke eta garrazkeriak etsaien aldetik, baina Aita Joan Bizentek bizkar gogorra eukan gainera etorkiozan makiladak jasoteko. Gora begiratuaz, ez eban nekerik ikusten.

Besteak egin onartzen ez dakien aldetik holako mormor eta ezames batzuk entzuten ziran: ez zala beharrezko Indian holako komenturik, burukeria bat zala hori, alperreko diru-eralgite bat, eta abar...

Urte bi terdiren barruan amaituta egozan bai komentua eta bai eliza. 1905eko martxoaren 18 eta 19an egin zan etxe eta elizaren estreinaldi eta bedeinkapena.

Handikiro ospatu ziran jaiok, Arginzoniz Gongotzaina buru zala; haren inguruan misiolariak, bertako abadeak eta herrietatik etorritako kristau taldeak.

Aita Joan Bizentek ondo merezitako txalo eta goralpenak jaso zituan egun haretan han bildu zan jende taldeagandik. Esker onez eskeinutako txaloak ziran eta ondo merezitakoak.

Zugatza fruetatik ezagutzen bada, Ernakulam-go komentu honek frutu ugariak ekarri zituala esan behar.

Hantxe eskolatu eta trebatu ziran, gerora, Euskal Herritik hara joan ziran misiolari guztiak. Hantxe malayalam ikasi; hantxe lehenengo oinkadak emon gero misiolaritzan sartzeko. Etxeko eliza ere

misiolari barrion ardurapean egoan, baita herriko ospitalea, espetxea, erlijiosa eta gainetiko ikastetxe eta erakundeak ere. Hantxe egin ziran misiolari urratsez urrats komentu barri horretako biztanleak.

Euskal Herritik joandako zazpi misiolari gazte izan ziran komentu horri hasiera emon eutsenak.

Orduko egunetako izkribu batek dinoan lez komentu hori izan ei zan misioko "Alma Mater" lez. Hona hemen Aita Joan Bizenteren asmobideak beteta. Haren bihotz, misiolariak emondako fruturik onenatarikoa.

Komentu hau, gaur, 1937tik hasita, Indiako Karmeldarren esku itzita dago. Gaur bertako karmeldarrak, Joan Bizenteren kimutik jaiotako karmeldarrak dira hango misiolari eta etxe jabe.

KOTTAYAM-EN

Aita Joan Bizente, Indiara etorri danetik geroz, malayalam, misioko hizkuntza ikasten dabil. Ez da lan erraza; adarra gogor sartu behar jako hizkuntza bihurri horri amaibako orduetan. Hitz apur batzuekin jaubetu da, baina oraindik, ez da gauza lau berba alkar ondo josteko.

Hau eta guztiz ere, irrikitan dago, borborrean, misio-lanetan sartzeko. Zakutoa lepora bota eta, Jaunaren izenean, herriz herri, elizarik eliza, etxerik etxe; mendi, muino eta aranak zeharkatuz eta zapalduz, ebanjelioa predikatzen noiz hasiko dago.

Baina zelan konponduko da bertako jendearekin euren hizkuntzarik ez badaki? Hor korapiloa, hor koska!

Dana dala, santuentzat ez dago eragozpenik. Inondikoak asmatzen dabez eurak nahi dabena lortzeko. Bide guztiak dardaraka jarten ditue otoitzarekin. Hortik euren goitiko indarra.

Ikusi Aita Joan Bizentek bere jendearekin ulertzeko erabilitako trikimailu ta mainak: inozkoetan, zinuekin hitz egiten eutsen. Honetan ondo entrenauta egoan, komentuan ere, ixil orduetan, zinu-ka itz egiten dalako.

Alboan ingeles ekienek bat baeukan, ingeles; abadezkoren bat bazan, latinez, bere hitzak malayalam-era itzultzeko eskatuaz. Gauzea zan geldirik ez egotea. Lurra jorratu, gero hazia ereiteko.

Zergaitik hasi eban Kottayam-en bere misiolaritza? Honek ere bere historiatxoa dau.


Aita Arginzoniz, Verapolyko Gongotzaina izan aurretik, Puthempaly-ko seminarioan, zazpi urtez, irakasle izana zan. Burgos

eta Markinan ere irakasle bete-betekoa ezagutu dogu.

Beraz, zelan sartu zan Aita Arginzoniz Kottayam-en? -Ba jaiegun eta oporraldietan, irakasteak astia izten eutsanean, Kottayam-era joaten zan, bere ontasunak bultzatuta, arima egarriz, bertan misio-barruti barri bat eraikitako asmoz.

Kottayam ebanjelioaren argi bagarik, oraindik eremu egoan, Misiolari bat bera ere oraindik hara sartu bagarik egoan. Lehenengo atxurkadak Aita Bernardo Arginzonizek jo zituan eta berberak maitzeko izerdiz eremuko lurra busti, gero, ebanjelioaren haziak guri eta indartsu urten egian bertan.

Protestante eta jakobiten esparrua zan lurralde hori eta lehenengotan, bekoki ilun eta etsakeriaz hartu eben Aita Arginzoniz. Inoiz heriotzaz ere zemaitu eben.



Arginzoniz karmeldar gotzaina

Baina ez egoan gure misiolariari atzera eragitekorik. Santuen odola eroian zanetan bildurpean jausteko.

Dana dala, ez zan luzarokoa izan etsakeria hau. Laster konturatu zan Kottayam-go jendea ha gizona nor zan eta zelakoa zan. Zeintzuk ziran haren asmobideak. Misiolari haren gizatasun neurrigabea ta ongiletasuna ezagutu ebenean, ez bakarrik etxeko lez, baizik eta anaia lez hartu eben.

Lehenengo kristauen antzera, kristau taldetxo bat pilatu eban bere inguruan, gerora galburuak lez ugarituko zana.

Bere etxekoak bialdutako diruarekin baselizatxo apain-txiki bat jaso eban bertan, eta antxe pilatzen zan Kottayam-go kristau artalde txikia, bere artzain argi eta maitalea erdian zala.

Gauza batekin konturatu zan Aita Bernardo: Kottayam etorkizun handiko misio-lurra zala. Ez jakola begirik galdu behar. Mostazahazia zugatz handi eta adartsua egingo zala lur haretan. Horretan ebi-len gure misiolari jatorra, irakasketak emoteari itzi bagarik.

Bistan egoan Bernardo neurri handiko gizona zana. Haren izatasun, doe eta giza aberastasunak ez zirala kutxan, edo-ta mahaipetan gordeta eukitekoak, argi-mutilean jartekoak baizik.

Erromaraino heldu zan gure misiolari irakaslearen hotsa, entzutea, eta altxor horren baliotasuna agirian jarri zanean, Eliza eta misioen onerako Verapoly-ko Gongotzain izendatua izan zan.

Kottayam artzain bagarik geratu zan eta Gongotzaina minez artaldea horrela ikustean. Esan dogu Aita Bernardok lur ezin hobea ikusi ebala Kottayam-en ebanjelioaren ereintzarako. Hortik bere ardura eta ilunaldiak.

Haren ordezeko bat bialdu behar zan albait lasterren Kottayam-era. Uzta ugaria emoteko lurra zan lez, harako misiolari azkar, bizi eta eraginkor bat eskatzen eban lanak. Nor eta non Aita Joan Bizente baino hoberik?

Aspalditik eukan buruan Arginzoniz Gongotzainak Aita Joan Bizenteren izena. Uste osoa eukan gizon honengan.

Gutziz Jaungoikozalea, lanerako bardinbakoa, esanekoa, zuhu-

rra, asmatzailea, bultzatzailea, buruz eta soinez ondo jantzia, beti aurrera egitekoa, dana emoteko gizona zan Joan Bizente.

Gaitasun guzti honeek euki zituan gogoan Arginzoniz Gongotzainak Joan Bizenteri ea Kottayam-era joateko prest egoan itandu eutsanean.

Zerua lurrean ikusi eban gure Aita Joan Bizentek. Bat-batean baietza emon eutsan bere Nagusiari. Ordu horren zain egoan Indiarra joan zanetik geroz.

Kapilara sartu eta pozaren irrikiz, apaltasunean murgildurik, Jaunari eskerrak emonez, berak hainbestetan ohi eban “tedium” eliz eresia bihotzez esan eutsan aldareko Jaunari. Ez ekian zelan agertu bere esker ona misiolari izateagaitik.

Biderako beharrezko ziran apurrak batu, esku-zorroan sartu eta Kottayam-era. Zelan egin eban harako joanaldi hori, mendirik mendioinez?, idi burdian?, ala ibaiz ibai batelean? Ez dakigu, baina ordu asko emongo zituala bai, beste ibilgailurik ez egoalako eta Kottayam Ernakulam-dik urrun baten aurkitzen zalako.

Jaso daiguzan hemen Aita Joan Bizentek berak damoskuzan argibide txiki batzuk.

“Hain zuzen ere, gaur betetzen da urtea, dino, nik Burgostik urten nebanetik eta, gaur, lau alderdietatik, misio-misiolari eginik aurkitzen naz Kottayam-go lurralde honetan”. Kottayam-go ardura-duna da. Hilero joaten da bertara.

“Urrun egiten da bazter hau; Verapoly-tik 60 kilometrora dago, neketsua joan-etorrietarako. Hogei ordu joaten eta beste hainbeste etorten. Bero kiskalgarria. Neguan 35 gradu; udaldian 10 gehiago.

Uriburua jendez hazia da, baina kristauz urria; 1.500 dira heme-ko kristauak. Umezurtz-etxe bi ditu: bata mutilentzat, bestea nesken-tzat. Hiru eskola eta pertsona helduentzat erlijio-ikasketarako katekesia bat.

Protestante eta jakobiten aldetik hainbat erasoaldi hartu ditugu, baina, azken baten, galtzaile geratu dira, gaur, gu ez gaitu inok baz-

tertzen ba, ez ezesten, ez uxatzen, bestetara, onartuez gainera, askok euren artean ikusi gura gaitue.

Lehentxoago txarto ikusiak ginan, gaur itzala, begirunea, onar-pena ta askatasuna lortu ditugu herriaren aldetik.

Hemen bai esan geinkela Jesusena: “uzta ugari eta langileak gutxi”.

Hemen nagoala eskola barri bat zabaldu dot -14 pezeta kosta da guztira- eta Chengalam deritxon auzunetxo baten, eliza barri bat egiteko lur zati bat erosi eta markatuta itzi dot. San Jose izango da eliza horren zaindaria. Beti lez, beraren laguntza ugariaren zain nago jasota ikusteko eta”.



Joan Bizente, Kottayam-en karmeldar misiolari talde batekin

Esan beharra dogu Aita Joan Bizentek, esanda gelditu dan lez, bere ohizko bizilekua Ernakulam-en eukala eta ez Kottayam-en.

Hemenko arduradun eta zuzendari izan zan bost urteren buruan, baina bizi beti Ernakulam-en.

Hilean behin edo beste joaten zan Kottayam-era egun batzuetarako, eta behin hango arazoak atondu ta bideratu ondoren barriro Ernakulam-era. Balio handiko gizona zan lez, Nagusiak zama astunak eskuratzen eutsozan, jakinik danak, txistik egin bage, eroateko gauza zala, Mutikoa praka barriekin lez, pozik ebilen gure Aita Joan Bizente Kottayam aldean. Berak dirausku zelakoak izan ziran bere bihotz irri eta taupadak bere misiolaritzako lehenengo frutuak batu zituanean. Edertzat joten ditu bere lehenengo urrats horreek.

“1901 -uztailak 7. Karmengo Amaren bederatziruena hasten dan eguna. Nok esango eustan niri egun horretan eroango neban pozaldi ezinbestekoa! Egun horretan, larogeita hiru gizon eta emakume bateatu nintuan, gure kristau artaldetxoa kristau barriz ugarituz”.

Beretza ere, misiolari lez, estrenuko eguna lez izan zan. Arteak hartu ezinik ebilen pozez gure gizona!

Jaungoikoarentzat oparirik onena arima bat beraganatzea zala, esaten eban Avilako Teresa deunak. Zelako oparia izango da, beraz, hamar, hoge, larogei arima diranean?

Beste egun gogoangarri bat Karmengo Amaren eguna izan zan, uztailaren hamaseia. Zelan ospatu eban Aita Joan Bizentek karmeldarren jai handi hori?

Herri askotan, tronpeta soinu eta handikiro ospatzen dabe, baina Aita Joan Bizentek baino handikiroago beste inon ere ez. Beste hogeita hamairu kristau barri egin zituan, bateoa emonez, Karmengo Amaren egun horretan. Zer balio dabe, honen ondoan, jairik ederrenak? Ezin koroe ederragorik jarri Amaren buruan; ezin opari ederragorik eskeini misiolari batek Karmengo Amari.

Bitsetan ebilen gure misiolari barria. Liluraturik eskuratu dauan frutuarekin. Aurrerantzako ames, gurariz eta helburuz beterik dabil. Bertatik hiru katekista bialdu ditu herririk herri uzta barriaren bila.

Pozkario honetan hausnar egoala, hara non heltzen jakon

Gongotzainaren telegrama bat lehenbailehen Ernakulam-era itzultzeko eskariarekin.

Minez agertzen da hemen Aita Joan Bizenteren bihotza. Kristautasunak etorkizun zabala eta aberatsa dau Kottayam-en. Hori bere begiz ikusi eta bere eskuz ikutu dau. Baina, misiolari bagarik, uzta eder hori alperrik galduko da. Eta misiolari urritasun honek bihozberaturik eukan barren-barreneraino. Aurrerantzean bera ere ezin izango da etorri, berak gurako dauan guztietan.

Misio gidaritza urrundik egin beharko dau eta horrek ere murriztu egingo dau misio-lana. Esan ezinezko penatan dago. Egoera honetan, bere ezintasuna ikusirik, penaz beterik, Europa aldera irrintzi sendo bat jaurtitzen dau misiolari barriak eskatuz, misio frutuak alperrik galdu ez daitezkan.

Nekez eta minez hartu eban Gongotzainaren telegrama hori. Negarrik asko egin eban Kottayam izteko eskatu eutsanean. Baina, Aita Joan Bizenterentzat, gauza guztien gainetik, nagusienganako menpetasuna egoan.

Horregaitik, Gongotzainaren deiari erantzunez, Ernakulam-era itzuli zan ixil-ixilik. Horrek ere bere meritua dau.

UMEZURTZEKIN

Ernakulam-era heldu danekoxe, Gongotzainaren etxera zuzendu da Aita Joan Bizente. Itun samar, baina erabat nasai, trankil; sinistuta egoan Nagusiaren esana egitean, Jaungoikoarena egiten ebala.

Gongotzainak maitekor besarkatu dau. Baekian, ba, arantza zorrotz bat jarri ebala minez Aita Joan Bizenteren bihotzean; zartada gogorra zala emondakoa.

Bere jokaeraren edergarri lez, honetara hitz egin eutsan Gongotzainak: Maite horrek, zuk ezetz esan arren, nik badakit atsekabe handia hartu dozula nik hona deitzean.

Zeure pozkarioan zengozan Kottayam-en. Hainbeste ta hainbeste asmo eta egitamu pil-pilean zenduzan hango misioari buruz. Atsegin jatzun hango jendea; maitez hartu zaitue hangotarrak; pozik zengozan bertan. Kottayam guztia kristau egiteko amostan zenbiltzan. Oraindik ez titan zagoz Karmen egunean egindako bateoen pozez. Txalogarriak dira benetan barruan daroazuzan gurari ederrok. Neuk ere errespetatu nahi izan ditut, baina ezin.

Hara bertatik ulertuko deustazu. Ustekabean, arazo latz bat sortu jaku hemen Ernakulam-en.

Hemeko Irarkola -inprenta-, Lanbide Heziketako Ikastegia eta Umezurtz-etxea biak zuzendari bagarik geratu dira gauetik goizera, horreen arduradun izan dan Aita misiolaria gaixotu eta Euskal Herriara itzuli beharrean aurkitu dalako. Ez behar honentzat ez jat egokitu beste irtenbiderik.

Zeu izan ezik, ez dot aurkitzen beste inor horretarako doitasunik daukanik. Horregaitik deitu zaitut. Gaurdanik, zeuk hartu beharko dozuz zeure gain erakunde horreen ardurakizun eta zuzendaritza.

Oraintxedanik zeureak dozuz. Lehenbailehen jarri zaitez buruzagitzan eta lanean, bestela galtze handiak etorriko jakuz eta.

Aldi haretan, Verapoly-ko misio-barrutian hainbat umezurtz-etxe egozan zabalik, misiolarien ardurapean. Irakaste eta hezikuntzaz batera, biharko egunerako ogibideen bat aurkitzeko modua ere irakasten jaken. Eskolak hartzeari beste, etorkizunari begiratzen jakon. Neska eta mutil hareek, euren sasoiran heltzean, lanbide egoki baten bidez, bizitzarako gertau.

Ernakulam-go Umezurtz-etxean bildutako umezurtzak berrogeita hamarretik gora ziran. Gehienak gurasoak bertan behera, deslari, itzitako umeak.

Dana beharrean egozan ume hareek: ez gurasorik, ez etxerik, ez sendirik, ez maitasunik, ez non egonik, ez nora joanik, ez janik, ez errukirik, ez jantzirik, ez ezer inoren aldetik; heriotzari saldutako ume errukarriak; abereen neurrian jarritakoak. Misiolariengan aurkitzen eben munduak ukatzen eutsen guztia.

Misioa zan euren etxea eta misiolariak euren senditar bakarrak. Maitasunik ezak bota zituan umetxo hareek heriotzara; horregaitik, norbere seme-alabak balira lez zaindu behar misiolariak umetxo errukarri hareek.

Umezurtz-etxe barruan, honi dautsala, lantegi bat egoan, neska-mutil bardingoteak bizibiderako lanbideen bat ikasten ebena, esaterako: arotzeria, argintza, ehungintza, irarkola eta abar.

Kottayam-go umezurtz-etxea ere Aita Joan Bizenteren ardurapean itzi eban Gongotzainak. Guztira, etxe bien artean 80 bat ume ziran.

Kottayam-en ez egoan oraindik lantegirik. Lortu beharrekoa zan eta laster lortu ere Aita Joan Bizente nekazekin.

Erakunde apal-txiki honeek, diru aldetik, lurra jota egozan, berezko baliakizun bagarik noraezean; karidade hutsez bizi ziran. Karidade hori faltatzean, ziur baten, etorkizun bagarik, heriotz bidean sartuko ziran.

Bestalde bai irarkola eta bai lantegia zaharraren zaharrez ugerrak janda egozan; gaixoak jota. Ez eben ezertarako balio; tresna hareekin ez egoan erupia bat aurreratzerik. Kanpotik hartzen eben laguntzatik bizi ziran.

Goitik behera barrizatu behar ziran eta zeregin neketsu hori Aita Joan Bizenteren esku geratu zan; haren zuhertasun eta eraginari itxaroten. Irarkolatik hasi zan.

Irarkolako solairua hankaz gora bota eta, ordeztu, beste barri bat eraiki eban, irarkola-lanetarako ederkiro apaindua.

Barruan ere aldakuntza handiak egin zituan. Molde zaharrak, egitura zaharrak, makina zaharrak kendu eta orduko egunetan punterengo mailan ebulan makineria barria sartu eban. Ingalaterratik ekarritako makineria.

Kanpoekin leihatze moduan nahi eban jarri bere irarkola hori. Baina, irarkola hori dotore-dotore gaztetu ebanean, eragozpen handi bat bideratu jakon: lantegiko gizonak ez zirala gauza makinaria barri horri hurrik emoteko ere. Ez ekien zelan erabili, maneatu.

Kottayam-go herritar batenean eukan ikusita Aita Joan Bizentek inprenta barri hori eta hara bialdu zituan bere langile batzuk makinak erabilten ikastera.

Eta hemen jaun bikain bat agertzen da Aita Joan Bizenteren bidean: Varkey jauna. Nor zan gizaseme hau? Cochín erreinuko kazetari ospetsu bat. Lanbide Hezikuntzako ikastetxeko buru eta maisu egiten ebana.

Gizon argi, ikasi eta ospe handikoa Cochingo inguruetan. Aita Joan Bizente lehenengoz ikastetxera sartu zanean, Varkey jaunak muker eta hotz-samar hartu eban. Eritxi kaxkarra atera eban batbateko begiradan. Ez jakon atsegin ez haren berbetako modua, ez haren begirada zorrotza, ez haren bizar lodi ta baltza, ez haren ahots trumotsua...

Ez eban oraindik ezagutzen, gero bere adiskide mina izango zan arren. Alkarren arteko tirabira batzuk egon ziran lehenengo ikustaldetan.. Esaterako, Aita Joan Bizentek Varkey jaunari etxeko langile-

ekin Kottayam-era joateko eskatu eutsanean makina barriak zelan maneatzen ziran ikasteko, Varkey jauna, asarre bizian, ezetzean jarri jakon.

Bera esku-lanetara bialdu? Nortzat hartzen eban bera Aita Joan Bizentek? Hori berari irain gordina egitea zan, bere burua erastea. Bere mailako gizonak ez dabe esku-lanik egiten...

Eta Aita Joan Bizentek Varkey jaunari gozo-gozo besotik heldu, begi-kinura samur begiratu eta aingeruen ahotsakin, leun-leun, esan eutsan: "Hara Varkey jauna, lan guztiak dira onak, santuak, esku-lanak ere bai; lanak ez dau gizona beheratzen, lotsagarritzen, gizakia duindu eta goraldtu baizik. Horrez gainera, lana otoitza da Jaunaren aurrean".

Eta Varkey jauna, Aita Joan Bizenteren jarraibidea kontutan izanik, Kottayam-era joan zan bere mutilekin. Berarekin izan eban begiramen maitekorrak adi jarri eban Varkey jauna.

"Honek nirekin egin dauana ez dau edozeinek egiten, esan eban bere baitan. Sakonagotik eta zabalagotik ezagutu behar dot gizon hau". Eta orpoz orpo, kuxkuxean, jarraitu eutsan Aita Joan Bizenteki ea bere bizibidean huts edo akatsen bat aurkitzen eban jakin nahian. Begipe zorrotzean zaindu eban denboraldi luzean.

Eta zelan diran gauzak. Jarraipen zorrotz honen ostean, Aita Joan Bizenteren mireslerik handiena Varkey jauna dogu. Gaur geroz, harrimenez begiratzen deutso misiolari santu horri; bere goreslerik onena bihurtu jaku.

Gauza bitxi asko dakiguz Joan Bizenteki buruz, danak Varkey jaunak iragarritakoak. Entzun daiguzan batzuk.

Aita Joan Bizenteren eta Varkey jaunaren logelak alkarren ondoan egozan. Varkey jaunak belarria beti zuhur ea Aita Joan Bizenteki noiz oheratzen zan jakiteko.

Goizaldeko ordu bata edo ordu biak bagarik ez zan oheratzen. Estua ta zehatza zan lan kontuan; begiramen handiz eta sendo ekin behar izaten jakon eguneko lanari. Berak ere 15 edo 16 ordu sartzen zituan egunero lanean.

Horrez gainera, lana txukun eta zehaztasunez atera behar zan. Okerrik txikienik bage, bestela ez egoan aurrera jarraitzerik; hutsik eta akatsik bage, ondo eginik plazaratu behar zan.

Bizia, eginkorra, ausarta, lanzalea zan, baina ez gogorra, asarretia, bihotz bakoa; samurtasunez, gozotasunez eta gizonkiro tratatzen ekiana baino.

Harentzat ez egoan zuri eta baltzen arteko alderik, ez eta indiar edo europarren artekorik. Danak bardinak ziran harentzat. Danak Jaungoikoaren seme, Kristo Jaunaren odolaz erositakoak.

Baina, Aita Joan Bizente, gauza guztien gainetik, dino Varkey jaunak, karmelita zan. Karmelita oso eta eredugarria.

Honetan ez egoan huts egiterik. Egun sentian, jagiteaz batera, ordu beteko otoitzaldia mezarekin batera; ordu egokietan, apaiz-otoitzari ekiten eutsan; baten baino geiagotan ikusi genduan makinen zaratara eliz liburua irakurten; gaueetan zetan esanik ere ez, sagraio aurrean ordubeteko otoitzaldia egingo eban.

Otoitzean egoanean, haren barrualdea santu batena zan. Nik aurkitu dodan gizonik maitagarriena, hunkigarriena Aita Joan Bizenteki izan dala autortu beharrean nago.

Testigantza goresgarri eta hunkitu hau Varkey jaunarena da. Baliotasun gorengoa dauko Varkey jaunaren testigantza honek, gizon herritar baten ahotik datorrelako. Jaungoikoaren arnasaz beteriko gizona bakarrik heltzen da maila horretara, Varkey jaunaren eritxian.

MISIOLARIAREN POZAK ETA NEKEAK

Bertako eginez-eginez joian gure Aita Joan Bizente. Berezkoa dauan bizitasun hori zerbait epeltzen ikasi dau.

Indiarren izakera, sena, tankera, ohiturak, bizikera eta ibilerak ezagutzeak, bere barren-sena gozatu, eztitu, baretu, samurragotu egin deutso.

Gauza garrantzitsu batekin konturatu zan haren begi zolia: zeozer onik lortzekotan indiarrekandik, eroapen handiko gizona izaten ikasi behar ebala. Eroapena zala, beti prest, besapean eroan behar eban ogia.

Eroapena hango bero kiskalgarria eroateko; eroapena bost edo seiren lana norbere bizkarrera botatzeko; jende apal haren epaltasuna ta patxada amaibakoa onez eta tente burutzeko; ezeukitasuna eta txirotasuna betaz eta umorez gaintzeko; norbere misio-barrutitik hain urrun bizi ahal izateko; misiolari urritasuna jasotzeko, garitza zabal eta ederrak horitzen egon eta eskurik ezagaitik alperrik galtzen ikusteko; hainbat eta hainbat gauza behar misio-lana onduteko, aurrerapidean jarteko eta horren ezintasuna irunsiteko...

Dirua ez zala kutxan gordeta eukiteko, edo ta nasaikerian eralgiteko, esaten eban Aita Joan Bizentek; on egiteko bakarrrik erabili behar zala.

Urrundik misiolari izateko era bi ikusten zituan berak. Bata, otoitz asko egin misioen alde Jesus Salbatzaileari eta, bestea, limosna asko bialdu misioetara, hango beharrienei egoki erantzuteko.

Hau bagarik, misio-lana murriztuta, hilda gelditzen da. Horregaitik begiratzen eban sarri-sarritan Europa aldera, ezintasunaren nekeak gogoia ilundutzen eutsanean. Otoitza eta laguntza eskatzen ebilen Europako kristauei, batez ere, ahaldunei.

Aita Joan Bizenteren antzeko gizon ekintzaile batentzat arantza samina zan ezintasun hori. Egin nahi eta ezin egin. Honek goibeltzen eutsan gogo. Negar hau agertzen dau bere eskutitz askotan.

Honako burutapen mingarrietan egoala, ertzain bat datorkio bera egoan umezurtz-etxera. Hiru urte inguruko mutiko bat dakar lepo gainean gizon horrek. Hil zorian dator ume hori. Begiak pizterre ditu; soina hazur hutsean.

Bere gurasoak bertan behera itzi dabe bazter batera botata; bertan gosez hil daiten, edo ta inok, errukiturik, jaso eta zaindu egian. Eskerrak aita hobaezin batekin aurkitu zala. Aita Joan Bizenterekin!


Ertzainak ea mutikoa bere umezurtzen artean hartuko dauan itanduten deutso. Eta Aita Joan Bizentek, hitzik esan bage, bihotz dardarra bizian, besartean hartu, luzaro baten laztandu, maina guztiak egin eta bere umezurtzen artera daroa, esanez: geurekin gelditzen da, dirautso ekarri dauanari; geuk zaindu eta geuk egingo dogu gizon eta kristau.

Honakoxeak ziran Aita Joan Bizenteren umezurztegian aurkitzen ziran umerik gehienak. Baeukan, beraz, bere aitatasuna non agertu eta non zabaldu.

Beste neke bizi bat, Kottayam, bere misio-barrutitik, hain urrun bizi beharretik etorkion. Ernakulam-en hain lanpeturik bizi arren, bere misio-barrutia Kottayam zan. Oso urrun egozan bata besteagandik. Egundetako bidea behar zan batetik bestera ibilteko.

Denborarik gehiena Ernakulam-en emoten eban. Han ebilen buru ta belarri hainbeste lan burutu ezinik eta, lan honek behartuta, gutxitan baino ez zan joaten Kottayam bere misio-barrutira.

Eta honek minduten eban bere bihotz misiolaria. Astia, astia, eskatzen eban bere kristauekin egoteko; bere asmo ugariak bidean jarteko; txokorik txoko, eten bako bideetatik, eskuak betean, Jesusen Barri Onaren hazia zabaltzeko. Hango beharizeneei bertatik erantzuteko.



Joan Bizente Indian egoala

Bere kontzientziaren mina ixiltzeko, irtenbide berarizko bat aurkitu dau: norberak, zintzo-zintzo, ahal dauan guztia egin eta gainetiko guztia Jaungoikoaren esku itzi. Hori izan da beti santuen jokabidea.

Honako ikustaldi baten atsekabe handi batekin aurkitu zan. Haize bolada indartsu batek Kottayam-go elizatzkoa oinarrietatik lurrera eratsi eban. Han egoan lurrean zabor pilo bat eginik; bertako kristauak etxe eta aterpe bagarik geratu dira; ez dauke non batzartu, ez non dotrinea emon, ez non eukaristia egin.

Lehendik ere Chengalam-en, Kottayam-go auzune baten, San Jose zaindari dala, eliza barri bat jasoteko asmotan ebilen. Aurreko egonaldi baten, eliza hori joango zan tokia, lur zatia, marratuta laga eban.

Chengalam misio-barrutiko erdialdea lez zan. Auzune eta herrixka askorentzat erdibidea. Bertara erraz joateko tokia; honen harira aukeratu eban Chengalam eliza hori egiteko.

Baina, eragozpen handi ta arriskutsuak aurkitu zituan egiteko orduan. Lehenengo ta behin, herriko agintariak eliza egiteko baime-na ukatu egin eutsuen. Ez dago baimenik eliza Jasoteko.

Zer jazotzen da, ba? -Pagoda baten ondoan dagoala eliza barri hori egin nahi dan lur zatia. Ez dagoala bien artean legeak markatzen dauan alderik. Hurregi egozala alkarrengandik. Beraz, debezkuko lekua da.

Handik eta hemendik, ziria trebetasunez erabiliaz, azken baten lortu dau obretarako baimen hori. Hasi ziran elizaginan. Baina, hasi baziran hasi!

Chengalam brakmanen lurra da. Sasi-jainkoaren pagoda hori brakmanena zan. Bhagarady jainkosari eskeinia. Hartziko aldare baten gainean eskintzen eutsesan euren oparigaiak.

Eta hara non brakman honeek asarre gorrian jarten diran kristauen eliza hori beraienagandik hain hurbil ikustean. Irain gordina-gorik ezin! Edozer gauza egiteko prest egozan.

Gauzak berez larri baegozan, oraindik larriago jarri zituan gure Aita Joan Bizentek. Holakorik burura etorri ere egitea!

Zer bururatu jakola, uste dozue, gure Aita Joan Bizenteri?

- Ba, zugatz adar batetik kanpai kantari bat eskegita ipintea.

Gauza askotarako balioko dau kanpai kantari horrek. Etxeko langileentzat lana hasteko eta izteko deia izango zan; kristauak batzarrerera ekarteko; eukaristiarako deia... Nik uste Aita Joan Bizentek kanpai hori zugatz adarretik lotu ebala bere durundu hotsa entzutean, inguruko espiritu gaizto guztiak, handik uxatzeko gurari bizi-az.

Eliza barria egiten zan bitartean, barriz, txabola antzeko etxe-oskol bat jaso eban haizeak botatako elizaren ordez. Han biltzen ziran kristauak. Haxe zan gaurko euren elizatzkoa.

Kanpai horren hotsa edonondik entzuten zan. Kristauak pozik entzuten eben durundu hori, baina brakmanentzat zeharo gorrotagarrri bihurtu zan. Sutan jarten ziran entzunaz batera. Ipin ebalako Aita Joan Bizente gorrotatzeraino heldu ziran.

Egun baten, Bhagarady jainkosa maiteari, kristauen irainekin guztiz hasarre egoala-eta, irain ordaina eskeintzea erabagi eben. Jaialdi bat egitea haren omenez. Ezinbesteko jai. Handi-mandi, anpurutsu, farrandaria.

Batez ere, euren buru egiten eban brakmana erensuge eginik egoan. Hasarrearen hasarrez zorabiau ta, sugarrezko hitzaldi bat egiten deutse bere alderdikideei: Bhagarady jainkosa oso tristerik eta negarti egoala kanpai horren erruz eta, ixiltzen ez bazan, pagoda haretatik ihes egin eta beste toki batera joango zala, hango giroa irau ezina zala-eta.

Han ebilen gizon kaxkarin hau giroa berotzen bere esamesekin. Jainkosari irain ordaina emoteko, bera lepoan hartu, apain-apain jantzitako elefante baten gainean jarri eta tanbor-hotsa, ulua ta kantu zarataz eztarriak urrutu beharrean, prozezioan kanpaia egoan tokiraino joan ziran. Akelarre bat zirudian. Hona heldutakoan, kantu ta dantzarta artean, irrintzi batzuk bota zituen kanpaiaren kontra, baina ez ziran ausartu ikuturik egiten. Holantxe bakez amaitu zan jaialdi nagusi hori.

Bitartean, Chengalam-go eliza barria aurrera joian. Lanak oraindik erdi eginean egozala, lekurik ezak behartuta, eliza bazter bat kris-

tauen zerbitzuan jarteko asmotan, Pentekoste egun batez, 1902ko maiatzean, elizaren inagurazinoa egin zan. Handikiro ospatu zan eliza barri horren zabalkunde hori, Aita Joan Bizenteren ahaleginei esker.

HIRUGARREN ORDENAKO ANAIDIA

Sarritan ikusi dogu hemen Aita Joan Bizente minberakor eta negarti misiolari urritasunaren aurrean. India misiolariz beterik ikusi nahi eban, Jesusen Barri Ona predikatzeke. Berea eginik eukan Jesusen kexu mina: "Uzta ugari, langileak gutxi".

Zelan gainditu, gauzatu, beraz, misiolari urritasun hori? -Bertako kristauak laguntzaile harturik. "Zoaze munduan zehar eta iragarri Barri Ona gizaki guztiei". Jaso egizue mundu barri hori!

Apostoluak, euren garaian, bete eben Jesusen agindu hori. Gaur, geu gara agindu hori bete behar dogunak. Guk ere, geure bateo egunean, Espiritu Santuaren igurtzia ta indarra hartu genduzan Jaungoiko-Herrian langile hautatuak izateko; Jesusen Ebanjelioaren hotsegileak izateko.

Zelan iragarri, baina, zelan egin ez badakigu? -Erraza da. Ebanjelioa, jakituria baino lehenago, bizitza da. Bizi egin behar dogu Ebanjelioa. Bete! Eta horixe da Ebanjelioa predikatzea. Ebanjelioa betetzen dauana da predikatzaile onena.

Hau ondo ekian Aita Joan Bizentek. Horregaitik, bertako seme-alabak nahi zituan misiolari eginik.

Mundua Kristoganatzea nahi badogu, hori herri bakoitzeko seme-alabak egin beharko dabe. Herri bakoitzak bere herria ebanjelizatu.

Hau dala ta, kristau ondo eskolatuak, ondo formatuak, eranginkorrek, mundugintzan eta elizgintzan azkar eta trebeak nahi zituan Aita Joan Bizentek bere misio-barrutian.

Holako bost kristau jator beragandik hurbil bizi ziran. Berarekin umezurtz etxean lanean ziarduenak. Kristau zintzo, zuzen eta guttiz

Jaungoikozaleak. Karmeldar misiolarien eskolakoak. Karmeloko bizitzan barrurago sartuta bizi nahi ebenak. Teresa handiaren urratsen jarraitzaileak.

Herri-gizonak izanik eta herri-gizon izateari itzi bagarik, euren oinarri eta zereginetatik, karmeloko araudia euren bizitzaren burpil eta ardatzat hartu nahi eben kristauak. Hau da, karmeldar bizi nahi ebenak.

Munduagandik urrundu, umezurtegiaren zerbitzuan ahal eben guztian jarraitu eta, bertan, karmeldar izanik bizi. Hauxe zan eurak hainbestetan Ordenako Nagusiei eginiko eskari sutua.

Eta Ordenako Nagusiak ontzat hartu eben, azken baten, eskabide zintzo eta sarritan agertutako hau.

Hitz batez esateko: Bost gizon indiar honeek, Indiako urrunean, Karmeldarren hirugarren Ordenako Anaidia sortu eben. Hori nahi eben eurak. Eta horretarako, jakina, erakunde bat, araudi ofizial bat behar eben Elizaren aldetik, Anaidia legezatuaz. Hori bagarik ez egoan hirugarren Ordenako Anaidirik eraikiterik.

Eta Araudi horren prestakuntza, erakunde guztiaren antolakuntza, Gongotzainaren aginduz, Aita Joan Bizenteren esku gelditu zan.

Erakunde horren goi-beheak eta ertzak buruan ondo margotuta eukazan lez Aita Joan Bizentek, erraz eta epe laburrean zirriborrotu zituan Anaidi horren arau, egitura, bizibide ta ibilera guztiak.

Eta behin, Araudi hori taxuz atondu ta eratu ebanean, ondo-ondo orraztuta gero, Gongotzainari eskuratu eutsan bere oneritxiari itxaronez.

Gongotzainak, hitz artean, bere gogoko ziran aldakuntza txiki batzuk sartuaz, bere baietza ta onespena emon eutsazan Araudiari eta beraz, ofizialkiro, Karmeldarren Hirugarren Ordena Indiako lurretan martxan jarri zan bedeinkapen eta eskubide guztiakin.

Gaurkoz, bost batzarkidek osotzen dabe Hirugarren Ordena hori. Bosten artean, euretariko bat buru lez izendatu eben eta honen zuzendaritza ta agindupean geratu zan umezurtz-etxea.

Honetara Aita Joan Bizentek zeregin honetatik askatuta ikusi eban bere burua. Zerbait libreago bere zeregin ugariei jarraitzeko.

Aita Joan Bizenteren beste kezka arduratsu bat bere katekistena zan. Katekista asko eta onak nahi zituan, trebeak, jatorrak, eskolatuak; lanari eskua gogor jartekoak; erakarpen handiko gizonak; jendea inguruan pilatzeko doe berezidunak.

Kottayam-go kristaudiaren martxarekin oso pozik egoan gure Aita Joan Bizente. Baina, lan handi horretan zati handi bat, gehientzuen ez esatearren, bertako katekistena izan zan. Katekistak joiazan aurrelari eliz lanetan.

Gongotzaina pastoral ikustaldia egitera joan zanean, Kottayam-en 300 kristau gaztek hartu eben sendota Gongotzainaren eskutik. Jaialdi gogoangarria Kottayam-go kristautentzat.

Kottayam-go kristautasunak egin eban aurrerakada izugarria, misiolariekin batera, katekistei esker izan zan. Kottayam-en bost eliz eskola egozan zabalik katekisten heziketarako. Hemen egoan misiolari mintegia. Hau ondo ekian Aita Joan Bizentek. Hortik, bere katekisten aldeko lan eta ardurak.

Seminarioetan abadegaiak abadegintzarako gertatzen diran lez, horrelantxe gertau behar gendukez parroketako kristauak ere eliz bizitzarako. Kristauak baztertu bagarik, aurrelari jarri.

Parroki gaietan eskubide eta egokitasun guztiak emon. Parrokia euren ardurapean itzi. Hauxe da Kontzilioko irakatsiei darioen ura.

Beharbada, itsu egon gara Elizaren zati garrantzitsu hau begi argiz ikusteko. Ezer gutxi egin dogu esparru honetan. Hamar urte barru abade bagarik aurkituko da gure Euskal Herria. Hogeita hamar urte honeetan Eliz orratza horraxa begira egon da. Ordutik ordura arrisku honen hotsa jotzen izan dau. Ez dogu entzun nahi izan. Zeruko "manari" itxaroten egon gara; orain ikusi egin beharko "mana" hori jausten dan ala ez.

ALWAYE-N PARROKO

Gaur, aldakuntza batzuk agiri dira Aita Joan Bizenteren misiolanetan. Indiara etorri barri diran misiolarien esku itzi Ernakulam eta Kottayam-go ardurakizun eta zereginak eta Gongotzain jaunak Aita Joan Bizente Alwaye-ko parrokiara bialtzen dau hango arduradun izendatuz.

Ernakulam-dik hurbil dago Alwaye. Uri handi samarra jatzu, Aita Joan Bizentek dinoan lez.

Bere erdigunean denda asko eta ederrak ditu. Kale ta ibilbide zabal eta ondo zainduak; astero zabaltzen dan azoka-tokia; gaixoentzat ospitale apaina; korreo-etxea, urrutizkin eta telegrafoekin; auzitegi eta abar. Bigarren mailako ikastetxe bat ere bai... Uri ondo hornidua. Leku polit eta zoragarria bizitzeko.

Ibai handi eta zabal batek zeharkatzen dau goitik behera. Ibai bihurgunetan tinkaturik aberatsen landetxe ederrak ikusi leitekez.

San Frantzisko Xabier-i eskeinitako parrokiak abadetxe apal bat eukan eta hantxe jarri eban Aita Joan Bizentek bere bizilekua.

Heldu baizen arin, ohi eban lez, bizi eta ausarti, eliz lanetan osooan sarturik ikusten dogu. Beti lez artegatasunak eta egonezinak jota bere arduren erpinean. Santuen pareko doe da, antza, hau. Ito beharrezko ereintzan ibili ezik, bake onik ez!

Barrero ere Euskal Herrira idazten dau. Bere mina ta ezintasuna agertzen deutsoz Aita Probintzialari, presazko laguntza eskatuaz. Arren bialdu dagizala misiolari barriak Indiara, han uzta ugarria dagoala eta uzta eder hori deabruak daroala esanez.

“Hau samina! Umeak ogi eske eta ez daukat ogia nok zatitu”, dirautso Bibliako berbak erabiliaz. Hemen uzta ugarria ta heldua

dago. Hemengo toki askotan ibilia naz eta, ez bat edo bi, jendetza osoak aurkitu ditut fedea hartzeko prest dagozanak. Jaungoikoarren, Jesus Gurutzekoarren bialdu beistaz misiolari barriak lehenbailehen uzta eder hau pilatu dagien”.

Jesusen odol santua alperrik galtzen ikusteak, holako ilunaldi mingarri bat sortzen eutsan bere erraietan. Zauri horren mina jasangaitz egiten jakon. Bera errudun balitz lez, irain horren errua bere gain hartzen eban eta, ordaingarrizat, Jesus Gurutzatuaren oinetan, bere bihotza maiteminez leherturik, negar artean, Jesus onari eskeintzen eutsan.

Gehiegizko lanak ekarrita edo, sarri-sarritan, buruko minak sentitzen hasi da. Berak itsu egin arren, buruko minak temati zirikatzen eban.

Gaixoak behartuta, aberrira itzuli dan misiolari baten ahotik jakin dau Mercedes bere arreba karmeldarrak, bere nebaren buruko minaren barri. Mercedes, berezkoa dan lez, arduratan jarri da.

Eta, bertatik, eskutitz bat idazten deutso Aita Joan Bizenteri ea buruko min hori zer dan edo zer ez dan jakin guran. Ez eban, antza, asko poztu karta honek gure Aita Joan Bizente.

Berehalaxe idatzi eutsan Mercedes-i, baina norbaitek barri hori zabaldu daualako hasarre samar agertzen da gure Aita Joan Bizente.

Nasai egoteko, dirautso, hori ez dala egia eta. Ez sinisteko hola-ko tentelkeriarik!

Inoiz baino osasun hobea eukala. Ondo jaten ebala; indartsu egoala. Beroa ez zala hain kiskalgarria. Inoiz baino pozago egoala misiolari izateaz. Misiolaririk ez egoteak emoten eutsala tamal handia. Otoitz eta otoitz jarraitzeko uztaren Jaunari misiolariak eskatuz. Bera lan gehiago egiteko prest egoala eta bere ardurarik ez izateko. Hemen lan egiteko gagozala; atsedena hartzeko betikotasun bat daukala gerturik zeruko Aitak...

Honako gauza bitxiak dirautsoz bere arreba Mercedes-i.

Hemen daukagu Aita Joan Bizenteren barrualdeko argazki koloretu bat.

Gizon honen bihotz barrura begiraturik, han, barne-barnean, misiolaritzarenugarra bakarrik susmatzen da. Ertzik bagako misiolaria!

Alwayen-n egin eban misio-saioa oso laburra izan zan. Ez zan urtera heldu, 1907ko abuztuan Verapoly-ko parroko izendatu ebela-ko.

VERAPOLY-N

Esan dogun lez, 1907ko abuztuaren azkenaldira, Aita Joan Bizente Verapoly-ko parroko izendatu eban Bernardo Arginzoniz Gongotzainak.

Parrokia hau zaharra da, antxinakoa, 1673an, Indiara etorritako lehenengo misiolari karmeldarrak eraikitakoa. Lau urte egingo ditu bertan Aita Joan Bizentek. Misio guztiaren bihotza lez da Verapoly, erro honetatik sortutako kimuak lez baitira beste elizalde guztiak. 8.000 bat biztanle zituan, garai hatan, elizalde honek.

Verapoly-k arpegi bi agiri ditu bere ispiluan: alde batetik, ibai handi baten beso biren erdian platanoz, kokoteroz, mangoz eta igali gozoz beteriko ugarte bat da; ugarte zabala, ibil-erraza; bestetik, ibai ertzetik aldameneratz, ibaiz saretutako lur zati bat egiten dau, bertatik ibilteko oso gaitza dana, txalupaz edo izan ezik.

Biztanlerik gehienak katolikoak dira, katoliko zaharrak. Lehenagoko eliz ohiturei lotuta bizi dan kristau taldea. Ez ei da harritzekoa, esaterako, mezatako orduan, aldara aurean, pekatari autortu dan kristau bat, lepoan gurutza handi bat dauala ikustea. Bestetik, eliz jaiak eta ospakizunak handikiro eta zaratatsu egitea atsegin jake.

Laguntzaile bi ditu Aita Joan Bizentek parroki lanetarako: Aita Anjel, karmeldarra eta Agustin Kuttikal jauna, bertako apaiz indiarra. Hirurentzat guraina lan emoten dau.parrokiak. Honen adigarri honako hau idatzi eutsan Aita Joan Bizentek mojatxo bati: "Atzo 400 umetxok egin eben hemen lehenengo Jaunartzea; beste 200 geratu dira hurrengo txandarako".

Egun hareetan, kolera izeneko gaixo bildurgarria sartu da hango herrialdeetara. Asko ta asko hiltzen ziran gaixo honen zigorpean. Baina, hango jendeak, Aita Joan Bizenteren esanean ez ei deutoso hainbeste bildur heriotzari.

Gehienak oso txiroak diran lez, ez dabe damu handirik agertzen hemengo mundu honi agur egiterakoan.

Txirotasunak jarten dituan mugak kontutan izanik, gaixoak ondo zainduta dagoz; alkar laguntzeko jende ezin hobea dozu, atxikitasun handikoa. Elizakoak hartzeko ere zabalik agertzen jatzuz; ez dago honetan eurekin zeharka-meharka ibili beharrik. Trabarik txikienik ere ez dabe jarten ordua heldutakoan.

Eta hemen Aita Joan Bizenteren goralpena: “Gure kristauen jokabide eredugarri hau guztiz pozgarria da misiolari batentzat. Neke guztiak poztasun bihurtzen dira hiltamuan dagozenai laguntzerakoan. Ez dago sari hoberik abade batentzat”.

Hizkera honen azpian, Jaungoikoz beteriko bihotz bat nabari da. Maitasunean goiko ertzak hartu dituan gizona.

Verapoly-ko parrokoaren doe, balio ta gaitasunak zelakoak eta norainokoak ziran, hainbat urtetan, bere laguntzaile izandako Aita Kuttikal indiarrak, hurbiltasunak emoten dauan ezaupide eta ziurtasunetik gauzak begiratu, hitzetik hortzerako irudi bikain hau margotuta itzi euskun bere azalpen goragarrian:

“Hainbat urtetan Aita Joan Bizenteren laguntzaile izana naz Verapoly-ko parrokan. Zoriontsu izan nintzan berarekin, ezin hobea baitzan nirekin.

Parroki lanetan nekagaitza zan; gau ta egun, lanari emona. Praile ta abade zan aldetik on hutsa zan; gizon biribila: orain gehiago: gizon santua. Nik beti aurkitzen neban edo otoitzean edo lanean.

Verapoly-ko parrokia hain zabala izatean, ia gauero deitzen eben gaixoei laguntzera joateko. Zu ez joan gaixoakana gauez, esaten eustan, zeregin hori neure esku dago eta.

Gauza guztiak bete-betean egitea gustatzen jakon. Prailetzako betekizunetan, barriz, zehaztasun osokoa zan.

Egun sentirako aldara aurrean egoan, hutsik bage. Bostetatik seiretara, ordubeteko otoitzaldia sagrarioaren aurrean belaunikaturik. Gero, ordu erdiko meza eta beste ordu erdi bat eskergintzarako. Ilunabarrean, barriro, zazpiretatik zortziretara. Honez gainera, elizako otoizketa ofiziala”.

Berarekin bizi izaniko misiolari lagunak, aho batez, autortu daben lez, Aita Joan Bizenteren gaueko atsedena dia lau orduko loa izaten zan, eta bera lur gainean. Eta zergaitik lur gainean lo egiten eban itandutean, umorez erantzuten eban: ohe zabalagoa dalako, jausteko bildurrik ez dagoalako; itzulika errazago egiten dalako... Gauero-gauero, hamabietatik ordubatetara, aldara aurrera joaten zan. Ohitura eginik eukan gauerdiko otoitzaldi hori.

“Jendearekiko harremanetan oso gozo, txeratsu eta atsegingarria zan. Ikustekoak ziran gurekin izaten zituan bihozkadak”. Hau ere Kuttikal jaunak esanda dakigu.

Honelantxe koloratzen deusku Kuttikal jaunak Aita Joan Bizenteren giza irudia.

Parroko izatez gainera, herriko epaikari ere bazan. Izkimizki eta eztabaida zalea da, antza, Malabar aldeko jendea, edozein huskeria-gaitik auzitan sartzen dana. Zuk hau esan dozu nire kaltez, zuk hau egin dozu nire aurka! Beti alkarri erasoka! Eta tiki-miki guztion ararteko eta ebazle parroko jauna.

Honen arabera, parroko jaunaren langela sarritan epaitegi bihurtzen zan. -”Jauna, etxean ogirik bage gagoz, nire senarrak dana edanean eralgiten daualako”. -”Jauna, honek honenbeste errupia zor deustaz eta ez deustaz ordaindu nahi”. Arazoak arazo gainean!

Errudunari deitu, testiguak ekarri, batzuei eta besteei entzun arnasea galdu bagarik, betondoa ilundu bagarik, hitzik garrastu bagarik, bakebide guztiak agortu, tarteko egin, behar dan epaia emon, zauririk zabaldu bage... Eta horrelantxe ia egunero-egunero.

Lanerako ordurik onenak galtzeko ez dozu besterik behar. Lan desatsegina, latza, baina Aita Joan Bizentek ez eban inoiz eztitasun-

nik, baretasunik, patxadarik galtzen. Artea hartzen ikasi eban zeregin gaitz hori ere bere kristauen zerbitzurako zala kontutan izanik.

Parrokoaren beste zeregin garrantzitsu bat, lehenengo mailakoa, ikastetxeen ardurakizuna eroatea zan.. Verapoly-ko eskola guztiak parrokoaren menpe egozan, elizarenak ziralako. Hortik ardurakizun handi hori.

Eskolen onari begiratu; albait ondoen antolatu; osasuntsu zaindu; bide onetik eroan; alkarren arteko itzal eta begiramena gorde; ikas-biderik onenak bideratu.

Diruz mantendu, martxa onerako beharrezko zan material guztia erosi, eratu; ikaslerik onentxoena, zuzenenak, langileenak zuzendu eta aukeratu; begia beti zuhur erabili irakaskuntza zelan joian begiztatzeko eta, batez ere, erlijio-irakaskuntza zelan emoten zan zurt eta erne egon, iralaslak, bide batez, katekistak ere baziralako.

Eskoleak, ba, garrantzi handia eukan gaztediaren hezikuntzarako, biharko egunean gizon osoak plazaratzeko.

Garai haretan, Verapoly-ko elizak hamar eskola eukazan zabalik, baina gutxi ziran herriaren beharrianei erantzuteko; gutxienez beste sei bat beharko ziran parroki esparrua itxuraz hornitzeko; arazo hori taxuz eta egokitasunez bideratzeko.

Eskola honeek mantentzeko diru asko ta asko behar zan. Bertako eliza oso pobrea izanik, ez eukan, ba, ondasunik eskolen gastuei erantzuteko. Horregaitik, Aita Joan Bizente bere eskutitzetan beti eskeko eginik agertzen jaku, batez ere, bere adiskide min eta mojaxtoen aurrean. Ez zan horregaitik lotsatzen, baekian, ba, bere txiroen eskua bera zala.

Astero-astero ikertatzen zituan bere eskolak, zelan joiazan jakitun egoteko.

Parrokoaren beste zeregin onurakor bat bere eliztarrak etxerik etxe ikertatzea zan. Eliztarrekin egon, euren etxeko eginik agertu, solasaldi samur eta gozo bat euki bere artaldearekin; umetxoak laz-tandu eta bedeinkatu; etxeko martxagaitik itandu; arduratu euren ara-

zoekin, ezintasunekin; eliztarren ardura, poz eta nekeak bereak egin; arnasbarritu bere kristauen gogo eta bihotzak.

Behar beharrezkoa da artzainarentzat bere artaldearekin egote hau, ardiak banan-banan ezagutze hau; ardi bakoitzaren bizitzan barne-barneraino murgiltze hau, euren bizitzan geure bero eta laguntza jarriaz.

Zenbat oker zuzendu, zenbat malko legortu, zenbat arantza zorrotz bizitzako gunetatik atera, zenbat itsukeria argitu, zenbat txar-to-egite bideratu, zenbat urrunduriko hurbildu, zenbat hasarre hilobiratu, zenbat bake eta pozkario ekarri etxeetara...

Ikustaldi honeek ez ziran elizondoan bizi ziranentzat bakarrik. Urrinetako auzuneetara ere joaten zan, batez ere, garizuma aldian. Honako auzune batera joan eta egun batzuk han emon.

Bertako gaixo ta ezinduak ikertatu, autortu, gure Jauna eroan. Gainetiko kristauak toki egoki baten batzandu, garizumari dagokiozan gogoeta batzuk egin, autortzak entzun eta egokitasun guztiak emoten eutsezan bertako kristauei salbamenezko grazia euegantzeko.

Kuttikal jaunak esana da, ibiltaldi honeen ostean, nekearen nekez, guztiz ahulduta heltzen zala etxera. Hain neurrigabea zan lez lanerako, alperrik zan berari biribilketa hori astirotsuago dantzatu behar zala esatea. Betiko zeru bat daukagula atsedena hartzeko erantzungo eutsun. Holakoxea zan gure Aita Joan Bizente eta horrelantxe konprenitu behar ditugu bere gauzak.

Bernardo Arginzoniz Gongotzainak, egun hareetan, eliz idazki bat bialdu eban bere elizbarrutiko eliz guztietara. Idazki horretan, beste gauza askoren artean, Verapoly aldean zabal ebilen ohitura edo gertakizun bat zorrotz debekatzen eban: "Antzerki" edo teatroak "gaez" egitea!

Indiarrak antzerkizale amorratuak izanez gainera, antzerkilari onak ditugu, dinoen lez. Berezkoa ei dabe gaitasun hori; horretarako jaiok.

Aurkezten zituen antzerkiak, gehienak drama gisakoak, ez ziran

lizunak, lohiak, zantarrak, ez. Bibliatik hartutako gaiak ziran, esaterako: Jose-ren historia, Tobias-en historia, eta abar.

Antezlariak ere herriko mutilak ziran, ez kanpotik ekarriak. Herriaren gozamenerako gertatzen zituen jaialdiok.

Ohol zaharrez eginiko solairu bat jasoten eben lur gainean. Goi eta alboak kokotero orriz jantzi, kolore bizidun tela batzuk apaingarri, jantzi bereziak soinean, margo asko arpegi, betondo, beso eta hanketan; argi-ontzi handi bat, erdi-erdian, goitik eskegita, txikiago batzuk alboetan..., horra hor gure antezlarien antzoki hori dotore-dotore jantzita.

Jendea zerupean, landa-zelaian kukurizka jarrita, barre artean, txaloak gogotik joteko prest.

Beraz, zer dala ta galera eze zituan Gongotzainak honako jolasaldi errugabeak? Non egoan hemen txarkeria? -Antzerkia "gauetz" egiten zala. Eta antzerkia gauetz aurkeztean, Gongotzaina handik akelarrenen bat sortuko ete zan bildurrez egoan antza. Hauxe zan debekatzeko arrazoibide bakarra.

Agindu honek, jakina, ondoeza sortu eban herritarrengan. Ez eben argudio onik ikusten Gongotzainaren aldetik erabagi hori hartzeko.

Euren arrazoibideak sendoagoak ziralakoan egozan. Antzerkia egunez egitean, erreta itziko zituala egunez egiten dauan bero kiskalgarriak; gauetz arrandi gozoagoz ikusten zala antzerkia, argitsua-go, dirdiratsua-go... Eztabaida, ba, mahai gainean egoan.

Zer egingo dau Aita Joan Bizentek? Zelan konponduko dau arazo latz hori?

Bera ez da sartzen Gongotzainaren arrazoibide ta aginduak azterkatzen; bera menpetasunaren semea da. Nagusiak esan dau eta kitto!, obeidu egin behar da.

Cheranalur-ko herrialdea zan, batez beste, eztabaida honetan gogor samar agertzen zana. Zerbait bihurrituta egozan bertakoak.

Aita Joan Bizentek, arazoa ganoraz konpondu nahian, burubide hau hartu eban: herriko jauntxoei deitu eta batzar baten antzerki hori

gauetz aurkezteak mahometar eta paganoei berbabidea emongo eutsela; haren artean eskandalutzat hartuko zala; begi txarrez ikusiko ebela holako jaialdi bat..., eta honako arrazoibideekin zuritu nahi izan eban Gongotzainaren ezezko hori.

Dana alperrik! Lehen baino gogorrago joan ziran batzarretik gizonok. Han ez egoan damurik. Beraz, antzerkia zapatu gauetz egingo zan.

Aita Joan Bizenteren kontzientzia larri ta minez geratu zan. Zelan itzi Gongotzainaren agindua bete bagarik?, ezinezkoa zan hori bere kontzientziarentzat. Irtenbide bat aurkitu behar eutsan egiteko honi.

Jira-biraka erabili eban luzaroan bere buruan jokabide honen ebazpena. Argi pixka bat nahi eban, gauzak ondo egiteko. Entzutea heldu jako beste misiolariak ere txundituta, artega eta kezkatu ezoala Gongotzainaren ateraldi hori ulertu ezinean.

Argi pixka bat nahi eban berak, gauzak ondo egiteko. Halako baten, bidea argitu jako. Zer egin? Ikustekoa da bere asmakizuna. Asmamen hau Aita Joan Bizenteri bakarrik etorri leikeon burura.

Ilunabarrean, angelus orduan, aterkia hartu, errosarioa hartu, otoitz liburua eta, txiki-txaka, astiro-astiro, Cheranalur-era doa zuzen-zuzen.

Ikusten eben guztiak harriturik, galdezka: Ez al da antzerkia ikustera joango gure parroko jauna!, inoen azpitik ixil-mixilka.

Halako baten, heldu zan antzerki tokira. Dana egoan prest agerrialdia hasteko. Han ebiltzan antezlariak jantzi astin eta harrotsuekin, arpegia kolorez tindurik, hara ta hona, orduari itxaroten.

Heldu zan gure Aita Joan Bizente antzoki gainera. Aulki bat ikusi eban han hutsik bazter baten. Hori da nik behar dodana, esan eutsan bere buruari. Aulki hori hartu eta argi handipera eroan eban. Bertan jesarri, eliz liburua eskuetan hartu eta, ekin eta ekin, inoiz amaitzen ez zan otoitzaldiari hasiera emon eutsan.

Liburua erabilten aspertu zanean, lurrean itzi; errosarioa atera eta Aitearen eginaz errosarioa erreztatzen hasi zan.

Bitartean antzokia zabalik, jendea itxaroten bekoki ilunakin, antzezlaririk tripak jaten. Ezin dabe ulertu parroko jaunaren portaera, baina ez dira ausartzen berari ezer esaten ere.

Zergaitik egiten deusku hau?, mormor zaratea entzuten da ikusleen artean. Txistu batzuk ere bai. Joan Bizente nasai. Begipetik jendea begiratu eta beste Aitearen bat eginaz, errosario barri bat, eta beste bat, eta beste bat...

Erlojuari begiratu eta goizaldeko hirurak. Oso berandu da. Bururaino gogaiturik dago etorri dan jendea eta ikusten dagoana ikusita, bakoitzak mornorka etxerako bidea hartu dau. Zelaia, behingo baten, hutsik geratu da.

Hurrengo egunean, Aita Joan Bizente Cheranalur aldera agerraldi bat egitera joan zan, ea handik zelako haizeak ebizan jakin nahian. Arpegi ilunak bai, baina hasarrerik ez. Maiteegi eben arrazoigabeke-ria bat bere gain jaurtitzeko.

Itzalez hurreratu jakozan eliztarrak gauzak argitzeko asmo onez.

Antzerkia gerturik egoala eta, ea arratsalde baten ezin leikean egin, itandu eutsoen parroko jaunari.

Zerua zabalik ikusi eban une haretan Aita Joan Bizentek. Hori gura eban, ba, berak! -Baietz, pozik ere! Eta arratsaldean egiten bazan bera ta bere lagun biak ere hantxe egongo zirala iragarri eutsoen Joan Bizentek.

Horrelantxe egin ziran gauzak. Han egoan, aurre-aurrean, gure Aita Joan Bizente bere laguntzaile biek barre zantzo eta txaloka, umetxoak baino pozago.

Arazoa konponduta egoan.

Baina, itaun bat dator hemen. Aita Joan Bizenteren portaera hau bakan samarra iruditu jaku. Ez da normala izan. Zergaitik joko hori? Ez eban egingo, ziur, bere gustukoa zalako.

Zergaitik, beraz? -Bere nagusiaren esana egitearren izan zan, nagusiari obeiduteagaitik. Hainbat aldiz esan dogu Aita Joan Bizenterentzat bere egite guztien erpina nagusien esana egitea zala. Horrek bultzatu eban, egin ebana egitera.

MISIOLARITZAKO HAMARGARREN URTEA

Bere misiolaritzako hamargarren urtea betetzean, honako hau idatzi eban Aita Joan Bizentek:

“Hain zuzen ere, gaur betetzen dira hamar urte neure lur maitea, guztiz maitea, itzi nebanetik; ez neban itzi gorrotatzen nebalako, maitasun handiago batek bultzatzen ninduelako baino.

Hamar urte, baita ere, ni mundura ekarri nindun amatxoren azken mosua hartu nebanetik. Ha zelako ama!

Gaur hila da, zeruan dago. Hiltamuan egoala, hiltzeko pozik egoala esaten eban nire amak.

Gaur esan neike zer egin eban nirekin nire amak, Indiara misiolari etorteko nengoala, azken mosua emon eustanean: negar artean bihotza hunkiturik, eskupetik atera eban 25 pezetako paper tximur bat emonez, haxe esan eustan: “Hartu, seme, zeure beharretarako; ez daukat gehiago”. Horixe egin eban nire amak. Ha bai zala ama, ha!”

Hamar urte Indian

“Hamar urte dira, baita, ni Indiara etorri nintzala eta oraindik ez naz damutu. Jaunari eskerrak, batxo baten ere ez naz damutu. Beti eroan dot neure bihotz barnean holako poztasun atsegingarri bat hemengo arima ta herrien alde dagidan lana kontutan izanik.

Bizi-bizian eta lainorik bage sinistuta nago eta, neure kontzientziak ere haxe berau diraut, Jaungoikoak nahi izan dauan tokian nagoala, beraz, Jaungoikoa neurekin dagoala.

Hortik nire poza, atsegina eta esker-egintza: “Jauna, hona ni, hemen nozu, zeure nahia betetzeko”.

Hauxe da nik Jaunari uneoro esaten deusadana. Siniskera honi zintzo jarraituaz, misiolariak ez dau nekerik, ez atsekaberik, ez etsipenik nabaritzen, naiz eta askotan, bere lan gogor eta bideko oztopo artean alda-maldaka ibili.

Hamar urte, eta beste hamar eta hamar gehiago egiteko prest nago, Jaunaren nahia hau balitz. Nire hazurak lur bedeinkatu hone-tan itzi arte, misiolari izatea nahi neuke”.

San Alberto Ikastetxeko zuzendari

Barriro Ernakulam-era. Beti Nagusien aginduetara. Oraingoan, Ernakulam-go “San Alberto” Ikastetxera bialdu dabe bertako zuzendari.

Danerako balio dauan gizona da gure Aita Joan Bizente. Bazter guztiak betetzen dakiana.

Misio-lanetan buru-belarri sartuta ibili ondoren, misioko buruhauste eta arazoei burpila hartzen ikasi dauanean, ezeukien etxean maiz gertatzen dan lez, preminak behartuta edo, onenean, ikasle-en hezitzaile eginik agertzen da.

San Alberto Ikastetxe hori ezerezetik sortua izan zan 1892an misiolari karmeldarren ahaleginez eta izerdiz. Urteak joan eta urteak etorri, ixil-ixilka, zugatz handi egin zan; goi-mailako ikastetxe entzutetsua. Kaleko ikasleak, batez beste, 700dik gora ziran; barrukoak, ostera, larogeita hamar. Hauxe zan gure Aita Joan Bizenteren lantoki barria.

Zertxobait aldats gora egin jakon lehenengotan. Berrogeita hamar urte lepoan, bizarra erdi zuri, gaztetako umore eta bizitasuna joanda, aspaldion irakaskuntzatik urrun ibilia, edozeinek ez eban lan hori beregain hartuko, baina Aita Joan Bizente obeiduten ekian gizon apala eta ixila zan lez, txistik atera bage hartu eban zeregin astun hori.

Orduko kronikak dinoenetik, gizon ospetsu eta agiriko asko emona zan San Alberto ikastetxe hau. Verapoly-ko abaderik gehie-

nak eta beste elizbarruti askotakoak ere ikastetxe horretako ikasleak izanak ziran.

Bestalde, herri-gizon trebe, politikari sonatu, legegizon eta epaile asko ere bertan ibilitakoak ziran. Hango ingurumari guztian gora handiko erakundea. Karmeldarren aintzagarria. Madras-ko Unibertsitateak Goi-Eskola mailan onartua eukan.

Ikastalde borobil honekin borrokatzen da gaur gure Aita Joan Bizente. Bere sasoirik onenean aurkitzen ez dan arren, gogo eta patxada handiz hartu dau bere lanbide barria. Holako amesak agertzen ditu, behintzat, bere osaba Manueli euskeraz idatzitako gutun baten.

Ernakulam, 19 - 8- 1912.

Neure osaba maite maitie: Ceugaz oin barriqueta puska bat euquiteco ustie ta gogue neucan, baine berba labur batzuc escribiduteco be osta artu neique sazoie.

Ni nenguen lecuen oin Aite Buenaventura ipini dabe, ta bera eguen lecuen nago ni oin,, collegijo baten; zaspireun mutil deucaguz icasten; onetatik irurogueta amalau daucaguz internuec, onec zainduteco ecarri nabe. Emen nago, neure berrogeta amar urte iragota, ule bizer zuriz beteta, ijaje agure bat nasala, mutil coscor, auntzcume leguez saltoca ibili gure leuqueen errebañue zainduten, Oni aguirica, ari laztanca, bestiari bastoyegaz jau da eguin biarra nire sazoyeco guizonzentzat!

Alambere Jaungoicuaren borondate santua dalako pocic nago. Onei mutiloi asco gure deutset, ta cereguin asco emonarren be, ezchat ain astun eguiten curutze au.

Osasun ecin obie deucet beti, Jaungoicuari esquerrac; humore onac be jarraitu deust oin arte, taguaz aurrerutz, nequezca nequezca baiño ez bada bere.

¿Zure osasune celan due? Oin echurezcue dala escribidu deust Mercedec.

Egunero erregua eguin daruat zu eta zuecgaiti. Ni gaiti be eingo dozule uste dot. Bestientzaco lecu pusca bat artute-co, emen zugazcue amaitu biar. Jaungoicuec gure daben artien ondo biciteco aleguine eguin.

Mojen eche erretratuec icusi ditut. Ori bai doiela boga boga! asco alegretan naz; orco ume ta familijentzaco gauza obarik pentzau be ecin. Agur; ichi bier zaitut eta, agur. Ceure ceurie.

Fr. J. Bizente

Urte bete daroa Ernakulam-go ikastetxe horretan. Bere kemen eta adore guztia jarten ditu gauzak ondo eta biribil eroaten. Maite ditu bere mutilak. Hezikuntza lanari osoan emonik dago. Aita onaren irudipean daroa bere zuzendaritza. Ez da zigorzalea. Bihotz handiegia dauko horretarako.

Inoiz mutilen trabeskeriaren bat arteztu behar danean, minbertasun larri bat sentitzen dau bere erraietan, gogoko ondoeza. Gaztelu baten irudipean, bihotz samur eta bigun batek dagi taupada: aitaren bihotzak.

Urteagarrenean edo, ikastetxeko zuzendaritzatik urundu eta bere bakartegira itzultzeko asmotan hasi da. Nekeak zehatz jota dagoala, esango neuke.

Hamar urte buruan, bere indarren gainetik egoan lan-zama astuna croan dau bere eraginaren garretan, nekearen arpegiari jaramonik egin bage. Beti ezinaren mugan jokatu dau, eta iraupenak ere bere ertza dau. Beti eten beharrean erabili ezker, gutxien uste danean, krask egiten dau gizonaren egonarriak.

Eta Aita Joan Bizentek modu horretan jokatu dau, inolako atsedeen bagarik, hainbeste urteren buruan. Nekatuta dago.

Eta hona heldutakoan, Jesus berberaren jokabidea hartu nahi dau eredutzat. Nekea gainezka etorreanean, Jesus mendiko bakartadera joaten zan atsedean bila. Aitarekin solasaldi gozoan, baretu bihotz barneko ahultasun hori, nekaldi hori.

Aita Joan Bizentek ere holako zerbait nahi dau beretzat. Gogoari eta soinari atsedendaldi ondo merezi bat emon; gogo-bihotzak arnasbarritu.

Jaunarekin egoteko astia bilatu; ixil kutunean, Jaunarekin solasaldi luze eta beroak izan. Misiolaritzan egindako hamar urte luze horrei azterketa astun eta zehatz bat egin. Aurrerantzako, bide eta jokabide barriak aurkitu.



Quilon-en: Nagusi eta misiolarien batzar baten

Atzera begira jarri, behar diran oharpenak ateratzeko. Zelakoak izan diran gure ekitaldiak, norainokoa gure garra, gure tiraketa; oker ala zuzen, bizi ala epel, nagü ala jator jokatu dogun guk misio-lanetan Jaunaren borondate santua betetzean...

Hau da, norberaren bizitzari ikerketa zorrotz bat egin, dana Jaunaren borondatepean, polito-polito, argiturik doan ala ez jakiteko.

Ondorio hau ateratzen da, behintzat, Aita Jeneralari idatzitako gutuna irakurtean.

Ohizko agur eta zertzeladak aipatu ondoren, hurrengo eskari hau dagitso Aita Jeneralari: 12 urte luzetan, burutik burura, eten bagarik, misiolaritzan ibili ondoren, bere erraietan sortu dan egarri izugarri batek aspaldiko urduritasunean nahigabeturik daukala dirautso bertan.

Jaunarekin bakartadean, denboraldi luze baten egoteko guraritan daroala gogo. Gogo Jaunaren minetan.

Honek ez dau esan nahi misiolaritzaz iztera doanik. Ez eukan horren tentaldirik txikienik ere. Hil arteraino misiolari, hori balitz Jaunaren nahia.

Baina, gaur eta hemen, bakarraldi horren beharrian gorrian aurkitzen dau bere gogo; eta apalik, eta belaunikaturik, Ernakulam-go bakar komentura denboraldi baterako joateko baimena emon dagio-la eskatzen deutso Aita Jeneralari, bere gain dituan zereginetatik askatuta.

Aita Jeneralak Naparroako Aita Probintzialari bialdu eutsan Aita Joan Bizenteren gutuna, bere aldetik eragozpenik ez egoala esanez, baina azken erabagia Probintzialaren esku itziaz.

Aita Probintzialak ez aurrera ez atzera, arazoa egoan lez itzi eban. Tenteka, aurrerabide bagarik. Menpetasunaren untze goriari gogor helduaz, Aita Joan Bizentek, ezer jazo ez balitz lez, ikastetxe-ko zuzendaritzan tinko jarraitu eban, 1915eko martxorarte.

1914ko udaldian, gero mundu osora zabalduko zan lehenengo gerraldiak izan eban hasiera. Gerra horrek ekarritako zoritxar eta hondamendiak esan ezinezkoak izan ziran, gainera munduko bazter guztietara zabaldukoak, baita Indiako Ikastetxe ta misiora ere. Ezeukia, gosea, txirotasuna, gaixoa ta heriotza...

Indiako misio eta gainteko erakundeak kanpotik etorren laguntzatik bizi ziran. Batez ere laguntza hori Belgikatik bialtzen eben.

Aita Alfonso, misiolari Belgikarra zan laguntzazko erakunde horren buru, bihotz, esku eta oin. Ondo ezagutzen eban Indiako

misioa bera ere han egona zalako. Gero, aberriratu zanean, bere buru argiari motorrak biztuaz, Indiako misioari laguntzeko holako erakunde berezi bat sortu eban Belgika guztian zehar. Iturri hau ere zehatz agortu zan gudaren erruz.

Aita Joan Bizentek bere osaba Manueli, 1915eko martxoan, Ernakulam-dik egindako eskutitz baten, Indian gose eta mixeri handiak dagozala dirautso.

Hona hemen Aita Joan Bizentek berak azpimarratutako eskutitz horrek dinoana:

Neure biotzeco osaba guztiz maitie: Orrec umechuok escribidu deuste, ta eurei contestau ezquero, zuretzat bere lau verbachu baño ez bada bere ipiñi bagarik ocasinue galduteco ez nago.

Eusqueraz egunero ta gachago eguiten jat. Bestetic zaartzen asi naz. Iracurteco antiojuec lazter biarco ditut. Alambere osasun ecin obie deuket.

Zure edadie goorago doye ta zaartu biar izan dozu ez guichi. Ziurrit ez daquit, baño larogueti urteco echatsu asco faltaco. Serapioc larogueta sei dauzala diñost Madriec. Bene benetan beneragarriec zaree. Jaungoicoari esquerrac ain ondo ta lucero biciteco mesedie eguin deutsulaco. Osasunien alan alan orain ibili arren, conciencijeco baque onagaz humore ona daukazu. Orisse da biar doguna. Beste gauza onic mundu onetan ecin guinei icharon, Jaungoicuaren baque santua ezipada.

Orco guerra icaragarrija dala ta, emen bere badaucaguz nequezac. Coco inchaurre ezaten dan frutatic ateraten dan orijue da emengo lur-emon principala. Orain bere precijue asco guichitu da, noc erosi ez dagualako. Gosie ta miserije edocombat.

Ori guizon iltiori noz amaituco dan barriz, inoc bere esan ecina dala dinue. Jauna erruquitu dedila.

Agur bada neure osaba biotzeco. Ondo bici

*Jaungoicuak gura daben artian.
Ceure loba urriñecue baña benetacue.*

Fr. J. Bizente

1915eko apirilean, San Alberto Ikastetxea itzi eta Gongotainak barriro Verapoly-ko parroko izendatzen dau Aita Joan Bizente.

Parrokiara sartu aurretik, orraitio, Ernakulam-go ixil komentuan egun batzuk egin zituan.

Egun hareetan, bere osaba Manueli egindako beste eskutitz baten, une honetan bere bihotz barrenean pil-pilean daroazan sentimen batzuk adierazten deutsoz.

Hona hemen eskutitz hori:

Verapoly, 24 - 8- 1915.

Neure biotzeco osaba maite maitie: Urte onetan ez dot artu zure cartaric. Zure eusquerasco cartachuec asco alegretan ninduen.

Nic ecin dot escribidu ondo eusqueraz, astu jatalaco. Zarrapataca baño espada bere zuri escribiduteco goguec artu eraguiten dost plumie; azten naz, da ecin dot jarraitu: aastu jata nire eusquera gussquie. Or emen paraute verbac gomuntau biar ditut jarraituteco; nequesca nequesca cer edo cer acordetan nacenien escribidu esic, juan zan. Au da gauza barregarrije.

Ez dot pentsetan Española biurtuteric, Jaungoicuac bestetara gure ez badau; baña orruntz etorrico banintz bere, ecingo neuque ecetatic eusqueraz verba eguin. Memorian indarric ez, da burutic guztije juen.

Orain leengo leure barriro agindu nabe. Verapoly Catedral eleissako Vicari naz. Leen iru urte ta erdi emen egon nintzen.

Biar au ainbat onduen eguiteco gogo ozue ta boron-

date andije dauquet; baña lana andije da ta nequeza. Erreca asco dagoz; erri guztije zatique zatique, emen eun eche, emen irureun, aan berrogueta amar, urriñago laro-guei, guztiz mile ta irureunetic gañera, erdijen errecac! guztiz zabalac ta saconac.

Orregaitic chalupachu bat erosi dot ta anche nue lecu guztijetara, neure jentiec ta escolac icusten, ta cer eguin biar dan jaquiten.

Amar escola daucadaz, ta bost gueijago biar nituque neure parroquijan gauzec ondo erabilteco, dotrinia ta escolia iracasteco. Ataraco dirue biar, ta diruric ez; estu nabil. Jaungoicua lagun daquigula. Zorichaarreco guerra orrec garabiltz guztijoc chaarto. Nos amaituco ete da barriz? Echuraric ez dauque.

Belgicatic jatorcuzan diru ta laguntasun andijac galdu cirian. Orain gosia ta nequia bacarric.

Alambere, Jaungoicuari esquerrac, osasun ecin obia daucat eta daucagu guztijok emen.

Baña ni zaartuaz noia; au escribiduteco bere anteo-juac biar ditut; nire gojac edurrez bete ta leguez zuritu dira. Ceuc ere asco zaartu biar izan dozu. Jaungoicuaren borondate santua eguin bedi. Lur onetan beti biciteco ez gara jaijuac. Cerutarrac gara; an daucaguz geure aita amaac.

Ceinda leenago emendic juan, leenago ara elduco gara.

Erregutu eguizu guztijoc nigaiti; nik egunero zuecaitik erregututen dot. Agur bada, neure osaba ona. Alcar ceruen icusico gara. Agur. Ceure ceuria dan

Fr. J. Bizente

Oraingoan, ez zan luzaroan egon Verapoly-ko parrokian. Abuztutik abendura bakarrik. Abenduan, nagusien baimenakin, Ernakulam-go ixil komentura etxeratu zan.

ULERMENIK EZA

Adiskide maite-maite bi eztabaidaka agiri jakuz gaur. Ezin dabe alkar ondo hartu. Ez dabe alkarren erreminik ere. Misioko arazo eta eginbide batzuk dagoz, antza, zintzilik gatazkaren erpinean.

Biak dira adiskide zaharrak, biak adiskide minak. Biak euskaldunak, hizkuntza batekoak; biak karmeldarrak, biak misiolari jatorrak, kementsuak, Jaungoikozaleak, biak misioko motorrak.

Zer Jazo da, ba, euren artean? Nondik sortu dira konpondu ezinok? Zein da oztopo harria? Zein eztabaidaren muina?

Hari honen bila goaz, jazoriko batzuk mahai gainera ekarriaz, baina inor ezetsi eta borborrera bota bage.

Aita Bernardok eta Aita Joan Bizentek alkar, lehenengoz, Burgos eta Markinan ezagutu eben, bata irakasle, Bernardo, eta bestea ikasle, Joan Bizente. Orduko egunetan sortu zan bien arteko adiskidetasun estu hori. Ikasleak maisua goresgarri ikusten eban eta maisuak ikaslea doez eta etorkizunez beterik.

Aita Bernardo Aita Joan Bizente baino lehenagotik joan zan Indiarra. Aita Joan Bizente hara heldu orduko, Aita Bernardo Verapoly-ko Gongotzain zan. Gongotzainaren eskutik emon zituan misioko lehenengo urrats eta ibilerak gure Aita Joan Bizentek; haren ahotik ikasi zituan misiolaritzako barrunbeak.

Uste osoa, fede eta itzaropide bete-betea eukan, lehenengotatik, Gongotzainak Aita Joan Bizentegan. Horregaitik, egunen joanean, misioan agertzen ziran lan, arazo eta beharkizunik zail eta garrantzitsuenak honen esku izten zituan.

Harreman zuri, gozo ta eztitsuak ziran bien artekoak. Honen oroigarri, Aita Joan Bizentek Indian oina jarri ebanean,

Gongotzainak emon eutsan besarkada sutu, adikor eta maitekorra. Gerora, lanaren joanean, berarekin izaten zituan txera eta ederrikusi ajolatsuak.

Bata bestearentzat eginak zirudien. Biak misiolari erraldoiak, Indiako bazter zabaletara, kristautasunaren itxarkundea, pizkundea eroan ebenak. Bata bestea bagarik, erdi-oso geldituko litzake. Banandu ezinak dozuz.

Ekintzarik zailenak, eginkizunik arduragarrienak, parrokiarik nahaspilduenak, Aita Joan Bizenterentzat ziran. Misioko plangintzak aurrera ateratzeko Gongotzainak eukan pertsonarik baliotsuena.

Bien arteko ezkontza ez zitu hori apurtu ezina zirudian, bihotz bat ziralako.

Eta barruko baretasun samur horretan egoala, geldi-geldi, bihotza betean eroian poz eta bake ontzi hori, krask eginda, lurrera jausten jako.

Gogo barnean eroian mundu polit hori, unetxo baten, estali, garraztu eta laino hotzez ilun-ilun egin jako. Barruko poza ta bakea galdu ditu. Jon Gurutzekoak azaldutako "Gau Iluna" sartu jako, behingoan, goitik behera. Tximur-tximur agiri jaku orain gizon hori, eremu lurrean.

Zer Jazo jako, ba, horren luze jausteko? Gauzak horren azpizgoitiko ikusteko? Nahaspil izugarri horren eztenkadak hain zorrotz bihotza urratzeko?

Gongotzainarekin izan dauan adiskidetasun zahar eta estu hori hilik ez badago ere, behintzat hil-aginean dagoala. Eta hori beretzat bere aitarekin adiskidetasun loturak apurtzea lez da. Zoritxarrik handiena, mingarriena. Hortik bere larrialdiak, bere nekeen arabera bizi beharra.

Ona izango jaku hemen Bernardo Arginzonizen bizitzako zehaztasun batzuk gogora ekarte, lehenago ere zerbait esan dogun arren.

Aita Bernardo Arginzoniz Zornotzan jaio zan, 1852ko maiatzaren 26an. Markinan hartu eban, gazte-gazterik, 17 urte zituala, Karmengo Amaren abitua eta 1876ko ekainaren 10ean abade egin.

Gazte burutsua ta azkarra, Burgos eta Markinan filosofia eta teologia irakasten ditu batean eta bestean.

Aberria itzi eta 1883an Verapoly-ko misiora doa. Baina, misiolanetan asko sartu bage, lehenengotatik Puhempaily-ko seminarioan irakasle egin eben.

Seminarioko oporraldietan, hiru hilabeteko epealdia hartzen eban, Puhempaly-tik 90 kilometrora dagoan Kottayam-en misiolanetan zeregintzeko. Hauxe izan zan misiolanetan haren parte-hartze bakarra. Ez zan haurrerago heldu.

1896an Verapoly-ko Gongotzain izendatua izan zan. 1919an Gongotzaingoa itzi eta Palestinako Karmelo mendira erretiratu zan. Azkenez, Castellonen, Desierto de las Palmas-era etorri eta hemen hil zan, 81 urte zituala.

Hona hemen, handi-handiz, margotuta Aita Bernardo Arginzonizen irudia.

Baina barruz, izatez, zelakoa da bera? Ezagutzen ebenak dinonetik, benetako erraldoia. Buruz neurri handiko gizona, jakintza zabalekoa, bihotz onekoa, benetako Jaungoikozalea, santutasunean goietan ebilena.

Akats edo hutsune bat aurkitzen eben beragan: zuzenegia, artezegia, burugogortxo zala bere irizpide eta aginkeratan. Beraz, setati eta tematsua bere izaera, joera eta portaeretan.

Batzuetan, honen erruz, mingarri eta lazgarri bihurtzen zan berarekin harremanak izatea. Jokabide honek zeresan eta neke handiak sortu zituan misiolari askoren artean. Gongotzaina ta misiolariak ez etozan bat irizpide eta arazo askotan.

Parroki lanak azaletik bakarrik ezagutzen zituala esan dogu. Jendarteko bere harremanak ia hutsak zirala. Guk esaten dogun lez, ez zan plazagizona.

Hortik sortu ziran, beharbada, bere aginte denborako oker eta hutsegiteak, pastorgintzarako oso kaltegarri eta bete ezinak gertatzen ziranak. Agindu atzerakoiak, jasangaitzak, batzuk hasarregariak.

Hau dala ta, gatazka, eztabaida eta desakordio asko sortu ziran Arginzoniz jaunaren eta misiolari eta herritarren artean. Adostasun guztia triskaturik agiri zan.

Bere aginduak betetzeko epel samar ikusten ebanarekin zigorza-lea zan. Abadeak eskubide bagarik eta langintzatik baztertuta izteko erraztasun handikoa. Honen arabera asko sufritu eben hango misiolari eta apaizak. Huskeria bat entzutea nahiko izaten ei zan oharketa gogor bat jaubeari bialtzeko. Gizon bakartia; Ordenako agintariekin harreman gutxi eta auzibide asko.

Bere agintearen azkenaldian jarri zan antza hain minberati eta gilbera. Urteen ordaina? Nekearen ugerra? Ezinaren agorra? Nok daki. Dana dala, hemen dinoguna bere misiolarien ahotik jaso da.

Bestetik, tiki-miki honekaitik ez eben misiolariak Gongotzainaren izena, gizatasuna ta maila goitarra lohitu. Gotzain santua deitzen eutsoen beti, ontasun hori berea ebalako.

Arazo guzti honek berarekin batera desagertu ziran; agintari barriekin uxatu ziran gatazka honeek.

Holako gatazka batzuk misioiko ondasunen jabetzaren inguruan sortu ziran. Norenak ziran misioak eukazan ondasun apurrak? Obispaduarenak ala Ordenarenak?

Tiki-miki eta pirrikeria asko sortu zan arazo honen inguruan, konponketa on bat egiteko parte biak alkarregandik urrunegi egozako. Alkarrizketa gutxi bata eta besteen artean.

Beste auzibide bat misiolari eta abadeen izendapenetik etorrena zan: misiolariak nongo misiora bialdu, edo ta nongo elizaldean jarri. Nok egin behar zituan izendapen horreek: Gongotzainak ala Ordenako Nagusiak?

Egoera honen mingotsak jota, honelan idatzi eutsan misiolari batek, Erromara, Aita Jeneralari: "Ixilean autortu dagitsut hau: Gongotzaina, bere jenio txar eta zentzun faltagaitik gobernuko arazoetan, ez dau inok maite, ez herriak, ez misiolariak. Aita Joan Bizente bakarrik geratu da bere lagun".

Beste kirri-marra bat misiora heltzen ziran limosna ta laguntzak noren jaubetzapean egozan jakitetik sortzen zan. Nok eukan jaubegoa? Mitradunak ala Ordenako nagusiak? Noren esku egoan zati-kuntza hori egitea? Auzi hau oraindik gordin-gordin egoan, nahiz eta ebazpena premiazkoa izan.

Atsekabe ederra hartu eban honen erruz gure Aita Joan Bizentek. Belgika aldetik, norbaitek diru mordotxo bat bialdu eutsan. Kottayam-go lurlean, Vazhur izeneko herrian, elizaxo bat jaso egian diru harekin.

Eliza honen plano eta gaintikoak Gongotzainari aurkeztu eta bere baietza ta bedekapena lortu ondoren, oraindik misioan lan posturik bage egoan misiolari baten artekotasuna eskatu eutsan Gongotzainari elizagintzako diru eta gastuen ardurea zehatzago eroteko gogotan.

Eta hemen hasi ziran tirabira ta garrazkeria guztiak. Gongotzainak Aita Joan Bizentek izendatuko misiolariaren orde, bertako apaiz bat izendatu eban diruzaintza hori egiteko, horrelan diru harek Ordenarenak bagarik obispaduarenak zirala agertuz.

Ordenako nagusiak, itzal eta begiramen handiz, baina mihina ixilean gorde bage, erantzun eutsan Gongotzainari: Diru harek, hain zuzen ere, Aita Joan Bizenteren izenean etorriak zirala eta asmo bakar eta berezi bat ekarrela: Vazkur-ko elizaxoa eraikiteko asmoa.

Beraz, argi egoala diru-laguntza horren jaubegoa noren esku egoan, eta ez zala ez legezko, ez zuzena, ez egokia hor oztopoak jarten ibiltea.

Honakoxe huskeriak garratzuten eben misioiko bizi-giroa eta bizipoza. Honakoxe tiki-miki arlosteak sortu eben ondoeza misiolariaren artean.

Misiolariak bildurra eutsen Gongotzainari. Kikilduta egozan; ezetariako harremanik bage; ez ziran ausartzen asmobide bat bidean jarten; gogorik bage misiolaritzarako; ekimen bat burututeko adorerik bage Gongotzainaren bildurrez.

Gongotzaina, bere aldetik, urduritasunak jota eabilen: uste eban bere agindu, plangintza ta esanak ez zirala onartuak Ordenaren aldetik eta bere kontrako boikot antzeko bat jaubetu zala misiolari eta apaizen artean.

Hortik itsuan hartutako erabagi batzuk geroago eta mingarriago bihurtu ziran.

Esaterako: Galbedarrik sartu ez zedin kristauen bizitzan, sarritan agindu ustel eta galgarriak emoten zituan Gongotzainak bere idazkietan eta parroko eta misiolariei agindu horren betebeharra eskatu. Pastoralgintza honek hasarrea, ondoeza eta mormorra ekarten zituan ondorio lez.

Mesedegarri baino kaltegarri gehiago ziran. Esaterako, kristauen artean edatzaile asko egozala-eta, ohitura txar hori kentzeko, agindu zorrotz hau emon eban: edanda ikusten zan kristau hori, edozein zala, salatua izango zan parrokoaren aurrean eta, honen jakinean, parrokoak beragana deitu eta diru-zigor estua ezarri behar eutsan pekatariari.

Bardin esan geinke gauez egiten ziran antzerkiakaitik ere. Edozenbat honako arinkeria. Agiri-agirian Eliza ta kristauen kaltez joiazan erabagi honeek.

Eta Aita Joan Bizente, gizon garbi eta zuzena, erabagi eta agindu horreek, parroko zan aldetik, onartu ezinean aurkitzen zan, bere kontzientziaren aurka joiazalako. Beste misiolari asko ere eritxi bardinakoak ziran. Eta Aita Joan Bizente bialtzen eben Gongotzainarekin arazo horreetzaz hizketatu eta okerrak zuzendu egizan.

Baina, azken baten, alkarrizketa hori gor eta mutu amaitzen zan bakoitzak berean jarraitzen ebalako.

Bere barruko neke eta kezka larrien azalpen lazgarri bat emoten deusku hemen Aita Joan Bizentek.

“Bihotz-bihotzez maite dot Gongotzaina eta berak ere benetan maite nauala uste dot. Baina zuzen jokatu nahian, kontzientziak agintzen deustan bidetik jokatzen dot beti. Neure Nagusia Jaungoikoaren ordezkotzat ikusten dakit. Nagusia neurekin bat ez

badator, Jaungoikoaren kontra nabilela uste izaten dot. Eta hau askotan jazoten jat. Hau dala ta, neure barruko bakea erruz galtzen dot eta nahigabez itota gelditu. Eta neure zoritxar honetan, ilunpe honi irtenbide bat aurkitu beharrean ikusten naz”.

Aita Joan Bizente, Gongotzainari bere eritxi eta burubideak agertu aurretik, otoitzera joaten zan. arazoak zuzen ebatziteko argia Jaunari eskatzera. Eta gero, Nagusiari zor jakon itzal, apaltasun eta begiramenez bere irizpide eta pentsabideak agertu.

Alde batetik, Nagusiaren aginduak zehatz bete nahi zituan; eta bestetik, bere kontzientziak larriturik ezetz esaten eutsan, bere ustez, agindu horreek arimen onerako bagarik kalterako zirala sinistuta egoalako. Kontzientziaren kontra ez dau ezertxo ere egin gura; Gongotzainaren aginduen kontra ere ez. Horra borroka larria! Hortik sortzen zan bere kontzientziaren martirioa.

Larritasun honetatik onez irteteko, Aita Joan Bizente, Ordenako Nagusien baimenakin, Ernakulam-go komentu baketsura erretiratu zan.

Baina, hemen ere, bakearen orde, kalbario barri bat aurkitu eban: Gongotzainak, ezelango arrazoibiderik emon bage, Ernakulam-go parrokiatik kanpo, mezak esatea, autortzak entzutea eta hitzaldiak egitea debekatu egiten deutso.

Eztenkada honek Aita Joan Bizenteren bihotza alderik alde zultatuta itzi eban; gogo barrena aieneka eta uluka. Nori? -Eta berari zigor hori! Ezin dau ulertu zergaitik izan daitekean zigor hori.

Ixilean negar egingo dau, baina inoren aurrean ahorik zabadu bage; erosta eta mormorrik bage. Jaungoikoarekin bakarrean biziko ditu, txutxu-mutxu ixilean, ordu garratz horreek.

Beste misiolariak ere txarto baino txarrago hartu eben zigortze hau; hasarreak goraino igon eben; olatu antzera ebiltzan joan-etorrian misioko artaldean.

Ordenako Nagusiak ere txunditurik geratu ziran barri hori jakitean. Eta zigor hori legetik guztiz kanpo egoala eta, bertatik kentzeko eskatu eutsoen Gongotzainari. Halan egin eban, egin ere, Gongotzainak.

Jakingarria da, Aita Joan Bizentek, zigor hau hartzean, Gongotzainari eginiko eskutitza:

Jaun Txit Agurgarria: Neure esku dago zuk bialdutako zigor-gutuna. Bene-benetan eskertzen zaitut gauzak argi eta garbi esan deustazuzalako, eta apal-apalik hartzen dot ezarten deustazun zigorra. Parka eidazuz nire hutsegite guztiak. Ez naz barrero horretan hasiko. Bedeinkatu nagizu bedeinkapen zabalez, komentuko bakarraldi hau onurakor izan dakidan.

Ezgai nazen zure seme

Fr. J. Bizente

Gaur egun, ulertezin egiten jaku gizon santu bi honeen arteko aditu ezin gogor hau. Horretarako, nik uste, gizaldi honen lehenengo egunetara jatsi beharra daukagula.

Garaian garaiko pentsaera ta jokamoldeak sortzen dira. Garai bakoitzak bere arpegi eta gauzak egiteko modu bereziak izaten ditu. Garai haretan, gizakien arteko harremanetan, agintedunak abantaila bat eukan menpean egoanaren kaltez: goragoko maila baten aurkitzen zala!

Hortik bere aginteko erak, gehienetan, goitik beherakoak izaten ziran, agintzen zana ona ala txarra zanik inori itandu bage eta kontra inok txistik atera bage. Aginte orokorra zan goikoarena. Bihurrikeria handi bat zan nagusiak agindutakoa zalantzan jartea.

Menpekoak, oster, nagusien esana ixil eta apalik hartu behar izaten eben, hori zalako orduko mistika bidea. "Aginteduna Jaungoikoaren orde z dago" irakasten zan, beraz, haren aginduak Jaunarenak lez ziran.

Jokabide hau erabiliaz, gauzak euren muga eta senetik aterata gelditzen ziran askotan, eta hortik sortzen ziran gero gatazka istilu eta ondoezak.

Ez zan ohizkoa nagusi bateri oharpenak egitea edo-ta bere eritxiak zalantzan jartea. Hori arriskugarria zan. Hori egitera ausartzen

zana ixildua edo zigortua izango zan. Bide hori da onena topeka egiteko.

Gongotzainak uste eban berak agintzen ebana zuzenean Jaungoikoaren nahitik etorrela, eta Aita Joan Bizentek Jaunari begiratuz, agindu hori oso osoan Eliz eta kristauen kaltegarri zala; bere kontzientziaren aurka egoala.

Nik uste, honako zerbait jazo zala gure santu bien artean. Maitasunak ez ditu berez konpontzen arazoak; arazoak euren konponbide bereziak dabez, eta horrek jarri behar dira jokoan, bestela ustaldu egiten dira.

ARDI GALDUAREN BILA

Hasarraldiaren beroak giroa mingostu ebalako edo, oraindik zauriak gordinegi egozalako konponbide on batera heltzeko edo, komentuko otoitz bizitzak liluraturik eukalako edo, egoera haretan barriro misiolaritzan sartzeak bildurra emoten eutsalako edo, dana dala, Aita Joan Bizentek komentuko bakartadean urte pare bat gehiago egiteko baimena eskatu eutsan Aita Jeneralari.

Bakartadeko haizeak eta Jaunaren ondoan sentitzen eban txukuntasun beroak on egiten eutsan, antza, bere gogoaren nekeari. Aita Jeneralaren aldetik bedeinkapen guztiak jaso zituan bakartadeko bizitza horretan jarraitzeko.

Gauzak honan, gertakizun negargarri batek ikaraka jarri eban misioko bake eta barealdia.

Ustekabean eta ixilpean, azpikeriaz jokatuz, etxeko misiolari batek bere lagunen anaitasuna apurtu, Karmengo Ordena fede gaiztoz saldu eta, seme galduaren antzera, etxetik urrunetara ihes egin eban, bizitza barri baten bila. Bere lekaidetza ta abadetzari uko egin eutsen. Misiotik ihes egin.

Bruno zan honen izena. 1908ko abenduan heldu zan Verapoly-ko misiora. Indiara helduaz batera, Puthenpaly-ko seminarioan irakasle izendatu eben.

1916ko apiril-maiatzean, Bangaloren oporrak egiten ditu. Oporrak amaitzean, ez zan barriro seminariora itzuli. Une hori aukeratu eban Ordenatik ihes egiteko.

Handik egun batzuetara, seminarioko buruzagiak Aita Brunoren gutun bat hartzen dau, ez dakigu nondik bialduta, Espainia eta Ameriketatik osteraldi bat egitera doala esanez. Guzurra zan dana.

Handik geroago batera, izen bako eskutitz bat jaso eban misioke nagusiak, Aita Bruno oraindik Indian egoala iragarritz. Ez eban non egoanik esaten, baina bai Indian egoala.

Ez zan gure Bruno hau trokarro baten galdutako ardi gaixoa, ez. Etxeko barrutiak ezetsi eta, askatasunaren amesean, urrutira ihes egindako ardi geldigaitza zan.

Urte luzeetan artzaindu eban misioke lurraldeetan bere artaldea. Artzain ona zan; misiolari argia; giza doez aberatsa, baina Amaren etxean, antza, aspertu egiten zana. Gaur eta bihar eta etzi gauza berberak; beti bat. Otoitzaldiak, hildurak, nekeak. Giro ustela iruditzen jakon Amaren etxean hartzen zana; anaien arteko beroa, berari arrotz egiten jakon; bakartadea, bizimodu motel, gatz eta bizigarririk bagekoa; bihotz-grinaz erreta; Jesusi behin emondako hitza betetzeko adorerik bage, zori larrian aurkitzen zan.

Eta, egun baten, bereak ziranak hartu, atea giltzez itxi eta, behatz-muturretan, arrasto lorratzik itzi bage, urrundu zan Ordenako anaiditik. Inok ez ekian non ezkutatu zanik, ez nondik ebilenik, ez norekin egoanik...

Bere misiolari lagunak zer egin ez ekiela, gogoz jota, minduta, urdurituta. Gauza baten etozan danak bat: anaia iheslea aurkitzeko, gutxienez, ahalegin guztiak agortu behar zirala. Aurkibide guztiak jokoan jarri, neurriak hartu, bideak egin, poltsa eta nekearen arpegiari begiratu bage, nahiz eta anaia aurkitzeko itxaropenak urriak izan.

Bere oinatza nahastatzearen, bere izena ere aldatu egin eban txori hegalaria. B.G. Bridge ingeles-izena hartu eban Eliza katolikoa itzi eta anglikano egin zanean. Erbi-txakur ona behar zan haren arrastoari jarraitzeko. Bazterren baten urtu egin zala esan leikean.

Bilaketa guztiak alperrekoak gertatu ziran. Itxaropen guztiak hilik. Anaia hori berreskuratzea ezinezkoa zala eta arazo horri berez ulteltzen izteko asmotan egozan anaidikoak.

Misioke nagusiak, hori ta guzti ere, azken ahalegin baten Aita Joan Bizentegana jo eban, ea Aita Brunoren bila joateko prest egoan itanduaz. Ez zan besterik behar. Joan Bizentek, suge batek aginka

eginda lez, zutundu eta bat-batean pozik joango zala erantzun eutsan.

Aita Joan Bizenteren bizitzaldian honako unealdi gogor asko aurkitzen ditugu. Ur lohi asko edandako gizona zan, baina honako zurrutada nahigabezkorik inoiz ez. Astinaldi halakoa bere erraietan hartu ebana.

Hemen ikusten da beste behin, haren bihotzaren neurri sakon eta zabala. Barriro seneratu eta etxeratu behar zan anaia mustur-astun hori. Amaren etxera ekarri.

Goitiko zartada bat beharko zan anaia iheslariaren bihotza biguntzeko. Eta Aita Joan Bizentek, otoitzean trebatua zan lez, goitiko indar horretan eukan jarrita bere uste ona.

Ez zan esku hutsik joango. Jesus lagun ebala joango zan. Berak esaten eban lez: "In nomine Domini", hau da, "Jaunaren izenean".

Baita kristau askoren otoitzetan babesturik ere, Lisieuxko Teresa deuna aurretik zala, misiolarien arreba eta zaindaria bera baita.

Bere arreba lez zan Teresitari honakoak esaten eutsazan: "Teresita, Teresita, gure Aita Bruno deabruaren sarepean jausi da eta berarekin eroan deusku, zeure neba dozu; eta zuk, nor zein dan begiratu bage, mirari ta guzti, edonori laguntzen dakizu. Bruno gixajoa berreskuratu behar dozu. Non dago bera? Aurkitu eta ekarri eiguzu".

Goiz baten, hasi eban Indian zeharko ibilaldi hori. Iheslariaren ikurratz txikienik ere ez eukan. Erbi-txakurrenak egin bearko zituan bere anaia hori aurkitzeko.

Herririk herri, auzunerik auzune, bazterrik bazter, zulorik zulo; hemen txistu, han oiuhu, haragoan dei bat, beti erantzun bardinaz: haizearen oihartzuna, durundu-hotsa, besterik ez. Hainbat osteria egin zituan Ernakulam, Munnar, Madras, Gorakpur, Kalkuta-n zehar...

Azken baten, Gorakpur-en aurkitu eban gure Bruno hori. Zeharka- meharka askoren ostean, berarekin hitz egitea lortu eban. Luzaroan hizketatu ziran alkarri esan beharrezkoak esanez. Une baten ere ez eben gizatasunik galdu; hurrengo batean, barriro ikuste-

ko asmotan agurtu dira gaurkoz, harremanak kartaz jarraituko ebe-
zala alkarri opatuz.

Baina argi egoan Brunoren aldetik ez egoala gogo onik. Bere era-
bagian guztiz itsumenduta egoala igarten jakon. Bialdu eban Brunok
holako gutunen bat. Baina argi egoan kartaren gaina gozoa, ahozu-
ria, itzal eta begiramenez eginga zan arren, barruz, adi begiratuz,
eden-osina, guzurra, zezen-adarra ikusten zala.

Alkarri kartak idatziaz egin eben jokaldi luze bat. Zuk niri idatzi
eta nik hartu, nik zuri idatzi eta zuk hartu. Buruz buruzko pelota-joko
bat zirudian. Baina, noiz edo noiz, azkeneko tantua kantatzeko txan-
da heldu zan.

Aita Joan Bizentek trikimailu bat ebulan jiraka bere buruan. Ziur
egoan, edozein atxaki bide zala, Aita Bruno Ameriketako karmelda-
rren komentu batera eroatea lortzen baeban, Bruno barriro komentu-
ra itzuliko zala, munduari agur eginda.

Asmobide honen harira, gauzak polito-polito gertatu zituan Aita
Bruno Ipar Ameriketako komentu batera berarekin eroateko.

Aita Brunoren burua ere bero-bero egin eban pentsamentu hone-
kin. Baietza emon eutsan. Biak batera joango zirala. Honetan bat eto-
zan. Eguna ere izendatu eben. Abenduaren azken egunetan, Gabonak
egin ostean, irtengo eben Kalkutatik Ameriketarantz. 1916ko aben-
dua zan. Alkarren hitza lekuko. Gauzak benetan joiazala esan leike-
an.

Baina Brunok, gure artean esaten dan lez, lastoa janazo eutsan
Aita Joan Bizenterí. Ez eban hitza bete; ez zan Kalkutara etorri.
Iruzur egin eutsan bere ongileari.

Hilobi bat eginik geratu zan gure Aita Joan Bizente, baina gogo
tente ebalá, bere aldetik egoan guztia eta gehiago jokoan jarri ebalá-
ko arazo mingarri hori onez konpontzeko. Azkenean, ezinezkoa ger-
tatu zan.

Azken gaizto honi buruz, hauxe idatzi eban Aita Joan Bizentek:
“Ahal izan dogun guztia egin dogu gauzak onean jarteko. Otoitzaro
luzeak egin ditut haren alde; kristau asko ta asko jarri ditut otoitzean

ardi gaixoa bere artaldera ekarteko. Ezinean jarri gaitu. Gaurkoz,
beragaitik egin dogun guzti hau da gure pozgarri bakarra. Gainetikoa,
Jaungoikoak bakarrik daki”.

Bruno anglikanoen erlijiora aldatu zanean, bertako abade egin
zan eta gero emakume batekin ezkondu. Horretaraxe amaitu zan his-
toria triste hau.

Nik uste Aita Joan Bizentek zorigaizto honen arantza zorrotza
heriotzararte eroango ebalá minez bihotz txokoan.

Dana dala, hor gelditu da ikasgarri eta ikusgarri Aita Joan
Bizentek egindako karidadezko egintza eder hori. Gauza erraza diru-
di, baina ez dago edonoren esku. Zaila da holako larrialdi bati aurre
emotea. Horretarako Jesus berberaren antzeko bihotza behar da.

Jesusek, heriotz aurrean, bere bihotzaren gorira, emondako agin-
du barria ez da, inondik ere, betetzeko erraza. “Nik maite izan zai-
tuedan lez, zuek ere alkar maite dagizuela. Honetantxe ezagutuko
dabe neure ikasleak zareena: Alkar maitatzean”.

Heriotza baizen gogorra da askotan Jesusen agindu hau ondo
betetzea.

Baina Jesus oraindio aurrerago doa: “Entzuten nozuenoi hauxe
dirautsuet: “Maite egizuez zeuen arerioak, on egiezue gorroto deu-
tsuenei, bedeinkatu egizuez madarikatzen zaituenak; matraila baten
zauritzen zaituenari, eskeini bestea ere, zeruko Aitaren semeak izan
zaitezen”.

Gizakia durdituta izteko besteko aginduak dira. Ezinaren ezinez
giza gogoá menperatuta lez aurkitzen da hemen.

Horregaitik dira hain gutxi agindu hau garaitzeko besoa daukeen-
nak. Baditugu, orraitio, eta ez gutxi, eginkizun gaitz honetan tontor-
tontorreraino heldu diran gizaki eredugarri eta txalogarriak, esatera-
ko, Kalkuta-ko Ama Teresaren eskolakoak, edo ta beste edozein
motako behartsuen zerbitzuan diharduenak.

Baina ezin ukatu bereziz zaila danik. Batez ere, iraina barria
danean; zauria oraindik odolatan dagoanean, parkatzea oso neketsua
izaten da.

Edota, nor zein dan jakin bage maitatzea; ikusi ezin zaituana; begipean zaroazana; atsegin ez jatzuna; zeure ames, pentsaera eta elburuetatik urrun dagoana; gizatasun txatxarduna...

Arrotzak, hurkoak eta urrunekoak, ezinduak, txiroak, aspergarriak, gaizkinak eta abar maitatzea ez da benetan zeregin gozoa. Odol asko behar da zanetan horrenbeste egiteko.

Dana dala, hortik doa Jesusen agindua eta, atxakirik bage, bete-beharrean gagoz kristau izango bagara.

“Zuek guztiok anaiak zaree, Aita baten semeak”, dirausku barriro ere Jesusek. Izatez egia honetan oinarrituta dator alkar maitatzeko agindu hau. Anaiak gara guztiok, hortik gure maite beharra.

Anaiak gara esatean, bertatik gure gogo gozotasunez, atseginez, zabal-zabal egiten jaku. Baina, zoritxarrez, gehienetan ezpan gainean hotzez hiltzen dan hitz polit bat baino ez da izaten. Hitz ustela, hutsa. Ez dauko gure bihotzak alkar maitatzera bultzatzeko indarrik; ez da motor bultzagilea.

Zailtasun hau gizaki guztion zama astuna dala erakusten deusku eguneroko bizitzak. Neke honi lotuta bizi gara gizaki guztiok. Eta lotura hori apurtzeko jokabide bakar bat dogu: geure fedea sustrai sakonetan tinkatu. Fede garbia, bizia, emonkorra bizi, fededun benetakoak izan.

Fede biziak maitasun bizira garoaz. Fede bizi horrek Jesusen esanetan barne-barneraino kutsututzen gaitu. Orduan gagoz hurkoagan Jesus ikusteko eran; hurkoa anaiatzat hartzeko bidean. Orduan ikusiko dogu Jesusen irudia anaiaren arpegian moldatuta, eratuta.

Hauxe zan Aita Joan Bizenteren jokabidea. Pertsona bakoitza Espiritu Santuaren bizilekua zala sinistuta egoan. Jaungoikoaren etxe zala. Jesus berbera zala gizaki horretan bizi zana.

“Benetan dirausuet: nire anaia honeetariko txikiren bati egin zeutsena, neuri egin zeusten”. Ebanjelio hau hartu eban Aita Joan Bizentek bere bizitzako gidabidetzat. Hemen bere bidean aurkitzen eban edonor Kristo berbera balitz lez maitatzeko ta zerbitzeko arnasa-gaia. Maitasun horrek irrikatuta ibili zan Aita Joan Bizente Aita Brunoren bila.

ABERRIRA BIDEAN

Tontor honetara heldutakoan, Aita Joan Bizenteri Aberrira itzultzeko gogo biztu jakon.

Hiru arrazoibide izan zituan begitan erabagi hori hartzeko orduan. Aberrira itzultzeko gogo hori ez zan izan misiolaritza zama astun bihurtu jakolako; gogorik eza berarekin jaubetu zalako, ez. Mila bidar iragarri eban berak hil arteraino misiolari jarraitzeko gogo eukala.

Ez egoan hor barruko harra; sakonago sartzen zan sustraia. Alde batetik, Bernardo Gongotzainarekin izandako konpondu ezinaren izotza oraindik guztiz urtu bage egoan; zauriak zabalik; zerua lainoz; gauzak lehengoan.

Egoera hori ez zan girorik onena, egokiena barriro misiolaritza bizira bihurtzeko. Horretara bere kezka, nahigabe eta larrialdiak gehigotzea besterik ez eban lortuko. Misiolari bai baina aginterik bage, erantzunkizunik bage, bestela Gongotzain honekin lehengo zulora jausiko gara eta.

Eta hori ezinezkoa egiten jakon lez, Ordenako Nagusiei barriro aberrira itzultzeko baimena eskatu eutsen behin eta barriz.

Aita Joan Bizente setatsua ta ausartia zan arren, inorekin amorraildik izan bage, bere buruarekin jaubetzen ekiana zan. Indian egozan denboraldi guztian ez eban izan hasarraldi batxo bat ere misiolari batekin, ez eta gainetiko beste lankideekin ere.

Ixil, apalbera eta lotsakor agertzen zan danakin. Ez jakon entzun inoiz hitzik txikienik ere inoren kaltez. Heriotza nahigo eban inor mindu baino lehen.

Itzala ta maitasuna emoten ekian gizona zan. Goitiko arauak izaten zituan beti begien aurrean. Bere egite guztien hasieran eta amaieran Jaungoikoaren goralmena eta arimen ona ipinten zituan. Hori zan bere urrezko araua. Horretara jokatzen ekialako, maitasunez inguratirik aurkitzen zan beti.

Gongotzainarekin izandako larrialdi eta eztabaidatan ere bakezale eta adiskidetzaille agertu zan beti. Ez harrokeriarik, ez etsaikeriarik.

Gongotzainak hartzen zituan erabagi eta burutaldi asko ta askoren aurrean, kontzientziaren ahoz hitz eginez, zein zan bere eritxi apala zintzotasun guztiz agertzen eutsan.

Batzuetan bere kabuz bagarik, Ordenako mandatari eta bere misiolari lagunen aginduz hizketatzen zan Gongotzainarekin, beraien pentsaera, gurari eta eritxiak mahai gainera eroanez.

Bere aldetik, ez eban inoiz norgehiagokarik izan Gongotzainarekin.

Bere aldetik, kontzientziak hori eskatzen eutsalako, apostolutzari buruz berak zituan eritxi eta pentsaerak agertu beharrean aurkitzen zan eta, bestetik, Gongotzainak, beti susmolari, autortza eta hizketaldi honeetan Aita Joan Bizenteren bihurrikeria, gogorik eza, oposizioa ikusten eban. Ez zituala bere esan eta aginduak bete nahi. Eritxi honetan gogortuta egoan Gongotzaina, baina ziorik bage.

Oztopo latza Aita Joan Bizenterentzat. Era horretan ezin eban jarraitu misiolaritza bizian. Gongotzainak ardura edo aginte barriren bat emongo eutsanaren susmo ziurra eukan eta horixe zan, hain zuzen ere, bere kontzientziak onartzen ez eutsana.

Ez eban bere kontzientzia kargu barriak leporatuaz lotu nahi. Hori martiriorako bide izango zan. Hortik erabagi garratz bat hartu eban: misioa itzi eta barrero aberrira etorri eta hemendik lan egin misioen alde.

Egoera honetan egoala, Ordenako Jeneralari gutun bat egin eutsan Bere Gongotzainari eutsan itzal handia aipatuz: “Bihotzez maite dot eta berak ere maite nauala uste dot”.

Behin, Gongotzaina Palestinako Karmel mendira erretiratu zanean, oroigarri hau bialdu eutsan adiskide baten bidez: “Esan egiozu bihotzean daroadala samurkiro eta maitez”.

Sentimen eder honeek loratu ziran Aita Joan Bizenteren bihotzean eztabaida eta ezbehar hareen ostean.

Beste asmo bat ere ba ebilen Aita Joan Bizenteren buruan Indiari agur egitea erabagi ebanean. Urritasun, txirotasun gorriak jota egoan misioa. Txakur txikirik bage aurkitzen zan munduko gerraldiaren erruz.

Danok ezagutzen ditugu holako gerra batek ekarten dituan hondamendiak: heriotza, ezbeharra, birrinketa, gosea, pobretasuna alde guztietan.

Misiora ere heldu zan txirotasun gorri hori. Ezeuki hutsean egoan misio guztia erakunde lez.

Goragoan esan dogu misiora heltzen zan diru laguntzaren zatirik onena Belgikatik etorten zala. Indian misiolari izandako Aita Alfonso, Belgikarra, zan diru-laguntza horren arduraduna. Haren esku egoan misiorako behar zan dirutza hori bilatzea.

Gizon guztiz trebea zan horretan. Berez zan antolatzaile begiluzea, zuhurra; Jaungoikozko gizona, gogoak bereganatzeko gaitasun handikoa; misiozaletasuna ezker-eskumaz zabaltzen ekiana. Gizon ongile hau zan misioa diruz hornitzen ebana.

Bizitzeko arnasea behar dogun lez, horrelantxe dirua behar izaten dogu edozein eginkizun aurrera eroateko. Dirurik bage ez dago langintzarik.

Gerratearen erruz, Belgikako iturri hori agortu zanean, misioa diru laguntzarik bage pobretasun gorrian, hil zorian aurkitzen zan. Zelan edo halan, egoera larri horri irteera bat aurkitu behar jakon, misioa heriotzara eroan baino lehen.

Indiako misiolari guztien begiak Espainia aldera begira jarri ziran, Espainia ez zan, ba, gerran sartu. Bake-giroan egoan. Beraz, zergaitik ez aurkitu Espanian diru-iturri hori misioari oparotsu laguntzeko? Nora ezean hortxe aurkitu eben irteerako atea.

Gurari honen berora, hainbat eskutitz eta idazki bialdu zituen misioko buruzagiak Probintziako agintariakana. Zentzunezko eskabidea zan, irteera bakarra. Beraz, ontzat hartu eben eskakizun hau Probintziako arduradunak.

Baina horretarako erakunde indartsu eta ondo antolatutako bat behar zan, plangintza horri bideak urratzeko. Buruzagi argi bat zuzia eskuan eroateko.

Holako ordu larrietan, beti agertzen da, zorionez, gidari azkar, dohaintsuren bat eragozpen eta zailtasunak menperatzeko gauza izan daitekena. Gidari salbatzailea.

Holako gidari argi bat, zalantzarik bage, Aita Joan Bizente zan. Indian egona, misiolaritza ondo ezagutzen ebana, hango beharriak ere bai.

Nor bera baino hoberik misioen aldeko zabalkunde hori egiteko? Nor hoberik diru-eske eta biltze hori egiteko? Gizon eginkorra inor izatekotan, langile nekagaitza, geldiezina, bihotzean mendiak aldatzeko besteko fedea eroian gizona.

Diru ezaren korapilo astuna bat-batean ikusi eban Aita Joan Bizentek eta bertatik konturatu zan arazo larri horren hondamendia norainokoa zan. Lehenbailehen bete behar zan diruz zulo hori, bestela horren ondorengoak geldiezinak izango ziran. Eta besterik ezean, Aita Joan Bizente bera aurreratu zan zeregin astun eta nekettsu hori bere gain hartzeko.

Probintziako buruzagien autarkia ere beretzat izan zan. Ontzat emon eben Aita Joan Bizenteren opaketa hori eta bertatik aberrira itzultzeko deia hartu eban.

Lehenengo burura etorri jakon asmakizuna diru bila Ipar Ameriketara joatea izan zan. Dolarren bila. Baina, gero, zentzunez, asmo hori baztertuta itzi eban.

Oso arriskugarria zan, gerraldian, itsasoratzea. Ontzi asko suak jota galtzen ziran itsasoko ilunpeetan. Ez egoan itsasbide ziurrik.

Baina horrek ez eban bildurtu gure gizona. 1917ko ekainaren

27an itsasoratu zan, baina ez Ameriketarako, Espainiarako baino.

Jaunaren eskuak ekarri ebala esan geinke, hementxe hasi bai eban misioen aldeko lanik eder eta garrantzitsuena: Misio zaletasunaren suspertzaile eta bultzaitzaile sutsu eta paregabea bihurtu zan. Bihotz asko bai Espainian eta, gerora, bai Ameriketara misio-maitasunera erakarri zituan. Misioen pizkundera sortu.

Aita Joan Bizente erabagiak harteko orduan dudazko gizona zan. Zalantzan gelditzen zan zein bide hartu ez ekiala.

Joera bi nabari dira argi-argi Joan Bizenteren bizitza eta nortasunean. Alde batetik, Jaungoiko zale oso-osokoa da. Komentu zarratuetako bizitza dau maite, eremuko ixila, han dauko josita bihotza. Jesusekin bakartadean bizi, solasaldi amaibakoak izan, otoitzaren barnean arnasbarritu, bihotza Jesusen sugarretan goritu; Jesusekin mahai batetik edan maitasun ardoa.

Hauxe zan bere lehenengo joera, bere grina. Baina, honen ondoran, bere eginen eta izakeraren arabera, gizon ekintzaileen artean egoikiago letorkela deritxat. Apostolu erraldoia izateko jaiotako gizona.

Baina, zein bide hartu behar eban, agintzan bere gainetik egoan esan behar izaten eutsan beti, bestela galduta egoan; bera bakarrik ez zan gauza erabagi hori hartzeko. Beti Jaungoikoaren borondatea nahi izaten eban aurkitu eta borondate hori nagusien esan eta aginduetan tankeratuta, moldatuta ikusten eban. Hor aurkitzen zan seguru eta pozik. Hor aurkitzen zan bere-berean.

IRUNGO MUGAN

“1917ko uztailaren 26. eguna da; Santa Ana eguna. Hamazazpi urte lehenago, Indiara Joateko, Aberria itzi neban ordu berberean, Irungo mugatik, barriri Aberrira sartu nintzala, aldikada guzti hau gure Verapoly-ko misioan misiolari egon ondoren”.


Aita Joan Bizente berberaren hitzak. Honelantxe emon eban bere etorreraren barri. Irungo mugatik, Donostiako karmeldarren komentura zuzendu zan. Hemen egin eban bere lehenengo egotaldia.

Hainbeste urtetan misiolari egonda gero, atsedernaldi bat inok merezitakoan, Aita Joan Bizentek beintzat ondo merezita eukan geldialdi hori. Oporraldi luze baten dina zan, zalantzarik bage.

Baina gizon ha ez zan besteak lakoxea. Santuen mailakoa zan. Haren pozaro ta atsedena honetantxe aurkitzen zan: aske egoan guztietan, korura joan, baztertxo baten jarri, besoak bular gainean batu, begiak itxi, zirkinik egin bage, solasaldi ta jarduketa luzean aldarako Jaunarekin egon. Solasaldi hau ez zan izaten egun batekoa edo besteakoa, egunerokoa baizik.

Donostiara heldu zanean, Aita Ezekiel Probintzialarekin aurkitu zan. Besteko barik, Aita Joan Bizenteri itxaroten joana zan. Gizatasun handiko gizona Aita Ezekiel, diplomatiko trebea, hutsa; Aita Joan Bizenteri aurkitzen zan egoera haretan laguntzeko gizonik egokiena. Luzaroan hizketatu ziran biak Donostiako etxean.

Aita Joan Bizentek sagar bi jan nahi ditu ahokada baten. Alde batetik, bere betiko amesa dago: denboraldi batez, Kantabrian, Hoz de Anero deritxon herritxoan aurkitzen dan eremu-etxera erretiratzea nahi dau. Gurari hau ez dauko saltzeko.



*Aita Ezekiel Euskaldunen Probintziala
eta Ordena guztiko Generala*

Aspaldian daroa kili-kilika bere barnean. Gainera, eskubide osoan dago. Legez dauko misiolari izandakoak, aberriratzan danean, berari begiko jakon komentua aukeratzeko eskubide osoa.

Hainbeste ames egin ditu eremu horrekin. Orain arte ezin izan ditu bete bere gurariok. Baina, oraingoan, ez dau zetan bildurrik izan. Aita Probintzial jakintsuak, eskuarekin lez, kenduko deutsoz kezka eta gogoko min guztiok.

Eskatuaz batera, baietz osoa emon deutso eremura joateko. Begiak pozez dizdizka ditu gure Aita Joan Bizentek.

Bigarren arazoa astunagoa ta zailagoa da. Aita Joan Bizentek bere gogo barrua, arima egarriz itota daroa. Oraindik Indiaren minez dago.

Malabar aldeak kristau barriak egiteko eskintzen dauan oparotasuna nahi deutso argitan jarri Aita Probintzialari. Kristau egiteko eske dago hango jendea, baina ezin ditugu kristau egin diru ezagaitik.

Ez dago dirurik eliza barriak, eskolak, batzartokiak, katekesiak eta behar-beharrezko diran beste erakundeak jasoteko. Belgikako iturria itxi zanetik geroz, ilunetan gagoz, zor hutsean. Lehenbailehen aurkitu behar ditugu diruz misioari laguntzeko erabideak. Gure arte-tik, gure kutxetatik atera behar dogu laguntza hori. Hauxe da, nire ustez, gaurkoz, gure arazorik preminazkoena. Inondik ere baztertu ezin doguna.

Honelantxe, argi ta garbi, ohi eban lez, azaldu eutsazan Aita Joan Bizentek Aita Probintzialari Indiako misioaren beharrizan eta larritasunak. Horretarakoxe etorri da bera.

Baina, nondik hasi? Nongo harripean aurkitu diru pilo hori? Noren etxera deitu?

Aita Probintzialak zabaltzen deutso lehenengo atea. Gure etxe guztietan erakundetuta daukaguzan Karmengo Amaren eta Pragako Ume Jesusen kofradiak izan daitekez gure lehenengo laguntzaileak. Bazkunde indartsuak dira. Misiolaritzari dagokion apostolutzan sartu geinkez kofradi bi honeek. Kofradia bakóitzak bereak dituan helburuen artean, misioei laguntzeko helburua ere sartu. Misiolaritzari eskua emon. Misiolaritzako atzelariak izan gure lur eta etxeetatik.

Honetan gelditu ziran hislari biak, baina oraindik ezer zehaztu eta mugatu bage.

Gauzak honan, Aita Probintzialak, bere zereginak behartuta, Donostiatik alde egin eban Aita Joan Bizente horren jakitun jarri bage. Eta hemen gure Aita Joan Bizenteren estualdiak.

Aita Joan Bizentek nagusien hitza Jaungoikoaren hitza lez har-

tzen ebalatzen esan dogu hemen behin eta barriz. Berenez, ez eukan adorerik kontzientziaren kale itxitik irteteko. Eta orain kale itsuan egoan.

Alde batetik, eremuko grinak jota dago. Eremura erretiratzeko gogo bizia ta eskubide osoa ditu. Bestetik, misio-legaminez Ordenako erakundeak oretutako eginkizuna dauko izendaturik. Baina, nondik hasiko da? Zeri ekingo deutso? Eta Aita Probintzialari eskatzen deutso aholkua Jaunaren borondatearekin batera ziur jokatzeke bere lan eta egikizunetan.

Aita Probintzialak erdiko bidea hartzen dau. Lehenengo, Karmengo Alkartean, zuzendariakandik hasita, misio-zaletasunez kutsutu eta indar barriz bizibarritu dagizala esaten deutso eta, hau egindakoa, eremuko bakea gozatu dagiala berak esan arte.

Orain bidea argiturik dauko. Nagusiaren esanean dago mamituta Jaungoikoaren nahia. Horixe da, zalantzarik bage, Jaunak hautatu deusan bidea.

Berehalaxe, astirik galdu bage, Aita Joan Bizente, buru ta belarri, lanari oinarriak jarten hasi da. Lehenbailehen, misio zaletasun ta grina hori sortu nahi ditu Karmengo bazkideen artean. Jaunaren aurrean otoika, egitamu edo eskema honen eskatimak zeintzuk izango ziran zirriborrotu zituan paper handi baten.

Honen ondoren, Aita Probintzialaren baimenakin, Alkargoen zuzendariekin batzar bat eukitea erabagitzen dau. Bilera hori Bilbon, Karmeloko komentuan egingo zan 1917ko irailaren 19an. Bileran hizketatuko ziran gaiak ere argi marratuta etozan dei-txar-telean. Egun biko bilera izango zan. Irailaren 19 eta 20. Mahaiburutza Aita Probintzialak eroango eban eta idazkaritza Aita Joan Bizentek.

Hitz handiz eta larriz azaldu zituan Aita Joan Bizentek, gerral-diaren erruz, Verapoly-ko misioaren ordu gorriak. Belgikako iturria itxi zanetik, dirurik ezak misioa hil zorian eukala esan eban. Ozta-ozta bizi zirala. Ezelango laguntzarik bage egozala. Kristau zaharren preminei erantzun ezinik.

Kristau barririk hartzeko modurik bage, diru ezagaitik. Askotara zirala bateoa eskatzen ebanak. Kristoren odola alperrik galtzen egozala Indian.

Misioa geurea zala; geure anaiak zirala han laguntza eske egozalanak. Geurea zala arazo horren erantzunkizuna. Arreta ta ardura handiz, ahal dogun guztitik, lagundu behar deusagula gure misioari. Kontzientzia hori bizitu behar dogula gure etxe eta karmel lurtean sortu diran erakunde eta bazkide guztien artean.

Gure etxe eta kofradietatik atera behar dogula harako behar dan diru-laguntza guzti hori. Zergaitik ez sortu gure erakunde eta misioaren artean laguntzazko lotura ta anaitasun bizi-bizi bat?

Mezu hau jaurti eban batzarrean gure Aita Joan Bizentek. Batzarkideak ontzat hartu zituezan proposamen guzti honek. Alde guztiak astiro-astiro begiratu ondoren, erabagi garbi batzuk hartu zituen han bildu ziranak. Hona hemen handi-handika lerrotuta:

Aurrerantzean, Karmengo Amaren Anaidiaren araudian, helburu barri eta garrantzitsu hau ezarriko da: Bazkideen artean, misio zaletasuna bizitu eta misioei diruz laguntzeko erantzunkizuna onartua izango da.

-Anaidiko zuzendari eta arduradunak, kofradiko beharrianak kontutan izanik, erabagiko dabe zenbateko laguntza emon.

-Urtean behin, gure eliza guztietan "Karmeldarren Misio Eguna" ospatuko da, diru-eskea eginaz.

Misio-aldizkari bat irasiko da misioetako barriekin. Misio-zabaltzaileak ere oparotsu gertatu zabalkunde-lanak egokiro egiteko. Misio zaletasuna suspertzeko erabide guztiak jokoan jarri.

Bere egunean, erabagi guzti honek oneritxia ta bedeinkapena hartu eban Probintziako agintarien aldetik. Legeztuak eta zigilatutak izan ziran.


Han aurkitu ziran batzarkide guztiak pozik urten eban bileratik. Onurakortzat jo eban batzarraldia. Horregaitik "hurrengo baterarte" esanez amaitu zan Begoñako batzar hori.

Eremura

Begoñako batzarra amaitutakoan, egun gutxi barru, gure Aita Joan Bizente, karmeldarrak, Cantabrian, Hoz de Aneron, Rigada ize-
nez ezagutzen dan tokian daukeen eremu-etxera aldatu zan.

Herrerako eremuaren orde zeraiki zan Rigadako hau. Herrerako eremuak, esan dogun lez, ez eukan egokitasunik praileen bizitzarako. Horregaitik ha itzi eta orde zeraiki Rigadako hau zabaldu eben.

Hau bai eremu-etxe benetakoa. Toki txukun-txukun baten jarritako dago; ikuspegi zoragarriak ditu. Handik ikusten diran lurraldeak liluratzekoak dira: zugazti, barazki, belardi zabalak ditu inguruan; eta urrinetako zeru ertzean, Europako mendi tontor zorrotzak.



Hoz de Aneroko komentuko sarrera


Baina etxe barruan egiten dan bizitza beste gauza bat da. Han ez dago liluratzeko modu handirik. Han ixiltasuna, penitentzia eta otioitza dira nagusi, baina azken-azkeneraino eroandakoak. Ixiltasun osoa; ez dabe inoiz ahoz hitzik egiten, nagusiarekin izan ezik, besteekin zinuka edo idatziz egiten da. Holantxe beti.

Janaria, nahikeriarik bagekoa, baina gorputzak behar dauan beste-
tekoa. Otoitza luzeak. Hauxe da eremuko ezaugarriarik argiena. Otoitza giroa. Jaungoikoarekin bakartasunean bizitzea, horixe da hara doanaren helburua. Horregaitik hara doana bere borondate hutsez doa, ez inok behartuta.

Eguneko otioitzaroa gaberdi-gaberdian hasten da; kanpai-hotsak itxartzen ditu lekaideak eta korurako deia egin, egunaren hasierako otioitzak egiteko.

Lotiren bat ordurako korura heltzen ez bazan, baekian zein zan bere zigorra: hurrengo eguerdian, bazkal orduan, manta bat burutik bota eta danen aurrean osterata batzuk egin beharko zituan jatokian, parka eskatuz.

Behin hori jazo jakon Aita Joan Bizenteri ere. Lo sakonak hartu, itxartu ez eta korura berandu heldu. Hurrengo bazkal orduan, danen aurrean, lotsaritxo hori bere lepoan eroan behar izan eban.



Hoz de Aneroko komentua

Zoriontsu bizi zan eremuan, hantxe aurkitu baitzitian bere atsedena ta poza, bere barruko zoriona ta barealdia. Baina gozoki horrek ez eutsan luzaroan iraun; hila bi t'erdia igaro zituaneko, Aita Probintzialak Logroñora aldatu eban, eginkizun handi bi bere ardurapean jarriaz.

Batetik, komentu barri bat jaso behar zan Logroñon, praileak Espainiatik jaurti aurretik egon zanaren orde. Eta ardura hori Aita Joan Bizenteren esku itzi eban Aita Probintzialak. Era batera eraikitzaile eta etxeko nagusi.

Bestetik, misioen arduradun eta zaintzaile izendatu eban. Misioen aldeko zabalkundeari bideak urratzen hasteko ordua zan. Verapoly aldean, misiolariak estu ta larri agiri ziran diru ezak ekarritako ezintasunari aurrea emon ezinik aurkitzen ziran eta.

Hemen hasi zan, su ta gar, Aita Joan Bizente misio-atolakuntzari bideak egiten. Atal guztiak polito-polito zehaztu ta biribildu nahi ditu: propaganda on bat zelan eratu; zelan oinarritu hemengo misiolanak; zelan zabaldu misio zaletasuna; zelan egin misioen jasokuntza kristauen artean. Osoan misio-lanari emonda egoan gure Aita Joan Bizente. Azkar pilatu behar zan misioetara bialtzeko diru-zorro hori.

Hainbat hitzaldi, ibilaldi, joan-etorri, zabalkuntza eta abar egin zituan Aita Joan Bizentek Logroñoko txokotik. Lan eder horretan jarraituko dau, Espainia guztian zehar, iraupen eta gogo beroz, 1935ean gaixorik jausi zan arte.

MARIAREN MAITALE TALDEAK -KORUAK-

Holako irteera bat Burgosera egin eban. Burgosen “Karmeldar Misio Eguna” ospatzen zan. Aita Joan Bizente hizlari. Beti lez, zerutar garrez beterik. Halako baten, ixilaldi bat egiten dau. Mezuren bat entzuten balego lez adi dago. Eta, bertatik, ozen eta eztiitsu, badinotse entzuleei:

“Entzun danok oraintxe bertan izan dodan burutapen hau, ez dakit goitik etorria dan ala ez, baina asmo-agertze hau egin behar deusuet.

Dakizenez, Mariaren izena bost hitzez osotzen da, bost letra daroaz. Eta, zer? -Ba orain, bost pertsona alkartu zaiteze eta boston artean talde edo korutxo bat osotu egizue eta, Andra Mariari egiten deusazuen opari bat balitz lez, behartu zaiteze talde bakoitza astero edo hilero, asko edo gutxi, Karmeldarren misioen alde zertxobait emotera Ama Birjinaren maitasunaren.

Horrelantxe alkartu zaiteze asko eta asko, ahal dozuen guztiok etxe, adiskide ta herritarren artean eta horretara Ama Birjinaren talde edo koruak ezinbestean ugarituko dira alde guztietan. Hara hemen era eder eta erraz bat, norbere etxetik eta herritik urten bagarik, benetako misiolariak izateko modu ezin hobe bat.

Horretara Indiako misiolariekin bat eginik aurkituko zaree zeuok ere misiolaritzan. Indiako misiolariekin lagunkide izango zaree.

Nok ukatu leikeo Andra Mariari opari hau? Nok ezetsi pozaldi hau Jesusen bihotz santuari?”

Honelantxe amaitu dau Aita Joan Bizentek bere hitzaldia. Emaitza izugarriak emon ditu misiokera barri honek. Arrakasta handia izan dabe Mariaren taldeok, Mariaren koruok. Jaungoikoak Aita Joan Bizenteren arima-egarria asetzeko argituriko erabide zoragarria dirudi.

Aita Joan Bizentek soloan garia ereiten dan lez, holantxe erein eban bazter guztietan, misiolaritza barri honen hazia. Aurrerakuntza handia egin eban kristau herrian misio zaletasunak erabide barri honi esker.

Batez ere, berak hain ezagun eta maite eban Berrizko Ama Birjina Merzedekoaren alaben artean, bultzatzailearik argiena Ama Margarita Maturana txit beneragarria aurrelari zala.

Mariaren maitale taldeok izan eben harrera eta frutuak ikusitakoan, ofizialki babestuak, bedeinkatuak eta legeztuak izan ziran Elizaren aldetik.

AITA PROBINTZIALAREN ORDEZKO INDIARA

Urte t'erdi baino ez da Aita Joan Bizente Indiatik etorri dala, eta barrero osteraldi bat egin beharko dau harantza. Aita Probintzialaren Ordezkarri eta Misioko Ikerlari lez joango da oraingoan.

Ez dagoz gauzak ondo misioan. Aita Bernardo Arginzoniz Gongotzaina erretiratuta dago, baina lehendiko garrazkeria batzuek oraindik bizirik dihardue.

Desadostasunak, ondoezak, eritxikera desbardinak ondasun batzuen jabetasunaren inguruan; tiki-miki eta eztabaidak; sendi arteko hasarrekontzak. Ez dira beste munduko gauzak, baina bai anaiarteko harremanak mingosteko bestekoak, nahiz eta gizalege onez eroan alkarren arteko bizitza.

Zenbat eta lehenago zarratu iturri hori, hobe. Bake zurian jarri anaien bihotzak, Jesusen aginduak nahi dauan lez.

Eta horretarako Aita Joan Bizente aukeratu eben Probintziako Nagusiek. Autarki guztiak beretzat izan ziran. Honek esan nahi dau Aita Joan Bizente nagusien begiko zala, uste osoa eukela berarengan; bere zuhertasuna, kemenen, arteztasuna ta gizatasun handia gutiz ezagunak eta onartuak zirala nagusien aldetik.

Beste tanto bat ere baeukan bere alde: Misioa ondo ezagutzen ebalu, bertan hainbeste urtetan egona zalako.

Bere eskuan zakutoa hartu eta han agertu zan, egun baten, Verapoly-ko misioan gure aita Joan Bizente. Aita Probintzialaren aginduz joian; bere legezko ordezkarri lez; misioa ikertu, misiolariekin egon, euren eritxiburuak entzun, arazoen barrunbeak ezagutu, okerrak zuzendu eta gauzak bide onera ekarteko mandatuaz joian.

Bere misiolari lagunak, berarekin lanak eta nekeak zatibanatuta-koak, pozik eta laztanka hartu ebela dakigu. Arpegiz gizon goibel eta ilunbea zan arren, bihotzez samurra, gozoa, itsasoa lakoxe zabala zan. Hori ondo ekien bere misiolari lagunak izandakoak.

Lau hilabete luzean egon zan bere misiolariekin. Misioko bazter guztiak ikustatu zituan, batxo bat itzi bage; arazo eta beharrian guz-
tiek arduratu; misiolari bakoitzarekin hizketatu; epe handiz entzun negar eta kexu guztiak; ondoezari sustraiak bilatu; kargu batzuk aldatu; oker egozan arlo eta sailak bide zuzenean jarri...

Arazo eta gatazka guztiak diplomazia handiz tratatzen zituan; agertzen ziran hasarrebideei mingotsa kendu; okerrak zuzendu; zauriak garbitu, osakai onena lez beti karidadea erabili; bakoitzari bere bidea irakatsi; eztabaidak akordiora ekarri; misiolaritzari bide barriak zabaldu; bakea eta zoriona eroanez, gogo suspertze bizi-bizi bat egin eban misiolarien artean.

Misiolari guztiak txalotu eben, esker onez, Aita Joan Bizentek eginiko ikerketa lana, haren gizatasuna ta haren misio-maitasun gorria goratuz. Misiolari guztiei, banan-banan, agertu eutsen bere txeratasun eta ederrikusia. Zelan ez misiolariak bere begietako niniak baziran!

Bere ikustaldiari amaia emoteko egoala, Ernakulam-go komentuan, 18 misiolariarekin azken batzarraldia izan eban. Misioari buruzko gai asko ta asko eta oso garrantzitsuak erabili ziran ahoz aho batzarraldian.

Baina, hartutako erabagi guztien artetik, bat agertzen zan besteen gaintetik. Misiolaritzari bere neurria ta goitasuna emoteko, bere mailan jarteko, misioei buruzko aldizkari bakan eta berezi bat bideratu eta argitaratu behar zala. Eskari hau misiolariak eurak egin eben.

Misio-gaiak bakarrik jasoko ziran aldizkari horretan. Zatiarik onena misiolariak eurak bidalitako albiste, argazki eta idazlanekin osotuta joango zan.. Ardura hau euren gain hartu eben misiolariak eta hitza emonez horretara zinpetuta geratu ziran.

Aldizkariaren egoitza, barriz, Probintziako komentu baten jarri-

ko zan. Aldizkariaren zuzendaritza, zetan esanik ere ez, Aita Joan Bizentek berak eroango eban. Bere esku hartu zituan aldizkari hori bideratzeko beharrezko ziran prestaketa eta zuzemenak, azken onera erodateko ardurakizunak.

Lan bikain, ikusgarri hau bere maletan ebala bihurtu zan Aita Joan Bizente Indiatik.

ETXERANTZA

Bombay-n gagoz. India osoari agur gozo eta laztan bat egin deusagu. Negar-zotinak sentikor agertu dira nire begietara. Lotsari ziritxo bat igaro da nire arpegitik, negarrez nengoala konturatzean.

Hor gelditzen da nire maiteñoa, saminez, nire begietatik betiko urrundurik.

Pentsakor nengoala, Benziger, Quilon-go Gotzain jaunaren hitzak borborka entzuten nintuan neure baitan: “20 misiolari gehiagorekin, bost urtean, hogeit mila kristau gehiago izango gendukez”. Hori samina!

Hitz honeen berora, nire burua bere onetik irtenda, urrinera joanda ebilen. Pentsamentu hau zan nire gogoaren harra. Une honetan, mundu guztia igaroko neuke oinez misioen alde eskea eginez. Atsekabe hau ezin neban neugandik aldendu.

Honetan itsasontzira igoteko deia. Nire maletak ez dira oraindik Bombay-ra heldu. Nire esku-aldarea ere maleta barruan gelditu da. Hau zoritxarra! Zelan emongo dot nik neure eguneroko meza? Hori bage ni ezin naz bizi.

Zorionez, itxasontzian gurekin Legrand, Dacca-ko Gotzain jauna etorrela jakin neban. Neure zoritxarra iragarri neuntsanean, irribarrez besarkatu nindun eta behar neban guztietan berea itziko eustala esan. Bertatik lagun onak egin ginan.

Hogeita bost egun egin zituan “Ischia” itsasontziak Bombay-tik Napoles-era, eta euretatik hogeit bat buruko zorabioekin emon nintuan.

Napoles-en atsedenditxo bat hartuez gero, Erromara iritsi nintzan Aita Jeneralarekin egoteko asmoz. Indian, neure karguaren ara-

bera, egindako guztiaren erantzunkizuna emon neutsan, neure agiri eta garbitasun guztiekin. Luzaroan hizketatu ginan biok. Misio-gaiari ikerketa zehatza egin geuntsan.

Batez ere, misiolariak eginiko eskari garrantzitsu bat neukan Aita Jeneralari agertzeko: Misiolari guztiak, batzarraldi baten, aho batez, soil-soilik misioei buruzko aldizkari bat argitaratzearen alde agertu zirala. Hauxe zala euren eritxian premia larriko beharizana.

Gaurdanik, misiolarien gurarien arabera, *La Obra Máxima* izenaz bateatuta egoala aldizkari hori. Ez harritzeko, baina bera, Aita Joan Bizente, izango zala, misiolarien gurariz, aldizkari horren zuzendari eta arduradun. Uste dot pozik entzun ebala egistamu honen barri.

Hurrengo goizean, Aita Jenerala Aita Santu Benedicto XV. arekin egoteko zan. Ni eroan nindun ikustaldi horretara eta Indiako misiolari lez aurkeztu Aita Santuari.

Aita Jeneralak bere jardun-gaiak amaitu ondoren, eskari bakan bat erorian papertxo baten idatzita Aita Santuari eskura emoteko. Agiri horretan Aita Joan Bizenteren eraginez hainbeste bazterretan sortu dan misio-mugimendua eta, batez ere, “La Obra Maximaren ikurrinpean misiozale eta laguntzaile egin diran guztientzat, arren, bedeinkapen berezi bat eskatzen eutsan. Aita Joan Bizenteren misiolana bedeinkatzeko.

Eta Aita Santuak, adikortasun eta maitekortasun handiz, bere eskuz, urrezko hitz honeek idatzi zituan agiriaren barrenean: “pozez eta atseginez bialtzen dogu bedeinkapen hau misio apostolutzan diharduen guztientzat”.

Hurrengo egunean, Aita Joan Bizente Vatikanora joan zan eta Aita Santuari oinetan mun egin ondoren, eskerrik barrukoenak emon eutsazan bere misio-lana bedeinkatzea onartu ebalako.

Aita Jeneralagandik baietza ta bedeinkapena lortu ondoren, Espaniara heldutakoan, lehenengo portuan hasita, Espainia guztiaren bizkarretik zehar, holako jira edo itzuli handi bat egitea erabagi dau, herriz herri ibiliaz, bide batez, misio zaletasun eta zabalkunde ugari bat egiteko guraritan.

Erroma itzi eta, itsasoz, Bartzelona-ra heldu da. Hemen hasiko dau misioen aldeko ibilaldi hori. Bartzelonatik Valentziara, Malaga eta Cadiz-era. Hilabete osoa egingo dau Andaluzia aldean.

Gero, Madrilera sartuko da. Hemen ere beste hilabete, Gaztelako bazter guztiak joaz: Medina, Salamanka, Alba de Tormes, Las Batuecas, Toledo, Segovia, Valladolid, Burgos de Osma, Soria, Tarazona...

Azken baten, Logroñon amaitzen dau ibilaldi luze hori gure misiolari nekaezinak, uztailearen hiruan, oker handirik bage. 5.000 pezeta batu ditu bere jira horretan. Ez dago txarto garai hatarako.

Uztailearen bostean, Bilboko Begoñara doa. Hemen Aita Probintzialarekin aurkituko da. Ongi etorri eta gainetiko agurrak egin ondoren, lehenengo-lehenengotatik, Probintzialaren Ordezkariz, Indian egin dauan guztiaren jakitun, zehatz eta mehatz, ipinten dau Aita Probintziala.

Egon diran arazo, garrazkeria, txarto-aitze eta gainetiko okerrak bake zuriz jantzi dituala adierazten deutso. Eta gero zertzalada nagusi lez, misiolariak hartutako erabagi bakan bat aurkezten deutso: Misiolariak, danak aho batez, misio-gaietara mugatutako misio-aldizkari bat izatea nahi ebela. Probintzian misio-aldizkari bat behar zala. Misiolariak eurak izango zirala aldizkari honen idazle eta barri-emoile.

Aita Probintziala, lehenengotan, koloka eta zalantzan gelditu zan. Zailtasun handiak aurkitzen zituan aldizkari horren inguruan, eta arazoari atzerapena emon nahian, asmobide batzuk bideratu zituan erdibide bat aurkitzeko misiolarien eskabideari.

Baina, ez ziran onartuak izan aholku honeek; misiolariak honetan ez eben moltekeriarik ikusi nahi. Zerbait gehiago nahi eben misiolariak eta, azkenean, beraien gurari eta asmobideak moztutzea ez zala ona eta, Probintziako buruzagiak, halako batzarraldi gogoangarri baten, Misio Aldizkari horren jaiotza onartu, bedeinkatu eta argitaratzeko behar ziran baimen guztiak bideratu zituen.

1920ko urriaren hogeita bata zan egun hori. Egun horretan sartu zan mundura hainbeste on egingo eban *La Obra Máxima* hori.

Pozez algaraka hartu eben jaiotza hori gure misiolariak, batez ere, gure Aita Joan Bizentek, bera baitzan aldizkari horren asmatzailea. Hainbeste ames egin ondoren aldizkari horrekin, gaur ames hori egia bihurturik ikusten dau. Gaurtik aurrera, semerik maiteenari lez begiratuko deutso. Bihotz txokoan laztanez eroan.

Bertatik lanari oinarriak hartzen hasiko da. Baina, aurretiaz, aurrelan batzuk egin behar dira gauzak ildo onetik eroateko. Esaterako, Logroñoeko komentuan ez egoan toki egokirik aldizkari barriaren egoitza bertan jarteko.

Iruñekoa askoz hobea zan horretarako. Eta hara aldatu zan Aita Joan Bizente bere aldizkariarekin, nagusien esanez, 1920ko uztailaren 23an. Batez beste, hamaika urte egingo ditu hemen Iruinean.

Aita Joan Bizenteren esku jarri eben Ordenako agintariak karmeldar misioen ardurakizuna. Bera zan, hain zuzen ere, artezkari eta artekari nagusia.

Iruñeko komentua antxinakoa da. Entzute handikoa bai uri barruan eta bai inguruetan, urteak zehar, Karmeldarrak han egin daben lan ederrari esker. Gizon ospetsu askok itzi dabez han euren jakituri, izerdi eta nekeak napar herriaren zerbitzuan.

Aurretiaz, praileen ikastetxea izandako komentua da. Aita Joan Bizente hara aldatu dan une honetan ikasle bagarik dago, beraz aldizkaria, bere premiatusun guztiakin, mugatu ta eratzeko toki egokiak eskeintzen ditu, nahiz eta apalak izan.

Iruñeko txokotik, Verapoly-ko misiolariari idazten deutse aldizkaria goikoen aldetik onartua izan dala, bere lehenengo oinkadak emoten hasita dagoala eta, beraz, Indiatik idazlan, irakurgai, argazki, edergarri, albiste eta interesgarri diran barri guztiak bialtzeko eskatuaz.

Dana dala, dirautse, eskatu deiogun Karmengo Amari gure asmo ederrok azken onera eroateko behar dogun laguntza.

Aldizkaria biribildu eta gertatzeak astirik gehiena eroaten deutsan arren, garaia heldutakoan, beste edozein praile lez, etxe eta eli-

zako lan eta zereginetan saiatuko da. Beste edozer baino lehen, praile batek komentuko bizitza eta arautegia bizi behar ditu, eta gero gerokoak.

Azken-azkeneraino ta barru-barruraino bizi Jaunari egindako eskeintza zinatua. Lekaidetzaren zinaltza oso eta bete emon beti.

Aita Joan Bizente honetan hutsik bageko gizona zan. Otoitza ta lana, lana ta otoitza, binako honetan doa burpilduta egiazko lekaide-tza. Hori zan Aita Joan Bizenteren goiburua ere. Horretan irmo beti.

LA OBRA MAXIMAREN JAIOTZA

1921eko urtearen hasieran ikusten dau argia *La Obra Máximaren* lehenengo aleak. Ongi etorria emon deutso urte barriak eta berak urte barriari. Harrezkero urte askotan joango dira biok eskutik.

Azalean Karmengo Amaren irudia dakar eskeintza honekin: “Zeure- zeurea da Karmeldar Misioen obra aintzagarri hau, beraz zeureak izan behar dau baita beraien goralmenez gaur hasi dogun lehenengo argitaratze apal hau ere. Seme onak lez, zeure izenean eta babespean egin nahi dogu dan-dana”.

Karmengo Amari eskeintza samur eta itxaropentsu hau eginda gero, *La Obra Máxima* aldizkari hau zergaitik eta zertarako dan, aurkezpen gisara, azaltzen dau.

“Hainbat urtetan, misiolari izateko dedu eta omen handia izan ditut nik neuk. Misiolari bizi ta misiolari hiltea nahi genduke. Antza dan lez, Jainkoaren asmoetan, gaurkoz, misio-lurretara Kristoren apostolu joateko aukerarik ez dogun ezkeru, behintzat misio-laguntzaile izatea eskatzen dogu.

Misioen burutapenak hainbestetan menperatu, zoramendu eta sutzen gaitualako, misioentzat geuk geure bularpean daroagun bero kiskalgarri hau kristau askoren bihotzetara ere eroan nahi genduke.

Maitasun honen ondorio lez, aldizkari hau argitaratzea erabagi dogu, bere eragin eta indarraren bidez, guztiok misioen laguntzaile bihurtu gaitetzan. Gure irakurle izango diranak, misiolaritza hau geuk maite dogun bestean maitatzea nahi genduke, eta beste hainbeste misiolari egin, bakoitza bere modu eta eratara, era asko baitagoz misiolari izateko”.

Aita Joan Bizentek misiolariak egiteko erabilten eban urrezko araua hauze izaten zan: Misioak berak maite zituan neurrian, beste-
ei ere maitarazi.


Año I

úm. I


Enero 1921

REVISTA DE MISIONES A TODA ESPAÑA

LA OBRA MÁXIMA



ANDRENDO ESTOY
DE CERO POR EL
SEÑOR DÍOS DE
LOS SIEMPRETOS.
(Nada a Teresa)



MIRARÁS POR MI
HONRA COMO
VERDADERA ES-
POSA MÍA.
(Nada a Teresa)

"La mies es mucha, pero los obreros son pocos. Rogad, pues, al Señor de la mies, que envíe obreros a su campo."

DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN
CELADORÍA DE MISIONES CARMELITANAS
PAMPLONA

Joan Bizentek sortutako La Obra Máxima aldizkariaren 1. zenbakia

Aldizkariak arrakasta izugarria izan eban lehenengo-lehenengo-tatik. Sinistu ezinezkoa. 6.000 harpidedunekin hasi zan; urtearen azkenerako 12.000 dira; bigarren urteburuan, 15.000ra heldu da eta laugarren urterako 19.000 harpidedun ditu.

Aldi haretan, baziran beste aldizkari misiolari batzuk ere, euren artean "El Siglo de las Misiones" edo ta "Apostolado Franciscano" aipatuko ditugu. Aldizkari ondo eginak, baina harpidetzan laburrak. Lau edo bost milara ez ziran heltzen bakoitza.

Aita Joan Bizente hil zanean, *La Obra Máximak* 24.000tik gora eukazan. Nondik goraldi hori? Gauzak ondo egiten jakitetik ziur baten.

Aita Joan Bizente irudimen handiko gizona zan arlo honetan. Ez zituan asmakizun aintzagarriak iragarriko, baina bere inguruan mugitzen zan herri xeheari aurrerabide eta azpiegiturak bilatzen ekian gizon begiluzea zan.

Gauza txikietan jarten eban bere lanaren azken ona. Elizbarrutia lantzen ekian, kristauen bihotzetara zorrotz sartzen. Gorago esan dogu zelan aurkitu zituan emaitza ezin hobeak Mariaren koruetan eta Karmengo Amaren batzarkideetan. Dagoan tokian misio-garra biztuko dau. Haren eskuak misioez bakarrik idazten dau; haren ahoa misioez mintzatu, haren buruak misioekin ames egin.

Ikusi dogu Espainian zehar egin eban ibilaldia, misio-ereintza eginez. Ibilketa hori ez da oraindik amaitu. Lekaidetxeak, mojetxeak, seminarioak, parrokiak, kultur etxeak, kristau-erakundeak, sendi txokoak..., hurrengorik hurrengora, misiolari bizardunaren irudia ikusiko dabe eta haren ahots sendo eta sutua entzun misio-garra barru-barrutik dariola. Misiolaritzaren hitz iragarle bihurtu zan Aita Joan Bizenteren mintzakera.

Oinarri honetan aurkitzen eban euskarria Aita Joan Bizenteren misio- lanak.

Beste erabide bat ere baeukan misio zaletasuna ta gogoia beti tente zaintzeko: bere bihotzaren beroa!

Misio-lanetan zelanbaiten sartutako guztiak, Aita Joan Bizenteren esanean, sendi handi bat egiten eben; adiskidetasunean, anaitasunean danak etxeko ziran, bai aldizkariaren idazleak, zabal-tzaileak, harpidedunak, misio-apostolutzan edozelango zereginen bat betetzen eben guztiak. bihotz baten urtutako sendi misiolaria.

“Hemen, dino berak, danok gara adiskide minak; besterik ezean, ekintza honetan gabiltzanok alkarren arteko adikortasunna, laztanta-suna saltzen emoteko beste daukagu. Alkarrenganako samurtasuna da gure lege nagusia. Hauxe da *La Obra Máximaren* ezaugarri nagusia: “Maite-maite dan sendia garala”.

“Misiokide” izenaz bateatu zituan misio-arloan ebiltzan langile guztiak. Sarri-sarri deitu, hitz egin, idatzi eta zeregin bereziak eskeini misiokide bakoitzari beragan misio-garra hil ez zedin. Horretara lortzen eban bihotzen alkartasun hori. Danak misiolari zelanbaiten, misio-lurra jorratzen ebelako.

Aldizkaria aurrera ta aurrera joian Aita Joan Bizenteren eraginari esker. Hitz bakoitzean misio-garra jarten eban haren ahoak. Berea lakoxe misio-maitasuna besteengan biztu. Hori zan haren helburua.

Batez ere, misiolarien preminazko eskariren bat heltzen zanean, eskari hori berehalaxe, hitz larriz, aldizkarian agertzen eban, premi-na hori amai onera eroateko laguntza eskatuz.

Hori irakurtean, harpidedunak premina hori kitutzeko diru-laguntzarekin batera, gutuntxo bat idazten eutsen Aita Joan Bizenteri. Gutun hori paperontzira bota bage, gozo-gozo, Aita Joan Bizentek erantzuna emoten eutsan aldizkarian bertan.

Era horretan, gutun-harremanetan ikusten ditugu Joan Bizente eta aldizkariaren harpidedunak.

Danetarikoak dagoz gutun-idazleen artean. Gizonezkoak, andrazkoak, batez ere haurrak. Lehenengo jaunartzea edo holako gertakizunen bat bitarteko zala karta asko heltzen ziran *La Obra Máximara*.



Iruñeko Karmeldarren komentuko Joan Bizenteren gela

Aita Joan Bizenteren beste meritu bat ere aipatu beharrean gagoz hemen: Hartzen zituan karta guztiei erantzuna emoten eutsela berak. Ez zan batxo bat bera erantzunik bage geratzen.

Horixe zan modurik onena harremanak berotan zaintzeko. Edo korreoz edo aldizkariz erantzuna beti aurkituko eben.

Kartaketa horren bidez, misiolari izaten irakasten deutso jende askori. Bere aldizkaria misiolari-eskola bihurtu nahi dau.

Karta horrek bere turuta eta ozengailu egin ditu misio-propaganda eta zabalkunderako. Zalantzarik bage, bere asmakizun baliotsuena.

Batez ere gurasoak sartu nahi ditu joko honetan, jakinik umetxoak misio-lanetan zaletu eta suspertzeko ez dagoala era polit eta ederragorik. Gurasoen gogo-bihotzak zulotu nahi ditu misio zaletasunean seme-alaben bidez.

Umetxoek kartak Aita Joan Bizenteri bihotz txokoan poz-zirrara bizia sortzen eutsen; horregaitik zitu hain maite.

Horretara izugarri aberasten zan aldizkaria. Baita harpidedunen bihotzak alaitu, poztu, bizkortu, adoretu, suspertu eta baita betargitu ere. Alde batetik, santutasuna dariola agiri zan misiolari zaharraren bizibidea eta bestetik, ispilu baten lez, bere barru onaren arpegia zabal-zabalik aldizkariaren lerroetan.

Aita Joan Bizentek, barriro dinogu, bere bizar luze zuriarekin, bere begirada zorrotzarekin, bere ahoskera garratzarekin, lehenengo ikuskera baten, bihotz bageko gizona zala emoten eban, gizon latza; baina bera ezagutuaz gero, gizonik leunena, maitagarriena, liluragarriena aurkitzen zenduan beragan, batez ere, barruz, sentikor hutsa zana.

Urrinekoekin kartaz hitz egiten eban. Zenbatu ezinbeste karta ditugu berak bere bizitzaro luzean idatzitakoak. Ehundaka eta ehundakak dira bai Erromara, Indiara eta Ordenako buruzagiei idatzitakoak, baita bere lankide ta adiskideei, praile, moja eta seglarrei egindakoak ere.

Nahiko da gutundegi horri gainera zarrastada bat egitea, barrua harri bitxi ederrez beterik dagoala ikusteko. Ebanjelioan aipatzen diran harri baliotsu asko dagoz gordeta eskutizketa horretan.

Hor agiri dira Aita Joan Bizenteren bihotz barrenak zitu ertzik bageko mugak. Ezin dogu, begirada baten, sakon horren hondoa ikusi. Geldi-geldika irakurten doguzanean, liluraturik izten gaitu gizon horren santutasunak.

Gutundegi horretan, Jesukristo ezagutzen ez dabenez dituan errukia, samurtasuna, hurkotasuna itsasoa lakoxe zabalak dira.

Jarri daiguzan hemen, eredu modura, *La Obra Máxima*-tik jasotako eskutitz batzuk.

Lehenengoa, haur batena da. Umetxo baten errugabetasuna, tolesgabetasuna dariola dator gutuna. Honan dino.

Tamarite de Litera. Huesca.
Otsaila, 1921.

Ene Aita: Zure aldizkariaren harpidedun naz beste neska lagunkide batzuekin. Ni handienetarikoa naz. Hamar urte ditut, baina badira txikiagoak ere...

Aita, nire izekoak esaten deust zu Indian misiolari egona zarala; asko poztuko ginakez zure aldizkarian Indiako umetxo-en gauzak jarriko bazenduz.

Nik hitza damotsut asko eskatuko dodala euren alde, bateatu eta zeruratu daitezen.

Zure eskuari mun eginez, agurtzen zaitut

Maria Bañares Molina

Eta orain Aita Joan Bizenteren erantzuna dator. Aholku irakasgarriak damotsoz, misio zaletasuna bere buru gaztean sortarazteko.

Iruñea, 1921.

Maria maite: Asko poztu nau zure kartatxoak; oso ondo dago dinozun guztia. Umetxoek kartak hain pozik hartzen ditudala jakitean, baliteke beste umetxo askok ere idaztea. Asko poztuko nintzake holan balitz. Txoratu egiten nabe umetxoek kartak...

Egia da zure izekoak esaten deustuna: bai, Indian egona naz. Neure partez, esan izekoari misioen aldeko "Mariaren koruak" zer diran irakasteko. Premiazko da zuk hain maite dozuzan Indiako umetxoek alde, misioen arduraduna zeu izanez, otoitz eginez gainera, zure laguntxo eta beste askorekin batera, Indiako umetxoek alde zertxobait egitea.

Ez dozu irakurri goragoan Caravaca-ko mutiltxoak egin dauana? Zu baino txikiagoa da eta hamar pezeta bialdu deustaz. Asko balio dabe hamar pezeta horreek!

Aingeruak hartu eta Jaunaren aurrera eroaten dabez. Zuk ere beste horrenbeste egin zeinke. Naranjatxo bat, gozotxo bat erosi bage itzi eta horren dirutxo misioetarako gorde. Egizu horrelantxe.

Zure karta barri bat hartu arte. Zure Kapillau

Fr. Joan Bizente

Vilafranca del Penedes

Martxo, 1921

Aita agurgarria: Neure amarekin lagun, La Obra Máxima-ren harpidedun egiten garala esateko idazten deusut. Hamabi urte ditut eta abadetzarako ikasi nahi neuke.

Bai pozik jarriko dirala Indiako haurtxoak guk euren alde egiten doguna jakitean. Zorionak zuri eta zure misiolari lagunei hainbeste sinisgabe kristau egin dozuezalako.

Albait lasterren bialduko deusut aldizkariaren dirua.

Maitez agurtzen zaitut. Zure zerbitzari

Luis Feliú

Iruñea, 1921

Luisito maite: Eskerrik beroenak zure gutuntxo irakurtean emon deustazun pozaldi gozoagaitik.

Hartu nire zorionik zintzoenak abadetzarako dozun deia-gaitik. Oker ez banago, zure amesa, egun baten, han urrinetako mendietan, fedegabeak bateatzera joatekoa da.

Ames zoragarria! Holakoxe amesak izan nintuan neuk ere umetan, zer ziranik ondo jakin bage, baina gero egia bihurtu ziranak; orain ere nire amesak Indiara doaz hegaz azkarrean.

Adoretu zaituz. Orain ikasi gogor eta ona izan. Gero gerokoak. Karmengo Amari eske nago zu santu eta apostolu egin zaizan. Zuk ere eskatu bedeinkatzen zaitun zure kapillau honegaitik.

Fr. Joan Bizente

Iruñea, martxo

Neskaita gozozaleok: Noiz edo noiz heldu da zuen gutun hori. Itxaroten nengoan. Jakinean nago misioentzat aurreratzen diharduzuela. Baina, Evaren alabak izanik, gozotegiak aurkitzen dozuez bidean zehar eta begiak itsu-itsuan atzetik joatuz. Kontuz, ba, gozoezin, gozotan gastatzen dozue misioetako dirua eta. Gogoratu Indian oraindik ume asko dagozala bateatzeko.

Zuen betiko kapillau

Fr. Joan Bizente

Beste gutun bitxi bat jasoten dau. Polita benetan.

Aita agurgarria: Nire izena Luis da. Bederatzi urte ditut eta handi egitean Jesuita izango naz eta beharbada misiolari ere bai. Eta indio asko bateatuko ditut eta hurrei kartak idatzi. Eta jarrai dagi.

Sei urteko anaiatxo bat daukat, Josetxo dau izena, berak ere bateo batentzat bialdu nahi dau, baina ez dakit noiz helduko dan egun hori hogeita hamar zentimo bakarrik aurreratu ditu eta. Pezetaren bat daukanean poltsikoan, karameloak erosten ditu eta gero, amari guzurra sartuaz, misioetara bialtzeko eukala esaten deutso, baina ez tulaldi handia etorri jakola eta karameloak erosi behar izan dituala ez tula kentzeko.

Ni neu bertatik hasiko naz dirua aurreratzen, barrero ere horra bialtzeko. Esaidazu ia nirekin pozik zagozan.

Zure eskuari mun eginaz

Luis Prada

Iruñea. 1921. Azaroa.

Begiko zaitudan Luisito: Atsegin handiz irakurri dot zure gutuna. Harrituta itzi nozu. Banekian misioetarako dirua aurreratzen zenbiltzala. Baina ez neban uste hain azkar helduko zanik zure dirua.

Gazte aurrerakoi ikusten zaitut; atsegingarria da hori. Batez ere, aurrerantzako dozuzan ames ederrak, txunditurik jarri nabe. Jesuita izan nahi dozu. Berezkoa da hori San Ignazioren auzokide batentzat. Gero misiolari izateko amesak egiten dozuz eta, neure eritxian, misiolari bizar handi eta adorettsua izango zara zu.

Eta, zeuk ere kartak idatziko dozuzala haurtxoentzat. Horrekin zer esan nahi dozu? Nire zeregin hau atsegin jatzula? Hara, ba, zer egingo dozun hori lortzeko: sartu zaituz karmeldar, egin zeure profesia, amaitu ikasketak, abade egin eta hala!, zatoz neurekin eta biok alkarrekin idatziko ditugu karta honeek.

Eta esan zure anaia Josetxori ez dala ona hain gozozale izatea; gozoak haginak usteltzen dituala eta horretara jarraitzekotan beti agineko mina izango daukala bere bizitzako lagun.

Eta zuk, Luisito, jarrai aurrera zeure asmo eder guztiak bete arte.

Bedeinkatzen zaitu

Fr. Joan Bizente

Honelantxe beste mila karta jarri geinkez hemen Aita Joan Bizenteren gutundegitik jasorikoak. Baina, Aita Joan Bizenteren kartagintza ez zan umetxoekin bakarrik izan: Eskolak, ikastetxeak, umezurtegiak, seminarioak, komentuak, txirotegi eta beste askorekin harreman estuak izan zituan. Danak sartu ezinean bertan, xehetasun hau jarri nahi izan dogu hemen.

Erakusgarri lez, jarri daigun Berrizko Merzedeko ikastetxeakin izan eban barrukotasun kutun eta zaharra. Bertan jaiotako eta hazitakoak izan Aita Joan Bizente; bertako seme lez, hartu-emon lotu-lotuak ziran euren artekoak. Misio-mintegi bat atera nahi eban Merzedeko mojatxoaren artean, ikasleak lagun zirala.

Eta egiaz, ikastetxe haretan ereindako misio-haziak sustrai sakon eta aberatsak emon zituala badakigu.

Ikastetxeko zuzendariak gutun bat idatzi eutsan Aita Joan

Bizenteri barri zoragarri hau jarriaz barruan: Misio-legamina ikaslearen artean sartu danetik gero, honeen portaera eredugarria izanez gainera, misioen alde, etxean, milioia erdi Agur Maria esan dirala iragarten deutso.

Gure Aita Joan Bizente, barri honekin, pozaren pozez ixiotuta geratu da; arteak hartu ezinik dago. Txotxolokeriak esateko bestean txunditu da oraingoan.

Honako hitz gozoak dirautsoez Berrizko moja eta bertako ikasleei: Gora! Hori dok hori! Bikain! Ezin hobe! Jazorikoarekin ni pozik nagoan?

-Bai, horixe! Eta harro neure berriztarrekin.

Ontasuna zaintzeari jarritako saria, Mariaren korukoak jaso dozue. Honek esan nahi dau zuek izan zareela aurrengoak ixiltasuna zaintzen, zintzotasunean, gizalegean, ikas-zaletasunean, alaitasunean, ikas-lanetan...

Zorionik beroenak!

Orain jarrai bide horri. Ez etsi tontorrera heldu arte. Hemen ikusten da eskola baten misio zaletasunak norainoko onbidea markatzen dauan.

Une honetan, badakizue zeren gogoak emoten deustan? Ordu honetan gurako neunkena da, Sevilla-ko Giralda baino hamar edo hogeita mila metro luzeagoko torre bat. Eta torre horren punta-puntaraino igon eta handik Espainia guztiari begira, bular eta eztarri sendo biren indarrez, danak entzuteko eran, turuta soinu luze baten ondoren, irrintzi ikaragarri bi honexek emongo neukez: munduko eskola eta ikastetxe guztiok, esan egizue Agur Maria bat egunero misioen alde. Egingo dozue? -Eta ziur nago txapligu hots handi baten antzera, ume-txoeren baietzak durunduka eta zuzen zeruraino igongo leukela.

Bigarren irrintzi bat ere egingo neuke. Kristau sendiak Agur Maria bat esan egizue egunero misioen alde. Bai ala ez? Eta deadarti eta oihulari zeruraino joko leuke kristau sendien baietzak. Agur Maria horreek, laino urtsu baten antzera, Ama

Birjinaren oinetara helduko litzakez eta bedeinkapenezko grazi iturri bihurturik barrero mundura jatsi...

Txotxolokeriak esaten nabilela esango dozue. Eta egia da; zuzen zagoze. Misio-kirioa ikutzen deustenean, zentzuna galtzen dot eta ez dakit zer esaten dodan ere.

Hauxe jazo jat zuen milioia erdi Agur Mariak entzutean. Arimeak eskapa egin eta urrintetara joan jat.

Barruan badaroat lotsari txikitxo bat esanakaitik, baina ziur nago parkatuko dozuela nire zoroaldi txiki hau.

Esker onez bedeinkatzen zaituet

Zuen kapillau

Fr. Joan Bizente

Nahiko da gutun hau irakurtea Aita Joan Bizenteren bihotza misio zaletasunak kiskalduta eukala ikusteko. Lehenengo ta behin, horrenbeste metro dituan pulpitora igoteko motor handia behar da eta handik misioetzaz mundu guztiari berba egiteko oraindik eztarri sendoagoa. Misioekin zeharo maiteminduta dagoan gizon batek bakarrik egin leikez holako gauzak.

Cuba, 1921, Ekaina

*Hurrengo baten, Cuba-ko Santi Spiritus txirotegiko agur-
retxoak idazten deutsoe, eurak ere oraindik baztertxo horretan
bizirik diharduela iragarritz.*

*Guztiz txiroak dira; ezeuki hutsak; dana besteengandik
hartzen dabenak. Mojatxo biren ardurapean bizi dira. Kutun
maite dira alkar. Ebanjelioko andratxoak lez, honeek ere eurak
euken guztia misioen alde emon eben.*

*“Limosnaz emoten deuskuezan txanpontxoak, gozotan eta
tabakotan eralgi beharrean, indiatxo bi bateatzeko gorde ditu-
gu eta zuri bialdu asmo horrekin. 22 pezeta dira. Ana Rita eta
Clotilde izenakin bateatzea nahi genduke indiatxo biak.*

*Honetara batzen dogun guztia horra bialduko dogu misio-
en laguntzarako. Bestekorik bage, bihotzez agurtzen zaitue.*


Sancti Spiritus Txirotegikoak

Melilla-ko sargento batek ere idazten deutso. *La Obra Máxima* irakurri ondoren, misio-minak bihotzean ikututa edo, bere lagunaren artean misioen aldeko eskea egitea gogoratu jakon. Eta soldadu talde harek, euren zakartasuna alde batera itzita, hartzen daben soldau-sari apurretik 10 pezeta batu ditue misioetara bialtzeko.

Beste egun baten, presondegian atxiloturik egondako gazte batek 10 pezeta bialtzen deutsoz, eta Mariaren koruak antolatzen diharduela jakinarazi.

Beste eskutitz baten, moja karmeldar misiolari batek *La Obra Máximaren* 40 harpidedun egin dituala iragarten deutso.

Argibide baterako ekarri ditugu karta guzti honeek, beste mila-karen ondoan jarri geinkez, baina nahiko izango dirala uste dogu, Aita Joan Bizentek esku artean erabili eban kartagintza horri koro eder bat gainean jarteko, bestela hain ugaria ta mamintsua izanik, sekula ere ez genduke gutundegi hori amaituko eta.



Donostiako Karmeldarren eliza eta komentua

Haurrak pozik, euren buru-ukatzeeen arauz misioetarako dirua aurreratuz, misiolari txiki sentitzen ziralako. Aita Joan Bizente, Jesusen antzera, zoramenduta umetxoen artean, honeen bihotz garbi eta tolesgabetasuna irribarrezka bere haragien beroan sentitzean.

Guraso eta hezitzaileak ere Aita Joan Bizenteren misio-lanarekin pozik, gazteak kristau bidean eta gizatasunean hazi eta hezitzeko biderik onena lagun hurkoa maitatzen irakastea dalako, batez ere, lagun hurko hau fede eta diru bagekoa danean. Behartsuenak ditu maite misiolariak.

Jaungoikoak bakarrik daki Aita Joan Bizentek kartaketa horren bidez misioen alde egin eban guztia. Gaitza jakitea!

Aurreko orrialdeetan azaldu ditugu berak, aldiaren joanean, misioen laguntzarako asmautako hainbat asmobide barri. Aita Joan Bizente, inongo zalantzarik bage, misiolaritzaren ebanjelaria dala esan geinke. Bere bizitzaren arnasa lez zan beretzat misiolaritza. Burutik kendu ezinezko goiburua. Egunero agertzen zan asmakizun barriren batekin. Misiolaritza da, zalantzarik bage, Aita Joan Bizenteren “karisma” goitarra.

1917ko irailean, “Karmeldarren Misio Eguna”, Karmeloko eliza guztietan, urtean behin, legez ospatzea lortuko dau. Geroztik urtero ospatzen da karmeldarren artean.

1921eko abuztuan, “Mariaren koruak” sortuko ditu misioei laguntzeko. Berehalaxe zabaldu ziran koru honeek bai Espainian eta bai Amerika aldean. Zenbatu ezinbeste koru eraiki dira han eta hemen. Nok esan zenbat on eginak diran koru honeek misiolaritzari!

Karmengo Amaren eta Santa Teresitaren misio-kutxak. Karmengo Amaren eta santa Teresitaren etxerik etxeko ikustaldia egiten dabe kutxa honeek. Aldara txikitxo baten antzeko kutxatxo da. Barruan Karmengo Amaren eta Santa Teresitaren irudiak daroaz, liburutxo bat lagun dala sendian esango diran otoitzekin.

30 sendi behar dira ikustaldi hau ondo antolatzeko; 30 sendi ikustatzen ditu, egunean bat. Kutxatxoak barru aldetik 30 sendiren

izenak daroaz, hurrengorik hurrengora lerroan jarrita. Lerroan lehenengo dagoanak, bere etxeko ikustaldia amaitutakoan, bigarrenari eroaten deutso kutxatxo, bigarrenak hirugarrenari, eta horrelantxe, 30 sendiak iragan arte.

Kutxatxoak zulotxo bat daroa bertara botaten diran diruak eta limosnak hartzeko. Limosna horreek, jakina, misioen laguntzarako dira.

Honetara kristautasuna eta misio zaletasuna batera suspertzen dituzu sendietan.

“Santa Teresitaren sillua”


Egun hareetan, Elizako zeruan izar dizdiratsu bat agertu zan: Santa Teresita, karmeldar mojatxo. Franziako Lisieux-ko komentuan sartu zan, gazte-gazterik, 15 urtekin eta 24 urte zituala hil zan komentuan bertan. Urte gutxi barru Aita Santu Pio XI.ak aldaretan jarri eban, Santa eginik 1925eko maiatzean.

1927ko abenduaren hamalauan, Pio XI.ak, Santa Teresita, Xabierko Frantziskorekin, misio katolikoan Zaindari Nagusi izendatu eban. Inoiz komentutik urten bagako mojatxo hau misioen Zaindaritzara jasota ikusten dogu orain. Eta hau gutxi balitz, lehen-go urtean, 1997ko urriaren hemeretziari, Aita Santu Joan Paulo II.ak Elizako Irakasle bikain eta jakintsua izendatu dau.

Zaletu asko izan ditu beti ere Santa Teresitak, euren artean Aita Joan Bizente. Santa honen maitale liluratua zan, ezagutu ebanetik geroz. Bere arrebatxo lez eban.

Eta Aita Joan Bizentek Santa Teresitari ere, zeregin bat eskuratu nahi deutso misio arloan. Zein? -Eta bitxia! Korreoko sillu bat atera eban Santa Teresitaren irudiarekin. Hantxe egoan gure Santatxo polit eta eder, apal- apalik. Ezerezko prezio bat jarri eutsan silluari. Misio zaletuak erosten eben sillu hori.

Karta bat egitean, atzeko aldetik, itxidura lez, silu hori jarten eutsoen. Horretara, erabat propagandarako eta dirua batzeko balio izaten eban misio-sillu horrek.



Donostiako Karmeldarren komentuko Joan Bizenteren gela

Asmamen handiko gizona dogu gure Aita Joan Bizente. Esan dogun lez, 1925eko maiatzaren hamazazpian, Aita Santu Pio XI.ak Lisieux-ko Terese mojatxoa osperik handienaz aldarari jarri eban, Santa izendatu ondoren, 500.000 erromes inguruan zituela.

Frantzia guztia liluraturik egoan Santa barri honekin, eta pelikula bat egin eben haren bizitza eta ingurumariak gaitzat harturik.

Aita Joan Bizente pelikula honen jakitun egoan eta bera ere tentaldian jausi zan. Pelikula hori erosi egin behar ebala berarekin misio- propogandan erabilteko. Nor propogandista hoberik Santa Teresa baino!

Baina, Aita Probintziala ez zan eritxi horretakoa eta azkenean arazoa ezetzean amaitu zan.

Aldizkariaren bidez, entzutetsu egin zan Aita Joan Bizente, baita beraren misio-lana ere. Handik eta hemendik, alde guztietatik hasi jakozan deika misioei buruzko hitzaldiak eta gogoetak emotera joateko eskatuaz.

Baina, nahi eta ere, ezin danera heldu eta horregaitik eskura etorkiozan tokietara bakarrik joaten zan. Bide batez eta hurbil aurkitzen ziran lekuetara.

Zelan burutu leikean gizon batek bakarrik lan-mendi guzti hau? Askok egiten dogu itaun hau eta erantzuna ez da erraza. Eguna laburra da eta azkar doa.

Bere aldamenen bizi izandakoak dinoen lez, ez egunez bakarrik, gauez ere, aspertu bage, lanari ekiten ei eutsan. Ahalbide guztiak beretzat hartu.

Goizaldeko lauretan zutik egoan. Zazpirak arte bere otoitz, meza eta praile beharkizunak. Kafesne apur bat gosaltzeko. Teresa deunaren edo ta Jon Gurutzekoaren liburuetatik irakur alditxo bat eta bertatik lanera.

Mahai ondoan belaunikatu, otoitz laburtxo bat lana Jaunari eskeintzeko eta haizetan bere zereginetara. Bazkari pobre baten ostean, loaldi txiki bat kulunkatuko eban eta, gero, praile zeregin bereziak bete eta lanera barriro.

Gauez besteak oheratzen ziranean, bera ixil-ixilik, ostera ere lanera. Mahai aurrean jarri, kartak idazteari ekin, barriak zabaldu, okerrak zuzendu, gaiak gertau, aurreratu, hau da, lan eta lan.

Ohitura bihurtu ziran Aita Joan Bizenteren gauetako ekinaldiok, arriskuan jarrita egoan misiolariaren osasuna bera ere.

Eta Aita Probintzialak, hau jakitean, zentzun onez, zeharo debekatu eta besteen orduan oheratzeko agindua emon eutsan eta horrelantxe amaitu ziran gauetako lantegirako joan-etorriok.

Danok dakigu Nagusiaren esana Jaungoikoarena lez zala Aita Joan Bizenterentzat.

Hamaika bat urte egin ditu Aita Joan Bizentek Iruñean *La Obra Máxima*-ren zuzendari eta misioen arduradun lez. Baina, berak hain maite dauan baztertxo hori itzi beharrean aurkitzen da gaur.

Lantegia txikiegi gelditu jako; toki handiagoak eta egokiagoak eskatzen ditu egunero burutu behar dauan misio-lanak. Beren-beregiko etxetxo bat erostea litzake onena; toki zabalak, ondo antolatuak, lanerako egokiak, etekin eta onura ugariagoak ateratzekoak.

Bilbo aldea jakon begiko Aita Joan Bizenteri. Uri handia eta propagandarako zabala ta egokia iruditzen jakon Bilbo alde hori. Han ditu bere amesak. Behin eta barriz eskatu deutse Bilboko uri handi hori Probintziako Nagusiei.

Baina Probintziako Buruzagiak beste asmo bat dabile buruan; Donostiako karmeldarren komentu ondoan dagoan etxetxo bat erosi dabe Bilbokoaren orde. Misioetako mugimendu guztia eratasunez eroateko moduko etxea.

Gauzak honan, Iruñeko lantegia jaso eta 1931eko martxoan Aita Joan Bizente Donostian aurkitzen dogu, bere etxe barrian, su ta gar, misio-lanari ekin eta ekin. Ez dago atsedetik harentzat. Zio barriak aurkitzen ditu Donostiako etxetik bizitasun barri bat, ugaltasun zabalago bat emoteko misio-mugimenduari.

Aldizkaria, zuzendari trebearen eskutik, zorionez, ugalduez-ugalduez doa. Egunero burdikada kartak heltzen dira alde guztietatik. Aldizkaria txiki geratu jako hainbeste karta sartzeko. Estu ta larri dabil arazo hau konpondu ezinik.

Alde batetik, danen kartak sartu nahi ditu aldizkarian; bestetik, orrialdeak ugarituta ere, ezin ditu sartu.danak.

Okerrik bage esan geinke, Aita Joan Bizentek literatura mueta bakan eta berezi bat sortu dauala haurren kartaketa honekin. Jazokizun mirengarri baten aurrean gagoz zalantzarik bage. Guk dakigula, behintzat, ez dau beste inok haurrekin holako kartaketarik izan. Bera da lehenengoa.

Zelan lortu ahal izan eban arrakasta hori haur eta nagusien artean? Zein zan haren ixileko arma hori hainbeste bihotzez jabetzeko? -Dudarik bage, bere bihotzaren edertasuna, samurtasuna, beroa.

Ziur nago Aita Joan Bizenteren gogoia beti, baina batez ere, karta horreek idaztean, umeen antzeko eginek egoala; ebanjelioko umetasunez jantzita.

Dana dala, beti zuri ta eder ikusten eban haurren mundu hori, inoiz lainoz ere estali jakon.

Mormor eta esamesak jaurti ziran haizetara santutasunaren jagole aipatuak diranen aldetik, salakuntza hau eginaz: ez etorrela bat, ebanjelioko aginduekin, limosna egitorduan, eskua edo izena agirian jarrea. Buru-agerketa bat zala holako jokaera.

Aita Joan Bizente ez zan horregaitik hasarretu. Ona ala txarra da misioetarako limosna egiten dauanaren izena argitaratzea?, itanduten dau berak. Baita berak erantzun ere.

Bere eritxian, ebanjeliokoak bata nahiz bestea aldezteko oina emoten ei dau.

San Mateoren 6. atalburua gogotan hartzen badogu, ezetzaren aldetik jarriko ginakez. Entzun daiguzan S. Mateoren berbak: "Zuen egite onak ez egin, gero, gizonen aurrean, honeek ikusi zagiezan!, bestela zeruko zuen Aitaren saririk ez dozue izango. Beraz, limosna egin dagizuenean, ez atara zure aurretik turuta-soinurik, azalutsak sinagogetan egiten daben lez, gizonak goratu dagiezan; benetan dirautsuet, hartu eben euren saria. Zuk, barriz, limosna egin dagizunean, ez dagiala zure ezkerak jakin zure eskumeak egiten dauana: horrela zure limosnea ixilean geratuko da; eta ixilean ikusten dauan zure Aitak ordaina emongo deutsu" (Mt 6,1-4)

Beste aldetik, onuragarria dala esan geinke Jesusek berak dinoan lez, S. Mateoren 5. atalburuan: "Bego horrela dizdiz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zeruetan dagoan Aita goratu dagien" (Mt. 5, 16-17).

Arazo honetan gauza bi euki behar ditugu kontutan: Alde batetik, emolearen asmoa beti ixilean gorde behar dogula. Honetara ulertu geinke Jesusek hemen iragarri nahi deuskuna. Baina bestetik, gure egite onak lagun hurkoaren begietan jarri behar ditugu, agirian, honek ere beste horrenbeste egiten ikasi dagian.

Gainera, aldizkarian limosna-egileen izenak jarten baditugu, izen eta karta horreek benetako eta egiazkoak dirala autorra egiten dogu.

LA OBRA MAXIMA (II.)

Arranoaren hegaskadan, gorantz eta gorantz joian gure aldizkari misiolaria. Gidari trebearen eskutik entzutetsu eta estimagarri egin zan gazteleraz mintzaten diran herri guztietan.

Itsasoak eta mendiak ez ziran traba ez eragozpen, harentzat edonon lur hartzeko.

Aldizkari apala, herrikoa, jende artean handi gurarik bage ebilena. Beti barri onez beterik heltzen zan mezulari mina. Eskuetan hartzen eban bakoitzagan, bere barri eta mezu pozgarri hareekin, harpidedun egiteko gogo sortzen ebana.

Zuzendaritza eta harpidedunaren artean holako eskutik eskurako adostasun bat sortzen zan, gerora, gehientsuenetan, adiskidetasun bihurtzen zana. Etxekotasun bat ikusten zan zuzendari eta irakurleen artean.

Batzuetan, Aita Joan Bizente bera izaten zan irakurleei aholkua eskatzen eutsena honetara edo haretarako eta, beste batzuetan, irakurleak eurak euren eritxi eta argibideekin zuzendariaren burua argitu eta bideratzen ebenak.

Aldizkariaren goiburu nagusia misio zaletasuna jendearen artean zabaltzea zan.. Hauxe zan Aita Joan Bizente eta bere lagunkideen lanik hurkoena. Horretarako langile trebe eta eginkorrak behar zituan. Langile horreen laguntzarik bage, jakina, lana hutsean edo biderdian geldituko zan.

Horregaitik, Aita Joan Bizente oihulari eta propagandista onak idorotzen ahalegintzen zan beti. Horretan jarten zituan bere begi luze eta jakituria. Propagandista jator eta aukeratuak behar ziran misiolurra jorratzeko; misio zaletasunaren ereintza egiteko.

Honako propagandista asko aurkitzen ziran Aita Joan Bizenteren taldeetan. Hortik, misio-ekintzak eskuratzen zituan etekin eta hobariak ere ugariak eta onak izaten ziran.

Bai Espainia eta bai Amerika aldetik, egunero-egunero, heltzen ziran harpidedun barrien izenak, erruz eta gainezka, *La Obra Máxima*ko mahai gainera. Begien bistakoa zan *La Obra Máxima*k ereiten eban haziak lur onean jausi eta frutu ugariak emoten zituala.

Aita Joan Bizente bera da honen agerpena dagiskuna.

“Bost hilabete barruan, bederatzi milatik gora dira harpide egin diranak! Egunekeo, hirurogei, hutsik bage!

Jaungoikoak ondo daki guk onarpen hau ez dogula harrokeriatzat hartzen, geure esker ona agirian jarri baizik. Zehatz sinistuta gagoz, geure baitan, lorpen zoragarri hau ez dala geurea izan, Andra Mariarena baino, lehenen-lehenengotik Karmengo Amaren babes eta laguntzapean jarri genduan gure misio-lan guztia eta.

Eta, bigarren mailan, Andra Mariaren maitaleak jarten doguz, lan zoragarri hau beraren begipean egin dabelako.

Betoz honako propagandistak, betoz harpidedunak ugari! Aurrera jo behar dogu Ama Birjinaren izenean! Oraindik lana ez da amaitu! Gu tinko azkenerarte!”

Aldizkariaren lehengo urtea amaitzean, harpidedunak hamabi milara heldu ziran. 1922ko urtarrilean, aldizkariaren bigarren urtearen atarian, bere lankide eta laguntzaile guztiei eskerrak emonez, honetara agertzen zan Aita Joan Bizente: “Eskergarriak zaree danok, aurtengo urtean, egin dozuen lan oparoagaitik; baina, arren, jarrai aurrera. Bidea zabalik dago; gogoak sutan. Zabaldu haize guztietara *La Obra Máxima*. Bikoiztu daiguzan harpidedunak hogeita lau milararte. Igaz lortu genduana, aurten zergaitik ez?”

Aldizkaria laugarren urtera heldu zanean, Aita Joan Bizentek, begien aurrean ikusten ebana sinistu ezinik, honelan idazten eban: “Apaltasun osoz autortu beharrean gagoz, aurreko hiru urteetan egin ditugun kalkulu guztiak oker egon dirala.

La Obra Máxima lehenengoz argitara emoteko orduan, uste gen-

duan, sei mila bat harpidedun izango genduzala gehin jota ere; eta gero, urteen joanean, gutxi gorabehera, hamar mila ingurura helduko ginala. Horreexek ziran gure kalkuluak. Baina, labur gelditu ginan.

Hona hemen jazorikoa. Urte haretan hamabi milara heldu ziran harpidedunak; hurrengo urtean, hamabost mila abonatuak; hurrengo urtean, hemeretzi milara igon eban.

Abonatuaren gehitze hau Aita Joan Bizentek Karmengo Amaren laguntza amakorraren bihotzean jarten eban eta, gero, garai berean, Elizako zero gainean agertu zan izar barri Lisieux-ko Santa Teresitaren laguntzan.

Aita Joan Bizente bertatik maitemindu zan Teresita zoriondunarekin. Berarekin liluraturik egoan eta Teresitaganako onespeneren zabalkundea zabal eta bizi-bizia egiten ahalegindu zan aldizkariaren bidez.

Orduko egunetan, Santa Teresitaren 100.000 bederatziruaren labur zabaldu zituan munduan zehar.

Aldi haretan, *La Obra Máxima* 30.000 harpidedun izateraino heldu zan. Geroztik, gutxi gorabehera, hortxe-hortxe ibili da beti.

Batez ere, egunak joan eta egunak etorri, umetxoaren gutunak, kartak ugari ziran ezinbestean. Egunero-egunero piloka heltzen ziran aldizkarira.



La Obra Máxima aldizkariaren egoitza

Gutun horreek bere lan-sariaren ordaina ziran; haurtxoen kartak ikustean, zoriona irribarrezka sartzen jakon gogo barru-barruraino. Karta bakoitzean haurtxoen tolesgabetasuna, xalotasuna pil-pilean dantzari agertzen jakon. Karta horreen beroak mantentzen eban zutik

Aita Joan Bizenteren lanerako gogoa, indarra. Bere bihotzarentzat osakai bat lez zan kartaketa hori.

Baina gehiegiak beti gainezka egiten deusku, eta hori jazo jakon gure Aita Joan Bizenteri ere. Kartak mordoxka heltzen ziran eta aldizkarian tokirik ez danak sartzeko nahiz eta aldizkaria orriz asko gehitu. Ezetatik ere ezin sartu hainbeste karta. Zer egin orain? Non aurkitu irtenbide egoki bat? Zelan jokatu?

Berak idazten dau: "Badakizue umetxoen kartak pozarren hartzen ditudala. Nire poza ta atsegina dira. Nire gogoa danei erantzutea da, orainarte egin dodan bezelaxe, batxo bat itzi bage baztertuta mahai gainean.

Gaur asko ta asko ugaritu dira eta ez daukat danak non sarturik aldizkarian. Aldizkari bi beharko gendukez eta hori ezinezkoa da.

Niri iruditzen jat arazo honen konponbide bat hauxe izan daitekela: Karta guztiak aldizkarian sartu eta nire erantzunik bage itzi. Aldizkarian bagarik, osterantzeko karta baten jarri bakoitzari dagiodan neure erantzuna. Zer deritxazue?

Zetan esanik ere ez haurtxoen kartaketa hau zala aldizkariaren zatirik onena, haize barria emoten eutsana. Zer egin, beraz? Gutxitu, murriztu hareen argiltapena? -Ez, horixe!

Ez bildurrik izan, nire umetxo maiteok, ez bildurrik izan, dirautse Aita Joan Bizentek. Hiru edo lau bidar gehiagotzen badira ere, bat bera ez da argitaratu barik geldituko.

Irakasle eta hezitzaileei deia

Eta guraso, irakasle eta hezitzaileei dei larri bat egiten deutse esanez, umetxoei kartak idazteko gogoa kendu bage, eragozpenik jarri bage, gogo hori berotu, adoretu, suspertu eta laguntza eta erraztasunak emoteko beraiei kartaketa horri eusteko. Umetxoen heziketa osoa izan behar dogu kontutan, baina, batez ere, euren sentimen mundu hori landu behar dogu maitasunez.

Sail horretan dago sustraituta gizakiaren geroa. Baratz horretan sortzen dira gizatasuna edertzeko behar diran onoinenak: alkarren

itzala, begiramena, ederrikusia, laguntza, anaitasuna ta abar... Umetxoak eskola horretan hazi behar ditugu.

Eta eskolarik onena, erakusgarriena, Indiako umetxoen gorputz eta arimako txirotasuna begien aurrean jartea baino irakatsi hoberik ez dago.

Umetxoen bihotza, berez bigun eta samurra, tamalez ikututa gelditzen da, han urrintetan beste umetxo batzuk holako zoritxar gorri-pean bizi dirala jakitean. Ikuskizun honen aurrean, umetxoari berez datorkio urrintetan bizi diran ume pobreei laguntzeko gogo eta ongu-ria.

Honez gainera, haurrak poztasun hunkigarria hartzen dabe euren gutuna eta izena aldizkarian idatzita datozela ikustean.

Azkenean, karta ugaritze honen arazoa konponbideratzeko, karta laburragoak idaztea eskatzen deutse kartagileei.


Aita Joan Bizente, bere aldizkaria bide dala, eskoletako irakasle eta hezitzaileei zuzentzen jake misiolaritzaren zaletasuna umetxoen artean ardura handiz zabaldu dagiela eskatuz.

Honela dirautse: "Gure aldizkarira heltzen diran kartak, beste edozein baino argiago erakusten dabe, misio zaletasun honek umetxoen bihotzetan daukan eragin bizia. Lur ona dozue umetxoen bihotz hori hazi ona eriteko. Zeuen ardura ta eginkizuna da umetxo horren haziera.

Beraz, bete egizue ondo eginkizun hori, bestela errudun zinakeze ume, guraso eta herriaren aurrean. Zuen akats hori nekez betetzeko litzake".

Hezitzaile askok benetan hartu eben Aita Joan Bizenteren aholku hau. Hona hemen holako ikastetxe bateko irakasleak Aita Joan Bizenteri eginiko agerpena. Bere izena ixilean gorde nahi dau irakasle honek.

"*La Obra Máxima*-ren ale bi hartu nituan lehengo egun baten, harpidedun egiteko eskearekin. Misiolaritza aspalditik neure barrubarruan daroat. Urrinean egon arren, misiolari sentitzen naz. Beti nago prest misioei laguntzeko.



Joan Bizente La Obra Máxima eta misioen aldeko ekintzetan ibili zaneke argazkia

Aldizkaria, neure aldetik, goitik beheraino irakurri eta aztertu ondoren, interesgarri zala eta neure ikasleei irakurtea gogoratu jatan. Honen jakitun jarri behar ditut neure ikasleak!, esan neban.

Irakurri ahala, ixiltasun mutuagoa sumatzen neban inguruan. Hunkigarritasun bat ikusten neban urduri umetxoen arpegietan.

Nire eskola-umeak, batez beste, pobreak dira danak. Eta hara zein izango zan nire harrimena, nire umetxoak, jolasaldi orduan, aldizkarian irakurritakoaren eraginera, euren artean alkartu eta amen esan ordukoxe, Ama Birjinaren 12 koru eratu, eta euren gurasoak jateko mizkinkeria batzuk erosteko emondako diru guztia neure esku itzi eben misioetara bialtzeko.

Gutziz durdiduta galditu nintzan neure mutilen erantzuna ikustean. Ezin gehiagoan atsegingarri egin jaken aldizkaria. Euretatik bost harpidedun egin ziran une batetik bestera. Eta, egun hatan dirurik bage etorri ziranak, barriz, hurrengo goizean ekarri eben eurena Indiako umetxoentzat zala esanez. Liluraturik gelditu nintzan nire ikasleen bihotz on eta samurra ikustean”.

Alicante-ko Crevilente-tik, mojatxo batzuen ikastetxetik 40 harpidedun bialdu zituen eta honez gainera 12 Mariaren koru antolatuta eta diru kutxatxo bat jarri ikasleak euren misio-limosnak botatzeko.

Ikastetxe askotan jazoriko beste mila kasu aipatuko gendukez hemen, baina aspergarri litzake, beharbada.

Eskola eta ikastetxeetan lan eder eta aberatsa egin zan misioen alde Aita Joan Bizenteri esker. Ez zan baztertxo bat bera gelditu Aita Joan Bizentek astindu bage itzitakorik. Guzti hori berak eukan karismaren frutua zan.

Seminaristekin

Aita Joan Bizente seminaristakin ere gogoratzen da. Oso bihotzeko zituan. Bere misio-apostoluzan lehentasuna seminaristentzat. Seminaristak lehenengo tokian. Zergaitik hori? Oso erraza da susmatzea.

Bihar edo etzi lurrean Kristoren ordezkari izango diran gazteak, eliz zerbitzuan kristau herriaren gidari, artzain eta irakasle izango diranak, misio zaletasun eta bokazioan ere goi-goiraino beteta egon behar dabe, ebanjelizatze-lan hori abade baten zeregirik behinena baita.

Honen arabera, benetako misio zaletasuna sortu nahi izan eban seminaristen artean. Eta misio-sugar hau suspertzeko edozein elizbarritutako seminaristekin hartu-emon agiriko eta sakonak izaten zituan.

Eta hemen ohar bat jarri behar dogu Aita Joan Bizenteren txalagarri. Aita Joan Bizente ez zan karmeldar misioekin bakarrik arduratu eta lanpetu, baizik eta lurbira osoko misioentzat ardura eta maitasun berbera agertu zituan.

Kristoren salbamenean gizaki guztiak sartzen dira. Bat bera ez zan kanpoan gelditu. Danen alde isuri zan odol hori. Horrelantxe, Aita Joan Bizenteren sinisgabeen aldeko egarri eta irrikitasun hori ere orokorra zan, sinisgabe guztiak, bera nor eta nongoa zanik gogotan izan bage, sinisgabe guztiak sartzen ziran bere bihotzaren beroan. Ez eban bere gogotik inor jaurti.

Hori bai. Indiako karmeldar misioei laguntzea zan bere helburu nagusia. Ez daigun ahaztu Indiako misioa itzita Euskal Herrira etorri bazan, gerraren ondoriozko diru-gabeziak bultzatuta etorri zala; hemendik Indiako misiolari eta misioei diru-laguntza hori, zelanbaiten, bideratzeko etorri zala, batez ere.

Baina etxeok maitatzeak ez dau esan nahi besteak ez ditugula maite. Guztien misiolaria dogu Aita Joan Bizente. Berak kutunkeriarik bage, misio zaletasuna erein nahi eban ludiko bazter guztietan. Hori da bide ebanjeliotarra. Bide hori hartu eban beretzat, hain zuzen ere, gizon guztiz ebanjeliotarra zalako.

Honen jakitun egozan seminaristak. Hortik, alkarren arteko harreman eta lotura estuak.

Aita Joan Bizenteren *La Obra Máximaren* bidez, seminarioetan misio zaletasunak gorakada izugarria egin eban. Beste bitarteko batzuk ere sartuko ziran jokoan gorakada hori eragiteko, baina sumoile nagusia Aita Joan Bizente izan zan.

Poztasun handiz ikusten zituan seminaristak, egunetik egunera, misio- alor honetan egiten zituen saio eta aurrerakuntzak.

Sarri-sarritan ikusten dogu Aita Joan Bizente, hor eta hemengo seminarioetan mitzaldiak emoten, batik bat Iruñekoan, etxetik hurbil eukalako.

Egunero bere gain jausten zan lan izugarriari erantzun beharrak lotzen eban bakarrik bere lantokian, bestela, bere gurariz, seminario asko ta asko ikustatuko zituan misio-garra abadegaien bihotzetan biztuaz, baina hau ezinezkoa jakon, gero etxeratzean atzeratutako lanari erantzun ezinik aurkituko zan eta.

Astorgan

Halako baten, Astorga-ko seminariotik datorkio deia hitzaldi batzuk emotera joateko. Ez daki zer egin. Urruntxo samar dago Astorga eta joatekoan etxeko lana atzeratuta geldituko jako. Baina bihotzak gehiago egin eta Astorgara doa bere bidai zorroa eskuetan dauala.

Hitzaldi txukun eta narotsuak egin ditu, bere betiko bizitasuna jarriaz esaldi bakoitzean. Berak Indian izandako misio-bizikerak, zehatz eta mehatz azaldu ditu, guzti hau pantaila handi baten ikusten ziran misio- irudien laguntzarekin.

Irakatsi eraginkor eta aberasgarriak izan ziran Astorgako abade-gai gazteentzat.

“Pozik entzun ditugu zure irakaspenak, idazten deutso haretariko batek, danen izenean, Aita Joan Bizenteri. Ikuspegi barriak zabaldu deuskuzuz misio-alorrean.

Gure batzarraldi honeen ondorio lez, helburu garrantzitsu bat geure egintza nagusi lez, bidean jartea erabagi dogu. Hau da, misio-lurraldeetan, bertako apaizgoaren susperketa bat eragin eta bideratzea, horretarako geure otoitz, harreman eta laguntza mardul eta sendo bat haren alde jarriaz”.

Aita Joan Bizente pozik etxeratu zan Astorga aldetik.

Madril-go seminarioan

Beste behin, Madrilgo seminario nagusian, 1923ko irailean, egunetako batzarraldi batzuk, misioak goiburu zirala, eratu ziran Espainiako seminarista guztientzat.

Aita Joan Bizentek ere bere deia hartu eban, Gasteizko seminarioarekin batera. Eta hara doa gure gizona. Seminarista askorekin egon eta hitz egiteko era egokia dau. Han dabil gure misiolari bizar zuria, talderik talde, bere beneragarritasunaren itzalean aupatuta.

Zeren bila doa Madrilgo batzar hori? Zer dala ta jarri da bidean hainbeste seminarista? Zein da batzar horren helburua?

Espainia guztiko seminaristen ordezkariak, hiru egunez, batzar-tuta izateko gertakizun handiren bat egoan jokoan.

Horrelantxe zan. Garrantzi handiko asmo eder bat lortu nahi zan batzar orokor horretan.

Hauxe zan hain zuzen ere: Gaztelera mintzatzen ziran herrialde guztien arteko misio-federakuntzak egitea. Seminario erdeldun guztiekin misioen aldeko alkartasun handi bat egin eta alkargo hori bidean jarri horretarako behar zituan ahalbide eta eratasun guztiak oparotasunez bideratuaz eta eskeiniaz.

Hurrengo *La Obra Máxima* iragarri eban lez Aita Joan Bizenteren ustetan, lan osoa ta betea izan zan han egindakoa. Berak idatzi eban: “Pozik joaten izan naz seminarioan izan ditugun batzar-raldi, hitzaldi, alkarrizketa, egintza, eztabaida, erabaki eta gainetiko eginkizun guztietara.

Han hizketatu ta bideratu diran ideia, ekinbide, inizatiba, egitamu, akordio eta araubideak oso garrantzizkoak dira, izan ere, misioen aurrerakuntzarako.

Misio zaletasun hutsa txastatzen izan da seminarista haren hizkeran. Jaunaren Espiritua geure gain ikusi dogu gure egintza guztietan. Bihotzak misio-beroz taupada bizian. Uste dot alkar aberastuta, adoretuta, gorputz eta arimaz misioen alde lan egiteko gurari handiz urten dogula danok batzarretatik.

Konturatu bage joan dira lau egunok. Misio-lana bide onetik doanaren ziurtasuna atera neban nik. Zorionak batzar hori gertau daben guztiei”.

Beste pozaldi bat gure Aita Joan Bizenterentzat. Filipinazko seminaristak gogorik galdu ez egien, *La Obra Máxima* pilo bat bialtzen dau Filipinas-era.

Ameriketara

Orain Amerikara bidean dogu gure misiolaria. Misio-garra biztu nahi dau han ere. Misioekiko itxarkundea ta zabalkundea egin. Ames

zaharra dau Amerika hori. Bide batez, diru-laguntza eskatuko dau, batez ere, Estatu Batuetako herrialde eta uri nagusietan.

Nagusien bedeinkapenak zorroan daroaz. Hori bage ez leuke pausu bat bera emongo. Sinistuta dago itxarkunde eta zabalkunde hori egiteko erarik onena, egokiena, han eta hemen, Amerikan zehar, *La Obra Máximaren* sukurtsalak, ordezkariak, jartea dala. Asmo hau daroa behintzat kolkoan.

La Obra Máximak hemen izan dauan hazkunde izugarriaren arauz, zenbat eta gehiago zabaldu bera hango lurraldeetan, frutu ugariagoak batuko ditugu han ere, pentsakera honetan ebulan Aita Joan Bizente.

Lehenengo ta behin, sukurtsal hori Estatu Batuetan sortu nahi eban. Horren atzetik ebulan gure misiolaria jira hori prestatzean. Baina ideia honek ez eban onarpenik izan nagusien aldetik. Ames ezin betezko bat zala esan eutsoen. "Causa finita" esan eban orduan gure Aita Joan Bizentek, nagusien esana, dakigun lez, harentzat Jaungoikoarena zalako. Holan eta guzti ere, Estatu Batuetan misio-propaganda eta diru-eske hori egiteko baimena hartu eban.

Jira honen kronista Aita Joan Bizente bera dogu. Berak idatzitako kartei jarraitzea nahiko dogu jirabira horren barriak jasoteko.

1926ko azaroaren 11n itsasoratu zan Bartzelonan, eta azaroaren 29an porturatu Montevideoko urian. Bidaia ondo joan jakon, berak dinoan lez. Itsas gainean errez zorabiatzen zan, ontzia kulunkan hasten zanean. Baina, oraingoan, ez eban ondoezak larritu eta, zorionez, egunero bere meztaxoa emoteko aukerea izan eban. Hau bere betiko gurari baztertu ezina zan. Meza emon bagako eguna, minezko eguna zan harentzat.

Montevideon bere adiskide bihotzekoa eban Aita Konstantziorekin topo egin eban. Aita Konstantzio Argentinara joanda egoan arren, lehendik alkar adostuta lez, Burgostik geroz adiskide zahar eban lagun zintzo hori han egoan Aita Joan Bizenteri itxaroten. Bere bidelagun eta gidari izan eban jira guztian.

Montevideoko karmeldarren etxean geratu ziran ostatur, pozik geratu ere. Anaia maite-maiteak lez, txeratsu eta abegitasun osoz

hartu zituen hango preileak, berak Aita Probintzialari egindako esku-titz baten agertzen dauan lez.

Honelantxe dirautso: "Gure zoriona! Itzitako etxe baten orde, edozenbat aurkitzen ditugu edozein tokitan".

Hamaika egun egin zituan Montevideon. "Ahalik eta ondoen aprobetxatu genduzan egunak. Astirik galdu bage, jo ta ke, ekin geuntsan hona eta hara. Astiz urri gabiltzanez, praile, moja eta parroikia batzuetan egiten genduzan geure ekitaldiok, batez ere, meztako orduetan.

Misioez bero hitz eginez, bideak egin, atek zabaldu, gure asmoak ezagutzen emon eta *La Obra Máximaren* zabalkunderako propagandista on eta finak aurkitzea zan gure lehenengo asmoa. Propagandista onak etekin onak lortzeko".

Berak ikasi eta ikusiaren arabera, bere trebakuntzaren ildora jokatzen eban beti. Propagandista onik bage, ez dago etekin onik, esaten eban berak. Alperreko lanean sartzea da.

Diru-eskea ere egiten zan, baina tropenta-soinurik jo bage. Mezak amaitzerakoan, eliz ateetan, emakume batzuk jarten ziran harpidetu nahi ziranen izen eta zuzenbideak hartzeko, eta eskerako mahaiak limosnak batzeko.

Diru gutxi batzen zan, asti ezaren erruz, aurretiazko propaganda-rik bage, beti presaka, jardunaldiak patxadaz gertatu bage. begiak bota beharrean ibilteagaitik.

Tamalgarría zan, dino, gure astirik eza, bestela probetxu gehiago aterako genduan jende harengandik, jende oso txeratsu, maitekor eta atsegingarria baitzan. Etxean lez aurkitzen ginan hareen artean.

Argentinara

Uruguaytik Argentinara. Hemen 39 egun egin zituan. Buenos Aires, La Plata, Rosario, Cordoba, Río, Mendoza eta abar, izan ziran Aita Joan Bizentek zapalduetako uriburuak.

Uruguayko jokoaren antzekoa jarri eban hemen ere. Komentu eta parrokieta mezaldietan izaten zan bere ordua.

Sasoirik txarrena aukeratu eben Ameriketako jira hori egiteko, Aita Joan Bizenteren esanean. Hara zergaitik.

Ameriketan udaldian egozan eta udan jendea sakabanatu egiten da. Mendietara, hareatzara, hara eta hona, jendea ibili dabil. Ikastetxeak oporretan dagoz; denda eta lantegiak erdi geldirik, artaldeak pilatzeko sasoi txarra.

Zer dala eta, aukeratu eben, ba, udea jira hori egiteko?

Aita Joan Bizente beraren zeregin garrantzitsu bat egoan bitarteko, presa eske. 1927ko apirilean, Euskal Herriko karmeldarrentzat hauteskundeak egiteko garaia zan. Batzar hori nagusi barriak aukeratu, izendatu, eta Probintziako arazo eta auziei begiratu eta aurrera bidean jarteko izaten da.

Aita Joan Bizenterentzat nahitaezkoa zan batzar horretan egotea, bera ere oraingoz Aita Probintzialaren aholkulari berezia zalako. Hortik, dana presaka eta arrapataka egin behar hori. Apirilean, Euskal Herrian.

Argentina hobari eta frutu onak ateratzeko lurra zan, baina astirik ezak, ez eban egokitasunik emon ereintza onik egiteko. "Guk ahal dogun guztia egiten dogu, gainetikoa Jaunaren esku gelditzen da. Biderako ateratzen badogu nahiko eta pozik".

Zertxobait etsipenduta agiri zan gure Aita Joan Bizente.

Txilera

Honen tamalez, Argentinatik Txilera aldatu zan. Txilen 20 egun bakarrik egin zituan. Santiago, Vina del Mar eta Valparaiso izan ziran haren lantegiak. Hemen ere ez eban hobari gehiegirik lortu. *La Obra Máxima* ezagutzen emon eta abonatuak egiteko bertako jendearekin baliatu zan. Propagandistak bilatu eta hareen esku itzi abonatuak egitea

Perura

Txiletik Perura. Hemen 15-20 egun besterik ez; gero handik Nueva York-era. Martxoaren 15ean heldu zan Estatu Batuetara. Hemen ere ez eban uzta handirik bildu. Bidaldian egindako zorrak irabaziak baino handiagoak izango ete ziranaren zalantzan egoan Aita Joan Bizente.

Dana dala, uzta batzeko lehenengo erein egin behar da. Eta hori, han eta hemen ibilian ebilela, ugari egin dau, *La Obra Máxima*ren zabalkunderako propagandista batzuk aurkitu ditu eta langile horreek, egun eta urteen joanean, lan handi eta ederra egingo dabe euren herritarren artean. Gerora etorriko da gaur botatako haziaren frutua.

Gainera, Aita Joan Bizente lako apostolu Jaungoikozale porrokatu batek berak egindako ahalegin guztiak txarto urten arren ere, hor barruan, santutasunaren apaltasuna daroe oker etorritakoak gaintzeko. Euren kontzientzia nasai eta pozez daroe ahal izandako guztia egin dabelako. Hori jaso jakon gure Aita Joan Bizenteri ere. Esku hutsik etorri arren etxera, ez eban horregaitik umorerik galdu.

Berari Nueva York-en jazoriko bitxikeria bat barrez kontatzen eban berak. Bajoiari, egun baten, kalean zehar, bere praile abitu eta sandaliek, bere buru-tunturra kaskamotz dauala.

Halan ikusirik, ertzain bat ondoratu jakon eta garratz esan: "Beharbada, zu ez jakinean egongo zara, baina janzkera horrekin debekauta dago kalean ibiltea. Zeuk ikusiko dozu, baina ni behintzat ez naz jabetzen zure egoeraz". -"Zu ez kezkatu, erantzun neutson; hori neure kontura itzi, neuk erantzungo dot eta. Jendea oinetara begira neukan, begirik kendu bage".

Ingalaterran, ingeles ikasten egoala ere, holako zerbait jazo jakon. Etxean eta elizan jantzi leikean arren, praile ta apaizak debekaturik dauke Ingalaterran jantzi luzearekin kaleratzea.

Aita Joan Bizente abitu zale porrokatua zan lez, holako txikikerien gainetik egoana, eta, bere bizarrak agertuz, berak behar eban

guztian, kalera beti abituarekin joango zala esaten ekion bere praile-en aurrean.

Esan eta egin. Kaleratu zan halako baten, bere abitu eta sanda-liekin. Kalean zomorro arraro bat agertu balitz lez, ikusmirak jota, danak bere ingurura hurbildu jakozan, barrezka ta adar-joka. Halakorik, antza, ez eben gizaldietan ere ikusi.

Iskanbila hori ikustean, poliziak bertatik ondoratu jakozan eta hasarre berba egin: “Zoaz etxera eta aldatu egizu abitu hori eta jantzi zaitez kalerako moduan, bestela geurekin kartzelara etorri behar-ko dozu, bazter-nahastatzaile bezala”.

Ameriketako jira hori ustel samar izan bajakon ere, bere osotasunean begiraturik, Aita Joan Bizentek misioen alde eginiko lanari izugarritasunaren ikurra jarri beharrean gagoz. Benetan lan izugarria eta onuragarria egin eban *La Obra Máximaren* eskutik.

Lan bikoitza gainera. Alde batetik, bere limosnekin misioei ero-andako diru-laguntza. Laguntza hori bagarik, misioak irtenbiderik bage aurkitzen ziran. Hilteko zorian.

Bestetik, kristau herrian sortarazi eban misio zaletasuna susper-tzeko egin eban propaganda zabal sendo eta bizia.

Gure artean misio-oihulari nagusia, inor txapeldun izatekotan misioen aldeko itxarkundian, hori Aita Joan Bizente, bere bizitza guztia horretan agortu eban eta.

La Obra Máximaren orratza, adarra, Indiara begira egoan. Verapoly-ko misiora hain zuzen ere, hau baitzan Karmeldarren misio-lurra.

Hemen estreinatu zan, misiolari lez, gure Aita Joan Bizente, 1900ean, Indiara heldu zanean, Kottayam izeneko misio-barrutian. Aita Joan Bizente hara heldu zanean, oraindik Kottayam jentilerria zan osoan.

Gizaldi honen hasieratik gero kristautu zan lurralde zabal hori. Kristau haziak lur ona aurkitu dau bertan. Hau dala eta, misiolarien aldetik, kutuntxoena balitz lez, laguntza eta ahalegin bereziak hartu ditu

Misio-barruti honen etorkizun ona kontutan izanik, *La Obra Máximaren* diru laguntzarik oparotsuenak Kottayam aldera joaten ziran.

Ez eban begi txarra izan gure Aita Joan Bizentek Kottayam aldean kristautasunarentzat lur guria ikusi ebanean. Hain azkar zabaldu da kristautasuna Kottayam-en, gaur, Verapoly-tik bananduta, bere inguruan, Vijayapuram izeneko beste elizbarruti edo obispadu barri bat sortu eta osotu da.

Jazoera hau begitan izanik, Verapoly-ko Gotzain Anjel Maria Jaunak, karmeldarra hau ere, autormen hau egin eban:

“Kottayam-go misioak, azken urteotan, izan dauan gehikuntza eta hazkunde hain handia Jaungoikoaren eta misiolarien hurrengo, *La Obra Máxima* Aldizkariari, bere harpidedun, irakurle eta ongile-ei zor deutsegu.

Poztu bedi, barru-barrutik, bai Jaunagan eta bai bere baitan, *La Obra Mximaren* inguruan mugitzen dan jende talde guzti hori. Badauke zergaitik pozik egon. Euren laguntzari esker lortu ahal izan dogu gaur hemen daukagun guztia. Eskerrik beroenak eurei; ez daukagu beste ordainbiderik”.

Gerora, gure Aita Joan Bizente gaixotu egin zan; elbarriturik jausi zan, lanerako gauza ez zala. Gaitza berari ordezkoa aurkitzea. Erraldoien neurrikoa zan gure elbarritua.

Zailtasun honek larrituta, Vijayapuram-go Gotzain barria zan, Aita Beunaventura Aranak, hau ere berriztarra, Euskal Herriko Probintzialari erregu-gutun hau idatzi eutsan: “Danok dakigu misio-barruti maite hau Euskal Herriko karmeldarren ardurapean dagoala. Hortik datoz gure misiolariak, hortik gure diru-laguntza eta gainetikoak.

Behar-beharrezko da *La Obra Máxima*, gaurko bideetatik, aurre-ara ateratzea. Gaur horretarako jende prestu asko daukagu etxean.

Gure Aita Joan Bizente, hamasei urte luzean, hemen ibili zan lan eta lan Frantzisko Xabier deunaren urratsik urrats. Askok goraltzen dabe Jaungoikoa misiolari ongile hori ezagutzeagaitik.

Aita Joan Bizentek argi ikusi eban diru ezak atzeratzen ebala kristautasunaren zabalkuntza; eta diru ezaren erroa, iturria Euskal Herri eta beste herri aurreratuetan egoala eta egoera larri hori herriaren ezjakintasunetik etorrela. Eta ezjakintasun hori onez gaintzeko misioen aldeko propaganda zuhur, burutsu eta narotsu bat ezinbestekoa zala gaur eta beti; bestela ez genduala inoiz misio-itxarkuntzarik lortuko herriaren aldetik.

Hortxe egon zan Aita Joan Bizenteren meritua: Arazo horrekin jabetu eta misio-egintzak burutu eta bideratuz, hutsune hori garaitzean. Propaganda hori egiteko asmotan, misioa itzita, barrero aberriatu zan bere asmobide guztiak aurrez jokoan jarteko irrika bizitan.

Irrikitasun honen indarrak bultzatuta heldu zan hain gora misio-alorrean. Urte luzeetan, bera izan da *La Obra Máximaren* eraginez, gure misioen aingeru jagolea. Berari esker ditugu hainbeste kristau Indiako barruti honetan.

Euskal Herri eta Espainiako herrialdeetan misio zaletasunaren suspertzaile erraldoia izan dogu gure Aita Joan Bizente. Bera da txapeldun; koroia ere berea”.

Eta Aita Probintzialari propaganda hori aurrera tinko eroateko eskatuz, amaitzen dau Gotzain Jaunak bere gutun hunkigarria.

Bigarren aldiz datorkigu Vijayapuram-go Gotzain, Arana jaun argia, Aita Joan Bizente eta honen aldizkaria *La Obra Máximaren* gorralpenak aipatzen. *La Obra Máxima* sortu zanetik 25 urte betetzean, zilarrezko ezteguetan, aldi guzti horretan *La Obra Máximak* egindako on guztiaren azalpena laburbilduz, aldizkarian bertan argitaratu eban Arana Gotzainak “Emaizta kontsolagarriak” izenarekin.

La Obra Máxima goraltzeko ez dau aurkitzen hitz aukerakorik. Hitzak labur gelditzen jakoz. Horrela dino berak.

“Orain 25 urte Vijayapuram-go elizbarruti hau ez zan ezagutzen. Sortu bage egoan. Verapoly-ko elizbarrutiko bosgarren lur zatia zan, Kottayan izenez ezagutzen zana.

Gaur, kristautasunak hemen izan dauan onarpenari esker, bertako kristauekin Vijayapuram-go elizbarruti edo obispadu eginik dago.

Verapoly-ko misioa bertako apaiz eta Gotzainaren esku itzi dogu. Hango misio-lana, misio lez, amaitutzat emona da gaur.

Gu Karmeldarrok Vijayapuram-go misio honekin geratu gara. Geure esku eta ardurapean dogu. Gure maitemin, ardura eta izerdiak harentzat dira. Geure seme-alabatxoak dogu gaur.

Gero Gotzain jaunak 25 urte honeetan Vijayapuram-go misio honek, hau da: 1920an, *La Obra Máxima* sortu zanetik geroz 1945erarte, egin dituan aurrerakuntza eta hobari bardingabeak aipatzen ditu. Benetan datu adierazgarriak dira. Hona hemen batzuk:

1920an, gaurko misioak, 11 abade zituan; honeetatik 6 bertakoak. 17 eliza ta kapera; eskolaumeak guztira, 1.769; katekistak, 18; maisuak, 48; Katolikoak, 16.359.

1945ean, 43 misiolari zituan; honeetatik 17 bertakoak; eliza ta kaperak 56; eskolaumeak, 5.191; katekistak 42; maisuak 128; katolikoak, 50. 730... Datu honeek kontutan izanik, 25 urtean, katolikoak hiru bidar gehiagotu dirala esan behar; elizak 17tik 56era igon dabela; 39 barriak egin dirala ordutik ona.

Eta honetara jarraitzen dau Gotzain jaunak: Azkeneko hamar urteotan, Vijayapuram-go elizbarruti honek gorakada nabaria egin dau, eskerrak batez ere, *La Obra Máximatik* hartutako laguntzari.

1955eko martxoaren 19an, Misioko Nagusiak iragarritako datuen arabera, gaurko egunetan, bertako 38 abade eta 33 seminarista dagoz; honeetatik 21ek teologia ikasketak egiten dihardue, beraz, laster baten, apaiz egingo dira; 68 eliza ta kapera dagoz; 230 maisu eta 62.768 katoliko. Uzta ederra Gotzain jaunaren ustetan.

Esandakoez gainera, Gotzain jaunak beste datu batzuk ere argitzen deuskuz. Esaterako: *La Obra Máximak* ez deusala Vijayapuram-go misioari bakarrik lagundu, beste misioalde batzuetara ere heldu dala haren laguntza. Travancore-n, Indian, karmeldarrek dauken misioak ere laguntza ugaria hartu izan dauala aldizkariaren aldetik.

Ebanjelioaren zabalkundeak ez dau herritxo bat bera ere baztertuta izten; ezta urrinen dagoana ere. Fedea danena eta danentzako da, Kristoren odola izan zan lez.

Aita Joan Bizenteren bihotza mundua bera baizen zabala zan;

danentzako egoan bertan legorra eta beroa. Garbiegia zan txatxarke-riarik onartzeko. Haren goiburu nagusia, ebanjelioaren argia lurbira osoan, zoko guztiak argituz, dizdizka ikustea zan.

Honen araubidera, *La Obra Máximak*, behin baino gehiagotan, egin eban eskabidea, garai haretan, zikloi izugarri batek guztiz hon-datuta itzi eban Bùi-chu, Tokin-go misioarentzat. Urtebete osoan zabalik egon zan *La Obra Máximan* laguntza hau prestatzeko epea.

La Obra Máximak, bere aldian, misioei eroandako diru-laguntza oso ugaria ta eskergarria izan bada, ez da txikiagoa izan herriaren bihotzean misio zaletasun hori suspertzeko egin dauan lan izugarria.

Nik ez dakit bietatik zeinek dauan meritu handiagoa. Dana dala, hemen ez dago zalantzarik. Bere egunetan, Aita Joan Bizente misio-kontzientziaren suspertzaile, bizkortzaile, animatzaile onenetariko, edo-ta onena izan dogula.

Berak biztutako sugarraren berora eta berak jaurtitako irrintzi zabalaren oihura gogo-bihotzak berotu eta misioen alde martxan jarri ziran. Misio-langilez bete zan Aitaren mahastia. Beralakoxe erraldoi batek bakarrik eroan leikean bere lepo gainean misio-egintzaren mendate hori.

Jakingarriak dira Lepicier kardinal ospetsuak, Indiatik igaro zanean, han esandako hitz goragarriak. Honelan inoan Lepicier Kardinalak: “Aita Joan Bizente beneragarriak *La Obra Máximaren* bidez eta bertan zabaldu eban kartaketaren berora, holako misio zaletasun orokor bat suspertu dau Espainia guztian, batez ere, haur eta gazteen artean”.

Aita Joan Bizenteren heriotz ostean, haren misio-nortasuna eta lana goralduez, aipamen eder hau agertu zan “Catolicismo” izeneko misio-aldizkarian: “Hamazazpi urtean, Indiako lurrean, misio-egintzetan aurren- aurrenengo ibili eta gero, nagusien aginduz, barrero aberriratu zanean, gure artean ere misio-lan eta apostoladutzan jarraitu eban, gorputz eta arimako adore eta kemen osoz, bidean aurkitzen dauan guztia aurrean daroan zurrumbilo baten indarrarekin.

Gaur egiaz esan geinke, bera izan dala, egunetik egunera, gure

artean goraka doan misioaritzari hasiera emon eutsana, Aita Hilarion Gil-ekin batera.

Bera izan zan hainbeste otoitz zeruratu daben Mariaren Misio-Koruak asmatu eta eraiki zituan buru argia.

Eta, batez ere, *La Obra Máxima*. Nok ez al dau ezagutzen gaur aldizkari misiolari hau? Nok ez al dau irakurri? Nok ez al dau limosna txiki bat misioetarako bialdu horren bidez?

Bera izan da, 20 urte honeetan, misioaritzaren zaletasun-sugarra gure artean bizirik eta tinko zaindu dauana”.

Misioaritzan, poztasunez esan behar dogu, bera izan dala txapeldun. Misioaritzan bere jaiotzako karisma eban eta berak, bizitzan zehar, onura eta etekin guztiak hondar-hondarreraino atera eutsazan karisma horri. Eta ez zan lan erraza.

Aita Joan Bizenteren egunetan, komunikabideak jaio barri egozan. Hasi-masietan oraindik. Irratia bera ere oso urria zan; etxe gutxitan entzuten zan. Gerora etorri zan irratia bat-bateko zabal-kunde hori. Telebistaren usainik ere ez. Izparringia ere gutxik hartzen eban; gehientsuenak igandeetan. Aldizkariak ere itxuraz pobre samar agertzen ziran, inprimategiak gehiagorik emoteko gauza ez ziralako. Baliabide gutxi egoan aldi haretan propaganda aberats bati bideak zabaltzeko.

Elizetan ere gutxitan aipatzen ziran misio-gaia, Elizak Domund misio-eguna jarri eban arte.

Misio-egun nagusi hori, mundu osoan, misioen alde otoitz, propaganda eta diru-eskea egiteko asmoz eratu izan zan. Gaur ere horretan jarraitzen dau. 1926ko apilaren 14an, sortu eban Domund deritxogun misio-egun nagusi hau Aita Santu Pio XI.ak.

Garai haretan, izerdiaren izerdiz eta ekinaren ekinez lortu behar izaten zan dana. Eta egiaren omenez, ingurugiro haretan, misio zaletuak uzta ugaria lortu ebela autortu beharrean gagoz.

Aita Joan Bizenteren herrian bertan eta txiki-txikitatik hain etxe-ko eta maite eban komentuan bertan daukagu adibide aipagarri bat.

Berrizko Merzedeko Mojen komentua jatorriz klausurakoa zan; Ama Margarita Maturanak, bertako Nagusia, misio-esparruan ain-

tzindari urtena zana, eta Aita Joan Bizenterekin artekotasun estua izan ebanak, klausurako jomuga hori aldatu eta ordena misiolaria bihurtu eban.

Gasteizko seminarioan ere, misio-mugimendua goi-goian egoan, Gogoan ditugu Aita Joan Bizenteren hurrengo etorritako izen sonatu batzuek: Anjel Sagarminaga jauna, Maximo Gisasola, Untzalu jauna eta beste askoren izenak. Gasteizko elizbarrutiak bere misio-lurraldeak ditu. 1948an, lehenengo misiolari taldea, Maximo Gisasola beneragarria buru zala, Ecuador-era heldu zan. Hor dihardue oraindik ere lanean.

Baliteke misio-mugimendu honetan, Aita Joan Bizentek jarritako urratsak agertzea.


BERE NORTASUNA. ZELAKOA ZAN

Pertsona baten giza neurria ezagutzeko, aurrezdik haren nortasuna ezagutu behar dogu.

Bakoitzak geure zeinezkoak ditugu, geure bereiztasunak. Bakoitza nor gara. Pertsona bat atontzen daben bereizgarriak osoan aztertzen ditugunean, orduantxe gagoz pertsona horren nortasuna ezagutzeko bide onean. Bereizgarri honeek kontutan izanik egin edo asmatzen dogu pertsona baten irudia, barruko argazkia.

Honen arabera esaten dogu pertsona hori harroa, apala, zuhurra, ona, zintzoa, hau da, haren nortasunaren ezaugarri batzuk ezagutzera emon nahi izaten ditugu.

Hortik, oso zaila da pertsona baten nortasuna osotzea. Zugatz handi batek baino sustrai sakon eta haritsuagoak ditu gizakiaren barrenak; sakonera haritsu eta bihurgunez saretua.



Joan Bizente bere anai eta lobarekin

Izakeraz bardinak izanik, geure agerkizunetan guztiz desbardi-
nak garala esan geinke. Hortik gure molde, eredu, tankera eta egike-
retan..., bakoitzak geure ikutua, oharpena jarten dogu.

Aita Joan Bizentek ere, besteak beste, bere nortasuna ta bereizi-
tasunak izan zituan. Zertara jantziko genduke haren nortasunaren
irudia? Zelakoa zala esan? Zelan margotu gure gizonaren barren eta
bizi-agiriak?

Haren lekuko izan ziran gizonen bila goaz erantzuna jasoteko.
Asko ditugu izan ere haren aldiko testiguak.

Haren ezagun eta lagunkideak gure misiolariak esan eta idatzita-
ko guztia bilduko balitz, liburutegi bat beteko genduke barri eta
albiste horreekin.

Eliz alorrean izar dizdiratsu, izen handiko gizona izan zan lez,
haren nortasun eta izakeraren inguruan, zenbatu ezin beste barri ta
bizi-agiri emon euskuezan.

Batez beste, haren garaiko lagunkideak ados datoz Aita Joan
Bizenteren antz-irudia marraztean, hau da, haren senaren agerpenak
azaltzean.

Jainko zaletasuna

Danak aho batez autortzen dabe haren nortasunaren ikurrik naba-
riena, gailenena, beraren Jaungoikozaletasun suntsiezina zala.

Jaungoikozaletasunean oinarritutako bizitza bat; Jaungoikoa
lehenengo eta beti.

Eta Jaungoikoaren ondoan gizakia, pertsona. Biak maitasun bat
bera dira. Gizakia maitatzeko lehenen Jaungoikoa maitatu behar
dogu eta Jaungoikoa maitatzetik, iturritik ura lez, gizakia maitatzea
dator.

Gorputz eta arimaz santutasunaren bila doan gizona dogu Aita
Joan Bizente; gorputz eta arimaz gizakiaren zerbitzuan oso-osoan
agortu zana. Hauxe da Aita Joan Bizenteren bizitzako ezaugarri
nagusia, zugatz tantaia.

Gizakia sehaskan, sutondoko beroan hazten dala esaten dogu,
gurasoakandik hartzen dauanaren arabera.

Zengotitako sutondoan, Jaungoikoari oparitutako argimutilean
fedearen argia beti bizturik zaindu zala dakigu. Gurasoen bularreta-
tik edan eban zurrustadaka Aita Joan Bizentek Jainko-irrika bizi
hori. Arnasa lez zan harentzat goitiko bizitza hori.

Maitasunaren frutu bat barruko ontasuna da. Bihotza Kristoren
antzeko egin; mundua lakoxe zabala, muga guztiak lurreratuta, anaia
guztiak abegitasun gozoz barruan hartzeko.

Benetako Jaungoikozaleak bihotza beti lorategi bat eginik daroa,
ederraren ederrez. Mota guztietako onomenak aurkituko dozuz ber-
tan: samurtasuna, bihozberatasuna, laztantasuna, biguntasuna, zerbi-
tzua...

Baratz eder honetan ernetzen da baita lagun hurkoa norbere
burua lez maitatzeko lorea ere. Santuaren bihotz taupadak dira lora
honek. Onoimen honeen arabera neurtzen da gizakiaren bihotza.

Lanerako zana

Bere nortasunaren beste nota bat, Aita Joan Bizentek lanerako
eukan odola, zana, izan daiteke. Beti arduraz, arretaz, lehiaz, ekina-
halean lanaren aurrean. Geldi ezinezko langilea.

Liburuan zehar agerian geratu da berak lanerako eukan gar eta
prestutasuna, baita bere bizitzaroan bere esku eta ardurapean eroan-
dako arazo eta ardurakizun guztien zerrenda luzea ere.

Honen ondoan, urregorritz azpinarratuta, bere gain eta zainpean
jausten ziran egitarau eta zereginetan jarten eban zintzotasuna,
zehaztasuna, ardura eta erantzunkizun bete-beteak jarriko neukez
nik. Beharbada, hauxe da haren izatearen atalik urtenenetariko bat.

Jenioz bizia

Jenioz bizia, odol beroa, sutua zala dinoe haren aldikoak. Horretara agertzen da behintzat bere bizitzako une ezagun batzuetan. Baina jite hau ez zan harengan zitala, makurra, iraintzailea, mingarria, inoren kalterakoa.

Jenioa, berez, ona da; ez dauko ezeren txarrik. Jaunak emondako doe bat lez hartu behar genduke, giza balore handienetarikoa lez.

Ez da besterik bage ezetsi behar. Jenio biziko gizakumea beti aurrelari doa; jenio bagekoa atzelari. Hori bai, balore handi guztiak lez arriskugarria da. Bide onetik badaroazu, etekin, frutu on eta ugariak aterateko altxorra dozu; bide txarretik, zeure nahierara badarabiltzu, okerrak eta burukominak emongo deutsuz. Askotan besteen-tzat mingarri bihurtuko zara.

Baina, Aita Joan Bizentek bide zuzenetik eroan eban beti bere odol berotasun hori. Onerako indar bizigarria eban eta ez inor zapaldu edo makurtzeko iraina. Txarkeriaren aurrean bakarrik agertzen zan garratz eta zorrotz.

Lasaikeria eta ustelkeriaren aurrean zan amorekaitza, eta ez pertsonekin; pertsonekin on hutsa zan. Nekez aurkitu leiteke haren eginetan pertsonaren batekin izandako gehiegikeriarik. Nik uste inoiz ez ebalala izan holakorik.

Neure ustez, Aita Joan Bizenteren bizitzako pasarte batzuk mota baltzegiz zirriborrotuta datoz, zalantzarik bage. Kirikinoa aurrean jarri, gartzaina jan eta gero.

Eta inoiz gangarra berotu bajakon hartu-emonen baten aurrean, gizakiarena da, ba, huts egitea, nahiz eta santuena izan berau, Aita Joan Bizentek, bertatik, apaltasun guztiz, damu osoz, irainduari parka eskatzen ikasi eban ume-umetatik. Ustekabean, otopo-otoko irristada bat nok ez al dau inoiz izan?

Baina, gure gogoa, beti ere, urrun eta garbi gelditzen da holako gertakizunetatik. Nahiz eta arau eta lege betetzalea izan bera, beti besteekin maitekor eta gozo portatzen ekiana zan.

Handik eta hemendik, zahar eta gazteen eritxiak batu ondoren, Aita Joan Bizenteren nortasun atal guztiak azterkatu eta sakondu ondoren, honetara iruditu geinke haren barrualde ederra: Gizon buruz azkarra, sendoa; gogoz argi eta kementsua dogu; lana irrikatzen ebana, gero zintzotasun osoz bete ahal izateko; Jaungoikoagandik etorritako nahia lez hartzen eban berari ezarritako zeregin hori eta. Nagusien onespenik bage, ez zan gauza ezeri eskurik ezartzeko.

Lege betetzale bikaina izanik, erabat santutasunari emona ikusten dogu. Jaungoikozalea eta arimazalea.

Bere helburu lehenena, habe gailurra, Jaungoikoa ta gizakia, bizia agortzeraino, zerbitzean jarri eban, horretarako arma hutsezin bi bereak eginez: alde batetik, otoiketa, ukaldi eta onbidea jorratuz eta, bestetik, lagun hurko eta Elizaren alde eten bageko lanketari ekinez.

Santutasun ezaugarriak beterik agiri da Aita Joan Bizenteren bizitza. Dana goiko argiz inguraturik.

Gauza bati eutsan bildur ikaragarria, ezinbestekoa: edozenlango nagusigo edo nagusitzari!, hau da, praileen buru edo parroikia bateko buru izatea eroan ezinezko zama bihurtu jakon, batez ere, bere Gongotzainarekin izandako eztabaida eta ulertezinen ostean.

Arimen ardurea beregain eta eskupean eroan beharrak hazurretarainoko ikarea sortzen eutsan. Inoren agindupean egitea zanean, edozelango lanburu eta ardurakizunak hartzeko beti prest egoan, bera buru izan bagarik.

Buru izateak eta ardurakizunak beregain hartzeak guztiz kikilduta itzi eben. Haren kontzientziarentzat hauxe zan gurutz biderik astuena. Itota lez geratzen zan agintearen aurrean.

Harrigarria egiten jat Aita Joan Bizenteren jokabide hau. Bera beti hain adoretu, kementsu eta ausarti ikusita; giza doez beteriko gizona. Gazte-gaztetatik hainbeste komentutan nagusi, irakasle eta hezitzaile izana; Indian, ezeren kikilik bage, parroko-lanak bere esku eroan zituanak, gaur zer dala ta ezetz borobil hori agintza beregain hartze horri?

Egia da beti behar izaten ebalu nagusien bedeinkapena bere lan eta eginkizunak burutzeko, baina behin bedeinkapen hori lortutakotan normalkiro saiatzen zan bere arazo eta zeregin guztietan. Gaur ez da holan. Zergaitik ez dau agintza beregain hartu nahi? Zergaitik horrenbeste bildur nagusi izateari? Nondik eta zergaitik aldakuntza hori? Arginzoniz Gongotzainarekin izandako konponezinak oste hain larria itzi ete eutsan?

Bera hain zehatz eta zuzen izatean, uste eban, antza, bera agintaritzan jarte hori besteentzat eroanezin, mingarri eta nekagarri bihurtuko zala? Arrazoibide sendoak izango zituan Aita Joan Bizentek bide hori hartzeko. Gehien baten, bere kontzientziaren minberatasuna.

Antza Jesusen esana hartu eban gidari: "Danetan azken eta guztien zerbitzari".

Bakoitzaren kontzientziak bere bihurgune ta bide-zidorrak ditu. Gaitza da mundu horretara sartzea. Baina, ziur nago, harengan ez zala izan kasketaldi baten mizkeria, kontzientziaren eskakizun astuna baizik. Santutasunerako oztopo, eragozpen egin ete jakon agintaritza?

Dana dala, bere espirituarentzat guztiz beharrezkoa dala dino bere burua agintaritza guztitik aske ikustea. Gogoa bakez eta pozez euki nahi eban Jaungoikoari eta gizakiari adorez eta alaitasunez zerbitzeko.

Hunkibera

Barrurago sartuaz Aita Joan Bizenteren gogo bideetan, lorategi polit asko aurkituko ditugu barrualde aberats horretan. Alderdi zoragarriak.

Nok esango eban Aita Joan Bizente gizon kementsu eta errimea, mundu guztia aurrean eroateko gizona, negarti hutsa izango zanik? Bai, gizona! Barruz sentikor eta minbera hutsa zan gure misiolaria. Ume negartia.

Alderdi hau, batez ere, berak esanda ezagutzen dogu. Bera da, behin baino gehiagotan, bere bihotz ahultasun hau autortzen dauana. Negar egindako une asko aipatzen ditu bere idaztietan.

Haren inguruan bizi izandako testigu askoren autorrak ere hari horretatik doaz. Pertsona asko dira Aita Joan Bizenteren negar-dario honen barri dakarrenak.

Hona hemen holako pasarte batzuk:

Bere abadetzako urrezko ezteguak gainean egozan. Probintziako agintarien gurariz, misiolari agurgarri eta beneragarriari omenaldi kutun- kutuntxo bat erabagi zan.

Hitzetik hortzera, behingo baten zabaldu zan barri hori praileen artean. Misiolarien belarrietara ere heldu zan.. Eta hemen hasi ziran haren estualdi eta larrialdiak.

Omenaldiak berak ez eutsan ardurarik emoten. Bere bihotza zan burukomina emoten eutsana. Bere bihotzaren sentikortasuna. Negar itsaso eginik ikusten eban bere burua omenaldiko egun horretan. Ume handi baten antzera, negar eta negar egongo naz egun guztian, inoan berak.

Zelan eutsi, egun horretan, inotsan bere buruari, etxeokandik hasita, nire gogora etorriko diran gogorapen eta oroipen guztiei?

Zelan ahaztu nire India maitea? Neure oinez zapal dutako misiolurralde bedeinkatu hareek? Han hartutako poz eta nekeak? Hainbeste adiskideren beroa, agur eta berba gozoak? Eta besarkada hunkigarriak? Nire goratarrez esango diran berba samur eta goragarriak? Zelan eutsiko deutso nire bihotzak gainera datorkion olatu izugarri horri negarretan murgildu bagarik?

Eta ikaratuta, bildurtuta, omenaldirako gertakizunak egiten hasi aurretik, idaztortza hartu eta ikaraka Aita Probintzialari honakoxe gauza bitxiak idatzi eutsazan.

"Aita agurgarria: Nire abadetzako urrezko ezteguak dirala eta, nire omenez egin nahi dozuen jaialdiagaitik zuri neure eskerrik zintzo eta beroenak damotsudaz. Jaungoikoak esku zabalez ordainduko ahal deutso zure borondate on hori.

Baina, neurea ere zerbait jakin beharrea zagozala eta nago. Premiazkoa da.

Badakizu zer izango dan niretzat hain apain jantzitako jai hori? Ziur-ziur, niretzat oinazegailu handi bat izango da. Eta ez dot uste zuk niretzat holakorik nahi izango dozunik. Nazan nazantxo hau nazela jakinik, uste osoan nago, ez nozula sartuko atsekabe hain handian; ez nozula jarriko barregarri danen aurrean hunkigarritasunari eutsi ezinik, nire begiak negar-iturri geldiezin bi bihurtuko dirala ospakizun horretan jakinik.

Beharbada, zuk Aita agurgarri horrek, ez dozu ezagutzen oraindik nire bihotzaren makaltasun hau. Nire bihotz hau arriskugarria da une eta kasu askotan. Ez naz ez gizon, ez emakume; ume negarti bat baino ez naz.

Esaterako, ez naz gauza gure mojatxo edo praile bati oliadura emoteko, edo ta heriotz orduan laguntzeko.

Behin hasi nintzan horretan, eta olio santuak emoteko nengoala holako barru-ikara izugarri bat sortu zan nire bihotz aldean eta, negar-iturri bat eginik, dardaraka baten, dana bertan behera itzi behar izan neban eta beste praile bati deitu hil zorian egoanari laguntzeko.

Neure adiskide min bat hil dala jakitean, bertatik, begiak negar-malkoz ilunduten jataz.

Neure profesako urrezko ezteguetan ere beste hainbeste jazo jatan. Negar eta negar emon neban ospakizun guztia.

Lehengo egunean jakin neban nire urrezko ezteguetarako gertatzen diharduzuen jaialdiaren barri eta, bestekorik bage, nire begiak urez bete ziran. Ezin eutsi barruko irristadari.

Beraz, zelan geratuko naz ni danen aurrean jai hori ospatzen bada? Barregarri eta lotsagarri! Atsekabea ta negarra kendu ezinik emongo dot eguna eta zuk, Aita agurgarri horrek, onegia zara-eta, ez dozu holakorik niretzat gura izango”.

Honakoxe bihotz biguna eukan gure misiolariak.

Samurtasuna

Hunkipena eta samurtasuna bat bera dira. Iturri bateko ur tantak, erro bateko txortak, ahizta bi.

Hunkipena gertakizun baten ikutura bizkortzen da; egingarri bat behar dau goraka egiteko. Samurtasuna, ostera, gure gogoaren ohizko egoera edo bizikaia da; gogoaren izakera bat, sortzeratik gurekin datorren ekandu ona, baina egunero arnasbarritu eta indartu behar doguna.

Lehenengotan, gure barne ildoan gorderik doanean, hazi txikitxo baten antzekoa da; gero erneketa datorkionean, gizakia bera besteko zugatz handia egiten dana. Sortzeratik bertatik ardura eta zaintza handiak behar izaten ditu kabian bertan hil ez dadin.

Hortik, lurrak lez, ura, beroa eta laguntza behar izaten ditu guri eta garden hazteko. Eta maitasun eta bero hori gizakiak gurasoandik hartzen ditu.

Harrituta gelditu nintzan, behin baten, emakume batek heriotz zorian egoan bere aita zaharrari esan eutsazan berbak entzutean: “Berrogeita bi urte ditut eta egundo ez deustazu mosu bat emon, ez begirada samur bat egin, ez berba gozo bat esan. Eskerrak amari. Zugaitik otsokumeak lez haziko ginan”.

Esaera zaharra da, maitasun bagarik hazten diran umeak, gerora, otsokume bihurtzen dirala. Etxean maitasuna ikusten badabe, maitasuna ikasiko dabe; handizalekeria eta handizale egingo dira; erlijiorik eza eta fedegabeak; diruzalekeria eta dirua bakarrik maiteko dabe; gogorkeria ta heriotza eta bihotz gogor eta odolzalez beteko dozu mundua.

Gizakiagandik piztia edo aingerua ateratzeko ahalmena dogu. Zenbat gizon eta emakume jaurti ditu mundu zabalean zehar zubi eta bidepeetara maitasunik ezak! Zenbat, gizatasun guztia galduta, gaizkin eta basapiztia bihurtu!

Gizarte hau, eguneroko irudiak agiri daben lez, otso-borroka bat bihurturik dago. Gariaren ondoan, galbedar-meta izugarriak ikusten

ditugu. Gerra-lurra balitz lez, egunero bustitzen doguz bazterrak gizon eta emakumeen odolez.

Zergaitik hau?

-Gizartearen bizitzarako behar-beharrazko diran onoimen, balore eta araubide guztiak oinpean triskatu ditugulako. Ebanjelioari boikot eginaren pekatua ordaintzen gabilta.

Gizartean ez dago zintzotasunik, guzurra da nagusi. Gizonaren hitzak, itxuraz, ederrak, baina bihotz maltzurretatik datorriguz, Sinisgarritasun guztia galdu dabe.

Horregaitik gizartea salbatzeko, gízadiaren oinarri eta bizigai diran onoimen guztiak berriro berreskuratu behar ditugu, bestela bazterra joteko arriskuan goaz. Ebanjelioaren legaminez ernaldu, narotu barriro ere gizartea.

Eta zeregin hau sendiak bete behar dau, hezikuntzaren habia sendia baita. Ebanjelioa bizitza egin. Helburu nagusi honetan oinarrituta egon behar dabe sendi guztiak.

Aholku bardingabe hau gidaritzat hartuko bagendu, zalantzarik bage, mundu eder, baketsu eta zoriontsuago bat genduke.

Horretara eratuta, sustraituta, egoan Zengotitako sendia. Han bai ebilela, bizitza eginik, Ebanjelioa, han bai alkarren maitasuna ta beroa! Zeru txikitxo bat zirudian Zengotitako etxetxoak.

Guzur handi bagarik esan leiteke Zengotitarrak bihotz eta gogo bat egiten ebela. Adibide eta gertaldi asko jarri geinkez hemen dingoaren erakusgarri. Maitasunaren beroak girotutako etxea zan. Kristautasunaren usain gozoa usmatzen zan Zengotita inguruan.

Aita Joan Bizente praile zala, gaixo samar ebilen bere aitagandik hartutako karta bati erantzunez, honako hitz samurrak dirautsoz aitari: "Asko nahigabetu nau, aita, zuk osasun gutxi daukazula jakiteak. Osasun hori osoan berreskuratu behar dozu, aita."

Erraz lortuko dozu burua ondo zaintzen badakizu. Lan guztiak bertan behera itzi, harik eta osasuna lortu arte; ahoa ondo zaindu; lo asko egin; oilo-salda ta ardo onak hartu eta ez ibili mendirik mendi.

Hara, aita, astiro-astiro osatu beharra dozu, bestela beti kili-koloka jbiliko zara, ezertarako gauza ez zarala".

Eta bere ama eta osabari, gastuari begiratu bage, euren esku dagoan guztia egiteko dirautse harik eta aita guztiz osatu arte.

Bere amaren goratarrez barbarik gozoenak ditu: "Zoriontsu sentitzen naz, izan dodan ama izan dodalako. Bera lango gutxi dagoz munduan".

Indian egoala, bere hamargarren urtean, ama hil jakon. Negar-malkoak ugari jausi ziran semearen begietatik: "Hamar urte dira neure amatxoren azken mosua hartu nebanetik. Gaur hilda, zeruan dago. Indiara etorri nintzanean, 25 pezetako paper bat emon eustan esanez: hartu, seme, zeuretzat. Ez daukat gehiagorik. Horixe egin eban nire amak. Halako amarik!"

1900ean, Paristik, azken agurra egiteko etxera idatzi eban kartan, barriro ere bere amarekin gogoratzen da: "Agur, ba, guztioi eta barriro ikusi arte. Agur gozoago bat, batez ere, zuretzat neure ama haztuezin horrentzat. Mila esker, bihotzez, nigaitik egin dozun guztia-gaitik, eta parkatu nire ahulkeria guztiak".

Indiako joan-etorrietan, behin baten, bateatu barria zan kristau talde batek babesik bage aurkitzen zirala eta, eurekana joateko eskatu eutsan.

Kristau barri hareen eskariak Aita Joan Bizenteren bihotza zehatz jota, hunkituta, itzi eban. Lurreko maitasuna eta errukia baino goragoko samurtasun bat bere hazurretatik zehar dardaraka zabaldu ei jakon eskari errukarri ha entzutean. Aurrerantzean, kristau talde barri harekin lotura estuak izan zituan gure misiolariak.

Harentzat zorionik handiena umetxoekin egotea izaten zan. Aparteko poza sentitzen eban haurrekin egotean. Jesusen antza eukan honetan. Umez inguraturik beti. Nik uste umetxoen errugabetasuna ta tolesgabetasuna egozala bitarteko zaletasun honetan.

"Nik ez dakit zer daukeen ume bedekatuok, inoan berak, Jesusen bihotza eta gurea horrela bigundu eta irabazteko.

Txartasunik bage, maltzurkeriarik bage, gaiztakeriarako ahalme-

nik bage, errugabeak, argiak, garbiak, aingeruzko izakiak diralako sortzen dabe, zalantzarik bage, holako jaiera, zaletasun eta txukuntasuna gure umetxoak”.

Hemen ezin itzi aipatu bage *La Obra Máxima*, misio-aldizkaria. Oraindik ere zutik eta bizi-bizirik dago Aita Joan Bizentek, antxina baten, martxan jarritako aldizkari hori.

Hainbat idazlan eder, albiste ta barri agertu dira aldizkari horretan bere bizitzako urte luzeetan.

Jaungoikoak berak bakarrik daki zenbat on egin dauan aldizkari horrek; zenbat gogo eta bihotz jarri dituan misio-garretan. Baina, lehenengo mailan, dudarik bage, umetxoen kartak datoz. Horreek dira txapeldun.

Zelako txukuntasuna, alaitasuna, umore ta poza jarten ditu Aita Joan Bizentek karta bakoitzean. Eta ez dira bost edo sei karta. Milakak dira.

Karta horretan dago argazkituta, goitik beheraino, Aita Joan Bizenteren nortasuna, haren bihotz, haren gizatasun neurrigabea.

Hortxe dogu iturririk garbiena Aita Joan Bizente zelako gizona zan ikusi eta ezagutzeko.

BERE SANTURIK GOGOKOENAK

Santa Teresa eta Jon Gurutzekoa

Aita Joan Bizente bai praile, bai apaiz eta bai herritarren artean oso ezaguna dogu.

Elizgizon lez aurrelari txapelduna; alor garrantzitsuak jorratutako langile trebea; batez ere, santutasun itzelez inguratutako misiolaria. Berarekin bizi izan ziran praile eta ezagunak, aho batez, autoritzen dabe santutasun tontorrean ikusten ebela bera. Santu izenez izendatzen eben alde guztietan.

Beraz, nongo iturritan edan eban gure Aita Joan Bizentek santutasun hori? -Hainbat askatan. Egarrri danak bidean aurkitzen dituan iturri guztietan makurtzen ditu ezpanak ura edateko. Santutasunaren bila dabilenari ere gauza berbera jazoten jako. Bidondoan aurkitzen dituan lora-txorta guztiak batzen ditu bere bizitzako bidea santutasun-lorez apaintzeko.

Aita Joan Bizentek ere bazituan bere biziko santu minak, besteen ondoan begiko zituanak; bere eredutzat hautatuta eukazanak.

Batez ere, bere bihotzeko aldarren santu biren irudiak eroiazan: Santa Teresa eta Jon Gurutzekoaren irudiak. Teresa, ama; Jon Gurutzeko, aita. Teresaren irakatsietan bihotza jantzi eta gizatu eban eta burua Jon Gurutzekoaren irakatsietan.

Mistika alorrean, erabat biak jakintsuak; alkarren eskutik doaz biak Jainko bideetan. Horregaitik ohoratzen ditu Eliza osoak goralmen eta aintza handiz. Bata eta bestea Eliz Irakasle hautatuak eta aipatuak digugu.



*Korellako karmeldarren elizako
S.Joan Gurutzekoa*

Guk egunero janaritzen dogu geure jakin-nahia; gauzak sakonetik ezagutzen saiatzen gara, munduko jazoerak eskuan eroaten. Horregaitik, egunero-egunero, izparringi, aldizkari eta gainetiko komunikabideak arakutzen ditugu mundu guztiko barrien jakitun egoteko. Bestela, ezaugera bage, gizon lez, erdikin geldituko gintzakez.

Jainkozko gizon eta emakumeak ere jokera bardina erabilten dabe euren gogojardunetan. Egunero elikatzen dabe gogoia oparotsu-oparotsu goitiko janariaz.

Elizako jakitunak idatzitako liburu marduletan aurkitzen dabe gogoaren janari edo azkurri hori. Gogozko irakurtaldi hau egunero

egitea gomendatzen dabe santutasun-mendira igoten laguntzeko gidari trebe diranak.

Gure Aita Joan Bizentek, zetan esanik ere ez, Santa Teresa eta Jon Gurutzeko izan zituan gidari kutun eta maisu argiak. Karmeloko Erreformatzaileak izatean, Karmeloko gurasotasuna ere euren dabe. Karmeloko anaidiak Teresa eta Jon Gurutzekoa, erabat aita-amak lez ohoratzen ditu.

Berezkoa da seme batek gurasoak maitatzea, haren irakaspide onak bereak egitea eta araubide horreetatik bere bizibidea zuzentzea. Horixe litzake seme onaren jokerea.

Horixe berberori izan zan Aita Joan Bizentek hautatutako bidea ere. Ama Teresaren eta Jon Gurutzekoaren irakatsirik adierazgarri eta esanguratsuenak buruz ekizan Aita Joan Bizentek, eguneroko ogi egin zituan eta.

Bere izkribu eta gogoetak haren esaera eta pentsamentuz beterik datoz. Karmeloko erreformatzaileen idazlanak izan ziran berak gehien erabiliak.

Karmeloko guraso eta irakasle biek zeharo maitemindurik egoan. Lur honetan sustraituta dator bere karmeldartasun guztia.

Lisieuxko Teresa deuna

Gerora, Lisieuxko zeru gainean, izar argi, distiratsu bat agertu zan: Ume Jesusen Teresa deuna. Gaur, mundu zabalean, oso ezaguna dan Lisieuxko Teresa deuna. Zeru erpin-erpinean dago kristauen bihotzetan.

Oraintsu, 1997an, ospatu dogu haren heriotzaren mendeurrena, ehungarren urteburua. Urte berean, urriko 19an, Aita Santu Joan Paulo II.ak, ia presaka, hori eskatzen eben, ba, teologo, misiolari eta kristau talderik eragileenak, Jainko Herri guztiaren aurrean, ofizialki Elizako Irakasle -Doktora- izendatu dau, omen eta ospe aintzagarriz.

“Ume Jesusen Teresa deunak irakatsitako santutasun bidea hain da ausart eta heldua, eta bere idaztietan fedeari buruz emoten dituan

ikuspegi eta ikasbideak hain zabal eta sakonak, ondo merezita dauko Elizako Jakitunen artean toki berezi bat Ume Jesusen Teresa deunak”, inoan Aita Santuak Elizako Irakasle izendatu eban ospakizunean.

Lasterketa azkarra Lisieuxko Teresak egina. Gutxik egin dabe hain bizkor santutasunera igoteko bide hori.

1873ko urtarrilaren 2an jaio zan Alençon-en, Frantzian. Beraz, Aita Joan Bizente baino 11 urte gazteago zan.

15 urtekin Lisieuxko Karmeldegi zarratuan sartzen da. 24 urte zituala, gaixoaldi gogor baten ondoren, 1897ko irailaren 30ean hiltzen da.

Urtebetegarrenean, bere nagusien esanari eder eginez, bere bizi-tzako zehaztasun eta gertakizunik urtenenak jakitera emonaz idatzi eban 12 atalburuko idaztinoa. Lisieuxko mojak, zerbait atonduta, argitara emon eben. Berehalaxe, liburuxka hori best seller mundiala bihurtu zan. Ekaitz erasogarri baten antzera, behingoan zabaldu zan mundu guztian zehar. Lisieux, urte hareetan, munduko bihotz eginik egoan.

Aita Santu Pio XI.ak, 1925eko maiatzaren 17an, 23 Kardinal, 250 gotzain eta mundu guztitik etorritako 500.000 kristauz inguraturik, ospakizun bardinik bageko baten, “SANTA” izendatu eban. Aita Santuak berak ere bere aitasantutzako “izarra” deitzen eutsan.

Eta 1927ko abenduaren 14an, gure Xabier deunarekin batera misio eta misiolari guztien Zaindaritza emon eutsan. Horra komentu zarratu baten bizi eta hildako 24 urteko mojatxo Misioetako Zaindari nagusi eginik.

Orain gatozan Aita Joan Bizenteren hurrera. Zelan hartu eban berak Santa Teresitaren agerkunde hori Karmengo zeruan?

Bihotz ikararik egin ete eutsan santa barriaren tximistako goralpen horrek? bihotz-ikaturik egin ete eutsan Santa Teresitaren haurtzaroko bide txiki horrek Aitagana heltzeko? Santa Teresitak santutasun alorrean zabaldutako bide eta era barriak ados etortekoak ete ziran haren pentsaera eta orain arteko jokaerekin?



*S.Teresa Lisieuxkoa, Misioen Zaindari
eta Eliz Irakasle*

Aita Joan Bizente, esanez gatozan lez, pertsona sendo, gogor, ausart, garratz samarra zan. Gurutzearen besoetan hazia. Teresa eta Jon Gurutzekoaren eskolakoa. Eta Teresak eta Jon Gurutzekoak gurutzapean idatzi eben. Ogi gogorra da hareek jaten emoten dabena euren idaztietan.

Hitz larri honek daroaz goiburu Teresaren idazpuruak; “Sufritu edo hil” Jon Gurutzekoarenak beste hau: “Gurutzea soil-soilik, besterik bage, gauza bitxia da”. Laba honetan erretako ogia jan eban Aita Joan Bizentek.

Lisieuxko Teresaren ikasbideak, ostera, santutasun gidaritzarako guztiz bestelakoak, desbardinak dira. Lehenengo lerrotik azken mugaraino, hitz bat darabil goiburu ta aurrelari: “Maitasuna”!

Maitasun bidetik daroa gizakia Jainkoaren bila. Ahul, indarge, haur txikitxo balitz lez, Jesusen eskutik, gozo-gozo, santutasun mendira igotea nahi dau santa Teresitak.

Horixe da bere bidetxo: Jaunaren errukiak kantatzea. Honen inguruan biribiltzen dau bere egiteko guztia. Arnasatik arnasara Jainkoa eta bere seme Jesus maitatzea.

“Jesusek nigan bere errukia distiratsu agertzea nahi izan dau”, dino Teresitak. “Ni txikia ta ahula nintzalako bera nireganaino jatsi eta ezkutuan bere maitasunaren gauzetan eskolatu ninduan”.

Maitasun-hotsa besterik ez da entzuten Teresaren ahoan. Entzun bere arnasaldiak: “Nik egin dodan guztia Jaungoiko onari atsegin emoteagaitik eta arimak salbatzeagaitik izan da. Ez dot neure burua maitasunari emotearen damurik izan. Ez neutsan maitasuna baino emon”.

Oi, ene Jainko, zure justiziak hartuko ete ditu soilik oparigaitzat eskeinutako arimak... Ez ahal dau zure maitasun errukitsuak ere beraien beharrik?. “Neu izan nadila oparigai dohatsu hori; kiskali zure erreoparia zeure jainko-maitasunaren suaz”. “Ah! emoidazuz mila bihotz zu maitatzeko. Baina hori, Jesus, oraindik gutxi da: zu maitatzeko emoidazu zure jainkozko bihotz berbera”. Nik maitasunarren nahi dot sufritu, eta baita gozatu ere maitasunarren”.

Honelantxe, liburu bat beteko genduke Santa Teresitaren irakatsi eta pentsamentuekin. Teresita maitasun-bidetik doa, hatz bat okertu bage.

Lehenengotan Aita Joan Bizentek, oraindik ondo ezagutu bage eukan eta, ez eutsan arreta eta adiera gehiegirik egin Santa barriari. Astia behar izaten da danerako. Santa baten irakatsi eta bizikerak ezagutzeko ere bai.

Aita Joan Bizente beti lanak gainezka eginik ibiltzen zan. Arnasarik hartzeko astirik bage. Honen erruz, bere alditxo behar izan eban Teresita sakonagotik ezagutzeko.

Baina, zertxobait ezagutu ebanean; Teresitaren izena izar bakoi-tzean idatzita ikusi ebanean, Teresitaren maitale sutsu bihurtu zan. Ez eban berba eta aholku gchiegirik behar izan, Teresita “bere arrebato” maitetzat hartzeko. Horraxeraino heldu zan gure misiolaria.

Hemen ikusten dogu Aita Joan Bizente barruz biguna, samurra, umetxoen antzekoa zala. Barruz Santa Teresitarekin antz handia eukan. Eta barrua onberatasunak, samurtasunak jarten dau taupadaka, mugidan.

Eta Teresita maitasunaren abeslari bakarra da; oraindik ez deutso inok emon maitasunari Teresitak ainako goitasunik, edertasunik. Aita Joan Bizente bertatik konturatu zan zehaztasun honekin eta, honen arabera, borborka edan eban Teresitak ezpanetan jarri eutsan maitasun-iturritik.

“Neba-arreba” bikoitzak lez ditugu, ordutik geroz, Teresita eta Aita Joan Bizente.

Liluraturik, ames eta ikuspegi barriz loraturik geratu zan Joan Bizenteren bizitza Santa Teresitaren maitasunezko haurtzaro hori, bidetxo hori, aurkitu ebanean. Santutasun mendira igoteko bide, bihurtune eta argitasun barriak aurkitu zituan Teresitaren irakatsietan. Gaur, gogoz aberatsago sentitzen da.

Beste aurkikutza barri bat ere egiten dau Aita Joan Bizentek: Santa Teresita goi-maitasunaren abeslari bikaina izanez gainera, “azken aldiotako santurik handiena dala, Erromako Aita Santuaren esanean.

Horrela aurkeztu dau gozokiro Aita Santuak munduaren aurrera. Hemen daukazue gaurko egunetako santarik handiena.

Eta hau gutxi balitz, gure Xabier deunarekin batera, misio eta misiolari guztien zaindari ere izendatzen dau, 1927ko abenduaren 14an.

Harrimena sortzen eban santa Teresitak Aita Joan Bizentegan. Teresitak idatzitako esaldi eta pentsamentu askoren oihartsuna mailu-hotsa lez, durunduka entzun eban bere sentimenean. Zirrara gogorra sentitzen eban barruan, batez ere, Teresitaren misio zaletasuna gogoratzean.

Ez eban halako zaletasun orokor eta beterik beste inorengan aurkitu. Ha zan arima egarri ase ezina! Begiak malkoz iluntzen jakozan Teresitaren hitzak irakurtean: “Nire heriotz ostean larrosazko euria jaurtiko dot lur gainera”. “Nire zerua munduari on eginez igaro nahi dot”. “Txikia nazela ere arimak argitu nahi neukez igarleen antzera; ikasleak lez “apostolu” deia daukat; lurra zeharkatuko neuke; zure izena oihukatu, eta sinisbakoen lurtean zure gurutz aintzatsua jarri... Baina, ene Maitea, ez litzakit misio bat nahiko izango, ebanjelioa iragarri gurako neuke, aldi berean, munduko bost alderdietan, urtinen dagozan ugarteetaraino”.

1925eko maiatzaren 17an, Pio XI.ak santuen zerrendan, aldarari, jarri ebanetik geroz, Aita Joan Bizente Teresitaren maitale kutun eta jarraitzaile zintzo eginik ikusten dogu. Gaur geroz, ardatz bi honeen gainean eratuko dau bere bizitza guztia: Santa Teresita eta misioak.

La Obra Máxima, bere aldizkari misiolarian, txoko berezi bat gordeko dau jendeak Santa Teresitaren bitartez lortutako mesede eta laguntzak argitara emoteko. Hilero-hilero, hutsik bage, munduan zehar Teresitaren inguruan jazo diran gertakizunik urtenez batuko ditu bere aldizkarian.

Alkarri idazten deusguzan gutunak ere misiolari bihurtu nahi ditu Aita Joan Bizentek; horretarako Teresitaren irudiarekin, hamabost milioi seilu aterako ditu gutunari bialtzean gainean, atzeko aldeetik, jarteko.

Teresitaren irudiarekin beste 1.400 kutxatxo kaleratuko ditu etxerik etxe ibiliaz, misioentzat dirua bilatzeko asmoz. Teresitaren goralpenez bederatzaurren labur bat ere idatziko dau; milioika estampa, otoitz, orri eta albiste...

Hor dogu gure Aita Joan Bizente erdi zorabiatuak Lisieuxko santatxoarekin. “Zeru eta lurretako zoragarritasuna zala”, esaten eban. Honako lore eta hitz gozo asko esaten eutsazan bere bihotzeko maitañoari.

Orain gehiago. Santa Teresitaren bizitza gaitzat harturik, peliku-

la bat egin nahi dau, ateismoaren kontra ikasbide ederra izango zala-eta Teresitaren bizitza garbi eta eredugarria.

Horren atzetik dabil. Pariseraio joateko asmoak ditu pelikula hori egiteko eratasun eta ahalbideak zenbaterainokoak izan eitekezan jakiteko. Baina, asmo hori bertan behera itzi behar izan eban, nagusiak pelikula horren beharizanik ez eben ikusten eta.

Santa Teresitari eskatutako mesedeen bat lortu bage gelditzen bazan, ez zan hasarratzen horregaitik. “Zeregintsu ibiliko da gure Santa Teresita eta ez eban astirik izango nire errekuak entzuteko”, esaten eban berak. Egonarriz errotan ekizan gaitzak.

Santa Teresitak beragan itzitako maitasun-zauria, arrastoa, norainokoa izan zan jakiteko, bere zahartzaroko urteetaraino igon behar dogu.

Jaungoikoari oso-osoan emona dago, baina oraindik aurrerago joan nahi dau. Bere burua Jaungoikoaren maitasun errukitsuari oparigaitzat eskeini gura deutso, Teresitaren antzera.

Hirurogeita zortzi urte ditu. Zahartzaroan sartuta dago. Iruineko komentuko bakartadean, bere gela txiki eta pobrean ezkutauta, ixiltasun osoan, inor ikusi bage, bera eta Jaungoikoa bakarrik solasaldi bero eta sakonean sartuta.

Hantxe hartu eban Jaungoikoari bere burua oparigaitzat eskeintzeko erabagia. Bihotza eskuetan ebala idatzi eban opari txartel hori; guk, barriz, belauniko irakurri behar genduke inozkoren baten geurea egiteko asmoz.

Honela dino oparigai lez eskeintzen dan txartelak.

Iruinea, 1930eko urriak 14

“Gogo-iñarkun honeetan, ene Jaungoiko maite, zure amaibakoko Maitasun errukitsuari, Teresitaren antzera, errekuentzako -holokaustozko- oparigai lez eskeintzen naiako.

Ni eta nire gauza guztiekin baliatu zaitezala zeure gogo santuaren nahira. Beste ezer baino lehen, beti zure poza izate-

ko gurari bizia emoidazu. Bete dagidazala nik zure gurari eta asmo guztiak. Datorkidan guztia Zeugandik datorkidala gogoan izanik, ez dagidala ezertxo ere baztertuta, bete bage itzi.

Zu maitatzea da nire hemengo zeregin bakarra, nire maitasunarren hil zinan Jainko-Gizona, eta baita beste gizakiak zure maitasunera ekartea ere, beraien egarriz zagozan miloika sinisgabeen arimakandik hasita.

Jauna, erruki zakioz zahar honi, ez izan gogoan nire lehenagoko desleialtasunak. Eta zure nahia bada, une batetik bestera, ni serafin bihurtzeko ahalmena dozun ezkerro, egidazu grazia hori, ene Jesus.

Neure hirurogeta zortzi urtekin berandu nabil, baina Zuretzat ez da inoiz berandu, mila urte egun bat lez dira-eta.

Andra Maria zure Ama eta nireagaitik, Jose dohatsua zure aitorde eta nireagaitik, Santa Teresa gure ama eta Gurutzeko Jon gure aitagaitik, bata eta bestea Karmeloko serafinak, eta ebanjelioko haurtzaroaren irakaslea dan Santa Teresita gure arreatxoagaitik, maitatuaz maitatzen bakarrik dakien ume txikitxo egin nagizu.

Honez gainera, lagun hurkoarekiko harremanetan zure bihozberatasuna erabilten ikasi behar dot, oh Jesus. Gaur geroz, Zeuk behin esandakoa “nire anaia oneitariko txikiren bati egin zeuntsena neuri egin zeusten” hori, beti gogoan eronaz, lagun bakoitzagan, batez ere belaunikatze bakoitzean, oh nire betiko Maitasuna zaran hori, Zeu ikusi, Zeuri hitz egin eta Zeu zerbitzea emoidazu”.

Benetan hunkigarria oparizko eskeintza hau!

Xabierko Frantzisko deuna

Aita Joan Bizentek bihotzez maitatu eban beste santu bat gure Xabierko Frantzisko, Misiolarien Zaindari nagusia izan zan.

Esan genduan lez, Indiara helduaz batera, Goa-ra doa Xabier

deuna agurtu eta omentzera, han baitago Xabierren gorpu hila, katedral nagusian.

Indian, misiolari ibili zan Xabier deunaren babespean jarri nahi dau Aita Joan Bizentek bere misiolaritza. Durditurik, bihotz-ikarak jota, sena galduta lez, ikusten dogu otoitz ixilean Xabierren oinetan.

Han dago Xabier misiolarien Aita, bera letxe euskalduna, hizkuntza berbera edan dabe biak amaren bularrean; biak Jesusen maitale ta jarraitzaile aurrengoak; biak eroan ditu Indiara barruan kiskaltzen euken arima-egarrri ase ezinak, biak misio-lur berbera zapaldu dabe; biak misio- ikurrina goi-goira jaso; biak Euska Herritik joan diran misiolariak: bata naparra eta bestea bizkaitarra, adiskidetasunezko laztana emon eutsen alkarri erraldoi biak Goako urrunean.

“Xabierren arpegia, dirausku Aita Joan Bizentek, izerdiaren darioak zimelduta ikustean, eta haren eskuak, hainbeste bateo eginak begiratzean, nire malkoak beste hitz guztiak baino hobeto iragarten eben, nire bihotzaren hunkigarritasuna eta, une haretan, apalik eta barrendik, Xabier bedeinkatuari India ta munduaren alde sutsu eskatu neutsan”.

Aurrerantzean, Xabier deunaren goralpenak sarritan abestuko ditu bere aldizkari eta hitzaldietan. Egunero zuzentzen deutso barneetik datorkion otoitz beharrezkoren bat.

Xabier deunak, Malabar zabalean, zapal dutako lurralde berberak zapaldu eta bertan misiolari izateak, poztuaz gainera zorionsu egiten dau. Hortik, Aita Joan Bizentek Xabierganako eban jaiera.

Jose deuna

Jose deunak beti izan dau txoko berezi eta txukun bat Karmeldarren artean. Teresa Amagandik hartuta daroe jaiera eta zaletasun hau. Guraso ta zaindari bati dagokion ohorezko tokian ikusiko dozu Jose Dohatsua karmeldegi guztietan.

Arazorik gaitz eta bihurrienak Jose deunaren babes eta zaindartzapean jarteko ohitura zaharra dago karmel etxeetan.

“Eskatu eta eskatzen dozuen guztia emongo deutsue San Jose bedeinkatuak”, esaten eban Ama Teresak. “Egin Proba”!

Aita Joan Bizente praile hain zintzo eta jainkotiarra izatean, Jose deunaren maitale jatorra nahitaez izan behar. Honetan ere aurrelari ikusten dogu.

Markinan egoala, Jose deunaren omen eta goratarrez egiten ziran elizinguruetan -prozezioetan- andarien lepoan erabilten eben irudia zaharra eta penagarria zala-eta, Aita Joan Bizentek Jose deunaren irudi barri eta eder bat ekarri eban.

Bere eguneroko meza ere, ahal eban guztietan, hutsik bage, San Josereren aldararen emoten eban. Bere arazo eta beharrianak gainezka eginik, bihozbeteturik aurkitzen zanean, Jose, bere babesle zerutarren esku izten zituan bere burukomin guztiak, Jose laguntzaileak konponduko zituanaren itxaropenean.



Iruñeko Karmeldarren S. Jose irudia

Indian egoala, eliza handi eta eder bat jaso eutsan Nazareteko arotzari. Ez eban ulertzen misioa Jose deunaren elizarik bage. Honek min zorrotza emoten eutsan.

Eliza barri hori egiteko, Chengalan izeneko auzunea aukeratu eban, edonorantz begiratu, ikuspegi ederrak dituan txoko zoragarria. Ez eukan txakur txiki bat eliza egiten hasteko, baina arazo hori San Jose berberaren eskuetan itzi eban, San Josek bere zeregina ondo beteko ebala jakinik.

Bera, behinik behin, lanean hasi zan. Oholtzar batzuekin, txabolararen itxurara, eliza antzeko bat egin eta hantxe biltzen ziran bere kistarrak meza eta gainetiko elizkizunetarako.

Aldaratzat mahai zahar bat; gurutzetat egur mutur bi alkarri jositak; gurutzapean, hormatik dingilizka, lauki baten sartuta San Josereren paperezko irudi ilun bat. Pobre, baina hantxe egoan San Jose, aldar barria itxaroten.

Ekin eta ekin, azken baten, amaitu eben eliza barri hori. Baita dotore jantzi ere. Elizaren irikitzea, zabaltzea, handikiro eta ospetsu egin eben.

Indiarrak horretarako dauken trebetasunez gertau zan inaugurazinoko ospakizun hori. Gotzain jauna, apaiz eta misiolariak urrinetik etorritako kristauak, danak partaide eliz jaietan. Bazan han poza, abestia, dantza ta musika zaratatsua, batez ere, San Josereren irudi barria ondo eta dotore jantzia, ibildeunean, eliza barrira eroatean. Ez eban ahaztu egun hori Aita Joan Bizentek bere bizitzako egunetan.

Zalantzarik bage, Jose deunaren maitale zintzo izanik bizi eta hil zan gure Aita Joan Bizente.

Andra Maria

Gizakiak aita-amak ditu maiteen lur honetan. Berezkoa da hori. Odolaren eta haragiaren lege bat.

Erljio arlorra joaz, Jesusen hurrengo, kristau herriak maiteen dauan emakunea Andra Maria, Jesusen Ama da, Jesusen gurariz gizon eta emakume guztien ama dalako.



Markinako Karmengo S. Joakin eta S. Anaren aldarea

Nok ez dau maite Andra Maria? Nok ez deutso iriki hor barruko txokoan aldara bitxi bat? Nik uste kristau zintzo guztien bihotzetan daukala aldara hori.

Aita Joan Bizentek ere bere amaren bulerrian edan eban, txikitatik Andra Mariarenganako joera hori.

Beste ezer baino lehen, erlejotasuna arnasten zan Zegotitako baserrian.

Merzedeko Amaren ondoan jaio zan, horma bat bitarteko zala baserriaren eta Merzedeko Amaren artean. Etxeko lez zan Merzedeko Ama Joan Bizenterentzat. “Birjina eder Marija, Merzedeko Ama maitea”, holantxe deitzen eutsan beti bere Merzedeko Amari.

Bere oinetan hainbestetan belaunikatu zan Merzedeko elizan meza- mutil zala. Haren gerizpean hazia zan. Han emon eban bere haurtzaroa. Ama Birjina huts-hutsean, besteko izenik jarri bage maite eban. Baina, orraitio, Merzedeko Ama eta Karmengo Ama beraien izenez aipatzen zituan sarritan.

Indiatik bere etxekoei idatzitako eskutitz baten haxe dirautse: “Eskutitz hau Merzedeko Amaren egunerako helduko jatzue. Zuek maitekiro eta pozez ospatuko dozue; ni ere hor izango nozue gogoz zuen artean. Asko zor deusat nik Birjina bedeinkatu horri”.

Aita Joan Bizenteren ume denboran, kristau sendietan, ilunabarran, Andra Mariari errosarioa esateko ohitura zaharra egoan. Zengotitan ere, iluntzero, sutondoaren inguruan jarrita, Errosarioko Amaren irudi baten aurrean, errosario santua esaten zan. Hutsik bage. Errosarioa amaitzerakoan, barriz, Ama Birjinaren irudiari han egozanak mosu bat emoten eutsoen, irudi hori eskurik esku igaroz.

Aita Joan Bizente Indietatik etorri eta gero, bere baserrian aurkitzen zan baten, beti lez, etxekoak agurtza esan eben eta poza hunkituta lez ikusi eban bere burua, bere denboran ere holantxe egiten zala eta aurrerantzean ere horrelantxe jarraitzeko esanez.

Berak, zetan esanik ere ez, egunero esaten eutsala Andra Mariari otoitz gozo eta sentikor hau.

Karmeldar izateko deia Ama Birjinaren ahotik entzun eban Markinako karmeldarren elizan. Larunbata zan. Praile karmeldarrak kandela biztuak eskuetan eta kapa zuriak soinean, eliz erdian lerrotuta, Karmengo Amaren “Salbea” abestu eben, euren ohitura zan lez. Ederra da izan ere Salbe hori. Edertasun harek bihotzean jota itzi eban hamabost urteko mutila.

Etxera heldutakoan, Amagana doa Joan Bizente gaztea eta karmeldar izan nahi dauala dirautso. Eta amari autor dagitso dei hori, erabagi hori Markinako praileen Salbea entzutean hartu dauala eta, beraz, Karmenera sartzeko gertakizunak egiteko eskatzen deutso.

Profesa nagusia egin eban egunean, jakinik Jaungoikoari eta Karmengo Amari betiko eta oso-osorik eskintzen zala, bere guraso eta etxekoak ere eskeintza horretan parte hartzea nahi dau.

Eta eskari hau egiten deutse etxekoei: “Zuek ere oparitan eskei-ni nagiozue Jaungoikoari eta, bide batez, eskatu ez nagiala inoiz bere eskutik itzi. Eta baita eskatu, arren, une batetik bestera, bere seme-tzat hartuko nauan Karmengo Amaren menpeko leial eta seme ona izan nadila beti, hauxe baita nire oparitzako gurari bakarra”.

Gaur geroz, unetik unera, bere bizitza guztia Andra Mariaren maitasunean eta zerbitzuan jarrita dago. Dana Mariarentzat, dana Mariarekin, dana Mariagaitik, horretan agortuko dau gaur geroz bere bizitza guztia.

Bere idazti, hitzaldi, bere lan, gogoeta, joan-etorriak, abadegin-tza, misiolaritza, bere aldizkari *La Obra Máxima...*, dan-dana Ama Birjinaren magalpean jarriko dau.

Nahiko da *La Obra Máxima*, bere bihotzeko aldizkaria irakurtea, Ama Birjina Aita Joan Bizenteren erraietan noraino sartuta egoan jakiteko. Andra Maria dator aurrelari bere egintza guztietan. Amaren gozotasunean barnetuta bizi da.

La Obra Máxima aldizkariaren lehenengo alea argitaratu ebanean, Karmengo Amaren argazki eder bat jarri eutsan azalean, otoitz hau oinean ebalatzen: “Zeurea da, Ama, Karmengo Ordena, zeurea karmeldarren misio- lana... Horregaitik misio eta misiolarien egintzak ezagutzera emoteko, gaur, lehenengoz plazaratzen dogun misio-aldizkari honetan aurrenengo tokia zurea da. Seme onei dagokien lez, dana zeure izenean eta babespean egin nahi dogu”.

Ama Birjinaz mintzatzen zanean, haren hitza ezti gozo bihurtzen zan. Debozio honen frutu guriak dira berak Karmen alorrean sortu-tako hainbat gauza eder: “Karmengo Amaren Astea”, “Mariaren Koruak”, etxerik etxe ibiltari dabiltzan “Karmengo Amaren eta Santa Teresitaren kutxa Misiolariak”.

Honez gainera, gorago aipatu dogun lez, 108 orrialde dituan liburuxka bat idatzi eban euskeraz: *Carmengo Anaije edo kofradentzat eskuliburua*.

Aita Joan Bizente dana Ama Birjinarena bazan, Ama Birjina dana Aita Joan Bizenterena zan.

BERE ABADETZA

Aita Joan Bizente apaiza da. Eskuak Olio Santuz igurtzita daro-az abade lanetan jarduteko. Badaki zeregin oso astuna dana. Gaitza ere bai.

Jesusen ordezkari itza norberagan eroatea nahiko da, besteko barik, gizakia dardaraka jarteko. Bihotz handi eta zabala behar da Jesusi orpo orpo, desleialtasunik bage, jarraitzeko.

Buztinez eginak gara eta buztina erraz okertu eta zati egiten da. Beraz, ardura handiz eroan behar dogu ontzi hori eten ez dadin. Hau eta guztiz ere, giza lorratza itziko dogu beti bidean. Gizonak baika-ra.

Hortxe dago abade baten handitasuna: zailtasun guzti horreek gainditu eta Kristori hutsik bage, jarraitzean.

Honako elizgizona zan gure Aita Joan Bizente. Jesusen ordezko izateko deitua izan da; Jesusen deia argi eta bizi sentitzen dau bere barruan.

Jesus berberaren antzeko izan nahi dau hartutako eginkizun eta zereginok Jesusen modu eta duintasunez betetzeko. Jesusen pentsae-rak bereak egin; Jesusen barruko garra; Jesusen hizkera eta iraka-tsiak; Jesusen izakera berea egin; Jesusen antzera, maitasunaren indarrez, munduko bideak jendeari on eginez igaro.

Liburu hau orriz orri arakatu dogunok jakinean gagoz Aita Joan Bizentek baldintza honek ezin hobeto bete zituala; Jesusen jarrai-tzaile eta apostolu jatorra izan zala. Apostolutzan eta misiolaritzan gorengo mailaraino heldu zala. Ez dago honen ezpairik. Munduari on eginez agortu eban bere bizitzaldia gure praile bizardunak.

Baina, Jesusekin izan zituan barruko, buruz buruzko harremanak zelakoak izan ziran?

Hau jakin nahi genduke, hemen baitago santutasunaren sorburua. Bihotzen lotura horreek markatzen dau maitasunaren sakona, beroa, maitemina grina.

Abade onak, fedez daki, sagrarioko atetxoaren ostean, ogi ta ardao irudipean, egiaz eta benetan, Jesus berbera dagoala bere gizatasun guztiarekin, Jaungoiko ta gizon era batera, gizakiaren maitale, ongile, adiskide, gidari, janari eta salbatzaile izateko.

Hortik, sagrarioa da Jesusekin egoteko ikustokia. Maiteminduen egoitza txoko txiki eta gozo horretan dago. Han aurkituko ditugu Jesusen maitale eta benetako jarraitzaileak.

Urteetan berarekin bizi izandakoen autormenak egiak badira, Aita Joan Bizente sagrarioarekin grinaturik bizi izan zan bere bizitzaro guztian.

Bitartetxo bat aurkitzen ebanean bere zereginetan, unetxo hori sagrario aurrera joateko hartuko eban. Etxean aurkitzen zanetan, pitean-pitean, aldarako Jaunari ikustaldi laburtxo bat. Esku bete hitz esan behar Jesusi. Lana eten, edo bidea okertu, eta sagrarioa bete-betea. Maitasun handia behar da horretarako. Ez dau hori edozeinek egiten.

Goizeko lau t'erdietan zutik, jagita egoan. Bostetatik zazpirak arte eguneroko meza eta otoitzaldia. Ordurik gozoenak berarentzat. Zelako maitasun garrak irtengo eben Aita Joan Bizenteren bihotzetik Jesusekin hizketa beroan murgilduta egoanean!

Entzutekoak izango ziran, zinez, haren urrunadak! Lanean egoala ere, ixilean, sarri-sarritan, sagrarioa. Ez eban ordurik galduko sagrarioa hurreratu bage. Berezko joera eban hori. Erlojuaren sona entzutean sagrarioa.

Honelan autortzen dau Garbisu jaunak luzaroan Aita Joan Bizenterekin *La Obra Máximan* lagun eta lankide izan zanak: "Goiz eta arratsalde, hiru edo lau aldiz, lana eten ohi eban bere ikustalditxo egiteko".

Aita Santu Paulo VI.ak esaten eban lez, "esker onaren ezaugarri, maitasunaren mendu eta doe, Jaunari zor deusagun gurpenaren adierazpenak dira ikustaldi horreek".

Garbisu jaunaren antzeko berbak jasoten ditugu, han edo hemen, Aita Joan Bizenterekin bizi izandako guztien ahotik. Eguna labur egiten jakon, eten bage, esku artera heltzen jakon lan astunari erantzuteko; horregaitik, askotan, gauerdirate geratzen zan lanean. Orduantxe ere oheratu aurretik, aldara aurrean egotalditxo bat egingo eban. Besterik ez bazan Jesusi agur esan, gabonak emon.

Aita Probintzialak Aita Joan Bizenteren gauerdiko ibilerok jakitean, jokaera hori bere osasunaren kaltekoa zala-eta, zeharo debekatu eutsan ohitura hori. Hamarretako ohera.

Jaunaren agindua balitz lez, zintzo-zintzo bete eban aurrerantzean Aita Joan Bizentek mandatu hori, Jaungoikoagantik etorritakoa izan balitz lez.

Sagrarioko Jaunari agur egitean, eskumako belauna lurra ondo joteraingo makurtuko eban, bestela belaunikatze hori ustela izango zan eta, behin eta barriro, egin beharko zan lurra guztiz jo arteino, hori markatzen eban, ba, liturgi arauak.

Aho betez, gogo betez, barneko pozetan gainez, esaten eban bere eguneroko meza. Santu baten irudia agertzen ei eban meza emotean.

Haren antz-irudia, jasa, taxua, barnetasun eta gogo-berotasuna ikustekoak bihurtzen ei ziran, askoren esanean. Behin baino gehiagotan negar-malkoak jausten ei jakozan begi ondoetatik behera.

Ogia Jesusen Gorputz eta ardoa Jesusen Odol bihurtzean, gero bere eskuetan eukitean eta azkenez, bihotz barruan janaritzean, nok esan haren barruan ibiliko zan zurrumbilola!

Jaungoikozko sentimen guztiak borborrean, gainezka egin nahian ibiliko ziran, ziur, Aita Joan Bizenteren gogo-bihotzetan.

Elbarritasun larriak jota gaixotu zanean, zertxobait berenez baliatzen hasitakoan, Aita Probintzialaren eginbidez, bere gelan jesarrita, meza emoteko baimena etorri jakonean ere, bere ezintasunean, sagaratze -konsagrazio- orduan, Jesusen Gorputz-Odolak gurtzerako

goratzean, ahalak egiten zituan albait goren jasoteko.

Bere apaltasunaren barnean, sinistuta egoan bera ez zala gaixo-aldian berari eginiko grazia hain handi honen duin.

Eukaristiaganako zaletasun bizi hau bere gogoan haragi eginik eroian; bere harribitxi gardena lez.

Behin Indian egoala, gotzain jaunaren aginduz, misio-egoitz edo estazio barriak aurkitzeko asmoz, urrunetako lurralde batzuk ikustatu eta arakatzera Joan zan. Paganoen lurrak ziran. Eritxia eukan lurralde guzti haretan ez ebala toki egokirik aurkituko eguneroko meza santua emoteko. Ibilaldi luzea zan egin behar ebana.

Zorroa lepora bota eta bidaigaiekin batera esku-aldara bat eroan eban meza hori toki egokitxo baten emoteko, baekian elizarik ez ebala aurkituko alde haretan eta.

“Ezinezkoa da, idazten dau berak, holako bidaldi luze bat, eza-gutzen ez dozuzan mendi, baso eta herrietan zehar egitea, eukaristiaren laguntzarik bage. Nahitaez, bidekoen janaria dan eukaristiaren indarra ta adorea behar dituzu. Ez nenkian gaua igaroteko aterpetxo bat izango nebanik, hori gaitz egiten jatan askotan, baina meza emoteko, zerupeko haize zabalean, beti aurkitzen neban baztertxo bat.

Esan ezinezko poza sentitzen dozu barruan, Hosti santua eskue-tan hartu, haren aurrean belaunikatu eta gero zerurantz gora jasoten dozunean, oraindik inoiz meza bat emon ez dan zerupean eta, behar-bada, sekula santa gehiagotan emongo ez dan tokian eta, gainera, idoloen gurtzapen lohiekin zikinduta dagozan lurraldeetan”.

Gorpuzti

Gorpuzti eguna bere biziko handitasunez ospatzen eban. Hosti santuak igaroko eban bidarte guztia platano-adarrez eta lora zuri-gorritz jantzita ikustea izaten jakon atsegin.

Gero, musikagailuak, txintxirri, joale eta abestiak. Holakoetan aurkitzen zan bere barne-giroan. Hor bere pozetan.

Mezako orduak ziran harentzat lureko ordurik zoragarrienak. Meza santua bitarteko dagoanean, beti gauza polit, gozo, ezti eta sentikorrak idazten ditu.



Joan Bizente Berrizen, bere familiako umetxoen lehenengo Jaunartzean

Kañerapally zan Indiako herritxo horren izena. Ez zan inoiz mezarik emon bazter haretan. Gaur emoten da lehenengo aldiz. Eta Aita Joan Bizenteri suertatu jakon meza hori emotea. Pozaren pozez eztitan dago gure gizona.

Simeon zaharra lez, bihotzari eutsi ezinik, Jaungoikoa goraltzen hasi da. Pozkarioaren ahoz, honela abestu eban:

“Bedeinkatua mila ta mila bider Jaungoiko gure Aitaren errukia eta ontasuna eta goitasuna eta bere kutuntasuna!

Gure bizitzak une gozo asko ditu, baina bat bera ez misiolariak hartzen dauan poza lakorik zokondo ixil baten, orriz egindako teilapean, kristau egin barriz inguraturik, bere seme Jesusen Gorputz-Odolak zeruko Aitari eskeintzen deutzazanean lakoxerik.

Katekista zahar batek zuzentzen zituan mezako eskari eta abestiak. Mezerdira heldutakoan, sagarako orduan, Hosti santua gora jasoten ikustean, bihotz-zirrarak jota, begiak negarrez, mutututa gelditzen zan aurrea jarraitu ezinik; begi asko ikusten nintuan inguruan negarra dariola”.

Bera ere horrelantxe aurkituko zan, ziur baten, ezaguturik haren bihotz samurtasuna. Hitz honeekin amaitzen dau bere historiatxoa: “Zetan esanik ere ez, egun hori niretzat neure bizitzako egunik handienetariko bat izan zala. Munduko errege eta handiki guztiak baino zorionsuagoa sentitzen nintzan ni”.

Haren gaixoaldiko mezak ere aipatu behar ditugu hemen, aipatzekoak dira eta.

Gaixoaldiak gizakia beste eremu, beste maila baten jarten dau. Batez ere gaixoa Jaungoikozalea danean, bere barnetasuna bigunagoa, samurragoa, laztanagoa bihurtzen jako. Jaungoikoagandik hurbilago sentitzen da eta honek harreman lotuagoak sortzen ditu Jesus eta gaixoaren artean. Maitasun honen beroa ta samurtasuna agiriago nabari da orduan.

Luzaro baten, haren meza-laguntzaile izandakoaren baieztapen sinisgarria dakargu hemen: “Ebanjelioa geldi-geldi, astiro, irakurten eban, ez ezinagaitik, hitz bakoitza, zehatz eta mehatz, ahoskatzen ebalako baino. Ebanjelioa xurgatu egiten eban.

Bizi eta hilen izenak gogoratzean ixilune luze-luzea egiten eban; sagaratze orduan, barriz, bere arpegia antzaldatuta agertzen zan, estasiak hartuta lez. Ikuskizun honek hunkituta izten ninduan ni. Santu baten meza zan”, dino gure meza-laguntzaileak.

Gorago esan dogun lez, Aita Joan Bizente gizon guztiz otoizalea zan. Koru bazterrean edo sagrarioko ilunabarrean ordu luzeak egiten zituana.

Otoitzaldian, edo zutik edo belauniko egoten zan, geldi-geldirik, zirkinik egin bage, harrizko edo zurezko irudi bat balitz lez.

Elizan inor ez egoanean joaten zan askotan eta, orduan, ahotsa goratuz, ozenkiro otoitz egiten eban. Bakarko otoitz hau entzuteko erea izan ebenak autor daben lez, Aita Joan Bizenteren otoitz burua arimen salbamenerako zuzendurik egoten ei zan. Arimen egarria beti!

Inozkoetan, ahopeko berbotsa, marmarra, zurrumurrua ere entzuten ei jakon. Haren bihotz beroaren borborra.

ABADETZAKO 50 URTE

Urteak joan eta urteak etorri, gizasemeen legeari jarraituz, Aita Joan Bizenteri ere mezako urrezko ezteguak egiteko eguna heldu jakon.

Urrezko eztegu horreek 1935eko martxoaren 10ean ospatu ziran. Goi horretara heldu diran apaiz guztientzat egun hori pozgarri eta zorionsua izaten da. Ez horrelan Aita Joan Bizenterentzat. Harentzat egun bildugarri bihurtu zan.

Bere baitan, ixilean, pozik igaroko eban jazokizun gogoangarri hori Jesusekin batera, biak maitasun berberean bat eginik. Horren zalantzarik ez dago.

Haren kezkek kanpotik etozan. Bere omenez gertautako jaialdi ofizialak emoten eutsan burukomina. Bere bihotz biguntasunaren bildur zan. Ziur egoan bihotz samurtasun horren erruz, barregarri agertuko zala danen aurrean, bihotza egun horretan negar-iturri eginik ibiliko zalako.

Gorago ikusi dogun lez, guztiz sentibera zan bera. Ziobide txikienagaitik negarra eban begietan. Aita Probintzialari itzalez agertu eutsan bere bihotzaren hunkigarritasun bigun eta samur hau. Eta bere onagaitik, arren, jaialdi hori ixilean izteko apalik eskatu eutsan.

Baina, Aita Probintziala ez zan Aita Joan Bizenteren eskarietara makurtu.

Ez da argia mahaipen eukiteko. Horrelantxe, Aita Joan Bizentek berrogeita hamar urte barruan eginiko lan izugarria, eredugarria, munduaren erdian berak biztutako misio-sugarra ez zan ixilean itoitekoa, itzaltzekoa, eta, Aita Joan Bizenteren eredugarritasun hori saritzeko, Aita Probintzialak ohorezko jaialdi nagusi hau gertatu eban bere karguko aholkulariekin.

Jaia ospe handienarekin egin zan. Han egoan Aita Probintziala bere aholkulariekin, Aita Joan Bizenteren besoetan, honi karmeldar Anaidiaren izenean zorionik beroenak eta laztanenak emoten.

Egun horretan, Aita Joan Bizentek hartutako zorion agur eta gutun guztiakin mendi-tontor bat egin eikean. Horrenbestearaino maite eban bere inguruko jendeak.

Erroma aldetik, Aita Jenerala ere sartu zan jaialdiaren jokoan. Guillerno zan bere izena. Jeneral izendatu aurretik, Ordenako Misioen diru-arduradun eta zaintzaile izan zan. Beraz, antxinatik, lagun eta adiskide zaharrak biak.

Ondo ezagutzen zituan Aita Jeneralak Joan Bizenteren lan eta mirari guztiak. Baekian goi-goitikoak zirala.

Horregaitik, Aita Santuak, Aita Joan Bizenteren urrezko eztegu horreen oroigarritz, bere eskuz izenpetuta zorion-gutun agiria, bedeinkapen bereziarekin, bialdu eutsanean, Aita Jeneralak hitz honeek idatzi zituan Aita Joan Bizenteren goralmenez:

Agurgarri eta maitagarri zaitudan Aita Joan Bizente: Zure abadetzako berrogeita hamargarren urtea betetzean, zuri eskerrik bero eta zintzoenak emotera natorkizu, zuk mundu zabalean dozuzan beste miresle eta adiskide askorekin batera.

Ospakizun aintzagarri hau aurrebide dala, zuri nire ederespen, esker on eta benerazio guztia agertu nahi neuskizu. Ondo merezita dozuz esker on guztiak zuk hainbeste urteren buruan misioen alde egin dozun lan borobil eta txalogarriagaitik, baita karmeldar erlijioso lez beti emon dozun jarraibide zintzo eta eredugarriagaitik. Karmeldar eta misiolari lez gizandi izan zaitugu.

Ziur nago honako sentipenak sortu dirala, gaur, zu eta zure apostolutza-lanak ezagutzen dituenen bihotz guztietan.

Malabarko oihan zabaletan hasi eta Espainia eta Ameriketako bihotz askoren aldetik eskertua eta goraldua izan-go da beti zure lan bikain eta hunkigarria.

Zuk Indiako lurraldeetan ereindako haziak frutu ugariak emon ditu. Zure ahotik fedea hartu eta zure eskuz bateatutako kristauak izango dozuz zure koroerik ederrena Aitaren etxera sartzeko orduan.

Bitartean, hemen lurean, zure bihotzeko seme maite dozun La Obra Máximaren bidez misio zaletasuna ugaldtu eta gizakiak federa ekarten gogotsu jarraitu.

Hartu, bada, Aita agurgarri horrek, Ordena eta Eliza guztiaren izenean gure eskerrik eta zorionik zintzoenak berrogeita hamar urte honeetan Eliz alorrean egin dozun on guztia-gaitik. Saritu zagizala Jaunak esku zabalez.

Aita Santuak bialdu deutsun bedeinkapena neure egiten dot bihotzez, Nik ere neure zorionik beroenakin, esker onez, bedeinkatzen zaitut.

Guillerno, Jenerala

Fede Zabalkundeko Kongregazioak ere zorion atsegingarriak erakutsi eutsazan bere abadetzako festaburuan. Aita Joan Bizente oso ezaguna zan Kongregazio horretan. Bertako lankide askorekin harreman estuak izana zan.

Hortik, berak abadetzan eta misiolaritzan egindako lan zabal eta beteak goralmenik handienak jaso zituan beti Kongregazioaren aldetik.

Ondo merezitako zintzo-sari eta eskergarri lez, Fumasoni Kardinal Txit agurgarriak, eskutitz agiri bat bialduz, lehen, oinezko misiolari zanean, Verapoly aldean ereindako kristau haziagaitik eta, orain, Aita Santu Benedikto XV.ak, bere ahoz, abegitsu bedeinkatutako *La Obra Máximaren* eraginez kristau herrian dagin lan eder eta goragarria saritu nahi izan eutsan Kongregazioak idazki horren bidez.

Esker ona erakutsi eta zorion bedeinkapenez beteak opatu Aita Joan Bizenteri bere jai handian.

Indiako misiolariak ere, zelan ez, partaide izan ziran urrezko eztegu jaian.

Hamazazpi urte luzetan, bere oinez eta izerdiz zapaldu zituan Aita Joan Bizentek Malabarko lurralde zabalak. Aita joan Bizente euren zana, eurak lakoxe misiolaria. Han egozan oraindik, bigun eta fresko, Aita Joan Bizentek mendi eta bideetan itzitako lorratz eta oinarrastoak.

Han egozan tente, zutik, Verapoly, Ernakulam, Alwaye, Chattiathe, Chengalam, Kottayam eta beste bazter eta erakunde asko berak eginiko lan izugarriaren autorle eta lekuko.

Frantzisko Xabier bigarrena ibili zan handik. Begiz bera aspaldion ikusi ez arren, misiolari bizardunaren irudia oraindik argitan joian jendearen begi-ninian. Berak misioari bihotzean sartutako odol barria, borborrean, bizi-bizirik, egoan oraindik.

Gaur soinez han ez dagoan arren, haren gogoa han bizi da laguntza irudipean. Bera da *La Obra Máxima*, bere aldizkari misiolaria bide dala, herririk herri eskeko eginik misioentzat limosna bila doana; bera etxerik etxe, hutxatxoa eskuan dauala, misiolariantzat laguntza eskatzen dauana; bera da misio-kartak *La Obra Máxima* haur eta handientzat idaztearren gaberdirarte lanean gelditzen dana; bera da misio-minak jota, misioen alde bere bizia emoteko prest dagoana; bera Donostiako txokotik misioen aingeru zaindari bihurtu dana...

Eta guzti hau ondo dakie misiolariak; euretariko bat da Aita Joan Bizente. Euren artean dago gogoz eta bihotzez, soinez urrun egon arren.

Horregaitik harekin alkarturik ospatu nahi dabe haren abadetzaiko 50 urteurren hori.

Bihotzez berarekin egon, bera basarkatu, laztandu, goraldtu, omendu, esker onez bete beraien eta misioen alde egin dauan eta egin ten diharduan lan goragarriagaitik; mezako oparian Aita Joan Bizentekin partaide izan, opil erre barria lez, berarekin batera, bakoitza zeruko Aitari, esker onez, oparigaitzat eskeintzeko.

Besterik ezean, misiolari guztiak Gotzain Jaunarekin meza nagusi eder bat abestu eben Aita Joan Bizenteren omenez, "Tedeun" ozen

batekin amaituz. Gero hiru orduko batzarra, Aita Joan Bizenteren bizitzako eginkizunik goragarri eta garrantzitsuenak gogoratuz eta txalotuz.

BARRIRO INDIARAKO AMESETAN

Indiatik urten ebanetik geroz, bere amesa, egun batean, hara bihurtzea zan.

Honetzaz sarritan mintzatu zan gure Aita Joan Bizente. Bigarren aldiz, misiolari izan Indiako lur gainean. Hil baino lehen, barriro India zapaldu, gero Simeon zaharrarekin batera, haren abestia kantatzeko: "Orain, Jauna, itzi daikeozu morroi honi bakean Zeugana joaten". Hori argi eta garbi esan eban Indiatik Europara itzuli zanean. Aldi baterako bakarrik itzi ebala India.

Berari Indiatik urrun bizitzea nekagarri egiten jakon. Indian eukan jarrita bere habia. Lurbira guztiko gerrartearen erruz, diru-laguntzarik bage, guztiz murrیتuta gelditu zanean, diru bagezia horrek behartuta etxeratu zan.

Bestela misioa, ezinaren ezinez, hil egingo zan, desagertu. Premiazkoa zan diru-laguntza hori hainbaten aurkitzea. Hemengo jendearen artean aurkitu eban banku hori, meategi hori.

Asmo horrekin ibili zan, eskeko eginik, Espainia guztitik zehar; asmo horrekin sortu *La Obra Máxima* misio-aldizkaria; asmo horrekin egin gainetiko asmakizun eta erakunde guztiak.

Berari esker, misio gainera jausi ziran laino baltz guztiak haizeak eroan zituan eta barriro, misio gainera, eguzkiaren argi bigun, gozoa zabaldu zan.

Eskerrak berari Malabarko misioak oraindik bizirik jarraitzen dau, hobeto esateko, gaur, misio-lana osoturik, bertako abade eta eliztarren esku dago elizbarruti barri bihurturik. Bertako gotzain, apaiz eta kristauen ardurapean dago.

Diru-laguntza horren bankua bera bazan, nondik sortu jakon

Indiara itzultzeko gogo bizi hori? Ez zan bera beharrena misiolari-zari eusteko? Holan zirudian, itxura baten.

Baina, bizitzako legeak agintzen dauan lez, urteak aurrera joia-zan eta berak sortutako haurtxoa *La Obra Máxima* gizon heldu egi-nik aurkitzen zan ordurako, hau da, aldizkariaren zoria eta etorkizu-na irmotuta, sendotuta aurkitzen zan.

Misio-propagandaren barrunbeak ondo ezagutzen zituen gizon trebe eta azkarrak prest egozan lana euren esku hartzeko.

Hementxe aurkitu eban ate bat zabalik irtenbide on baterako gure misiolariak. Hemen dagoz langile barriak nire lana euren gain har-tzeko gerturik. Horretarako doetuta dagoz. Nik baino lan gaurkotua-goia egingo dabe. Ni gaur ez naz hemen beharrezko.

Hau honela izanik, oraintxe da nire ordua. Oraintxe astinduko dodaz nik neure hegoak Indiarantz zuzenduz. Zergaitik ez hil neuk maite-maite dodan lur gainean?

Eta Indiakin ames minean hasi zan. Bestetik, 70 urte zituan bere egutegian, eta ez egoan atzera eta aurrera ibilteko astirik.

Eta inori ezer esan bage, ixil-ixilka, eskutitz bat idazten deutso Aita Buenaventura Arana, garai hatan, hain zuzen ere Vijayapurango Gotzain jauna zanari.

Esan daigun, bide batez, Gotzain jauna ere berriztarra zala. Bere asmo eta gurariak agertzen deutsoz Gotzain jaunari eta berari ahol-kua eskatu.

Honelan idazten deutso:

“Ene Gotzain maite-agurgarria: Aspaldion neure baitan darabildan ixilezko asmo bat agertu nahi deusat Berorri esku-titz honen bidez.

Joera barri baten bila nabil, hau da, La Obra Máxima itzi, eremuko komentuan denboraldi labur bat egin eta, gero, Vijayapuram-era joateko asmoa dot, ni hartzeko Berori prest balego.

Nire eskariaren arrazoibidea erraza da. La Obra

Máxima, ni bage ere, esku onetan dago. Gaur berea dauan etxe eder bat dauko, bulego eta gainetiko atonketa guztiakin horni-dua.

Gaur ez naz ni hemen beharrezko, nire ordeak egiteko jende trebe eta iaioa daukagu-eta. Ez dago arriskuan aldizka-riaren etorkizuna. Ibilbide ziurretik doa. Betiko arrakasta eta goitasunez agertuko da jendearen aurrean.

Ni neu gorputzez sendo eta arimaz sendoago aurkitzen naz. Lanerako gogo biziaz. Munduko edozein lurraldera joateko prest nago arimak salbatzearen.

Baina, uste dot, hortxe dagoala nire baztertxoa. Abantaila handiak daukadaz horra joanaz. Bertako jendea eza-gutzen dot, baita bertako hizkuntzak ere. Hortxe egingo neuke polito-polito neure lana, lehenengo egunetik hasita.

Zer deritxo, Gotzain Jauna, nire burutapen honi?, esker-tuko neuskizu erantzun laster bat. Besteko barik, agur. Zure bedeinkapena”.

Fr. Joan Bizente

Buenaventura Gotzain Jaunak laster baten erantzun eutsan Aita Joan Bizenteren eskutitzari. Bere kezka eta eragozpenak agertzen deutsoz gutunaren lehenengo atalean.

Beti lez gozoro eta laztankiro, baina Aita Joan Bizenteren asma-kizuna, eskabidea ildotik kanpo balego lez jotzen dau.

“Benetan sinistuta nengoan, zeure 70 urte gainean ditu-zula, Indiara etorteko guraria baztertuta izango zenduala. Nire ustez, zalantzarik bage, La Obra Máximatik misioen alde egi-ten dozun lana hemen egingo zendukena baino hobea, ederra-goia, beharrezkoagoa dala deritxat.

Gainera, aldizkariaren bidez misioen aldeko propagan-dari, izugarrizko eragina egiteko eratasun guztiak zeure esku dituzu.

Hau ta guzti ere, zeure guraria bada eta horretarako

zeure nagusien baimena lortu ahal bazengi, zatoz zorionez eta besoak zabalik hartua izango zara nire aldetik, batez ere, osasunez beterik zatozala jakinik.

Osasunik bage bazentoz ere, etxeko atepak zabalik legokez zu hartzeko; ez nintzake, ezelan ere, ausartuko zuri zeuk maite dozun lur honetan hiltzeko poztasuna kentzen, misio honen alde egin dozun lan guztia kontutan izanik.

Neure aldetik, Probintziako nagusien esku izten dot arazo hau. Ez dagokit gaurkoz besterik. Agur gozo eta neure bedeinkapena. Kristogan zure anaia”

+ Fr Buenaventura

Karta hau bialduta gero, Gotzain jaunak, legezko zan lez, Aita Probintziala ere Aita Joan Bizenteren asmo eta gurarien jakitun jarri eban. Biak berbatu ziran, zer egitea komeni zan pentsatuz.

Aita Probintzialak ere eragozpen eta ezbehar handiak ikusi zituan Aita Joan Bizenteren etorrera horretan. Alde batetik, haren urte piloa; bestetik, Indiako eguraldi kiskalgarria. Ohituratuta ez dagoen agure baten osasuna kilikatzeke berorik kaltegarrienak.

Alkarrizketa honen jakitun jarri eban Gotzain jaunak Aita Joan Bizente. Nagusien esana egiteko gizona zan lez, arrazoibide honek komentzitu ez eban arren, men eginez, amaitutzat emon eban bere burutapen hori. India itzi eta hemen gelditu.

SANTUTASUNEAN GORA

Fedea da kristautasunaren oinarria. Fedeak lotzen ditu zerua eta lurra. Fedearen bidez sartzan gara Jaungoikoaren sendian. Zeruko Aitaren seme-alaba egiten gaitu fedeak. Jesukristoren anaia eta jarraitzaile.

Jesusek fedea eskatzen eutsan beragana hurreratzen zan edonori. Zenbat eta fede biziagoa izan eta Jaunagandik hurbilago egongo gara. Fedeak markatzen dau gure kristautasunaren beroa, neurria.

Jesusek sarritan agirika egiten deutse bere apostoluei fede gutxi-ko gizonak ziralako. Mendiak aldatzeko besteko fedea eskatzen deusku Jesusek ebanjelioan: “Benetan dirautsuet fede pitin bat bazendue, mendi honi “hoa hemendik hara”, esango zeunskioe, eta aldatu egingo litzake”.

“Nor da nire ama eta nortzuk nire anaiak? -Eta, zeruetan dagoan nire Aitaren nahia bete dagian edonor, horixe da nire anaia, nire arreba eta nire ama”.

“Nigan sinisten dauana ez da inoiz hilgo. Sinisten dozu hau?” Hasarraldi hau egin eutsan Jesusek Marta-ri Lazaro honen nebaren hilobi aurrean. Jesusek eginiko mirari guztietan sinismena dago oinarri. “Zeure fedeak salbau zaitu”, hauxe izaten zan Jesusek mirari guztien aurrean emoten eban arrazoibidea.

Fedeak iragarten dau bakoitzak Jaunagandik dogun hurbiltasuna edo eta urruntasuna. Fedeari begira neurtu behar dogu, ba, geure kristautasuna.

Santuak fede handiko gizon eta emakumeak izan ditugu, hortik euren egintza harrigarriak. Gu motelago garanok, motelka-motelka goaz geure bidean.

Aita Joan Bizente, santuen urratsei jarraituz, fedearen gorengo puntan aurkitzen dogu. Fede horrek bizibarrituta igon eban hain gora. Hortxe dago haren bizitzako egintza harrigarri guztien iturria. Hortxe bertan sustraituta baita ere Jaungoikoarekin izan eban batasuna, adiskidetasuna, hurkotasuna. Zintzoa fedeari esker bizi da.

Bere fede bizi horretan aurkitzen eban bere barruko poza, bakea, indar geldiezina ibili zan bide guztietatik ibilteko. Irmo beti fedean.

Berak, graziaz, hartutako fede hori jentilei, paganoei, sinisgeei eroatearren mila bidar bere bizia emoteko prest agertzen jaku Aita Joan Bizente.

Bere nekaldia, fede horren argia, munduaren azkeneraino eroan ezina izan zan.

Negar mina dagitso Jesusi tamal honen tamalez: "Oh Jainko beti-koa! Guretzat izan dozun errukiagaitik bedeinkatzen zaitugu, gu, han iluna eta heriotza jabe diran lurraldean bagarik, hemen kristau herrian, jaiotea nahi izan dozulako. Eskerrak Zuri, Jauna.

Baina, hareek ere ez al dira zure seme-alaba kutun-kutunak? Ez al zan hil zure Seme Jesus beraiek salbatzearen? Zer da hemen beharrezko, ene Jainko, zer gizatalde errukarri hori, zu ezagutuaz, zeugana ekarri eta salbatzeko?

Beharbada beraien alde oparitan eskeinitako oparigaien bat opa dozu? -"Ecce ego". Hona ni hemen, Aita; gertu naukazu edozein oparitarako, baita heriotza bera oraintxe bertan hartzeko ere, hau beharrezko bada arima zorigaiztoko horreek salbatu eta zorionsuak izanik, Zu betiko goraldtu zagiezan".

Negar min hau dagitso Jesusi bere ezintasunean. Jesusek aukeratuak bat zan lez, berea eginik eukan Jesusen agindua: "Zoaze eta zabaldu mundu osora fedearen argia".

Beste holako bihotz-abiada baten, penetan agertzen da: "Munduaren azkenerarte, misioentzat laguntza bila joateko gogoan datorkit. Penagarria da ikuskizun hau. Paganoak bateo eske ditugu eta bateorik guk ezin emon, horretarako mediorik bage gagozalako.

Ez elizarik, es eskolarik, ez ezer, kristau barriok euren kristau bizitza itxuraz eroan ahal izateko. Ezer bagarik gagoz.

Nik behintzat, nagoan tokian nagoala, misioentzat laguntza eskatzeari ez deusatz itziko. Ez dago munduan egintza premiazoagorik. Beraz, gure esku dagoan guztia egin behar dogu misioei laguntza hori prestatzeko.

34 urte luze erre zituan misio-lanetan: 17 urte Indiako lurretan misiolari aurrelari lez; beste 17 urte misio-propagandista lez. Behin eta barriro esan behar dogu misiolaritza izan zala Aita Joan Bizenteren karisma nagusia. Misioen alde hiltzeko prest egoala esaten eban, eta benetan esan ere.

Sinistuta egoan, bera Jaunak misiolaritzarako aukeratua zala. Hori zala bere hemengo egiteko nagusia. Horretan erre behar ebala oparigai lez bere bizi osoa. Gainezka egin dauan fede goritasunaren borborra lez ziran Aita Joan Bizenteren egintza guztiak.

Aita Joan Bizente gizon hain handi eta tinkoa izanik, gizon oso apala eta leuna zan guztiakin. Bere omenez goratze edo laudorio bat entzuteak min handia emoten eutsan. Ez eban ezer holakorik beretzat nahi.

Benetan sinistuta egoan gure esku dagoan on guztia Jaunagandik datorrela; geuretik ez dogula ezertzo ere. Dana goitik hartua dogula. Egia hau erabili eban bere bizitza guztiaren gidari eta araubide.

Liburuan zehar ikusi dogun lez, nagusi izateak, edozelako nagusitzak, burua nahastuta, turdituta izten eutsan. Gorriak ikusi zituan arazo honen erruz.

Etxe-lanak egitean ere beti apalenak hartzen zituan beretzat; bakargelak, barnebidetarako garbitzea eta holako zeregin apalenak. Apaltasunak anaien zerbitzu garbian jarten gaitu.

Apaltasun honen deiak inoiz anaiei parka eskatzera behartzen eban. Honek ez eutsan nekerik, ez lotsarik emoten; bere apaltasunean gozo eta laztankiro zaindutako araua eban. Ez egoan lan apalik harentzat. Lana otoitz zala esaten eban.

Logroño-ko komentuan, hango nagusi zala, jazo jakon holako zerbait. Arostegiko arduraduna zan Andres anaiairekin eztabaida txikitxo bat izan eban, ez dakigu zer zala-eta.

Batzuetan berekoi agertzen bazan ere, oina orduz atzera botaten ekian gizona zan. Hurrengo goizean, Andres anaiajana joan eta parka eskatu eutsan: “Atzo zeuk zeunkan arrazoia; neu nintzan oker negoana”.

Beste hau Indian jazo jakon. Ernakulam-go komentuan. Aita Diego misiolari gaztea Aita Joan Bizenterekin autortzen zan.

Adiskide kutunak ziran biak; autortza amaitutakoan, berbetan-berbetan, hizketaldi txiki-arin bat izateko ohitura euken misioko gorabeherak aipatuaz.

Egun horretan, Aita Diego ezin zan gelditu; eta autortza ostean, arin- aringa eta presaka urten eban, beste zeregin baterako ordua jarrita eukalako.

Eta Aita Joan Bizentek, antza dan lez, atzetik ozenkiro oihu egin eutsan esanez: ez zaitez hain arin joan, gelditu zaitez gehitxoago zeure etxean zagoz-eta.

Aita Diego benetan presaka ebilen, batzar baterako ordua jarrita eukan eta; eta misiolari zaharragoari kasurik egin bage, aurrera jarraitu eban, hurrengoan geldituko zala esanez.

Gertaera hutsa kontutan hartzeko; baina antza dan lez, gure Aita Joan Bizentek benetan hartu eban gorabehera hori, eta handik egun gutxira gutuntxo bat bialdu eutsan Aita Diego maiteari ohartxo honekin: Lehengoan, hitz arinegiak esan eutsazala eta, arren, parkatzeko. Holakoxea zan gure Aita Joan Bizente.

Martirioa ere bere gogoan sartzen zan. Hamaikatxo ames zuri egin zituan Kristoren martiri izan guratan. Behin, beste zereginik bage, Bilbotik Elorriora joan zan Balendin Berriotxoari bera ere martiri izateko grazia eskatzera.

Jaunak ez eutssan odolezko martiriorik emon, baina bai gorputzekoa. Urte luzeetan elbarriturik egon zan, inoren laguntza bagarik ezetarako gauza ez zala. Martirio mota hau odolezko martirioa baino gogorragoa da.

Langile geldiezina

Bera langile bizi eta sutsua zan. Geldi egoten ez ekiana. Zeruan atsedena eta hemen lana, helburu honi josita eroan eban haren bizitza guztia.

Bere kabuz, harrigarriak egin zituan bizitzaldian: Praile gazte zala, Errioxako Herreran, komentu eremutar bat jaso eban; bere Burgosko gazte denporetan, herriaren fedea ordu larrian aurkitzen zala, kristau fedearen alde borrokatzeko izparringi barri bat sortu eban, bere lantegi eta guzti. Profetaren hitz zorrotza ebilen garratz izparringiaren lerroetan.

Berak biztu eta arnasbarritu eban Karmengo Amaren bazkundera ere; Indian, Ernakulam-go komentu barria jaso eban; bertako apai-zentzat albiste eta jakintza zabalez beteriko aldizkari garrantzitsu bat plazaratu; hainbeste eliza eta eskola sortu misio-lurrean; Mariaren Koruak eraiki misioei laguntzeko; eta azkenez, bere lanik goragarriena *La Obra Máxima* sortu eta gorengo mailara jaso...

Beste zenbat honako egingo zituan beti eskuak libre izan bazituan.

Egi bila

Aita Joan Bizente bere eritxi eta pentsaerak argi ta garbi, askatasun osoz, agertzen ekian gizona zan bai nagusien aurrean, baita bere lagunkideen aurrean ere. Hau obligazino bat lez hartzen eban, baina beti behar zan itzal eta begiramena galdu bage.

“Ez dot entzun inoiz nagusi baten agindu bakar bat bete bagarik itzi dauanik”, honelan dino Gotzain Buenaventura Arana jaunak.

Nagusien onarpenik bagarik ez eban ekintza bat bera ere hasiko. Danerako nagusien onarpena ta baimena behar izaten zituan. Hori bagarik ez goan egintzarik.

Elizaren seme

Beretzat Elizaren seme izatea ohore bikaina ez eze, poztasunaren iturri agor ezina zan. Eta maitasun berberaz ikusten eban Elizaren arpegian Aita Santua ere.

Bere bizitzako egunik gogoangarrietariko bat, 1920ko martxoaren 13an, Erroman aurkitzen zala, Aita Santua aurrez aurre ikusi eta haren eskutik bedeinkapena hartzea izan zan.

“Niretzat zeruak egiten eustan merezi bageko erregalu bat izan zan Aita Santuak bere langelan hartu, berari oinetan mun emon eta, besterik ezean esku bete berba berarekin izateko zoriona gozatzea”. Ahaztu ezinezko eguna izan zan, egun zoragarri hori!

Eta bere azken gaixoaldian: “Zoriontsu naz Eliza Amaren seme lez bere besoetan hiltzen nazalako”.

Jesusen adiskide

Jesus, Jaungoikoaren Semearekin, maitasunezko artekotasan estu-kutun bat izan eban beti. Jesusen bizitza eta egintzetan barnebarneraino sartuta ikusten dogu uneoro.

Jesusen misterioak ditu bere otoitz gai eta janari. Harreman horreetatik sortzen da alkar-hartze eta maitasun neurrigabe hori.

Jesusen maitasunarren mila bizi emoteko prest egoala esaten eban berak sarri askotan. Jesusen bihotzeko zauritik etorkion arnasa beroa santutasun-bide hori adoretz eta gartsu egiteko.

Harriak biguntzeko besteko oihu larriak egiten ditu bere Jainko maitasuna autortzean: “Zertarako daukat nik bihotz bat, maitatzeko ez bada?, dino berak. Zertarako dot bestela? Eta maitatzean, nor maitatu Jaungoikoa ezik? Eta zelan maitatu Jaungoikoa, Jainko berberaren antzera izan ezik?”

Eta Jaungoikoak hiltzeraino maitatu banau ni, nik ere bera hiltzeraino maite izan beharko dot. Eta bera, gure maitasunarren, gurutzean hil bazan, nik ere bera martirioraino maite izan beharko dot.

Baina. zein martirio? Bihotzekoa, gartsua, sutsua, goritua, maitez hiltekoa! Honakoxe maitasunez maite nahi neuke nik Jaungoiko neure Jauna!”

Nik uste Aita Joan Bizentek, berba honeek, bihotzeko martirio horren berora esan zituala. Bihotzeko martirioan egoan. Bihotzaren goritasunetik dator hitza. Bihotza maitasun-garretan daroanak esaten ditu holako berbak.

Egintzak lekuko

Jaungoikoaren maitasun hori, santutasunaren muin eta egoitza dana, izan zan hainbaten Aita Joan Bizenteren bizitzako pastoral egintza guztien eragile.

Maitasun ezinbesteko hori izan jakon euskarri Jaungoikoarren hainbeste neke, lan, ukaldi, ezbehar eta garraztasun eroateko. Gure mendizaleak esaten daben lez, gora begira, nekerik ez.

Edo-ta Agustin deunaren hitzetan dagoana: “Maite dauanarentzat ez dago nekerik”.

Larraren larrez lanak menperatuta ebilenean, inok esaten baeutsan horrenbeste lan ez egiteko, bere betiko erantzuna hauxe izaten zan: betikotasun oso bat geunkala zeruan atsedena hartzeko, hemen lanari ekin behar jakola, astia alperrik galdu bage.

Jesusen esanean, hitzak bagarik egintzak badira egitasunaren ezaugarri, Aita Joan Bizentek bere egintzak ditu lekukorik onenak bere Jaungoikoarekiko maitasun hori norainokoa zan agirian jarteko.

Bere era guztiriko egintzetan osoa eta betea, zuzena ta arteza, hutsunerik eta akatsik bagekoa izatearren, bere bizia jarriko eban jokoan. Santu baten jokaerak ziran harenak.

“Zu maitatzea da nire gurari bakarra, nire maitasunarren gurutzean hil zinan Jaungoiko-Gizon egin hori. Batipat besteak ere maitasun horretan sartuta ikusi nahi neukez, zure egarriaren asegarri litzakezan milioika sinisgabe lagun ditudala”.

Bere azkeneko gaitzaldi larrian, gaixozainari sagrario aurrera eroateko eskatzen eutsan: “Non han baino toki hoberik egoteko”, esanez. Jesusen pasinoaz barbarik txikiena entzutea nahiko izaten jakon berak negarrari emoteko.

Munduko loturak ebegi

Munduko lotura guztietatik askatuta ikusi nahi eban bere burua. Bere pentsakizun, bihozkada eta egintza guztiak oso-osoan eta soil-soilik Jaunarentzat gorde nahi zituan, lurreko hauts artean zikindu bage.

Jaungoikoarekin bat egiteko ordu berandurik ez dagoala daki; horregaitik, 1933an egin zituan gogo-iñarkunetan, bere eskuz honako erabagi batzuk idatzita itzi zituan: “Jesus maitea, zurea bakarrik izan nahi dot; urrundu nagizu munduko gauzetatik, Jainko Jauna, hartu oso-osoan nire gogo”.

Gauza askori uko egin beharra ikusi eban gogo-iñarkun horreetan. Bidea garbi behar zan, eragozpenik bage, zuzen-zuzenean Jaunagana hurbiltzeko.

Esaterako, izparringiak irakurteari uko egin eutsan. “Izparringiak burua munduko barri eta albizez marmarrean jarten deust; pentsamentuz bertan sartuta bizi eragin.

Neure zentzumenak ere gorde behar ditut, batez ere neure begi eta mina, gehienetan munduko huskerietan zabalegi erabilten ditut eta.

Inoiz, hitz-jariokerian jausten naz. Neu konturatu bage, hitzontzi bihurtu, besteei hitza janez. Goitik hitz egiteko ohiturea ere badot. Eta guzti hau, neure hurkoari zor deustadan dedu eta itzalik ez izate-agaitik dala deritxat.

Hurkoagan Jaungoikoa ez ikustetik datorkit akats hau”.

Ori ez, hori ez!

Haren gaixozaina odol beroko gizona zan. Batzuetan bere onetik irteten zan. Hori jazoten zanean, Aita Joan Bizentek ixil-ixilik, adi-adi, begiak kendu bagarik arpegira begiratzen eutsan gaixozainari.

Haizeok joaten jakozanean, gaixozaina bildots apal eginik, txeraka eta laztanka hasten jakon “hau neure santua da” esanez. Orduan, Aita Joan Bizentek garratz erantzuten eutsan: “Hori ez, hori ez; arren, ez niri santua deitu”.

Hurko laguna begi aurrean

Aurrerantzean, gizon eta emakume bakoitzagan Jesus bera jarriko dot begien aurrean, eta Jesus berari hitz egingo baneutsa lez, itzal, lotsa eta begiramenez hitz egingo deustat.

Gero, bere begiei buruz hauxe idazten dau: “Begiak lotuagoak eroan behar ditut, fedea sendoagotuz, neure barnean Jaungoikoa bera ikusi eta begiratuaz. Berari bakarrik begiratuaz, Jauna pozago izango dot”. Adore eta kemen guztiaz erabagi eban, lehengo huts eta okerretan ez jaustea.

“Andra Maria eta nire santu bihotzekook lagun zakidaze. Hau tamala! Zenbat on egin bagarik nire begi eta ahoaren erruz!

Parkatu, Jauna! Jaunaren laguntzarekin ondutea nahi dot. Ziur nago lortuko dodala”. Baita lortu ere!

Ongi etorri txalogarria

Baltza zuria baino lehenago ikusten dogu. Geure barrua azterkatzean, egin dogun onari ez deustagu ikuturik egiten, baina txarto eginari begi zorrotzez begiratzen deustagu.

Holako zerbait jazoten jakon Aita Joan Bizenteri ere: bere hutsak ziran baino baltzagoak ikusten zituan. Baina Aita Joan Bizenteren bizitza egintza onez beterik ageri jaku edonondik begiratuta ere.

Beste askoren artean, nekagarriak ez izatearren, jazokizun batzuk aipatuko ditugu hemen gai hau amaitutzat emoteko.

Aita Joan Bizenteren Burgosko nagusitzaren lehenengo txandan, Jesusen Lagundiko erlijiosoak Karmeldarren komentu alboan, harrikada batera egoan Merzedeko elizan, goizetik gauera, jarri eben euren bizilekua, egoitza.

Eliza bi esku baten barruan, hain hurbil bata besteagandik, hasarrebide bat izango zala eta ez eban jendeak ondo ikusten jesuiten jokabide hori. Ez eben nahi jesuitak hara sartzerik.

Bigarren eliza hau istilu eta tiki-mikiak ekarteko zio bide bat izango zala eta, ez eben nahi horrelakorik jazo eitenik.

Karmeldarren eliz zerbitzu ederrarekin pozik egoan jendea. Uriko apaizgoa ere urduri agiri zan hurbiltasun hori hasarrerako izango zala eta.

Aita Joan Bizente, baina, ez zan eritxi horretakoa. Zergaitik ondo konpondu ez auzoak izateagaitik? Zergaitik hasarretu mahasti bateko langileak? Ez ahal dagoz danak Jaun berberaren zerbitzuan? Zenbat eta langile gehiago hobe Elizarentzat.

Goitiko begiz ikusten eban arazo barri horren irtenbidea Aita Joan Bizentek.

Gauzak honan, jesuitek Aita Joan Bizenteri eskeini eutsoen inaugurazinoko hitzaldia. Aita Joan Bizentek paregabeko hitzaldia egin eban. Han ez egoan barruko harrik. Bihotza zabal-zabalik ongi etorria emonez gainera, Jesusen Lagundiak mundu osoan eta alor guztietan Elizaren eta gizartearen alde dagian lan izugarria goralduz eta txalotuz amaitu eban bere berbaldia.

Zorionik bero eta eskertsuenak jaso zituan Aita Jesuiten aldetik. Herritarren gogoak ere bareturik gelditu ziran.

Handik urte askora, Burgosko komentuko karmeldar batek erreminez arpegira bota eutsan Aita Joan Bizenteri orduko egunean Aita Jesuitekin izandako ongi esan eta kutunkeriak.

Aita Joan Bizentek ez eban mutik egin; begiari zirkinik egin bage, irribarretsu eta gozo erantzun eutsan: «Ez nago hori eginaz damututa eta damutuko ere ez».

Zergaitik mutila zigortu?

Aita Joan Bizentek hurkoarekin izan eban beste argibide bat datorkit hemen burura. Indian jazo zan, hemen esatera noan hau.

Berarekin umezurtegian hazitako mutiko bati, behin, 200 errupia emon eutsazan gauza batzuk erosteko. Joan zan mutil hori eta agindutako gauzak erosi beharrean, hanka egin eban emondako diruarekin.

Ertzainen eskuetan jausi zanean mutil hori, Aita Joan Bizentegana ekarri eben. Mutikoak, lotsaz beterik, 200 errupiak oso-osorik entregatu zituan.

Egindakoagaitik ertzainak mutila lotuta espetxera eroan nahi eben; eta hemen sartzen da bitarteko Aita Joan Bizente. Mutilak diru guztia entregatu dau, beraz, zergaitik mutila zigortu? Itzi mutila neure ardurapean.

Honi esaten jako aitaren bihotza izatea.

Parkamena zigorraren gainetik

Gabon jaietan, Karmeldegi guztietan, poza gainezka izaten da praileen artean.

Poz garbia, santua; ez dauko munduko usainik, ez girorik; Belengo estalpetxoan, Jaungoikoaren Semea gizon eginda ikustetik datorren zorion poza da.

Gabonetako liturgiatic sortzen dan pozari jarraituz, alaitsu eta umoretsu igaroten dira gabon jaiak praileen etxeetan.

Jakina da Santa Teresak Ume Jesus jaiota ikustean, pozaren zorbioak jota, sehaskatxo eskuetan hartu eta, triskitin eta traskitik, pandero soinura dantzan egiten ebala bere mojakin. Beti dago pozkario handia gabon jaietan.

Baina, gabon batzuetan, Bilboko Begoñako komentuan gehiegikeria itsusi batek ilundu eban etxeko bakea eta poza. Teologo gaztez beterik egoan etxea. Gazteak beti gazte. Beti egoten da askoren artean asmamen handiko aitzindariaren bat. Baegoan holako bat Begonako taldean ere. Mutil ona, baina barrabasa, bihurria.

Ixilka-ixilka, iskanbila zaratatsu bat gertau eban praileei adarra joteko.

Soineko abitua kendu; zanpanzar jantzi; atabal handi bat gerrira lotu, eta komunitate guztia koruan otoitzean egoala, hara non ager-

tzen dan koruan saltoka ta zarataka gure pailasoa: “Kanpora danok, kanpora!; Viva la República!; Abajo los frailes!”.

Ha gehiegia zan. Barrea baino lotsea gehiago sortu eban; marra-tik urrinegira joan zan. Ondorengo txarrei atea zabaltzeko zan buruarinkeria ha. Etxerako bidean ikusten eben askok gazte hori. Horretan egozan etxeko nagusiak, zer egin ez ekiela.

Egun horretan, hain zuzen ere, Aita Joan Bizente ere koruan egokitu zan. Dana entzun eta ikusi eban. Eta etxeko nagusiak, Aita Joan Bizente nor zan jakinik, ziurtasunez jokatzeko, Aita Joan Bizenteri aholkua eskatu eutsoen gazte horrekin zer egin eikean itanduz.

Eta Aita Joan Bizenteren erantzuna: Gabonetako pozak bere senetik atara dau gazte hori. Komunitatea poztutzearren, gehiegikerian jausi da. Berez mutil ona eta zintzoa da. Ikusiko dozue, bere egunean, misiolari jatorra izango da gazte hori.

Horrelantxe salbatu eban gaztea. Gainera, Aita Joan Bizentek profetarena egin eban hemen. Gazte hori bere ikasketak amaitu ondoren, misiolari joan zan Indiara, Aita Joan Bizentek iragarri eban lez, eta misiolari oso ospetsua izan zan. Indiatik *La Obra Máxima*-rako bialtzen ziran idazlan, argazki, jazoriko eta barregarritasun guztiak berak bialtzen zituan.

Aita Joan Bizente, egun horretan, Begoñan egokitu ez balitz, gaztea ha Indiako misiolari bagarik, beste edozer izango zan.

Jaungoikoari bildur

Ikusten dogun lez, Jainko maitasunean geroago eta gorago doa Aita Joan Bizente. Gaur maitasun hori gogo eta ames bakarra eginik daroa.

Behin baten, bere gaixoaldian, apaiza zan bere iloba bat joan jakon ikustaldi bat egitera. Hizketan egozala, iloba apaizak heriotzak dakarren bildur zorrotza aipatu eban. Eta Aita Joan Bizentek erantzun eutsan: “Zelan bildur izan Jaungoikoari bera maitatu besterik ez badot egin bizitza guztian!”

Beste honenbeste esan eutsan *La Obra Máxima* berarekin lan egiten eban anaia bati. Sarritan jazotzen dan lez, anaia hori une garratz baten aurkitzen zan, salbamenaren ilunak jota.

Kezkak, eskrupuluak, bildurrak, laino baltzak barruko ilunpean: “Salbauko ete naz?” Tentaldirik mingarrienak mota honeetarikoak izaten dira. Gorriak ikusten dabez zulo horretara jausten diranak.

Anaiak, bere estualdian, Aita Joan Bizenteri agertzen deutso bere arazo samina. Eta Aita Joan Bizentek begi-kinura adi-adi begiratu eta maisu zaharraren jakituriaz badinotso irribarre gozoz: “Zeure bizitza Jaungoikoa zerbitzen emon dozu leialtasunik handienaz, eta orain Aitaren bildur zara? Ez dozu ikusten hor ez dagoala zentzunik? Hori Jaungoikoarentzat iraingarri da. Jaurti egizuz burutik holako pentsamentu itsusiak”.

Hitz honeek entzutean, ez eban asaskaldi makala hartu gure anaia bildurriak.

Ikusten dan lez, santutasun tontorretan dabil gure Aita Joan Bizente.

GAIXOALDIAN

“Neke arinen ondoren sari handia hartuko dabe: Izan ere, Jaungoikoak aztertu eta Beretzat on aurkitu ditu; urrea su-katiluan lez aztertu ditu; kanabera artean txinpartak zabaltzen diranez, egingo dabe dizdiz kontu emote aldian”.

Jak. 3,5-7.

Aita Joan Bizenteren bizitzako azken aldira heldu gara. Gaixo zital batek eratsi dau lurrera gure misiolari erraldoia. Gaur elbarriturik dago, ezindurik. Oinak indargetuta, besoak zintzilik; burua motel, ahoa totel; ezinaren erpa artean loturik, danerako inoren beharrear.

Tantaia baizen sendoa zan bera osasunean; harkaitza lakoxea. Ez eban inoiz osasunaren atxakirik agertu. Gozatsu goraltzen eban beti bere osasun ona. Eskutitz guztietan bere osasun onaren aipamena dagi; inoizkoren baten, makalaldi ezerezkoren bat.

Baina, denbora txakadaka-txakadaka aurrera doa; urteak geure azpia janez joakuz; haizea baizen azkar doa gure bizitzaroa, batez ere, bizikera gogorra, lanpetua, kargu, ardura, postu, erantzukizun, eginkizun eta gainetikoak zama astunez beterik eroan doguzanean.

Eta Aita Joan Bizentek holakoxe bizimodua eroan eban. Oso osoan, unetxo bat galdu bage, apostolutzari emona; Teresa deunaren hitzak berari bete-betean datorkioz: “Zorionekoak Jaunaren eta ari-men zerbitzuan agortutako bizitzak”.

Bizitzari ahal eban guztia atera eutsan; tximur-tximur eginik egoan, azken aldian, haren soina. Nork zenbatu harek emondako oinkada guztiak, haren miresgarritasunak? “Zerua daukagu atsedena

hartzeko, hemen, jo ta ke, lanari ekin behar deusagu”, hauxe zan helburu eginik eroian araua.

Eta gure erraldoia lanak eratsi ebala esan beharko dogu. Lanaren larregiak zauritu eban haren burua.

1908an, Verapoly-tik idazten dau: “Gaurkoz, osasun ona daukat, baina hainbeste zama astunekin gainean, ez dakit astotxo honek noiz arte iraungo dauan. Ez gara burdinazkoak; ezin dogu hemen mirari-rik eskatu”.

Urteak ez doaz alperrik. Indian 17 urte egin ditu misiolari, 1900etik 1917ra. Behin aberrira itzulitakoan, 1917tik 1935era bitartean, Karmeldar misioen ardurakizuna beregain hartu eban; misioetako kutxa lez zan. Bera arduratzen zan misioen euspen-gastu guztiekin.

Gorago aipatu dogu horretan jarri eban garra eta egin eban lana, lan harrigarria. Alperrekoa litzake hemen barriri aipatzea.

1922ko abuztuan, Anjel Maria, Verapoly-ko Gongotzain agurgarriari honako hau idazten deutso: “Hainbeste karta datorkidaz neure mahai gainera. Ez dot uste guzurrik esango dodanik 1.500dik gora dirala esaten badot. Hemen dagoz neure esku artean. Ez ditut zabaldu danak, ez irakurri, ez erantzunik emon hainbeste zeregin eta arazori begiratu beharrak ezindurik naukalako”.

Eta, beherago, dirautso: “Osasunez zelan dabil, Jauna? -Ni gogor nabiltzu, baina, noizbehinka, buruko zorabioak emoten deust eta mendira edo baztertxo batera joan behar izaten dot atsedenditxo bat hartzera”.

“Kartaketa honek egun eta gaueko orduak eroaten deustaz; ez daukat atsedetik hartzeko astirik, eta nire buruak atsedena behar dau, asaskaldi bat, neure bizitzan orainarte behin ere izan ez ditudan zorabio honek, gaur, sarri-sarri datorkidaz eta. Gauak honetan galtzen ditudan arren, hainbeste lani erantzun ezinak, estutu eta larritu egiten nau.

Ezinaren ezinez, itomenduta ikusten dot neure burua, karta-mendi horri begiratzeko bildurrez.

Ondo etorriko litzakit, Jauna, horko misiolari bat neure lanetan laguntzeko. Bialdu beist, arren!”

Erreuma aldi bat ere izan eban aldi honetan. Gogor samarra bera. Lanetik aske, Arnedillo-ko bainuetxean txandatxo bat egin eban bere erreuma hori zerbait bigundu arte.

1932an, herniaren ebaketa bat egin eutsuen Donostiako gaixoe-txe baten. Hamabi bat egun egin zituan bertan. Behin kendutakoan, hernia honek ez eutsan burukomin handirik emon.

Zaharmin honek alde batera itzita, berak behintzat bere burua osasunez beterik ikusten dau.

Honelantxe idazten deutso Vijayapuram-go Gotzain Buenaventura Arana agurgarriari: “Gorputzean osasunez eta ariman borondatez beterik aurkitzen naz, munduaren azkeneraino joateko gerturik, apaiz beharrez aurkitzen diran arimei laguntzea balitz”.

1934an, bere buruaren betiko trebetasuna eta bizkortasuna gutxitzen hasi jakozan. Aita Joan Bizenteren burua nekatuta agiri zan. Han ez egoan lehengo txinpartarik, ez adorerik, ez bizitzasunik.

Ixilka-ixilka, gaixo lapurra, makur-makur, haren bila etorren. Zortzi urte luzean ezindurik eukiko eban gaixo zitala atean deika eukan. Gaixo luzea, mingarria. Gizon batentzat probarik gogorrena, nekagarriena. Bizitza gurutze latz bihurtzen dauana. Gurutzean jositako egotea lez da. Mistikoak dinoenez, Jaungoikoak bere santuak lohi guztietatik garbitzeko erabilten dauan su-katilua, azken ikutua.

Aita Joan Bizente, gorago esan dogun lez, 1930eko urrian, Iruñean egin zituan gogo-iñarkunetan, Santa Teresitaren urratsei jarraituz, oparigai lez eskeini jakon Jaungoikoaren maitasunari.

Eskeintza haretan honako esaldi sutsuak aurkitzen ditugu: “Jauna, ni eta nire gauza guztiekin baliatu zaitez zeure gogo santuaren nahira... Datorkidan guztia Zeugandik datorkidala gogotan izanik, ez dagidala nik ezertxo ere bete bagarik itzi... Zu maitatzea bakarrik da nire hemengo zeregin bakarra... Maitatzen bakarrik dakian ume txikitxo egin nagizu”.

Jaunak, zalantzarik bage, maitez hartuko eban Aita Joan

Bizenteren eskeintza hunkigarri hau.

Bere ondoezak eta guzti, Aita Joan Bizentek zintzo ta irmo jarraitu eban lanaren oinean azken ordurarte.

Ezbeharra hurbil ebilen. Lanera joan da gaur ere goiz goizetik, bere *La Obra Máximara*. Beti lez, mahai ondoan belaunikatu eta otoitz labur bat egin ondoren, lanean hasi da.

Baina, ezin. Buruak ez deitso laguntzen.

“Nire buruak ez dau lanik egin nahi”, dino. Durdurikaturik dago. Txindurri-lurra sentitzen dau buruan eta horrek susmo txarrak dakarkioz. Ezbehar handiren baten hasiera izango ete zan bildurrez egoan. Eta, susmo txarrok bete egin ziran.


Egun horretan bertan, bazkalondoan, eskerrak emoteko mahaitik zutitzean, perlesiak jota lurrera jausi zan.

Gorputzaren ezkerraldea zirkinik bagarik gelditu jakon; ezetarako gauza ez zala. Gaixo astuna, larria zan benetan. Ez eben uste barriro berera etorriko zanik eta “elizakoak” emon eutsoezan hantxe bertan. 1935eko maiatzaren hogeita bosta zan.

Handik hilabetera, gauzak bardin jarraitzen eben. Gaitza bere gordinean oraindik. Osagileak ere etsipenduta. Ez eben uste barriro oin gainean ibilteko gauza izango zanik; lanerako zetan esanik ere ez. Bere beharrezkoenatarako ere norbaiten laguntza beharko eban. Etorkizun iluna, baltza...

Egoera larri honen arabera, Aita Probintzialak gaixozain bat izendatu eutsan, unetxo baten ere bakarrik ez izteko eskabide estuaz. Redento izeneko anaiak hartu eban ardura hau, baita ondo bete ere.

Redento anaia gizontzarra zan, sendoa, indartsua; bekokian aginte zaleen mototsa eukana. Berebizikoa zeregin hori betetzeko. Baekian Aita Joan Bizente ez zala edonor. Gizon aintzagarria, goresgarria, beneragarria eta, batez ere, oso maitatua eta estimatua zala praile eta herritarren artean.



Joan Bizente gaixorik, Redento bere gaixozainarekin

Honen itzal eta ederrera, pozik eta leialkiro betetzen eban gaixozaintza hori. Jendea ere pozik berarekin, zeregin horretarako esku onekoa zalako.

Esanda daukagu liburuan zehar, Aita Joan Bizenterentzat praile onaren ezaugarri bat nagusiaganako menpetasuna zaintzea zala.

Nagusiaren agindu edo ezaupide bagarik ezer ez ebalala egingo. Hori bagarik galduta aurkitzen zala.

Honen jakinean, Aita Probintzialak, beti kezka galduta ibili ez zedin, argi eta garbi, agindu hau emon eutsan: “Hemetik aurrera, zure jenerala, probintziala eta priorea anaia Redento izango da, beraz haren esanera egongo zara beti eta gauza guztietan”.

Bai benetan hartu ere Aita Joan Bizentek Aita Probintzialaren hitzak! Ume jaio barria amaren eskuetan lez, horrelantxe gelditu zan bera ere gaixozainaren esanpean. Harrigarririo bete eban Aita Probintzialaren esana.

Bere santutasunaren aipu edo agiri bat ikusten eben hemen beraren inguruan bizi ziranak. Holako menpetasuna gaixozainari!

Hobekuntza txiki bat izan eban osasunean eta Naparroako bizi-giro legorragoa eta tokiko haize garbiak osasungarri izango jakozala eta, Korella-ko komentura eroan eben. Hogei hilabete egin zituan hemen.

Korella-ko praileak eta, batez ere, etxeko nagusiak, berarekin Indian misiolari izandako Aita Vidal-ek, oso pozik eta anaikor hartu eben etxean. Ederrikusi eta maina guztiak beretzat gorde zituen.

Korella-ra heldu baizen laster, paludismoak ekarritako gaixoaldia igaro eban. Gaixo bihurria da hau; gauzak ilun ikusten zituen praileak eta barririo ere “elizakoak” emon eutsoezan.

Gaixo larri hori ere laster samar garaitu eban eta hobekuntza agiri- agiriko bat egin hango egurasti eta osasun-laguntzari esker. Gutxika- gutxika onera egin eban.

Aita Joan Bizenteri gaixo larri hau onartzea, ziur baten mingarri egingo jakon. Berez zan ekintzaile hutsa, bizia, langile porrokatua, eta, gaur, ezintasun osoan ikusten dau bere burua.

Ezetarako modurik bage. Behartutako geldialdian, batez ere, bes-teentzat zama astun bihurtutik.

Baina era berean, ohituta egoan Jaunaren borondate santua, onaldian eta txarraldian, txistik atera bage, mormor bat zerura jaso bage, Jaunaren eskua mosukatuaz, osoro eta zeharo onartu eta betetzen.

Nik uste gurutzean josita ikusten ebalala bere burua, Jesusekin nekaldi gogorrean. Baten baino gehiagotan, agertu eban Aita Joan Bizentek martiri hilteko gogo. Odolezko martirio hori ez jakon inoiz helduko, baina bai gorputzekoa. Eta, hain zuzen ere, gorputzeko martirio luze hau kemen eta adore handiz eroan eban gaixoaldi guztian zehar.

Berak sarritan oihukatzen eban: “Zeurea naz, Zeuretzat jaio nintzan, nigandik zer nahi dozu, Jauna? Egin bedi beti zeure nahia! Heriotza ez da heriotza, bizitza baizik, beragan baitago inoiz amaitzen ez dan hango goiko bizitza”.

Osasunean onera eginez dator Korellako etxean. Ondo joako, antza, hango bizi-giroa. Gaixoa zerbait garaitu dauanekoxe, eskuma-ko eskuaz, eskutitz batzuk idazteko eran aurkitzen da.

Lehenengoa, jakina, Aita Probintzialari bere gaixoa zelan joian esanez eta eskerrik onenak emonez berarekin izan dituan txera eta ontasun guztiakaitik.

Beste gutun bat Burgosko moja ezagun bati idazten deutso. Hemen bere osasunaren barri emon ondoren, Redento, bere gaixozainaren bihotz on eta zerbitzu estimagarriak aipatzen ditu.

“Ni Korella-ra ekarri ninduenean, orain zazpi hilabete, ez nintzan gauza ez mugitzeko, ez eta oin gainean zutitzeko ere. Gaur, hara eta hona nabil etxe barruan, errenka hori bai, baina inoren laguntza bagarik eta makila bagarik.

Jaungoikoaren hurrengo, neure nagusiekin zordun gelditzen naz, Redento anaia neure gaixozain izendatu dabelako. Nire gaixozain hau miragarria da; ezin hobea. Ez nau izten

bakarrrik unetxo baten ere; zazpi hilabete daroaz nirekin eta ez dot uste ordutxo baten bakarrrik itzi nauanik. Ez dakit zelan ordaindu berari nigatik egiten diharduen guztia.

Etxeko praileak ere neu nahieraz bete ezinik dabilta. Negua datorrela eta, eguzkibegira, gela barri, txukun, polit bat egin dabe neuretzat, berogailu eta guzti.

Ni pozik aurkitzen naz hemen, Aita Probintzialak beste ezer agintzen ez dauan bitartean. Niri neuri bardin deust hemen edo han egon. Aita Probintzialaren agindua daroat beti aurrelari. Haren nahia egin nahi dot beti lez.

Jaungoikoaren esku itzita daukat neure burua, danean berak nahi dauana egiteko gerturik, bere ondora noiz eroango nauko”.

Korellatik egin eban lehenengo irteera Larreako komentura izan zan, 1936ko apirilaren 30ean. Bere adiskide min batek gonbidatuta joan zan. Aita Ezekiel Probintzialak deituta.

Handikiro gertaariko gertakizun berezi bat ospatzen zan Larrean. Aita Ezekiel txit agurgarria, Zornotzako semea, Karmeloko Ordenak izan dauan gizonik ospetsuenetarikoa izan da.

Aginteko dohaiakin jaioa; diplomatiko trebea; begitasun handikoa; jende hartze onekoa. Bai Jeneral eta bai Probintzial hainbestetan izandakoa.

Eta, gaur, apirilak 30, bere mezako urrezko ezteguak ospatzen ditu. Jazokizun puntakoa Probintzia guztiarentzat. Ahal izan eben guztiak Larreara jo eben egun horretan, gainetikoak ere hara begira gogoz.

Aita Joan Bizente ere han egoan. Aita Ezekiel eta bera adiskide kutun- kutunak ziran gazte gaztetatik; alkarrekin ondo konpontzen ziranak.

Pozez jarri zan Aita Joan Bizente Aita Ezekielen ondoan ospakizun orduan. Gero ere solasaldi gozoa izan eben aguretxo biak.

Harrigarria zan erraldoi agurgarri eta beneragarri bi hareek, bata eta bestea Ordenako zutoinak, gaur zahartzaroak eratsita, maitasuna-

ren besoetan, luzaroan besarkatuta ikustea! Gutxitan ikusten da hola-ko ikuskizunik gizonen artean.

Espaniako gerrate ostean, erbesteko haize hotzak hartu eta gero, azken baten, Korellan hil zan Aita Ezekiel, Karmeldar goitiko eta beneragarria, ixil eta bakarti.

Abuztu aldera, Belaskoain-go bainuetxera, hango urak mesedegarriak izango jakozala eta.

Han beste eligizon ospetsu batekin aurkitu zan. Espainiako gotzainen buru zan Gomá kardinal txit agurgarriarekin. Alkar ikusiaz batera, adiskide kutun egin ziran gizon beneragarri hareek. Alkarrekin ordu luzeak emoten zituen, solasaldi bizi eta alaian. Autortu ere alkarrekin egiten ziran.

Laster konturatu zan Goma kardinala aurrean eukan misiolari elbarritua santua zala. Alde guztietatik santutasuna dariola egoala. Honela inotsan Redento anaiari: “Anaia Redento, zuk santu bat zaintzen diharduzu, mesedez, zaindu eidazu ondo”.

Bederatzigarren eguna betetzean, etxera itzultzeko ordua heldutakoan, Kardinal Jaunari agur egitera joan ziran biak. Kardinal jaunak aurrean ikustean, harriturik, itanduten deutse: “Baina, nora zoaze? -Amaitu da gure hemengo egonaldia eta orain etxera goaz; kardinal jaunari agur egitera gatoz.

- “Zelako etxera? Oraindik hemen jarraitu behar dozue. Neuk idatziko deusatz, oraintxe berton, zuen Aita Probintzialari baimen hori eskatuaz. Oso ondo joakoz hemeko urak Aita Joan Bizenteri eta on egingo deutso hemen luzarago jarraitzeak”.

Hilabete inguru egin eben bainuetxe honetan. Hemendik Korellara barriro.

Santander-en ere hamaika hilabetez egon ziran, gero 1940ko irailan, barriro Donostiara bihurtzeko. Aurrerantzean, Donostian gelditu zan hil arteraino.

GAIXOALDIKO LORE-SORTAK

Aita Joan Bizenteren gaixoaldia, esan dogun lez, luzea izan zan. Zortzi urte, urte asko dira gurutzapean jausita egoteko. Odolaren martirioa baino gogorragoa da gurutzapeko martirio hori.

Zelan eroan eban Aita Joan Bizentek gurutze hori? Mormorka, hasarrez, gorrotoz, zerua madarikatuz gizaki askok egiten daben lez?

Ez eta gutxiagorik ere. Kezka bat bera ere ez! Eroapen osoz, Jaunaren eskua maitez laztanduz, Jaunaren borondate santua onartuz.

Gaixoaren gurutze-bidetik, santutasunaren hegoetan zerura hurbilduez-hurbilduez joian. Gogoa zeruko haizeetan, soina lurtean narrasten zan bitartean.

Gaixoaldiko egunak eta orduak zelan bizi izan zituan Aita Joan Bizentek, gutxi asko, gaixozainaren ahoz jakin dogu. Nagusien eskabidez, gaixoaldiko zertzelada asko iragarri euskuzan haren gaixozainak, baita gaixoaren ingurumarian ibilitako beste zenbaitek ere.

Hortik gaixozainak, beragandik hurkoen bizi zanak, Aita Joan Bizenteren barrukotasun asko ta asko agertzen deuskuz. Hemen jarten ditugu handi-handienak. Lorategi bateko lorak dira, baina aro desbardinetan batutakoak.

Lehenengo eta behin, entzun deiogun gixozainari Aita Joan Bizentek zelan hartu eta eroan eban gaixo horren gurutze astuna. Bera izango da gure gidaria, gaixoari urratsez urrats, bere azken aldian jarraitzeko. Hona hemen bere hitzak.

- Hainbeste denboran gaixorik egon arren, eroapen handiz eroan zituan bere gaitzak. "Jauna, ez naz gehiagorako gauza", esaten eban,

egin bedi zure borondate santua". Eta ezindurik eta indargeturik aurkitzean, Jaunari goralpenezko "tedeun" ereserkia esaten eutsan.

- Urduritasun edo pazientzia ezik ez neban inoiz harengan nabaritu. Bere neke-lanak Jaunari eskeintzen emoten eban eguna. Gauza guztietan Jaunaren borondate santuarekin bat eginik etorren. Jaungoikoarren sufritzea zan haren poz guztia".

- Bere gaixoaldian, Santander-ko komentuan igaro zituan egun batzuk. Han Burgosen alkar ezagututako praile adiskide kutun-kutun batekin aurkitu zan. Aspaldiko urteetan alkar ikusi bageak, bata hemendik eta bestea handik, nagusien esanera ibilitakoak.

Biak zahartzaroko egunetan, kontu-kontari egozala, hara non dinotson Aita Joan Bizentek bere lagunari: "Barriro jaiota ere, ni ezer baino lehenago, misiolari izango nintzake".

- Beste behin, ezindurik egoala, bere adiskide on bat etorri jakon ikustera. Aspalditik honeek ere adiskide zaharrak ziran. Alkar agurtu ondoren, badinotso Aita Joan Bizentek: "Aita, hemen naukazu umetxo bat lez; ez naz gauza ezertarako. Hobeto esateko: bai, balio dot, Jaunaren nahia besterik ez dot nai-eta".

Eta bere ahoa bihotzeko negar larriz bustita jarraitu eban: "Orainxe maite ditut nik bene-benetan arimak. Aita, otoi nire alde, jausita dagoan zugatz zahar hau Jaunaren besoetan zainpetuta doan umetxo txikia izan dadin, Santa Teresitaren bidea eginez".

Inoiz Redento anaiak negarrez aurkitutzen eban. -"Zer dala eta, negar hori? -"Jaunak hain maite naualako, pozarren dagit negar".

Batzuetan hilteko gogoia ere agertzen eban, Jauna ikusteko irriki bizian: "Zer izango ete da Jaungoikoa ikustea! Mila heriotza gogor hartuko neukez, unetxo baten, Jaungoikoa ikustearren".

San Pauloren berbak ere sarritan ahotan hartzen zituan: "Kristorekin gurutzean nago josita. Harrezkero ez naz bizi ni: Kristo bizi da nigan". (Gal. 2,19-20).

- Berak sarritan esaten eban: Niri ahal dodana egitea dagokit; gainetikoa Jaunaren esku dago.

- Egunero errosarioa esaten eban alkarrekin gaixoak eta gaixozainak. Eta horretan Aita Joan Bizente zehatza zan. -"Redento maite, zuk ez dozu ondo errezatzen; nik amaitu baino lehen hasten zara zeu. Itxaron egizu neuk amaitu arte eta gero zeu hasi. Holantxe egin behar da".

Inoiz gaixozainak esaten eutsanean, umore onez: "Zu zeruan goigoian egongo zara", Aita Joan Bizenteren erantzun apala: "Ez eida-zu holakorik esan, bestela ez zaitut maiteko eta".

- Nozean behinka, irteera batzuk ere egiten zituen hara eta hona, beti nagusien baimenakin. Berrizko bere etxaldera hainbat osteraldi egin zituen. Hara heldutakoan eta bere gurasoen argazkia begien aurrean ikusi, beti negarrari emoten eutsan.

"Hain onak ziran nire aita-amak! Eurei esker naz gaur karmeldar. Eurek irakatsita dakit errezatzen eta Jaungoikoa maitatzen".

- Berrizera hurreratzen zan bakoitzean, herriko parrokiara sarturten bat egin bagarik ez eban itziko. Aldarako Jaunaren aurrean otoitzalditxo bat egin ondoren, bera bateatua izan zan pontera zuzentzen zan. Mosu hunkigarri bat emon ponteari eta bihozberaturik esaten eban: "Hementxe egin ninduen ni kristau".

- Beste behin, Xabier-era joan ziran, berak hain maite eban Indiako misiolari santuaren jaiotetxera. Xabier santuaren etxeak aparteko oihartzuna, eragina, eukan Aita Joan Bizenterengan.

Hantxe jaio zan beraren aurretik Malabarko lurraldeak zapaldu zituan misiolari santu maitagarria. Zer esan ete eutsan Aita Joan Bizentek Xabier deunari bere bihotzeko ixil-hizketan.

Gero, Burgos-en alkar ezagututako Aita Escalada adiskide zaharrarekin aurkitu zan. Aita Escalada, Lagundiko praile ospetsua, ikusmena galduta egoan. Aita Joan Bizente han egoala jakitean, beragana joan eta alkarri besarkada luze-maitekor bat emon ondoren, banandu ziranean, hauxe esan eban: "Horri kandelak biztuko deusdaz nik santu egiten daben egunean!"

- Gaixozainaren esanean, Aita Joan Bizente pobreetan pobreena zan, lurreko ondasunen gurari txikienik ere ez eban agertzen. Holako loturetatik aske egoan. Ez eban ezertxo ere eskatzen. Aldean eukanarekin baliatzen zan. Hil zanean ez zan aurkitu ezertxo ere harenik; ezta erliki bat eukiteko beste ere.

- Esanak egitean gehiegia zan. Gaixoak jo ebanean, Aita Probintzialak aurrerantzean gaixozainaren esanetara egoteko esan eutsan gauza guztietan.

Dakigun lez, agindu honeek bere gogoaren arautegian sartzen ziran. Goikoen agindu bagarik guztiz galduta aurkitzen zan. Hortik, Aita Probintzialaren agindu jakituna.

Eta Aita Joan Bizente bertatik anaiaren esanera jarri zan osooan: "Zeu zara nire nagusia", esan eutsan gaixozainari.

Menpekotasun hau ikustean, gaixozainak autor egin eban danen aurrean: "Ez daukat gogoan inoiz ezetz bat esan deustanik; batxo baten ere ez dot uste. Orain gehiago esango neuke: ez nebala inoiz muker edo nagi ikusi obeditze-orduan. Bat-batekoa zan haren esanekotasuna".

- Gauza harrigarri asko egin zituan Aita Joan Bizentek, baina niretzat harrietariko bat, eredugarrietariko bat bere gaixozainari gorde eutsan menpetasun leial hau da.

Oraindik bere buru eta zentzunak argi ta garbi zituala, hainbeste urtetan, itsu-itsuan, holako zehaztasun itxian, gizon baten esanera egotea gauza guztietan ez da erraza, ez eta gutxiagorik ere; horraino santuak bakarrik heltzen dira.

Gizaki baten gogoa agirian, proban jarteko, ez dozu lur guztian su-katilu hoberik aurkituko. Proba hau igaro dauan gizakia, aldarako duina da.

- Hamarretik gora dira Aita Joan Bizenteren gaixozainagazko menpetasun eta otzantasun hau goi-goitik nabarmentzen daben autorlari eta lekukoak.

Honeen esanean, Redento anaia guztiz bihotz oneko gizona izan

arren, zerbitzurako egina, bakoitzak geure kakoa daroagun lez, harek ere bere huts-beteak izaten ei zituan une eta zori batzuetan. Aldakortxo, mandarintxo agertzen ekian, antza, noizbehinka.

Aita Joan Bizentek, ikusi dogun lez, gurpen antzeko bat eutsan menpetasunari. Jaungoikoaren nahia ikusten eban berak goikoen aginduetan.

Hortik, Jaungoikoaren agindua balitz lez hartzen eban bere gaixozainaren esana. Gaur eta hemen, Redento anaia eban bere nagusia. Beraz, honen esan eta gurariak, nahiz eta hutsenak izan, zintzo-zintzo bete behar ziran.

Hitzetik hitzera, eta zehatz-mehatz, kosta ahala kosta, txistik bagarik, atxaki bagarik bete behar ziran.

Eta horretarako ez da nahikoa beta onekoa izatea, santu baten indarra behar da gogo txokoan.

Gailur horretara igoteko ez da gauza edonor; bakartxoren batena da hori.

Mataza honen hariak ondo ezagutzen zituan Berrizko herrigizon batek azaltzen deuskuz zehazkiro arazo honen gorabeherak. Olabegoia eta Larrañaga-tar Jose da berau, Zengotitarren artean etxeko zanak.

Olabegoia jaunak dirauskun lez, Aita Joan Bizentek bere gaixozainari, bere nagusiarri lez, menpetasun osoa eutsan. Egiten ebanak edo-ta egin bagarik izten ebanak beti gaixozainaren bedeinkapena behar izaten eban.

Ez eban koilarakada bat gehiago ahora eroango gaixozainak nahiko da esaten baeutsan. Eta badakigu gaixozainak birritan, behintzat, horretara jokatu ebala: Berrizen eta Logroñon. Berrizen arroza esnearekin hartzen egoala eta Logroñon mojak gertautako legatz gozoa jaten egoala. Ezetza entzun eta bestekorik bage koilarea itzi, irribarre gozo bat bialduz gaixozainari.

Meza ere ez berari ondo etorkionean, gaixozainak esaten ebanean baizik, ez minutu bat lehenago ez minutu bat beranduago; ez gosaltzera, ez ibiltera, ez ezer gaixozainaren baietzik bage.

Norbaitek esan eban menpetasun itsu, gehiegi hau nahiko zala gizon bat aldaran jarteko.

Aita Joan Bizentek pozik jarraitu eutsan bide horri, Jaunaren nahia betetzen ebala baekian eta.

- Iruñea, 1938. Espainiarrak oraindik euren arteko gerra itsuan jarraitzen eben.

Aita Ezekiel, hemen hainbestetan aipatutakoa, Frantziako erbestetik Iruñeko komentura heldu zan. Guztiz zaharturik dator, ibili ezinean, oinak narraska...

Jatordua da; euren mahaietan jarrita dagoz praileak. Halako baten, Aita Ezekiel sartzen da jatokira, atezainaren laguntzaz; ha ikustean danak zutitzen dira. Aita Joan Bizente ere han dago...

Aita Ezekial zala entzutean, zutitzen da eta ahal dauan moduan Aita Ezekieli biderdira irteten deutso. Pozaren pozez, biak luzaroan besarkatzen dira eta Aita Joan Bizentek negarrari eutsi ezinik, garra-sika "Gora Aita Ezekiel" esanez, deadar sendo bat jaurtitzen dau. Praile talde guztiak goraka ta txaloka hartu eben Aita Ezekiel.

Berezko omenalditxo hau izan zan Aita Ezekielek hartu ebana; azkenekoa hain zuzen ere, urte hatan bertan, Korellan hil baitzan, ixil eta bazterturik.

- Sagrario aurrean egotea zan haren poz guztia. Beti horren egarritan egoan. Beti Jaunagandik ur egoteko irrikitan.

Holakoetan, apal-apalik, gaixozainari eskatzen eutsan: "Eroan nagizu, mesedez, sagrario aurrera". -Eta gaxozainak: "korura eroango zaitut. Korutik ere bardin ikusten da sagrarioa".

- "Bai, baina, presbiterioan Jaunagandik hurrago nago".

- Inoiz gaixozaina, olgetan-benetan, inpernuaz berbetan hasten jakon.

Eta Aita Joan Bizentek bizi-bizi, birao bat entzun baleu lez: "Berba hori hemen txantxetan ere ez aipatu! Jaungoikoagandik betiko bananduta bizi! Holakorik bururatu ere ez. Ez esan barriro berba hori nire aurrean".

- Praile apal, zintzo, garbi, menpeko, Jaungoikotarra danak, lagun hurkoa ere bere bihotz-txokoan lehenengo tokian eroan behar-ko dau goimaitasunaren indarrez.

Aita Joan Bizenteren lagun hurkoaganako txukuntasuna hobe ezina zan. Hemen ere beraren gaixozainaren autorra daukagu: "Akordio batera heldu ginan biok: ez genduala, geure artean, inoiz inogaitik txarrik esango; hitz batxo bat bera ere ez; eta ituna apurtzen dauanari, zigorra ezarriko jako".

- "Eta hitzez hitz bete eban akordio hau. Baten ere ez eban hemen hutsik egin. Aita Joan Bizentek gizaki bakoitzagan Espiritu Santuaren bizilekua ikusten eban. Honen arabera, gizakia eta Espiritu Santua bat bera ziran harentzat. Hortik, gizakiaren kontra egindako edozer, Espiritu Santuari eginga lez hartzen eban".

- Aitarik onenak lez maite ninduan ni; baina, maitasun hori goitikoia zan lez, praile ona izaten jarri behar nintuala neure ahalegin guztiak esaten eustan.

- Eguneroko lanari garrantzi handia emoten eutsan. Santutasunera heltzeko bide zabal bat ikusten eban langintzan; gizakiaren aldeko zerbitzu bat zala esaten eban. Lana otoitza zan harentzat. Hortik, otoitza balitz lez, egin behar dogu lana, Jaunari eta gizakiari eskeiniatz, Aita Joan Bizenteren irakatsietan.

- Donostiako kaleetan zehar ibilaldi bat edo beste egiten eben noizik behin. Bere baitan sarturik joaten zan Aita Joan Bizente. Begiak behera begira, oinak narraska, gaixozainaren besotik txiritxiri.

Askok ezagutzen eben Donostian Aita Joan Bizente. Haretara ezindurik eta bere arpegian santutasunaren dizdizak ikustean, ikusle guztiak harriturik berari begira geratzen ziran.

- Behin Logroñora joan beharra izan eben. Mirandan, trenez aldatzea suertatu jaken.

Redento anaia urduri eta larri joian. Errepublikako denborak ziran eta trenbideetako langileriak ez eukan entzute onik; gogor samar borrokatzen ziran erlijioaren kaltez, batez ere, Mirandako geltokiko langileak. Honen bildurrez joian gure Redento. Ezbeharren bat izango ete eben bildurrez.

Trena gelditu zanean, atea zabaldu, Aita Joan Bizente bere beso sendoetan hartu aupaz eta trenetik jatsi eban.

Hori ikustean, hara non agertzen diran bertan geltokiko langile bi, lanaren ugerrez baltzituta. Eta betiko adiskideak balira lez, Redento anaiari badirautse: "Aita, nora eroatea nahi dau praile gaixoa? -Logroñora, Logroñora goaz. -Ez estutu, itzi geuri, geuk eroango dogu Logroñora doan trenera".

Bien artean besoetan hartu eta, umetxo bat balitz lez, Logroñoeko trenera eroan eta hantxe polito-polito jesarrita ipini eben Aita Joan Bizente.

Ikusitakoa sinistu ezinik, Redento anaiak esan eutsen: "Onegiak zaree zuek. Zuek lakoxe asko balegoz munduan, salbauta legoke. Mila esker egin dozuengaitik".

- Gaixoaren zartakoa hartu eta gero, laugarren urterantza, gaixok hobekuntza polita egin eban. Meza emoteko eran ikusi eben nagusiak; ez, ostera, lanerako, osagileek zeharo debekatu eutsen eta.

Meza emotekotan, esku bakarrarekin emon beharko eban, hain zuzen ere, eskumakoarekin. Holakoetan baimen berezi bat eskatu behar izaten zan Erromara, meza hori emoteko. Baietzean etorri zan Erromara eginiko eskabidea.

Irailaren zortzian, Andra Mariaren Jaiotza ospatzen zan egunean, hasi zan meza hori emoten. Eta 1941eko zemendiaren hogetazortzizarre jarraitu eban emoten, hau da, urte bi luzetxo.

Nok esan ondo zelako gogoarekin emongo eban bere gaixoardiko meza barri hori, hainbeste denbora ezinean egon ondoren!

Bera ez zala zorion handi horren duin, esaten eban apaltasun guztiz. Ez ekian eskerrak zelan emon Aita Probintzialari mesede hori egin eutsalako.

Aita Joan Bizentek meza emotean ipinten eban barrukotasuna, debozioa, ikustean, entzuleei santu baten meza entzuten egozala iruditzen jaken.

Bere ezintasunean, mezako zeremonia guztiak ahalik eta ondoen egiten saiatzen zan. Eta meza ostean, zurrago egotearren, ia gauzak ondo egin zituan itanduten eutsan meza-laguntzaileari; goizeko meza honen berora igaroten eban gero egun guztia.

- Gaixoaldian bera ikustera joaten ziran guztientzat aparteko txukuntasuna, gozotasuna, esker ona, laztantasuna agertzen ekian.

Bere adiskide min eta kutun bat hurreratzen jakonean, batez ere misiolarien bat edo beste, negarrari eutsi ezinik egoten zan. Bihotz handiegia eukan emozio gogorrek jasoteko. Haren bihotzaren ederra iragarten dau samurtasun honek; norainokoa zan haren maitekortasuna.

- Konortea galdu baino lehen esan eutsan Redento anaiari: "Redento, zenbat aldiz egin deustazu ohea? Zeru handi bat irabazita daukazu. Zer egingo neban nik zure laguntzarik bage".

Oso maite eben alkar.

- Gorputzaren garbiketa eta apainketak egitean, bere gaixozainari esaten eutsan: "Redento, aingeruak begira daukaguz". Gorputzari zor jakon lotsea zaintzen ekian.

- Zer ete da Jaungoikoa ikustea! Unetxo baten ikustearren bakarrik heriotzarik mingarrienak hartuko neukez".

- Berari eginiko goralpenik txikienik ere ez eban inoiz onartzen. Apaltasun zorrotza eban bere bizitza-arautzat.

- Bariku Santuz, egunaren santutasunari erantzunez, karmeldarren artean, egun horretan, barau osoa egiten da, hau da, ogia eta ura bakarrik hartzen dira.

Ostiral Santu horretan, Aita Joan Bizentek, gogoz eta bihotzez, gurutzapean emoten eban eguna, Jesusi laguntzen bere neke-orduetan.

Egun horretan mesede handi bat eskatu eutsan gaixozainari: Ordenako baraua egitea nahi ebala eta horretarako baimena eskatzen eutsala.

- Ez, horixe! Zu gaixorik zagoz eta ekarten deusuen jango dozu.

Triste samar gelditu zan Aita Joan Bizente. Baina, gaixozain maltzurak, gerora, arazoa beste era batera ikusi eban eta bere baitan Aita Joan Bizenteri ostiral santuz pozaldi txikitxo bat emotea erabagi eban.

Pitxer handi bete ur eta otzara baten ogi zati bat eroan eutsazan aurrera. Ogia jan ebanean, itandu eban: Badago besterik?

- Ez, ez dago gehiago, erantzun eutsan gaixozainak. Eta biak barreka hasi ziran gaixozainak sartu eutsan ziriagaitik.

- Hil baino bi hilabete aurretik, Indiara joateko amesak egiten hasi zan.

Anjel Maria, Verapoly-ko gotzaina izandakoa eta, gaur, Burgosen erretiratuta dagoanak, karta bat egin eutsan Aita Joan Bizenteri, poz apurtxo bat emotearren beroni, erdi txantxetan, 80 urtekin barriro Indiara joan behar ebela esanez. "Hirurok joango gara: Redento, zu eta ni. Redentok zainduko gaitu gu zahar biok. Uste dot Redentok ez dauala eragozpenik jarriko".

Aita Joan Bizentek benetan hartu eban gotzainaren broma hau eta badirautso Redento anaiari: "Redento, hara zer dinoan hemen Anjel Maria gotzain jaunak: Hirurok Indiara goazela... Nik jesarrita autortu eta bateatuko dot jendea eta zuk gu biok zainduko gozuz.

80 urtekin, India bere maiteñoarekin amesetan!

HERIOTZA

Zorionekoak Jaunagan hiltzen diranak.

Esan dogu, Aita Joan Bizentek, 1941eko zemendiaren 28an, emon ebala bere azkeneko meza.

Egun horretan, beste askotan lez, *La Obra Máximako* salara eroan eben. Haxe zan bere txoko maitea; hantxe zituan bere atsegin eta pozak; han eukan bere bihotz erdia, bere bizitzako lana. Han egozan bizi-bizirik eta pil-pilean bere oroitzapenik gozoenak. Haxe eban bere egonleku hautatua.

Egun horretako laurak inguruan, lurrera jausi eta ipurtxuntxurra apurtu eban.

Zurriaran osagile ospetsuak, hazurretako gaixoetan adituak, erradiografia bat egin eutsan ohean bertan eta hazurra brintzatuta egoala ikusi eban.

Osagile jaunak agindutakoaren arabera, ohean bertan egin eutsozan osaketak.

Martirio luze eta izugarria ekarri eutsan hazur-apurtze horrek. Baina osaketa oso mingarriak izan arren, Aita Joan Bizentek, leku-koen esanean, ez eban ahorik zabaldu aiene bat bera esateko.

Sufritzea bere gogoko ogi eginik eukan, Jaungoikoaren borondatea horixe zala sinistuta egoan eta, Jesusen ondoan, gurutzean pozik aurkitzen zan, nahiz eta martirio gogorra izan. Askotan negarrari emoten ei eutsan prestatzen jakozan zerbitzuakaitik.

Egunero gure Jauna hartzen eban. Jaunartze horrek, zati baterako, gogo-aldaturik izten eban. Mundutik aske, bere gogo barneko baratzean jarten zan Jesusekin solasaldi gozoan; maitasun-trukean.

Bere neke, min eta oinazeak ez zituan inoiz ahora ekarten. Zeruko bake eroapentsu baten murgilduta egoala nabaritzen zan hari begitatzean. Bere oinazeen gainetik zeruko pozean bizi zala esan eikean.

Abenduaren 16an, goiz-goizetik, buruko bigarren erasoaldi bat izan eban. Honen eraginera, beherakada handia egin eban.

Ez eban, orraitio, konorterik galdu. Eta egoera larri haretan, “eliazakoak” hartu zituan barrero ere. Fede eta gurari handiz hartu ere.

Begiak negarrez bustita, berbaz hasi zan entzuteko eran une haretako zoriona gorde ezinik: “Nok dino mundu honetan ez dagoa la zorionik? Hau zoriona ez bada, zer da orduan zoriona!”

Egunen joanean, hurbilduaz jatorkon bere pazko-oparia eskeintzeko ordua.

Azkeneko gaixo-erasoaldia, 1943ko otsailaren hemeretitik hogeira bitarteko gauean izan eban. Gau horretan, gaixozainak oheratu ebanean, honako hau esan eutsan: “Redento maitea, zer egingo neban nik zure laguntzarik bage! Zeru handi bat erabazita daukazu”.

Hurrengo goizean, ohetik jagitera joan zanean, oraindik lo sakonean egoala uste eban gaixozainak, horren antza eukan eta; baina gero konturatu zan buruko erasoaldi barri batek jota egoala.

Gaixoen “oliadura” emon eutsoen, ez holan gure Jaunik, ez zan horretarako gauza eta. Erasaldiak berba bagarik itzi eban. Hantxe ixildu zan betiko haren mihina. Besoak bular gainean eta begiak itxita egoten zan gehien partean. Konorte bagarik egoala emoten eban antza.

Dana dala, otsailaren 21ean, igandez, gauza harrigarri bat jazo zan haren oheburuan. Goitiko seinale bat ikusi eben han egozanak. Bat baino gehiago ziran ikusleak.

Halako baten, Aita Joan Bizente ohe gainean zerbait zuzendurik jarri zan. Bere eskuak bular gainean alkar baturik, arpegian argitasun bizi-bizi baten dizdiza, begiak aurreko hormako puntu baten adi-adi josita, norbaitekin hizketan balebil lez. Behintzat bere ezpanak hitz egitean lez mugitzen zituan. Horrelantxe egon zan aldi luzetxo baten.

Han egozanak, ikuskizun honekin harrিতuta, beste praileei deika joan ziran han jazoten zana ikusten etorteko esanez.

Hainbat prailek ikusi eben ikuskizun harrigarri hau. Zer izan zan? Zer izan eitekean?

-Jaungoikoak bakarrik daki, baina jazo zala bai, begi askok ikusi eben eta. Egun berean birritan izan eban ikuskizun berbera.

Ikuskizun honen ostean, lehengo ahulezian jausi zan. Horrelantxe jarraitu eban bere heriotz ordurarte.

Haren hilzoria zortzi bat egunekoa izan zan.

Honelantxe egoala, heldu jakon heriotza. 1943ko Otsailaren 27an, larunbatez, hil zan, bake-baketan, goizeko hamaikak eta hamar ziranean. 80 urte, sei hilabete eta zortzi egun zituan hil zanean.

Geldi-geldirik hil zan; lotan balego lez. Ez gorputz-dardararik, ez min-ikararik, ez izerdi baltzik, ez negarrik... Zeruko zoriona gozatzen dagoanaren antzera.



Joan Bizente hilda

Bere esku hiletan, berak bihotz guztiz maitatu eta adore guztiz zerbitu eban Jesus maitearen gurutze santua; arimen bila neke-neke eginik ibili ziran oinak ortozik; hainbeste berba gozo, eder, jakitun, maitekor eta samur esan zituen ezpanak ixil; arrano begi zorrotz harek ilunik, itxirik, baina bere gogoia zeruko Aitaren ondoan, betiko zoriontasunean.

Gaurko egunez, Aita Joan Bizenteren gorpuzkinak, Donostian, Amarako Aita Karmeldarren elizan dagoz hilobiraturik. Han aurkituko dituzu, inoiz handik bazoaz.

Bere azken urteetan, gaixoak baztertuta eta etxezulo eginik euki eban arren, jende askok ezagutzen eban Aita Joan Bizente, bai Donostian eta bai Donostiatik kanpo. Askorena zan Aita Joan Bizente.

Hortik, haren heriotzaren barri jakin zanean, herriak lehendik haren buruan jarritako santutasun-koroia, oraindik argiago eta distiratsiago egin zan jendartean.



Donostiako Karmeldarren elizan, Joan Bizenten hilobia

Euri zaparrada handi baten antzera hasi ziran kartak jausten *La Obra Máximara*. Bide guztietatik etozan karta honeek, harengandik lortutako mesede eta laguntza goitikoak aipatuz eta izendatuz.

Lehenbailehen, Santu eginik ikusi nahi eban jendeak. Eta horretarako beharrezko ziran eskabide, urrats eta pausuak bideratzeko eske egoan. Deadar hori oihu bihurtu zan jendartean, bai Indian, bai Ameriketean eta bai hemen.

Eta, gaur, dei horri erantzunez, Karmengo Ordena buru ta belarri sartuta dabil zeregin horretan. Ardura eta gurari honen arabera, eromanda dagoz Erromako Kuriara beharrezko diran agiri eta gainetiko dokumentu guztiak. Ez dago eskutik itzita arazoa.

Itxaropenezko barriak datoz Erroma aldetik; argiak bizturik dagoz; bideak zabalik.

Jauna lagun, laster ikusi nahi genduke gure Aita Joan Bizente maitagarria aldaretan jarrita, bere koroia ederrarekin. Betor zorionez egun zoragarri hori. Argitu bedi egun handi hori!

AUTORMENAK

Aita Joan Bizenteren heriotzaren barri, eguzki antzera, alde guztietara, behingo baten, zabaldu zan. Eta heriotzarekin batera, haren santutasunaren gorralpena eta autorra.

Bera egon eta ibilitako toki guztietan eta ezagutu eben guztien eritxiz, Aita Joan Bizente santu lez izendatua izan da beti. Oihu burrundatsu baten antzera zabaldu zan mundu guztira haren santutasunaren ospe eta siniskera hori.

Indian, berarekin misiolaritzan ibilitako misiolari guzti-guztiak, aho batez, haren santutasunaren aldeko autormena egiten dabe; gorralpen eta oneritxirik aintzagarrienak agertzen dabez haren misiolari lagunak.



Donostiako Elizbarrutian Joan Bizente santu izendatzeko eginiko prozesuaren amaiera

Berrogeitik gora dira misiolari honeek. Batxo bat bera ere ez da agertu Aita Joan Bizenteren santutasunari eragozpen edo atxakirik txikienik jarri deusarik. Beste hainbeste esan geinke hemengo jendeagaitik ere. Ezagutu eben guztiak autor bardina dagie: Santua zala!

Herriak berak, haren bizitza eta egintza eredugarriak ezagutzean, santuen koroe hori buruan jarri deutso.

Honen adibidez, mila izen eta izkribu aipatu geinkez hemen, baina aspergarri ez izatearren, handik eta hemendik, zorian, aukeratuak irizpide batzuk ezaugarritzat jarriko ditugu jarraian.

P. C. Varkey, Kazetari indiarra.

Entzun deiogun, lehenengo ta behin, Varkey jaunari.

Harreman luzeak izan nintuan Aita Joan Bizenterekin. Haren esanetara egon nintzan lanean, zortzi urteren buruan, Ernakulam-go Irarkolan edo inprentan.

Haren bitartez, mirari batzuk egin dirala entzun dot; geroztik, egunero, gomendatzen naiako, eta zoriontsu nintzake bera aldaretan ikusteaz.

Nire ustetan, abade santu bat izan da. Hemengo jendearen one-ritxian egon da beti. Santu baten begiramena izan dau.

Varkey, Kazetaria

Rattical, Apaiz indiarra, Aita Joan Bizenterekin parroki lanetan luzaroan ibilitakoa, honela mintzatzen da: "Malabarko jendearentzat, mundu guztiarentzat bezelaxe, on handia litzake Aita Joan Bizente santu izendatzea, batez ere gaur, Malabar komunismoaren erpapean jausteko zorian aurkitzen danean.

Hemengo jendeak santutzat dauko; egunero otoitz dagoitse".

Rattical. India

Aita Joan Bizente gogoan daroat. Aburumenik onena daukat haretzaz.

Benetako gizona, erlijioso osoa; onoimenez jantzia; goialdi ezin ederragoa; bere ames eta gurariak zeru urdinean goian jarten ekiana; bihotz garbi, eder, samur eta ongilez apaindutakoa.

Aita Joan Bizenteren irudi eder hori daroat neure begiko ispi-luan.

Lehenengoz seminarioan ezagutu neban Indiatik etorri barri zala. Hitz berok eta bizitasun guztiaz azaldu euskuzan misiolarien penak, dirurik ezagaitik, laguntza bageziagaitik, misiolariak ezbehar hutsean, ezer egin ezinik aurkitzen zirela India aldean. Ebanjelizatzeke modurik bage.

Egoera honen larrira hartu ebala India izteko erabagia. Zer egi-ten dogu hemen ezertarako ahalmenik bage? Banoa Espainiara. Han bide eta ate guztiak joko dodaz Indiako misiolari eta misioentzat diru-laguntza eskatuz eta bilatuz".

Asmo honekin sortu neban *La Obra Máxima*, lehenengotatik emaitza ezin hobeak emon dituan aldizkari misiolaria.

Baina, ondo dakit lan izugarri hori Aita Joan Bizentek eroan ebala. Bera lakoxe gizon bat behar zan mugimendu guzti hori aurrera ateratzeko. Bera bagarik ez zan posible izango.

Neure aburumenean gorengo mailan daukat Aita Joan Bizente apostolu eta misiolari lez. Santu baten onomen guztiak ikusten ditut Aita Joan Bizenterengan.

*Emeterio Etxebarria agurgarria,
Ciudad Real-go Gotzaina*

Anaia Redento, zu gizon santu bat zaintzen zagoz; arren, zaindu egidazu ondo.

Gomà, Kardinala

Egiaz esan geinke Aita Joan Bizente izan zala gure artean misiolaritzari hasiera emon eutsana. Bera Mariaren Misio-Koruak asmau eta sortu zituan buru argia, batez ere, *La Obra Máxima* misio-aldizkari bikaina munduratu ebana.

Bera izan da 20 urte honeetan, misiolaritzarenugarra gure artean bizirik zaindu dauana.

El Catolicismo Aldizkaria

Aita Joan Bizente ezagutu neban; nire begietan santua zan, kontutan izanik haren fede-bizitza betea eta misioen alde eginiko lan bardinik bagea. Kristau bizitzan goi-mailan dagoan gizona da, zalan-tzarik bage.

Bere hitzaldi eta ekinaldi pozgarri etaugarrez beterikoak bidez ziralá, Berrizko Merzedeko lekaimen artean misio zaletasun bizi, geldiezinezko bat sortu eta errotu eban.

Batez ere, Margarita Maturana Amari zirrara gogorra eragin eutsan Aita Joan Bizenteren misio-garrak. Zirrara honen bultzadara, lehen klausurako komentua zana, gaur misiolarien kabia bihurtuta dago.

Pozik ikusiko neuke Aita Joan Bizente aldaretan, eta sinistu egizue Anjel Sagarmínaga haren maitale eta zaletuen artean egongo litzatekela.

*Anjel Sagarmínaga Agurgarria,
Misio-Egintzaren zuzendari nazionala*

Urtea bete da *La Obra Máxima*ren fundatzaile maitea hil zanetik.

Aita Joan Bizente hil zala jakin zanean, haren maitale eta miresleak beraren erlikia edo-ta berak erabilitako gauzaren bat euki nahian eske eta eske, arrenka, geunkazan. Askok arpegiz arpegi ezagutu eban bera; euren begiz ikusi zituen harek eginiko harrigarriak; beste askok haren karta eta idatziak irakurtean, haren santutasunaren altxo-

rra aurkitu eban; haren arimaren sakona eta edertasuna ezagutu; haren misiolaritzarenugarretan euren misio-zuzia iziotu.

Unetxo baten ere ez eban haren santutasunaren kezkarik izan. Zehatz sinistuta egozan Aita Joan Bizente santua zala. Santu bati lez otoitz egin eta santu bati lez mesede eta grazia zerutarrak eskatzen eutsoezan.

Baten baino gehiagotan heltzen dira *La Obra Máxima* kartak mezu honekin: "Joan Bizente izenarekin umetxo indiar bat bateatze-ho. Joan Bizenteren izena jartea nahi genduke misiolari santuaren omenez. Beraren bitartez eskatzen dogun guztia lortzen dogu. Noizko aldaretan? Betor lehenbailehen Jaunaren eskua misiolari santuaren burua misiolari izan diranen koroe ederrez apaintzera.

Hil zanetik geroz, *La Obra Máxima*ren, eten bage, zerrenda luzeak agertzen dira Aita Joan Bizenterengandik lortutako esker eta mesedeekin. Honek esan nahi dau Aita Joan Bizente jendeak santutzat jotzen dauala.

*La Obra Máxima,
haren heriotzaren urteurrenean*

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Berriz.....	11
Zengotitako baserria	17
Larreako nobiziadua	31
Markinatik Burgosera	43
Markinan, teologo.....	49
Markinatik Valentziara	55
Burgos-ko priore.....	59
Barrero ere Markinara	65
Basamortuan	73
Indiara begira	77
Goan, Xabier-en hilobian	85
Misioko diruen arduradun	97
Komentu barria	99
Kottayam-en	105
Umezurtzekin	113
Misiolariaren pozak eta nekeak	119
Hirugarren ordenako anaidia	125
Alwaye-n parroko	129
Verapoly-n.....	133
Misiolaritzako hamargarren urtea.....	141
Ulermenik eza.....	151
Ardi galduaren bila	161
Aberrira bidean	167
Irungo mugan	173
Mariaren maitale taldeak -koruak-	181
Aita Probintzialaren ordezkoko Indiara	183
Etixerantza	187
<i>La Obra Máxima</i> -ren jaiotza	193
<i>La Obra Máxima</i> . 2. zatia.....	213

Bere nortasuna	235
Bere santurik gogokoenak	247
Bere abadetza	263
Abadetzako 50 urte	269
Barriri Indiarekin amesetan	275
Santutasunean gora	279
Gaixoardian	293
Gaixoardiko lore-sortak	303
Heriotza	313
Autormenak	319